

# LAUDIOKO BERBAK

## Palabras de Llodio

Félix Mugurutza Montalbán





**LAUDIOKO  
BERBAK**

*Palabras de Llodio*







# LAUDIOKO BERBAK

*Palabras de Llodio*

---

Félix Mugurutzza Montalbán



**LAUDIO  
UDALA**  
AYUNTAMIENTO  
DE LLODIO

❁ **LIBURUAREN IZENBURUA** ♦ TÍTULO DEL LIBRO  
*Laudioko berbak / Palabras de Llodio*

❁ **BILDUMAREN IZENA** ♦ NOMBRE DE LA COLECCIÓN  
*Laudioko herri-ondarea*

❁ **ARGITARATZAILEA** ♦ EDITA  
Laudio Udala / Ayuntamiento de Llodio  
Herriko Plaza, z/g • 01400 LAUDIO (Araba)  
www.laudio.eus

❁ **EGILEA** ♦ AUTOR  
Félix Mugurutza Montalbán

❁ **AZALEKO ARGAZKIA** ♦ FOTO DE PORTADA  
Julian Mendiguren eta Pilar Solaun audioarrak, Dominga euren alabarekin.  
1915. urtea ggb. Egile ezezaguna

❁ **DISEINUA**  
Dunba Argitalpen Lanak, S.L.

❁ **MOLDIZTEGIA** ♦ IMPRENTA  
Grafilur, S. A.

ISBN: 978-84-09-25933-5

Lege Gordailua / Depósito Legal: G 00743-2020

© LAUDIO UDALA / Ayuntamiento de Llodio

© Félix Mugurutza Montalbán

*Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Kode Penaleko 270 eta hurrengo artikulua). Aitzik, baimenduta dago testuen erabilera askea baldin eta aipozten baldin bada jatorria. Bestalde, liburu honen doako bertsio digitala egongo da udalaren webean.*

*Queda prohibida, salvo las excepciones establecidas por la ley, cualquier reelaboración, comunicación pública o adaptación de esta obra sin la previa autorización de los titulares de la propiedad intelectual. La vulneración de estos derechos puede considerarse delito contra la propiedad intelectual (artículos 270 y siguientes del Código Penal).*

*Por el contrario, se autoriza el uso puntual de fragmentos del libro o referencias concretas siempre que se indique la fuente de origen. Asimismo, existirá una versión digital gratuita de este libro, disponible en la web municipal.*

*Celes eta Encarna nire gurasoei,  
eurei zor diedalako lan honen gehiena.*

*A mi padre y madre, Celes y Encarna,  
porque a ellos debo la mayor parte de este trabajo.*

AGURRA ..... 12  
SALUDO ..... 13

HITZAURREA .... 14  
PRÓLOGO ..... 16

BERBAK ..... 19  
PALABRAS ..... 19

### A

Albarka ..... 19  
Agur ..... 20  
Aida ..... 21  
Aita ..... 22  
Aitite ..... 24  
Aizkolari ..... 24  
Akullu ..... 26  
Alda ..... 27  
*Ikusi / Ver Altzo*  
Altzo ..... 27  
Altxa ..... 28  
Ama ..... 29  
Amama ..... 30  
Amarrako ..... 31  
*Ikusi / Ver Hamarreko*  
Amilotxa ..... 31  
Anda ..... 32  
Aranza ..... 35  
Arbigera ..... 36  
Ardura ..... 38  
Arkasta ..... 39  
Arlote ..... 40  
Arrana ..... 42  
Arraño ..... 43  
Arrecho/a ..... 45  
Arrekutxus ..... 46

Arrumaco ..... 47  
Artaburu ..... 47  
Aska ..... 49  
Aspaldiko ..... 50  
Astako ..... 51  
Asten ..... 52  
Astotxu ..... 53  
*Ikus / Ver Astako*  
Auresku ..... 53  
Azipgarri ..... 55

### B

Baldera ..... 56  
*Ikus / Ver Arkasta*  
Bargasta ..... 56  
Barregarri ..... 57  
Basaurda ..... 58  
Baskotxar ..... 60  
Batan ..... 61  
Begitxindor ..... 62  
Berakatzegun ..... 63  
Betagarri ..... 66  
Bihotzerre ..... 67  
Biriki ..... 67  
Birrotxa/o ..... 68  
Birrisgada ..... 69  
Bitarte ..... 70  
Boina ..... 70  
*Ikus / Ver Txapela*  
Bolaleku ..... 70  
*Ikus / Ver Bolatoki*  
Bolatoki ..... 70  
Borona ..... 71  
*Ikus / Ver Artaburu*  
Butarga ..... 71  
Bustina ..... 72

### C

Cascarria ..... 73  
Corada ..... 74  
*Ikus / Ver Biriki*

### D

Derroñar ..... 74  
Desconortar ..... 75  
Dindirri ..... 76

### E

Enánago ..... 77  
*Ikus / Ver Zirau*  
Ene ..... 77  
Epetxa ..... 78  
Frakestu ..... 80

### G

Galga ..... 80  
Gallur ..... 82  
Gangarra ..... 82  
Ganorabako ..... 84  
Gara ..... 85  
Garar ..... 85  
*Ikus / Ver Gara*  
Garrazta ..... 86  
Garriko ..... 87  
Gaztanbera ..... 88  
Gibelurdin ..... 89  
Giharra ..... 90  
Gingilla ..... 91  
Goitibehera ..... 92  
Gorringo ..... 93  
Gurpilada ..... 94  
Guzur-Zaku ..... 95



## H

Halda .....	95
<i>Ikus / Ver Altzo</i>	
Hamaiketako .....	96
Hamarreko .....	96
Hamarretako .....	97
Hanka .....	98
Hondakin .....	99
Horcacha .....	99
<i>Ikus / Ver Kako</i>	
Hordago .....	99
Huesque .....	100
<i>Ikus / Ver Ospa</i>	

## I

Intxaur-saltsa ....	100
Iñarra .....	101

## J

Jaiko .....	102
-------------	-----

## K

Kaiku .....	104
<i>Ikus / Ver Txamarra</i>	
Kakanarro .....	104
Kako .....	105
Kankallo .....	106
Kankarro .....	107
Kaparra .....	108
Kapirutxu .....	109
Karramarro .....	110
Kartola .....	111
Kartolada .....	113
<i>Ikus / Ver Kartola</i>	
Kaskallu .....	113

Kastañiza .....	114
Kili-kili .....	115
Kili-Kolo .....	116
Kima .....	117
<i>Ikus / Ver Quiima</i>	
Kiñar .....	117
<i>Ikus / Ver Quiñar</i>	
Kiskete .....	117
Kizkallu .....	118
Koipe .....	118
Koipetsu .....	119
Kokolo .....	119
Kolko .....	120
Kortina .....	121
Koskol .....	123
Koskollo .....	124
Koskorra .....	125
Kuku .....	126

## L

Laia .....	129
Laratzu .....	130
Larri .....	131
Lata .....	132
Latón .....	134
<i>Ikus / Ver Lata</i>	
Latxa .....	134
Laztana .....	134
Legaña .....	135
<i>Ikus / Ver Pista</i>	
Lolo .....	135
Lukainka .....	137
Lupetza .....	138
Lupo .....	139

## M

Makera .....	140
Maladar .....	142
<i>Ikus / Ver Hondakin</i>	
Mallugi .....	142
Malte .....	143
Mamarro .....	145
Mamau .....	145
Mami .....	147
Mancar .....	147
Marmear .....	148
Marmeón/a .....	149
<i>Ikus / Ver Marmear</i>	
Marmujear .....	149
<i>Ikus / Ver Marmear</i>	
Matxin .....	149
Maus .....	151
Meheko .....	152
Merro .....	154
Memelo .....	155
Millu .....	156
Minza .....	157
Mirrizki .....	159
Mokotza .....	160
Molintxin .....	161
Mollina .....	161
<i>Ikus / Ver Zirimiri</i>	
Morokil .....	162
Morrosko .....	163
Mozkorra .....	163
Mozollo .....	165
Mukurre .....	165
Muna .....	167
Murko .....	168
Musiero/a .....	169



Mustrukear .....	170
<i>Ikus / Ver Musturkear</i>	
Mustrukear .....	170
Mutiko .....	170
<i>Ikus / Ver Mutil</i>	
Mutil .....	170
Mutilzahar.....	171
<i>Ikus / Ver Mutil</i>	

## N

Narra .....	172
Nastado .....	173
<i>Ikus / Ver Nastar</i>	
Nastar .....	173
Neke .....	174
Neska .....	174
Neskazahar .....	175
Nogada .....	176
<i>Ikus / Ver Intxaur-saltsa</i>	

## O

Okotx .....	176
Orcacha .....	177
<i>Ikus / Ver Horcacha</i>	
Órdago .....	177
<i>Ikus / Ver Hordago</i>	
Orpo .....	177
Ospa .....	178
Otaka .....	179

## P

Pa .....	180
Paparra .....	181
Papau .....	181
Paspi .....	182
Patin .....	184

Patxaran .....	185
<i>Ikus / Ver Txarrikoron</i>	
Perneta .....	185
Pernile .....	186
Perretxiko .....	186
Pigaza .....	187
<i>Ikus / Ver Pikarlin</i>	

Pikarlin .....	188
Pil-pil .....	189
Pir-pir .....	189
<i>Ikus / Ver Pil-pil</i>	

Pirrilera .....	190
Pista .....	190
Pistojo .....	192
<i>Ikus / Ver Pista</i>	

Pitarra .....	192
Pitiki .....	193
Pitilin .....	195
<i>Ikus / Ver Txilina</i>	

Plisti-plasta .....	196
Porrusalda .....	196
Potolo .....	198
Potxolo .....	199
<i>Ikus / Ver Potolo</i>	

Putxa .....	199
Putxi .....	200
Putxiga .....	201

## Q

Quima .....	202
Quiñar .....	202

## S

Sagutxu .....	204
Saguzar .....	205
Saltamatxin .....	207

Sanso .....	208
Santiritu .....	210
Sapaburu .....	210
<i>Ikus / Ver Zapaburu</i>	
Sarda .....	211
Sarda-kako .....	212
<i>Ikus / Ver Sarda</i>	

Sarra .....	212
Sarrantxa .....	213
Sarteneko .....	213
Saskel .....	215
Saskeleria .....	216
<i>Ikus / Ver Saskel</i>	

Segulinda .....	216
Sekulebedar .....	218
Seruga .....	219
Sespal .....	220
<i>Ikus / Ver Zezpal</i>	

Sigulinda .....	220
<i>Ikus / Ver Segulinda</i>	
Sil .....	220
<i>Ikus / Ver Zil</i>	

Sinsorgada .....	220
<i>Ikus / Ver Sinsorgo</i>	
Sinsorgo .....	221
Sirau .....	222
<i>Ikus / Ver Zirau</i>	

Sirimiri .....	222
<i>Ikus / Ver Zirimiri</i>	
Sirri .....	222
<i>Ikus / Ver Zirri</i>	

Sorki .....	222
Sosolo .....	223
<i>Ikus / Ver Txotxolo</i>	
Suku .....	223
<i>Ikus / Ver Zuku</i>	

Suskiñar .....	223
Susunbako .....	224



## T

Talaburrin .....	225
Talo .....	227
Tontorra .....	230
Traku .....	231
Trauski .....	231
Trauskileria .....	232
<i>Ikus / Ver Trauski</i>	
Tripandi .....	232
Tripisurri .....	233
Txa .....	234
Txahala .....	234
Txakoli .....	235
Txakurre .....	238
Txalo .....	239
Txamarra .....	239
Txapela .....	241
Txapeldun .....	243
<i>Ikus / Ver Txapela</i>	
Txapilo .....	243
Txarba .....	243
Txarpila .....	244
<i>Ikus / Ver Sarda</i>	
Txarri .....	244
Txarriboda .....	245
Txarrikoron .....	246
Txarrikorron .....	247
<i>Ikus / Ver Txarrikoron</i>	
Txarri-korta .....	247
Txarrikuma .....	248
Txarri-pata .....	249
Txarriki-pata .....	250
Txatarra .....	251
Txilina .....	252
Txin .....	253
Txinbera .....	254
<i>Ikus / Ver Txinbo</i>	

Txinbo .....	254
Txipli-txapla .....	255
Txintxorta .....	255
Txiribuelta .....	256
Txirinbolo .....	257
Txirlo .....	257
Txirlora .....	258
Txirpia .....	259
Txirri .....	261
Txirrinplin .....	262
Txirta .....	263
Txistu .....	264
Txistulari .....	265
<i>Ikus / Ver Txistu</i>	
Txita .....	266
Txito .....	267
Txitxi .....	267
<i>Ikus / Ver Txitxiki</i>	
Txitxiburruntzi .....	267
Txitxiki .....	268
Txondorra .....	269
Txonta .....	271
Txontarreal .....	272
Txori .....	274
Txoriburu .....	274
Txoritoki .....	274
Txorroborro .....	275
Txosna .....	276
Txotxolada .....	277
<i>Ikus / Ver Txotxolo</i>	
Txotxolo .....	277

## U

Urkelear .....	278
Urretxa .....	279
Usiar .....	280

## Z

Zaborra .....	281
Zanbergas .....	282
Zapaburu .....	284
Zezipal .....	285
Zil .....	286
Zirau .....	286
Zirimiri .....	288
Zirri .....	289
Zortziko .....	290
Zuku .....	291
Zumelar .....	292
Zurito .....	293
Zurru .....	294
Zurrut .....	295

BIBLIOGRAFIA .....	298
--------------------	-----





# A G U R R A

---

Laudio herriak ondo baino hobeto daki denetariko paisaiak eta inguruneak uztartzen. Nekazaritza eta abeltzaintza protagonista dituen baserri giroa eta bizitza industrialak nahasten. Audioarrok aukera dugu minutu gutxian Bilbo Handian nahiz Gasteizen egoteko, baina, aldi berean, erraz baino errazagoa zaigu udalerriko erritmo eta zalapartatik deskonektatzea Nerbioi ibaiaren murmurioari esker. Hori guztia da Audio; kultura, kolore eta zaporeen nahasketa... usainak ahaztu barik.

Laudio orainaldia da, bai, baina, batez ere, etorkizuna izango da... eta geure iragan baliotsua ahaztu barik, hori ahalik eta ondoen babestuta eta zainduta. Eta ondo baino hobeto dakigu Udalean audioarron ondare- eta kultura-altxor esker ga horrek garrantzi ikaragarria duela: hor ditugu, besteak beste, Ermualde, Lamuza parkea, Burdin Hesia nahiz Lamuzako Done Petriren parrokiaren dugun burdinazko arkupe paregabea.

Horrexegatik guztiagatik, ekimen berezia abiaraztea erabaki du Audio Udalak: bertoko ondare kulturalari daukan balioa aitortzeko liburu sorta bat idatzi eta argitaratzea, alegia.

Bildumaren lehenengo zenbakian, iraganeko laioen artean iritsi zaizkigun hirurehun berbatik gora jaso dira, euskarazkoak gehienak. Horietako asko, gainera, oharkabean sartu zaizkigu egunerokotasunaren zirrikietan barrena, zergatik ere argi eduki barik.

Poztuko ninduke liburua irakurtzen duen audioar bakoitzak bere burua askatuko balu eta berba horien magian, jasotako istorioetan nahiz lekukotzetan goxo-goxo bilduko balitz... Ziur nago irakurle orok harriduraz ikusiko duela jasotako termino ugarietatik asko egunerokotasunean erabiltzen duela, baita geure berezko hizkuntza, euskara, ondo ezagutzen ez dutenek ere.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet maisulan honen egileei nahiz prestakuntzan parte hartu duten hamarnaka pertsonari. Haiei esker, bizirik iraungo du Audioren zati garrantzitsu honek. Eskerrik asko bihotzez!

Ander Añibarro Maestre  
Laudioko alkate-udalburua



# SALUDO

---

*Laudio/Llodio es un pueblo que sabe combinar a la perfección diversos paisajes y entornos. Mezclar la vida rural protagonizada por la agricultura y ganadería con la industrial. Poder estar cerca del Gran Bilbao o Gasteiz en unos minutos, pero desconectar de su bullicio y ritmo en nuestro municipio gracias al susurro del río Nervión. Laudio/Llodio es todo esto, una mezcla de culturas, colores, sabores e incluso olores.*

*Y lo más importante, Laudio/Llodio es presente y sobre todo será futuro, pero cuenta con un valioso pasado que hay que proteger y cuidar lo máximo posible. Desde el Ayuntamiento somos conscientes del inmenso tesoro patrimonial y cultural con el que contamos: Ermualde, el Parque Lamuza, el Cinturón de Hierro o el único e inigualable pórtico de hierro de la parroquia de San Pedro de Lamuza son solo algunos ejemplos.*

*Por todo esto, desde el Ayuntamiento de Laudio/Llodio se ha decidido poner en marcha una iniciativa consistente en la redacción y publicación de una serie de libros enfocados a dar a conocer y poner en valor nuestro patrimonio cultural local.*

*En el primer número de esta colección se recogen más de trescientos términos o palabras, la mayoría en euskera, que han llegado hasta nosotros. Muchas de ellas incluso se cuelean en nuestro día a día sin darnos cuenta y sin saber exactamente por qué.*

*Me gustaría que cada persona que lea este libro, vecino o vecina de Laudio/Llodio, se deje llevar y envolver por su magia, por las historias y testimonios que recoge y, sobre todo, se deje sorprender con la gran cantidad de términos que aparecen reflejados y que sin lugar a duda utiliza en su día a día. Incluso aquellas personas que no tienen grandes conocimientos de nuestra lengua propia, el euskera.*

*Asimismo, quiero mostrar mi agradecimiento a los artífices de esta obra maestra y a las decenas de personas que han colaborado para su elaboración. Gracias a ellas, una parte de la historia de Laudio/Llodio pervivirá para siempre. Eskerrik asko!*

Ander Añibarro Maestre  
Alcalde-presidente de Laudio/Llodio



# HITZAURREA

---

Liburu honen azalean duzu Laudioko aspaldiko argazki bat, 1915. urtearen ingurukoa. Nahikoa da begiratu bat egitea ohartzeko zenbat aldatu garen honen denbora gutxian. Eta atzo arruntak ziren irudiak bitxiak suertatzen zaizkigu gaur egun, egunen batean betiko galdu arte, euren galera madarikatu bitartean. Ikaragarriak izan dira azken hamarkadetan jasan ditugun ordezkapen kulturak, batez ere, fabrikak gure munduan sartu, eta mendeetan gure existentziaren funtsa izan zen ekonomia tradizionala, nekazaritzakoa eta abeltzaintzakoa, ordeztu zutenetik.

Hor kokatzen dugu, aldaketa nahasi horien barruan, bertoko hizkuntza naturalaren galera, gure euskararena, eta, horren orde, zabalkunde handiagoko beste bat gurean errotu izana: gaztelania, alegia. Berebiziko indarrez errotu ere, gurea zena eklipsatu eta desagerrarazteraino ere.

Garai haien lekukotasun gisa, udalerriko antzinako euskararen hitz batzuk iritsi zaizkigu, gaur egun, tokiko gaztelanian txertatuak. Esan bezala, fosil linguistikoak dira, eta ez itzultzeko joan ziren beste garai batzuez hitz egiten digute.

Horixe da, hain zuzen ere, obra txiki honen xedea: beren interes lexikoa gorabehera, gure udalerraren eta bertako jendearen kultura-ondare bakan eta besterenezin bihurtu diren hitz guztiak biltzea eta duten balioa aitortzea.

Agian hitzen bat jaso gabe geratu da. Baina amaiera eman behar izan zaio lanari, nahiz eta jakin horrelako ikerketak ez direla inoiz amaitzen. Etorkizunean oraingoa hobetuko duten lanak sortzea espero dugu.

Adineko jendeak normaltasunez erabiltzen dituen terminoak dira gehienak, baina ez hurrengo belaunaldiek, identifikatuta ere, gaztelaniazko hitz egokienekin ordezkatu baititugu edo, belaunaldi gazteenetan, erabat ezazagunak baitzaizkie.

Bestela esanda, urtez urte erabiltzaile kopuru murriztagoa izango dute lan honetan jasotako hirurehundik gorako berbek.

Hori guztia alde batera utzita, komeni da argitzea jasotako hitzak ez direla soilik euskaratik hartuak, izan ere, herri inguruneetan hala identifikatzen ez diren beste hitz batzuei sarrera eman zaie.



Malgutasun handiz jokatu da horri dagokionez, kontzeptu edo kanon akademizistetatik kontzienteki ihes egin den bezala, Laudioko herritarrengandik ahalik eta hurbilen egon dadin, azken batean, haiei zuzendutako obra delako hau.

Beste kasu batzuetan, gaur egun oso ohikoak diren hitzak ere sartu dira, egiatan tradizionalki erabili ez diren arren hamarkada batzuk arte, hau da; ondarearen ikuspegitik interesgarriak ez diren hitzak ere jaso dira.

Bestalde, irakurketan ikusiko den bezala, euskaraz ez dakitenei bereziki zuzendua dago obra, eta, horregatik, gaztelaniazko bertsioan hartzen du koherentziarik handiena testuak. Euskarazko bertsiorako, zati handiak berridatzi dira, beste sinonimo batzuetara, bira linguistikoetara eta abarretara joz, euskaraz irakurriko zuenarentzat logikarik izango ez zuketean esaldiak saihesten saiatzeko, euskaldunak tratatutako hitzaren esanahia lehen unetik ezagun izango duelako.

Era berean, komeni da azpimarratzea hiztegitxo hau landa-lan sakon eta luze baten emaitza dela, metodologiari erabateko lehentasuna eman baitzaio.

Zoritxarrez, gero eta gutxiago dira hitz horien erabiltzaileak, eta, horrexegatik egin da premiaz bilketa-lana, konpondu ezineko galera suertatu baino lehen. Izan ere, astia izango dugu etorkizunean alderdi linguistikoetan, historikoetan eta etnografikoetan sakontzeko edo orain bildutako materiala beste formatu eta forma batzuetan eskaintzeko.

Amaitzeko, ezin ditugu lerro hauek itxi hemen eskaintzen ditugun hitz horiek bizirik mantendu dituzten audioarrei esker ona adierazi gabe. Zalantza barik, eurena da meritua, gu bitartekari hutsak baino ez garelako izan.

Hori esanda, espero dugu obra xume hau onuragarri izatea kontsultatzen duenarentzat eta, batez ere, goza dezagun. Hitz horiek guztiak ispilua besterik ez dira; izan ginena, garena eta agian izango garena islatzeko ispilua, hain zuzen ere.



# PRÓLOGO

---

Basta con ver una imagen retrospectiva similar a la de la portada de esta obra (Laudio, c. 1915), para percatarnos de lo mucho que en poco tiempo hemos cambiado. Y estampas que eran habituales ayer pasan a ser extrañas hoy, hasta que un día dejamos para siempre de verlas y maldecimos su irremediable pérdida.

Los reemplazos culturales que hemos sufrido en las últimas décadas han sido vertiginosos, especialmente desde que irrumpió el mundo fabril y desbancó a la economía tradicional agrícola-ganadera que durante siglos había sido la esencia de nuestro existir.

Es ahí, dentro de esos convulsos cambios, donde enmarcamos la pérdida de la lengua natural del lugar, nuestro euskera, siendo sustituida por otra de mayor proyección como es el castellano. Con tal fuerza que, en cierto momento hace incluso eclipsar y desaparecer la primera.

Testimonio de aquellos tiempos, han llegado hasta nosotros varias de aquellas palabras del antiguo euskera del municipio, ahora incrustadas dentro del castellano local. Son, como decimos, fósiles lingüísticos que nos hablan de otros tiempos que se fueron para no volver.

Y este es precisamente el objeto de esta pequeña obra, el de recoger y poner en valor todos aquellos vocablos que, además de por su interés léxico, se han convertido por derecho propio en patrimonio cultural, único e intransferible, de nuestro municipio y sus gentes.

Quizá haya quedado algún término sin recoger. Pero ha habido que ponerle punto final, aun a sabiendas de que este tipo de investigaciones no finalizan nunca. Ojalá surjan en el futuro trabajos que mejoren el presente.

La mayoría son términos usados con normalidad por la gente de mayor edad, no así por las siguientes generaciones que, aunque identificándolas, las hemos sustituido en su uso por las palabras más apropiadas del castellano o, ya en las generaciones más jóvenes, las desconocen por completo.

Dicho de otro modo, casi la totalidad de los más de trescientos términos recogidos en este trabajo, contarán año tras año con un menor número de usuarios hasta que, en un futuro no lejano, desaparezca de entre nosotros su uso natural.



Al margen de todo ello conviene aclarar que no todas las palabras recogidas proceden estrictamente del euskera ya que se ha dado entrada a otras que, sin serlo, se identifican como tal en los entornos populares.

Ahí se ha actuado con gran flexibilidad, del mismo modo que se ha huido conscientemente de conceptos o cánones academicistas, buscando el mayor acercamiento a la gente del pueblo de Laudio, a quien va dirigida la obra.

En otros casos incluso se han incluido vocablos muy habituales hoy en día pero que no han sido de uso tradicional hasta hace unas décadas, es decir, que no son interesantes desde el punto de vista patrimonial.

Por otro lado, como se apreciará en su lectura, la obra está especialmente dirigida a quienes no saben euskera y por ello es en su versión en castellano en donde adquiere más coherencia el texto. Para su versión en euskera se han reescrito grandes fragmentos, recurriendo a otros sinónimos, giros lingüísticos, etc. para intentar evitar frases que de otra forma habrían carecido de lógica para quien las leyese en euskera, al conocer desde el primer momento el significado de la palabra tratada.

Asimismo, conviene incidir en que este trabajo es el fruto de un intenso y prolongado trabajo de campo, al que se ha dado prioridad absoluta en lo metodológico.

Desgraciadamente cada vez son menos los usuarios de estas palabras y por ello se ha tratado con urgencia su recopilación, antes de su irreparable extinción. Tiempo habrá en el futuro para profundizar más en aspectos lingüísticos, históricos, etnográficos o para ofrecer en otros formatos y formas el material ahora recopilado.

Para finalizar, no podemos cerrar estas líneas sin dar muestras de agradecimiento a los y las laudioarras que han mantenido vivas hasta nuestros días esas palabras que aquí ofrecemos. Sin ningún género de duda el mérito es suyo, siendo nuestro papel el de meros intermediarios.

Dicho lo cual, esperamos que esta humilde obra sea de provecho para quien la consulte y, ante todo, que la disfrutemos. Porque todas esas palabras no son sino el espejo lo que fuimos, somos y, quizá, seamos.







## ALBARKA

Baserrietako ohiko larruzko oinetakoak. Gaur egun, kautxuzkoak izan ohi dira. Oinazpiak baino ez dituzte estaltzen, eta soka edo uhalak erabilia lotzen dira oinbularrera zein orkatilara. Zaharrek egunero erabiliagatik, gaur egun herrietako jaietan eta bestelako herri-ospakizunetan baino ez dira erabiltzen, jaietako jantzietako elementu soil gisa. Laudion erabiltzen dugun *albarka* berba *abarka* berbaren aldaera baino ez da, eta esanahi berbera dauka. *Abarka* da zalantza barik bi aldaeretako zaharrena, eta euskarazko egilerik zaharrenetan ere dokumentatu dena. Nicolao Landuchio bidaiari italiarrari esker jaso zen lehenengo aldiz (*Dictionary linguæ cantabricæ*, 1562), gaur egun galdua dagoen Arabako euskalkiaren —edo azpieuskalkiaren— berbak jaso baitzituen. Geroagoko *albarka* aldaera, hau da, Laudion gehien erabiltzen duguna, nahasmendu baten ondorio da, herri-giroan jatorri arabiarreko berba legez hartzen baitzen: *al-barca*.

Hala ere, ezer gutxi dakigu berbaren jatorriaz eta batzuek iturburua euskaran kokatzen duten arren, historiaren lanbroetan galtzen den Erroma aurreko garaian kokatzen dute egile gehienek.

Laburbilduta, zantzu guztien arabera, euskarak berezko hiztegian sartua duen arren, mailegu linguistikoa da. Alegia, euskarazko hitza bada ere, jatorria ez dauka gure hizkuntzan. Gaztelaniara ere mailegatu zen eta berezko berba legez jotzen da kasu horretan ere.



Calzado de cuero —hoy en día son mayormente de caucho— típico del mundo rural que cubre solo la planta de los pies y se asegura con cuerdas o correas sobre el empeine y el tobillo. Aunque la gente mayor lo ha usado como calzado diario, hoy su uso se limita a un elemento más de la vestimenta usada en las fiestas patronales, etc. El término *albarka* que usamos en Laudio es en realidad una variante del anterior *abarka*, con idéntico significado. *Abarka* es sin duda la forma más antigua de las dos variantes y la que desde los autores más antiguos documentamos en euskera. Lo atestigüamos por primera vez (*Dictionary linguæ cantabricæ*, 1562) gracias al visitante italiano Nicolao Landuchio que recogió palabras del dialecto —o subdialecto— del euskera alavés, hoy desaparecido. La variante posterior *albarka*, la que mayormente usamos en Laudio, se debe a la confusión a través del castellano por tomarse en ámbitos populares como una palabra de origen árabe: *al-barca*.



Sin embargo, en realidad nada sabemos de su procedencia y, mientras unos se lo atribuyen al euskera, la mayoría lo hace proceder de un origen prerromano que se difumina en la oscuridad de la historia.

En resumen, todo parece indicar que aunque el euskera lo incluya en su léxico propio, se trata en realidad de un préstamo lingüístico. Es decir, que es una palabra del euskera pero que no tiene su origen en nuestra lengua. También lo coge prestado el castellano y lo adopta como palabra propia.

## AGUR

Agurtzeko formula. Laudioko erabileran, despedidarako baino ez da, baina, jatorrian, harrera egiteko zein despedidarako balio zuen.

Ziur aski, euskaraz ez dakiten laudioarrek gehien erabiltzen duten hitza izango da, eta, askotan, euskara ikasteko lehenengo urratsa ere bada.

Gure udalerrian euskara ia galdu bada ere, eta hamarkada luzez euskara erabiltzea debekatua egon zen arren, despedidetarako formula hau ez da sekula galdu eta nahiko ohikoa izan da beti.

Bitxitasun bat: garai batean kutsu klasista zeukan, eta hierarkian gorago zeudenei baino ezin zitzaien esan, ez beheragokoei. Bestalde, ondo etorria egiteko formularik solemneena *agur t'erdi* da.

Azken hamarkadan, *aio* formula ere hedatu da Laudion, baina, okerra izateaz gain —berez, *adio* da zuzena, izan ere, gaztelaniazko *adiós* berbaren parekoa da—, ez da sekula erabili gurean, eta, nolahi ere, ez da gure *agur* gorena bezain jatorra eta hedatua.



Fórmula de saludo, limitado a la despedida en el uso que en la actualidad hacemos en Laudio, pero que en origen sirvió tanto para dar la bienvenida como para hacer la despedida.

Probablemente sea la palabra de euskera más usada entre los laudioarras que desconocen este idioma y supone muchas veces el primer paso hacia su conocimiento.

A pesar de haberse perdido prácticamente el euskera en nuestro municipio y estar prohibido su uso durante décadas, esta fórmula de despedida nunca ha dejado de usarse y ha sido relativamente habitual.

Como curiosidad, antiguamente tenía una connotación clasista y solo podía usarse con los de una clase social superior, no inferior. Por otra parte, la



forma de saludo de bienvenida más solemne se expresa con el *agur t'erdí*, 'saludos, bienvenido/a', literalmente, 'saludo y medio'.

En la última década también ha proliferado en Laudio el uso de la fórmula *aio* que, además de ser incorrecta —en realidad la forma correcta es *adio* que no es sino la contracción de *adiós*— es una expresión que nunca se ha usado en nuestro municipio y, desde luego que menos genuina y extendida que nuestro supremo *agur*.

## AIDA

Abelgorriak euren lanetara akuilatzeko erabiltzen da *Aida!* interjekzio arrunta (azentua azken letran darama). ¡Arre! berbaren antzekoa da, baina horrek zaldi, mando eta astoekin baino ez zen erabiltzen Laudion.

Bakarrik ("*Aida!*") edo animaliarenganako erreferentzia batekin batera erabiltzen da ("*Aida behi(e)*", *aida idi(e)*"). Gurean horrelaxe erabili izan dira, kasuan kasuko hizlari audioarrak euskaraz jakin zein ez. Aberearen izen propioaz ere erabiltzen da: "*Aida, Castaño!*"

Idi-probetan parte hartzen duten audioarrek erabili ohi duten esamoldea ere bada.

Ageriko erlazio baten ondorioz, leku batzuetan *aida-aida* formula errepikatua erabiltzen da abelgorriak izendatzeko umeekiko hizkeran, baina Laudion ez dugu horren berririk.

Akuilatzeko *aida!* horren aurkakoa, hau da, abereei gelditzeko ematen zaien agindua *Oooo* da Laudion ("o" oso luzatua). Baliteke euskarazko *ixo* formulatik etortzea, azken hori *aida* berbaren aurkako gisa erabiltzen baita komunitate euskaldunetan. Akuilatzeko eta geldiarazteko euskarazko hitzak konbinatuta, *Aida eta ixo* esamoldea eratzen da, "nekez", "nola edo hala" esanahia duena. Ez dira nahastu behar *Oooo* hori eta gaztelaniazko ¡so! ezaguna, azken hori zaldi edo astoei baino ez baitie esango baserriko audioar batek: ez du sekula erabiliko lanetarako abelgorriekin.



La interjección común *Aida!* —acentuado *aidá*— es la palabra usada en para arrear al ganado vacuno, vacas o bueyes, en sus quehaceres. Es similar al ¡arre! aunque este último era exclusivo para el trato con caballos, mulas y burros en Laudio.

Se utiliza ella sola —*aida!*— o acompañada de una referencia al animal *aida behi(e)*, *aida idi(e)*: 'arre vaca' o 'buey' respectivamente, dichas tal cual en



nuestro municipio, aunque el laudioarra que los usa no sepa euskera. También se emplea haciendo alusión al nombre propio del animal: *Aida, Castaño!* (¡Arre, Castaño!).

Es también la expresión habitual usada por los laudioarras que participan en pruebas de arrastre de piedra con bueyes.

Por una relación evidente, en otros municipios —aunque no lo constatamos en Laudio— se usa la fórmula repetitiva *aida-aida* para denominar al ganado vacuno en el lenguaje infantil.

Lo contrario del *aida!* arreador, es decir, la orden que se da en Laudio para que se detengan los animales es "Oooo" —una *o* muy alargada— que quizá provenga también de la fórmula en euskera *ixo* usada para este menester en comunidades euskaldunes, como contraposición a *aida*. De la combinación del *arre* y *o* del ganado vacuno en euskera, surge la expresión *Aida eta ixo*, 'a trancas y a barrancas'.

No confundir este *Oooo* con el *¡so!* tan conocido, ya que este último solo lo aplicará un laudioarra rural cuando se trate de caballos, mulas o burros: nunca con ganado de tiro vacuno.

## AITA

Zalantza barik, gure herrian sakonen sustraitua dagoen berbetako bat da hau, erabiltzen duenak euskaraz jakin ala ez. Guztiok dakigunez, "espezie bereko beste izaki bat sortu duen gizonezkoa (edo animalia arra)" esan nahi du. Honaino, ederto asko, laudioar guzti-guztiek ezagutzen dutelako.

Baina, tamalez, asko hedatu da erabilera oker bat, gaztelaniaz pluralean erabiltzean gertatzen dena, hain zuzen. Gaztelaniaz, "Nortzuk dira zure gurasoak?" galdetzeko, "¿Quiénes son tus padres?" esaten da, hau da, *padres* hitzak aita zein amari egiten die erreferentzia, batere arazo barik. Baina edozein euskaldunek belarriko mina izango du "felicidades de parte de tus aitas" entzunda, euskaraz *aita* berbak gizonezko gurasoa aipatzeko baino ez duelako balio. Bestela esanda: okerra eta zatarra izango litzateke, bi gizonezko homosexual ez eta adoptatutako umeaz ari ez bagara, behintzat.

Funtzio pluralizatzaile horretarako, beste barik, *gurasoak* darabilgu euskaraz, edo hori barik, "Cuánto te quieren tu aita y tu ama", esan beharko genuke, baina sekula ez "tus aitas".

Bitxitasun gisa esan daiteke Euskal Herriko mendebaldean —hau da, gure aldean— azentua lehenengo letrari ipintzen diogun arren, erdialdean eta ekialdean azkenari ipintzen diotela.



Erdi Aroan, penintsula osoan hedatua zegoen *aita* ponte-izena (*Aita Enecco...*), gaur egun abizen bihurtutako beste batzuekin gertatzen denez: *Primo, Osaba...*

Bestalde, dirudienez, euskararen mugez gaindiko hedapena zuen *aita* berbak antzinatean. Adibide baten berri izango duzue Turkiara bidaiatu zareten guztiok. Mustafa Kemal (1934-1838), hau da aberri haren sortzailatzat jotzen den gizonaren goitizena —zeina nonahi ikus baitaiteke: estatuak, kartelak...—, *Atatürk* da. "Turkiarren aita" esan nahi du, eta argi ikusten da *ata* horrek eta "aita" berbak duten antza. Beste kasu bat dugu Irlandan, *aita* berbak "haurtzain, tutore, ume bat hezten duen pertsona" esan nahi baitu. Antzeko esanahia duten *aita, eita, aite* eta beste hainbat berba daude Europa osoan; zalantza barik, erabilera zahar-zaharren aztarnak.



Sin duda, una de las palabras de euskera más arraigadas en nuestro pueblo, al margen de que quien la use sepa euskera o no. Como todos sabemos, se trata del 'varón (o animal macho) que ha engendrado a otro ser de su misma especie'. Hasta ahí, maravilloso porque es algo que todos y cada uno de los laudioarras conoce.

Pero, desdichadamente también está muy extendido su uso erróneo al hacerlo en plural. En castellano decir "*¿Quiénes son tus padres?*" para referirse a padre y madre a la vez es correctísimo y lo habitual en castellano. Pero a cualquier euskaldun le chirrían los oídos si escucha "felicidades de parte de tus *aitas*" ya que, aquí sí, *aita* solo sirve para el varón. Es decir, que sería incorrecto y malsonante a no ser que se trate de un matrimonio compuesto por dos hombres con una criatura a su cargo o adoptada.

Para esa función pluralizante, el euskera usa *gurasoak* o, en su defecto, tendríamos que decir "Cuánto te quieren tu aita y tu ama", pero jamás "tus *aitas*".

Como curiosidad, digamos que mientras en el occidente vasco —nuestra zona— lo acentuamos *áita*, en el centro y oriente se hace *aitá*.

Durante la Edad Media, *Aita* fue un nombre de pila extendido por toda la península (*Aita Enecco...*), similar a lo que sucede con otros como *Primo, Osaba* ('tío')... hoy convertidos en apellido.

Por otra parte, la palabra *aita* parece haber tenido en la antigüedad una extensión mucho mayor que los límites del euskera. Un ejemplo lo conoceréis todos los que hayáis viajado a Turquía. El sobrenombre con que se conoce al que se considera creador de aquella patria —y que aparece en todas partes: estatuas, carteles...—, Mustafa Kemal (1934-1838), es *Atatürk*,



que no es sino 'el padre de lo turco', con un nítido *ata* 'padre'. Otro caso sería, *aite* que en Irlanda es 'ayo, tutor, persona que cría a un niño'. Con significado similar hay *aita*, *eita*, *aite*... por toda Europa, es decir, reminiscencias de antiquísimos usos.

## AITITE

Aurreko *aita* berba errepikatuta, "aitaren aita" lortuko dugu: *aitita*. Beraz, hau litzateke eragiketa: *aita-aita* > *aitaita* edo, gehien entzuten duguna: *aitite*. Aitaren aita aipatzeko aukera bihozberagoa da "aita ona" erabiltzea, *aitona*, alegia.



El *aita* precedente, podemos repetirlo para sacar "el padre del padre", es decir, el 'abuelo'. Así tendremos *aita-aita* > *aitaita* o, el que más escuchamos, *aitite*. Otra opción, más benevolente, es referirse al 'padre bueno', *aita ona* > *aitona*, para denominar de nuevo al 'abuelo'.

## AIZKOLARI

Zalantza izan dugu berba hau jaso ala ez, ez baitago batere argi audioarren belaunaldien arteko transmisio jarraitu naturalez iritsi den gaur egun arte ala, agian, aizkora lehiaketa modernoagoen eraginez jaso dugun.

Izan ere, mundu osoko gazte zein nagusiek euskaraz zein gaztelaniaz erabiltzen duten berba izanagatik, ez dirudi zaharra denik: Euskal Herrian XIX. mendearen bukaera arte ez da dokumentatzen, hau da, enborrak mozteko desafioak eta apustuak modan ipini ziren arte. Bestela esanda: ehun urte inguru baino ez ditu hitz horren arrasto dokumentalak. Hortik sortzen dira gorago azaldutako zalantzak.

Esanahiari dagokionez, "aizkora erabiltzen duen pertsona (egurgina, zurgina)" izendatzen du jatorriz, nahiz eta gaur egun, esan bezala, "aizkorlanak inplikatzan dituzten lehiaketetako partaideak" esanahia duen.

Hain hedatua dago berbaren erabilera, ezen Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiak gaztelaniazko berezko hitz gisa jaso baitu (jatorria euskaran izan arren) *aizcolari* berba, c letraz idatzia.

*Aizkora* da berbaren muina, eta *—ra* bukaera duenez, "metamorfosi" bitxia izaten du beste berba batekin batzen den bakoitzean. Izan ere, kasu horie-



tan, *—ra* amaiera, *—l* izatera igarotzen da, fonetikaren magiari esker. Hortaz, *aizkoRA* berbatik eratortzen ditugu *aizkoLari*, *aizkoLapustu*, *aizkoLgina* ("aizkorak fabrikatzen dituen")... *Euska-RA* berbarekin gertatzen denaren antzekoa da, beste termino bati elkartzean *euska-L* bihurtzen delako: *Euskal Herria*, *euskaLdun*...

Harrigarria izan daitekeen arren, *aizkolari* hitza erabiltzen da Laudion, baina gaur egun ez dugu haren jatorrian dagoen *aizkora* berbaren erabileraren berri.



Hemos dudado a la hora de incluir esta palabra ya que no tenemos la certeza de que su uso haya llegado a nuestros días de un modo natural de transmisión ininterrumpida entre generaciones de *laudioarras* sino, quizá, traída de mano de las competiciones de corte de hacha más actuales.

Y es que, a pesar de que se trata de un vocablo que usa todo el mundo, desde los más jóvenes hasta los más mayores y tanto en euskera como en castellano, no parece tratarse de una palabra antigua: en el conjunto de *Euskal Herria* es un término que no se documenta hasta finales del XIX, cuando se pusieron de moda los desafíos y apuestas con los cortes de troncos. Es decir, que cuenta con poco más de cien años al menos en el aspecto documental. De ahí las dudas expuestas más arriba.

Su significado hace referencia a la 'persona (leñador, carpintero) que usa el hacha' aunque actualmente, como se ha citado, se limita a aquellas 'personas que participan en la pruebas de cortes con hacha'.

Su uso está tan extendido que incluso la Real Academia Española da como palabra propia del castellano —aunque tenga su origen en el euskera— el término *aizcolari* (escrito con c).

El vocablo surge de *aizkora* 'hacha' y que, por acabar en *—ra* sufre una curiosa "matamorfosis" cada vez que se funde con otra palabra. En esos casos, su final en *—ra* pasa, por arte de la magia fonética, a ser *—l*. Así, de *aizko-RA* nos surgen *aizko-L-ari*, *aizkoLapustu*, *aizkoLgina* ('el que fabrica hachas')... Es similar a lo que os sucede con *euska-RA*, que al unirse a otro término se transforma en *euska-L*: *Euskal Herria*, *euskaLdun*...

Curiosamente, mientras la palabra *aizkolari* es usada en Laudio, no nos consta el uso actual de la palabra que lo origina y que sería *aizkora*, 'hacha'.





## AKULLU

Berba ezaguna da oso, eta osasuntsu dirau Laudioko baserri inguruneetan. Behiak edo idiak mugiarazteko, hau da, akuilatzeako makila da, eta puntan ezten metalikoa du. Ezten horrexek ematen dio izena tresnari, hain zuzen ere.

Laudion *akullu* esaten da, inguruko herrietan *akulu* ere erabiltzen bada ere, eta horregatik idatzi dugu *ll* grafiaz, ahoskera argi uzteko. Hala ere, *akuilu* da idazkera zuzena, eta hedapen semantikoz "pizgarri, bultzagarri, motibazio" adierazteko ere baliatzen da.

Jatorria latinezko *aculeus* berban dauka, eta "punta, orratz, ezten edo arantzaz" esannahia du. Latinezko termino hartatik ere eratorri ziren gaztelaniazko *aguja*, *agujeta* edo *aguijón*.

*Akuilu* ona izatea harro egoteko arrazoi da beti baserriarrentzat, erakusteko moduko zerbait, beraz, arreta handiz fabrikatzen dira. Hasteko, makila ona hautatu behar da, ahal dela, hurritza eta, bereziki, hurritz zuriaren zurezkoa. Behin moztuta, muturrik meharrenean iltze bat sartuko zaio, eta horren burua zehaztasun handiz ebaki eta zorrotzu egongo da gero. Amaitzeko, eztenetik gertuen dagoen zura ere zorrotzen da eta dena sendotzeko alantza harilkatzen zaio inguruan, zura pitzatu ez dadin.

Akuilatzean erabiltzen den indarkeriaren ondorioz, idi-proba batzuetan debekatua dago tresna hori erabiltzea. Arrazoi berarengatik mugatu da eztenaren luzera 11 milimetrora.

Zalantza barik, animaliak inongo zentzu barik zigortzeko modua da eta, gure herriko baserriarrek kontatzen dutenez, berria da gainera; duela mende bateko probalariak eskandalizatu egingo lirateke horrelakoak ikusi izan baliatuzte: garai haietan, idien aurretik joaten ziren probalariak, makila goian jasota, animaliak euren atzetik joan zitezen, etengabeki ziztatu edo jo barik.



Una palabra muy conocida y aún con saludable uso en el ámbito rural de Laudio. Se trata de una vara para arrear a las vacas o bueyes, con aguijón metálico en la punta. Y es ese aguijón o pincho el que da nombre al conjunto.

En Laudio se conoce como *akullu* aunque en los pueblos vecinos también se use como *akulu*, por eso lo hemos escrito con *ll*, para diferenciarlo en su pronunciación. Sin embargo, cuando debemos escribirlo su forma correcta sería *akuilu* que, por similitud, significa asimismo 'acicate, aliciente, motivación'...



Su origen está en el latín *aculeus* que precisamente significa 'punta, aguja, agujón, púa'. De este término latino se derivan las palabras *aguja*, *agujeta* o *agujón*.

Un buen *akuilu* siempre es un elemento de orgullo y ostentación para un baserritarra por lo que se pone mucho esmero en su elaboración. Se comienza por escoger una buena vara, siendo las más apreciadas las de avellano y, en especial, las de avellano blanco. Una vez cortada, se introduce en su extremo más delgado un clavo cuya cabeza luego se corta y afila con precisión. Para finalizar, se afina también la madera más cercana al pincho y se refuerza todo el conjunto con unas vueltas de alambre para así evitar resquebrajamientos de la madera.

Por lo violento de su uso en los espectáculos de pruebas de arrastre de piedra con bueyes, en algunas pruebas está prohibido su uso. También, por el mismo motivo, la longitud máxima del agujón está limitada a 11 mm.

Sin duda, se trata de un modo gratuito de maltrato animal y, según cuentan nuestros *baserritarras* mayores, es algo moderno y con lo que se escandalizarían nuestros *probalaris* de hace un siglo: aquellos avanzaban por delante de los bueyes, con la vara en alto para que los animales le siguiesen, sin pegarles o pincharles continuamente.

## **ALDA.** *Ikusi / Ver* **ALTZO**

## **ALTZO**

Laudion, gaztelaniaz, "*coger al alcho (altzo)*" esamoldea erabiltzen da, bereziki, haurtxoez berba egitean. "*Coger en el regazo*" esamoldearen esanahi berbera du. Gaztelaniazko esamolde laudioarra "*altzoan hartu*" euskarazkoaren hitzez hitzezko itzulpena baino ez da.

Agerikoa denez, ahoskatzean, Laudion ez da *tz* soinua entzuten, gaztelaniazko soinetara moldatu baita, hau da, *ch* soinura. Horrexegatik idatzi dugu "*alcho*" gorago, azpimarratzeko gaztelaniazko eran ahoskatzen dela, ez euskarazko *tz* soinuaz.

Pertsonak esertzean eratzen duten sakonunea edo sinua esan nahi dute *altzoa* zein zhorren baliokide den *regazo* berbek, alegia: aldakaren eta belauenen arteko espazioa, haurtxoentzako txokotxo atsegina, eta zeregin askotarako euskarri ezin hobe.

Gaztelaniaz, esanahi bera dute *falda* ("emakumeen altzoa") eta horretatik eratorritako *halda* berbek. Azken hori asko erabiltzen da Laudion eta euska-



razkoa dela pentsatzen dugun arren, ez da hala: "*dormir un bebé en el halda*". Esamoldea gaztelania petoa da eta ez du zerikusirik euskararekin.



En Laudio se usa la expresión "coger al *alcho* (*altzo*)" en especial referencia a los bebés. Es el mismo significado que '*coger en el regazo*' del castellano. La expresión laudioarra no es sino la traducción literal de "*altzoan hartu*", que es como se dice en euskera.

Evidentemente, su pronunciación en Laudio no se hace con el sonido *tz* sino que se ha adecuado éste a la pronunciación más similar en castellano, es decir, a la *ch*. Por eso lo hemos escrito más arriba también como *alcho*, para remarcar que es una pronunciación "a la castellana", diferente al sonido *ch* del euskera.

*Altzo* o su equivalente *regazo* es el 'seno que forma la persona al sentarse', el espacio entre la cintura y las rodillas y que sirve de entorno acogedor para los bebés o de soporte perfecto para muchas labores.

El mismo significado en castellano lo tienen las palabras *falda* ('regazo de una mujer') o su derivado *halda*, esta última muy usada en Laudio y que solemos pensar erróneamente que es un término eusquérico: "dormir un bebé en el *halda*". Es castellano puro y nada tiene que ver con el euskera.

## ALTXA

"*Altxa gora!*" edo ¡*altxa* arriba! Laudioan erabiltzen diren interjekzioak dira eta animaliak akuilatzeko balio dute, zutik jar daitezen. Abelgorriekin baino ez da erabiltzen: behi, zezen eta idiekin. Baserri ingurunean, beraz.

*Altxa* hitza da eta bere esanahia 'jaikitzea', 'zutitzea', 'jasotzea', 'igotzea'... Zalantza barik, gaztelaniazko *alzar* aditzarekin lotura du. Latin arruntezko \**altiare* berbaren forma batetik eratorri ziren biak eta hura latinezko *altus* berbatik ("altua, garaia"). "Altuan ipini" izango litzateke.

Euskarazko aditz horren gauzarik bitxiena da *altxatu* ekialdean erabiltzen dela gehien, eta *altxa* mendebaldean, hau da, gurean.



"*Altxa gora!*" o "¡*altxa* arriba!" son interjecciones usadas en Laudio para estimular a las bestias que, al recibir esa orden, deben ponerse en pie. Su uso se limita al ganado vacuno: vacas, toros y bueyes y, por tanto, al mundo rural.



Se trata de la palabra *altxa* con significado de 'levantar(se)', 'alzar(se)', 'elevar(se)'... y que, a todas luces está relacionado con el *alzar* castellano. Ambos surgen de una forma del latín vulgar *\*altiare*, derivado del latín *altus* 'alto'. Sería una especie de 'poner en alto'.

Lo curioso de ese verbo en euskera es que se usa *altxatu* en el oriente vasco pero más con la variante *altxa* en el occidente, en donde nos encontramos.

## AMA

Ez dut uste gure herrian *ama* hitza ezagutzen ez duen pertsona bakarra ere egongo denik. 'Bere espezieko izaki batez erditu den emakume edo animalia' esan nahi du. Ezer gutxi gehiago...

Agian, azpimarra liteke euskarazko hitzik sendoenetakoa dela: euskalki guztietan dago forma bera, garai guztietan, eta hori ez da batere arrunta.

Bada erromanizazioaren aurreko terminoekin erlazionatu nahi izan duenik, gure garaitik baino, Historiaurretik gertuago dauden terminoekin. Pachamama jainkosa (Lur Ama, inken jainkosa totemikoa) nahiz gaztelaniazko *mamá* bera dira jatorrizko forma horien gaur egungo adibideak.

Gaztelaniazko azken horri dagokionez, esan beharra dago hasiera batean lehenengo silaban zuela azentua, baina azentua azken silaban ipintzeko joera duen frantsesa imitatuz, *máma* (errapea) esanahitik aldentzeko eta finagoa izateko, betiko aldatu zitzaion azentua eta *mamá* geratu zen. Gauza bera gertatu zen *pápa* (aita) hitzarekin: *papá* bihurtu zen, *papa* (patata) esanahitik bereizteko.

Euskarazko azentuari dagokionez, *aita* terminoarekin gertatuko gauza bera gertatzen da kasu honetan ere: azentua azken letran erortzen da Euskal Herriaren erdialdean eta ekialdean, baina lehenengo letran bizileku dugun mendebaldean.



No creo que exista nadie en nuestro municipio que desconozca lo que es la palabra *ama*. Significa 'mujer o animal hembra que ha parido a otro ser de su misma especie'. Y poco más que añadir...

Quizá apuntar que es una de las denominaciones más contundentes del euskera: existe así en todos sus dialectos y en todas las épocas, algo nada usual.

Hay quienes han pretendido relacionarlo con otros términos previos a la romanización, más cercanos a la Prehistoria que a nuestra actualidad. La



diosa Pachamama —Tierra madre, diosa totémica inca— o el mismo *mamá* del castellano serían un ejemplo actual de aquellas originarias formas.

Respecto a esta última, la del castellano, diremos que en origen se acentuaba *máma* pero por imitación al francés, siempre con tendencia a acentuar la última sílaba, por parecer en su momento más refinado que la referencia a la *máma* ('ubre'), se modificó para siempre su acentuación y así convertirse en *mamá*. Lo mismo que hizo el *pápa* (padre) > *papá*, para diferenciarse de *pápa* (patata).

Respecto al acento en euskera, nos sucede lo mismo que citábamos al tratar el término *aita*: se pronuncia *amá* en el centro y oriente vasco y *áma* en el occidente, donde vivimos.

## AMAMA

Aurreko sarrerako *ama* errepikatuta, 'amaren ama' esanahia lortzen dugu, hots, 'amama'. Beraz, *ama-ama* > *amama*. Bada esanahi bereko beste berba bat, etorkorragoa: *ama ona* > *amona*.

Hala ere, kontu zaila da hau, Orozkon, adibidez, hiru belaunaldi atzera eginda, *amandre* esaten zitzaiolako amamari ('ama andrea'). Gaur egun *abuela* esaten zaio, beste barik, euskaraz zein gaztelaniaz.

*Amandre* ilargiari eta eguzkiari erreferentzia egiteko ere erabili izan da Euskal Herriko kulturaren: "*Amandre eguzki*" ('eguzki andrea'). Datu bitxia da hori, emakumezko numena delako, ez gizonezkoa, eta horrek kultura nordikoe-tara gerturatzen gaituelako, sinesmen hori orokorra baita han.



El *ama* anterior podemos repetirlo para sacar 'la madre de la madre', es decir, la 'abuela'. Así, tendremos *ama-ama* > *amama*. Otra opción, más descendiente, es referirse a la 'madre buena', *ama ona* > *amona*, para denominar de nuevo a la 'abuela'.

Sin embargo el asunto es complicado porque, en Orozko por ejemplo, sin ir más lejos, hasta hace prácticamente tres generaciones se llamaba *amandrea* (*ama andrea*, 'señora madre') a la abuela. Hoy es allí mayoritariamente *abuela*, sin más, también en euskera.

*Amandre* ha sido también usado para denominar a la luna y hasta al sol en la cultura popular vasca: "*Amandre eguzki*" ('señora sol'), un dato muy curioso porque la concepción del sol como un numen femenino y no masculino nos acerca más a las culturas nórdicas, en donde es común esa creencia.



## AMARRAKO. *Ikusi / Ver* HAMARREKO

### AMILOTXA

Laudioko baserritarrei galdetuko bagenie, euskarazko *amilotxa* izenez baino ez lukete jakingo izendatzen gure mendi eta parkeetan oso arrunta den txoritxo bat (*Cyanistes caeruleus*).

Berez, gaztelaniaz *herrerillo* deritzo, eta maitagarria da oso, haren jokamoldearengatik eta kolore ederrengatik. Hala ere, hemen gauza errazak zailtzeko zaletasuna dugunez, Laudioko biztanleek *amilotxa* deitzen diote batzuetan gaztelaniaz *carbonero* deritzon hegaztiari; baina euskara estandaragoan *kaskabeltz* izena du txoritxoak.

Edonola ere, horra hor gurean izen bera duten bi parido-txori, izan ere, ia ez da bereizketarik egiten bien artean. Hala ere, amilotxak (hererillo) hosto erorkorreko zuhaitzak nahiago ditu, kaskabeltzak (carbonero) baino nahiago, eta ez ditu gustuko konifera baso laiozak —pinudiak—, baina kaskabeltzak bai, gustura ibiltzen dira pinudietan.

Hizkuntza kontuetara itzulita, *amilotxa* hitzaren azken —*a* terminoaren berezko osagai ez den arren —izatez artikulua da—, gure udalerriko erabilieran ez da inoiz ere hitzetik banatzen. Bestela esanda: "*amilotxa bat*" edo "*una amilotxa*" esaten da eta ez "*amilotx bat*" edo "*una amilotx*", nahiz eta azken hau forma zuzena izan.

Testuaren apaingarri gisa, horra alderdi bitxi bat: *amilotxa* izenaz ezagutzen ditugun txoritxo bi hauek, hau da, amilotxa eta kaskabeltza, mendeak eman dituzte elkarrekin bizitzen gure sasi eta mendietan inongo arazo barik. Baina baliteke lehenengoa gutxika desagertzera jotzea klima aldaketaren ondorioz, Europako iparraldean gertatzen ari den bezala: tenperaturaren igoera orokorra dela eta, amilotxek eta kaskabeltzek migrazio behar txikiagoa dute. Ondorioz, kaskabeltzak ez dira hain iparraldean ugaltzen, eta hegoalderago geratzen direnez, amilotxaren ugaltze-esparruak hartzen dituzte. Horiek horrela, elkarrekiko lehia sortzen da elikagaiak eta lurraldea lortzeko. Kasu honetan, amilotxa denez ahulena, txori horien kopurua gutxika murrizten ari da, eta badaude arrazoiak etorkizunean desagertuko direla pentsatzeko.



Si preguntásemos a los *baserritarras* de Laudio, ninguno de ellos sería capaz de nombrar a un determinado pajarillo de nombre científico *Cyanistes caeruleus* si no fuese con la denominación en euskera *amilotxa*.

En realidad, se trata del pájaro conocido en castellano como 'herrerillo', encantador por su comportamiento y bello colorido. Pero, como por aquí somos muy dados a complicar lo sencillo, también nuestros vecinos suelen llamar *amilotxa* al 'carbonero', otra avecilla que en euskera más estándar es conocida como *kaskabeltz*.

Sea como fuere, ahí tenemos dos páridos denominados igual en nuestro municipio, por no hacerse prácticamente distinción entre ellos. Sin embargo, el herrerillo común se limita más que el carbonero a los árboles de hoja caduca y suele evitar los bosques sombríos de coníferas —pinos—, entorno éste que resulta sin embargo agradable a los carboneros.

Retornando a lo lingüístico, a pesar de que la —a final de *amilotxa* no es parte inherente del término sino su artículo, en el uso que se hace en nuestro municipio ya no se desprende de ese final bajo ninguna circunstancia. Es decir, se dice "*amilotxa bat*" o "*una amilotxa*" en vez de "*amilotx bat*" o "*una amilotx*" como correspondería a la forma correcta.

Como curiosidad para adornar estas letras, diremos que estas dos avecillas que conocemos como *amilotxa*, es decir, el herrerillo y el carbonero, han convivido durante siglos sin problema en nuestros jaros y bosques. Pero podría ser que, consecuencia del cambio climático, la primera de ellas tienda a desaparecer como está sucediendo en el norte de Europa: debido al aumento general de la temperatura los herrerillos y carboneros han visto reducidas sus necesidades de migración. Por este motivo el carbonero ya no se reproduce tan al norte y se queda más al sur, ocupando las áreas de cría del herrerillo. Así, entran en competición por alimento y territorio. En este caso el débil es el herrerillo, cuya población está menguando progresivamente hasta hacer pensar en una futura extinción.

## ANDA

*Anda* eskuetan eramateko ohe moduko edo angarila sistema bat da, eta edozein ingurune malkartsu edo geografía zailtan zama-lanak egiteko balio du. Pluralean erabili ohi da gaztelaniaz (*andas*) eta gure herrian, gainerako euskal herrietan bezala, hildakoen gorpuak etxetik elizara edo hilerrira garraiatzeko moduari egiten dio erreferentzia.





Jatorriz euskarazko berba ez den arren, euskaraz iraun du gaur egun arte, eta bizi-bizirik dago. Hori dela eta, euskarazko *andak* berbaren baliokidea den gaztelaniazko *andas* euskaraz bizi izan den eremu geografikoan erabiltzen da batez ere, baita Hego Amerikako leku batzuetan ere. Bestela esanda: euskarazko berba dugu *anda*, halaxe dago jaso hiztegieta, baina jatorria ez du euskaraz, gaztelaniatik hartu baitzuen maileguan. Edonola ere, euskararen bidez iritsi da guganaino, edo euskararen eraginari esker iraun du. Horrexegatik sartu dugu gure hiztegia.

Gorpua elizaraino garraiatzeko, beti bide jakin batzuk erabiltzen ziren, "*andabide*" edo "*caminos de andas*" izenekoak, hain zuzen; bide-zor espezi-fikoa zuten horretarako eta ez zuten zertan bide publiko izan. Berez, gauza bera izan behar ez duten arren, elizarako bideekin bat etorri ohi dira; Laudion, adibidez, Elespide toponimoa dugu (*El Espide*), "*eliza-bide*", hau da, elizarako bidea.

Basetxe berria eraikitzen zenean, etxeko lehenengo hildakoaren garraioak zehazten zuen *andabidea* nondik igaroko zen, orduz geroztik ukitu ezina eta aldatu ezina izango zen eta hurrengo belaunaldi guztiek erabiliko zuten halako uneetarako.

Gorpua metodo nekagarri horrekin garraiatzen zutenek *andero* izena jasotzen zuten gaztelaniaz, *andari(ak)* euskaraz. Bidean geldialdiak egiten zituzten, batzuetan, atsedean hartzeko, eta beste batzuetan hildakoaren arimari zeharkaldian laguntzeko otoitz erritual batzuk eginda. Atsedenaldira eta otoitz horiek bidegurutzeetan egin ohi ziren, tradizioak zehazki finkatu eta adostutako lekuetan. Gizonezkoek egin ohi zituzten *andari*-lanak, ez emakumeek, eta erabat akituta bukatzen zuten batzuetan, basetxea oso urrun zegoenean, adibidez.

Gure nagusi guztiek dute gogoan *andak* erabiltzen ikusi edo entzun izana, baina, egiari zor, haien garaian hilkutxetan jaisten zituzten zendutako herri-tarrak. Garai batean, ostera, gorpua izaretan edo hil-oihal batean bilduta eramatea zen ohikoena, ohatilara lotua soka batzuen bidez. Sistema hori, jatorrizkoa, ez da gogoratzen Laudion, ez dago horren lekuko bizirik, zaharra baita oso. Dokumentazioari esker dakigu hala izan zela, eta 1917an erabili zirela azkeneko aldiz gure eskualdean *andak* hilkutxa barik, gripe pandemia baten ondorioz, ez zegoelako ez astirik, ez gaitasunik hilkutxak fabrikatzeko.



El *anda* es un sistema de parihuelas o angarillas para facilitar el transporte de cualquier peso por entornos de geografía complicada. Siempre suele usarse en plural —*andas*— y en nuestro pueblo y resto del país vasco hace referen-



cia exclusiva a un modo de transportar los féretros o cadáveres entre la casa y la iglesia o cementerio.

Aunque no es una palabra propia del euskera en origen, sí es el euskera el que la ha adoptado y mantenido con plena vigencia. Por eso, la referencia a las *andas* —*andak*— se usa especialmente en la zona geográfica en donde se ha hablado euskera así como en algunas zonas de Suramérica. Es decir, que *anda* es una palabra eusquérica, así recogida en sus diccionarios, aunque no tenga el origen en esta lengua, pues la toma prestada del castellano. En cualquier caso, ha llegado a nosotros a través del euskera o se ha mantenido gracias a su influencia. Por eso la incluimos en nuestro diccionario.

El transporte de un cadáver hasta la iglesia se hacía siempre por unos caminos, llamados "*caminos de andas*" o "*andabide*" que tenían una servidumbre específica para ello. Aunque no son necesariamente lo mismo, suelen coincidir con los caminos a la iglesia y que en Laudio quedan recogidos en varios topónimos como *Elespide (El Espide)*, que no es sino "*eliza-bide*", 'camino a la iglesia'.

Al edificar un caserío nuevo, el transporte del primer fallecido de la casa era el que determinaba el discurrir del *andabide*, un camino que a partir de entonces sería intocable e inalterable y que usarían para ese menester por todas las generaciones posteriores.

Los que portaban el cadáver eran los *anderos* —*andari(ak)* en euskera—, que iban haciendo paradas por el trayecto para, además de descansar, obrar una serie de rezos rituales con los que ayudar al tránsito del alma del fallecido. Estos descansos y rezos solían llevarse a cabo en los cruces de los caminos, en lugares perfectamente definidos y consensuados por la tradición. La de los *anderos* era una labor que solía corresponder a los hombres —no mujeres— y solían acabar en muchas ocasiones realmente extenuados si el caserío era alejado.

Todos nuestros mayores recuerdan haber visto o escuchado el uso de las *andas*, aunque realmente en su época bajaban ataúdes con el finado dentro. Pero, en origen, lo habitual era conducir el muerto envuelto en unas sábanas o sudario y atado con unas correas a la camilla. Este sistema, el original, no se recuerda ni se reconoce en Laudio por ser antiquísimo. Sabemos gracias a la documentación que fue así y que, en nuestra comarca, se usaron sin ataúd por última vez en el 1917 en una gripe pandémica que produjo tantos fallecimientos que no se tenía tiempo ni capacidad para fabricar los ataúdes.



## ARANZA

Behin baino gehiagotan euskaraz *arantza* eta *elorria* gauza bera ez direla esan den arren, ez da gure udalerrria bezain leku egokia hori gezurtatzeko. Laudion esaten dugunean "*es una ladera mala, porque está llena de aranzas*" elorriaz ari gara, eta, jatorriz *arantza* izan zen arren, gaur egun gaztelaniaz *aranza* ahoskatzen da. Zehazkiago, elorri zuria aipatzeko erabiltzen da berba. Aurrerago jorratuko dugu elorri beltza edo arantzabeltza (gaztelaniaz, "*espino negro*" edo "*arañón*"), bertan beste izen bat du eta. Euskara batuan, baimenduta dugu *arantza* berba erabiltzea elorri beltzari esateko. Hain zuzen ere, bertoko ohituraren aurkakoa. Baina berben saski-naski hori are gehiago nahastuko zaigu...

Elorri zuriaren erreferentzia zuzena dirudien arren, gure berbaren kasuan, jende askok —nire ama (Olarate, 1941) esaterako—, zalantza barik baieztatzen du etxean *aranzas* deitzen zitzaizela hauei: "*una especie de rosales silvestres, con espinas, y que echan una pequeña flor que luego se convierte en una bolita roja, como si fuera una especie de níspero pequeño*". Ez da elorriez ari, astoarrosez edo arkakaratsez baizik.

Hori guzti hori alde batera utzita, gogoan izan dezagun Euskal Herriko sinesmen tradizioaletan elorri zuriari aparteko babes-gaitasuna egotzi izan zaiola, ia magikoa. Horregatik ipintzen ziren San Joan gauetz hartutako zuhaixka horren adartxoak ateetan. Ez dut erabilera horren berririk Laudion, baina, adibidez, Aiaran bai, gaur egun oraindik egiten dela.

Umetan *tapaculos* deitzen genien arkakaratzen fruituei, oso astringentea delako. Herri-medikuntzan asko erabiltzen da.



Aunque en más de una ocasión se ha dicho que hay que distinguir en euskera entre *arantza* 'espina, pua' y *elorri*, 'espino', ningún mejor lugar para desmentirlo que el de nuestro municipio. Cuando se dice en Laudio "*es una ladera mala, porque está llena de aranzas*" —aunque en origen sería *arantza* hoy se pronuncia *aranza*— se hace referencia al *espino*. Y, más en concreto, al 'espino blanco' o 'majuelo'. Más adelante trataremos el 'espino negro' o 'arañón', que aquí conocemos con otro nombre local. En el euskera estándar —*euskara batua*— se permite el uso de *arantza* como denominación del 'espino negro'. Justo lo contrario a lo que por tradición disponemos en el municipio. Pero aún se complica más este lío de palabras...

A pesar de parecer perfecta la referencia del 'espino blanco' para nuestra palabra, gente como mi madre (Olarate, 1941) asevera sin dudar que en su



casa se han llamado *aranzas* a "una especie de rosales silvestres, con espinas, y que echan una pequeña flor que luego se convierte en una bolita roja, como si fuera una especie de *níspero pequeño*". No se refiere a los espinos sino a los «rosales silvestres» o «escaramujos».

Al margen de todo ello recordemos que al espino blanco se le ha atribuido una capacidad protectora extraordinaria, casi mágica, dentro de las creencias populares vascas. Por eso se colocaban pequeñas ramitas en las puertas tras ser recogidos en la noche de San Juan. No he constatado ese uso en Laudio pero sí se hace aún hoy en día, por ejemplo, en Ayala.

Entre los chavales, conocíamos los frutos del escaramujo como *tapaculos* por ser un fuerte astringente, con gran uso en la medicina popular antigua.

## ARBIGERA

Duela gutxira arte, abelgorriak ziren basetxeko ondarearen erakusgarririk handiena, beraz, arta eta ardura handiz zaintzen ziren, eta erakustaldiak egiten ziren ahal zen guztietan.

Mende bat atzera joanda, garaiko argazkiei erreparatuta ikusiko dugu familia haiek etxearen aurrean paratzen zirenean argazkia egiteko, ia beti erakusten zuten harro-harro euren ondoan etxeko behi edo idirik handiena. Hori dela-eta, altxor ibiltari haiek munduko txera eta artarik handienarekin zaintzen ziren, abere haietako baten heriotza egundoko tragedia baitzen familia osoarentzat.

Baso eta mendietan bazkatzen ziren abere haiek eta, bereziki, baserrietan inguruko larre landuetan. Hala ere, negua heldutakoan, belarrak hazteari uzten zionean, bestelako baliabideak behar ziren.

Eta horietako bat arbiak ziren. Landare ia perfektua da bazkarako, ez baitu lan gehiegi eskatzen hazteko, oso bizitza-ziklo bizkor eta laburrak dituelako eta emaitza joria lortzen delako, beste landare motekin baino askoz joragoa. Gainera, beharrik gorrieneko garaian biltzen da: neguan.

Euskaraz, *arbi* deritzogu, baina Laudioko gaztelaniazko herri lexikoan ez dugu berba hori bere horretan gorde. Dena den, zeharka bai, gorde egin dugu, arbiaren sustrai mamitsutik ernatzen den kimuaren izenaren bidez. Oraindik ere, gaur egungo Laudioan *arbigera* edo *albirgera* deitzen diogu, hau da, *arbigara* berbaren aldaera bat darabilgu; *arbi* + *gara* da berbaren osaera, hau da, 'arbiaren kimua'. Gizakiok ere estimu handian izan dugu arbiaren kimu edo gara hori; gutizia handitzat hartu izan da. Esaterako, Arrasateko plater enblematikoa da.



Ahoan fin eta goxoak izateko gakoa da kimatu bezain laster biltzea, txikiak eta bigunak direnean, dagoeneko garatu direnek abereentzako bazkarako baino ez baitute balio. Antzeko gauza gertatzen da Galiziako *grelo* ospetsuekin. Berez, gauza bera dira, baina beste arbi espezie bat da, askoz ere hosto gehiago dituen bat.



Hasta no hace mucho, el ganado vacuno suponía la mayor muestra del patrimonio atesorado en un caserío, algo que se cuidaba con gran celo y que se exhibía siempre que había ocasión.

No hay más que fijarnos en las fotografías de hace un siglo para comprobar cómo todas aquellas familias posaban frente su la vivienda mostrando con el mayor de los orgullos una vaca o un buey.

Por ello, aquellos tesoros andantes eran atendidos con todas las atenciones del mundo ya que el fallecimiento de uno de esos animales se tomaba como una auténtica tragedia para la familia.

La alimentación de aquellos ganados la procuraban los montes y, en especial, los pastizales trabajados cerca del caserío. Pero, una vez llegado el invierno, cuando la hierba dejaba de crecer, había que valerse de otros recursos.

Uno de ellos era el de los nabos, una planta casi perfecta para ese menester ya que es poco exigente en su cultivo, tiene ciclos de vida muy rápidos y cortos y se obtienen producciones muy elevadas, mucho mayores que con cualquier otro tipo de planta. Además, es propia de la época en la que más se necesita: el invierno.

En euskera al nabo se le ha llamado *arbi*, una palabra que no hemos conservado tal cual en el léxico popular de Laudio. Pero sí lo hemos hecho indirectamente, a través de su brote o vástago, el de esa planta que renace de la raíz carnosa que es el nabo. La llamamos aún en el Laudio actual *arbigera* o *albirgera* que no es sino una variante de *arbigara*, procedente de *arbi* + *gara*, 'el brote del nabo'. Ese brote o escapeo de la planta ha sido muy apreciado también para consumo humano, considerándose un gran manjar. En poblaciones como Arrasate se tiene como plato emblemático del lugar.

El truco para que las *arbigaras* fuesen muy finas y sabrosas al paladar estaba en recogerlas nada más brotar, siendo pequeñas y tiernas, nunca ya desarrolladas porque solo servirían para el ganado. Algo similar sucede con los famosos *grellos* gallegos, que son básicamente lo mismo, aunque se trata de otra especie de nabo, con mucha más hoja.



## ARDURA

*Ardura* berba 'lanerako erantzukizuna, arta, interesa, seta, zorroztasuna, txera...' adierazteko erabili ohi da, eta halaxe darabilgu Laudioko gaztelaniaz: "Qué poca *ardura* tienes" esaldia entzun dezakegu herrian gaztelaniaz, 'zer arta gutxi hartzen duzun' esateko, egin beharreko lan batez ari garenean.

Espainiako Errege Akademiak gaztelaniaren berezko berbatzat jaso du, baina oso gutxi erabiltzen dela ohartarazita, eta erantsita Araban baino ez dela erabiltzen, 'estutasun, herstura, ataka' esanahiarekin. Bestela esanda, gure lurraldeak gorde duela beste lekuetan desagertu den forma linguistiko arkaiko bat. Eta aurrekoetan bezala, berba hau ere gaztelania zaharretik hartu zuen euskarak, eta gaztelanian ia galdurik dagoen arren, euskaran gorde egin da.

Zalantzarik ez dago euskaran ez duela jatorria, *ardura* berba Gonzalo de Berceok erabili baitzuen *Libro de Alexandre* lanean. XIII. mendearen lehenengo herenean bertsoan egindako lana da, egile ezezagunekoa, eta alegiazko elementuz josita, Alexandro Handiaren eta abarren bizitza du kontagai. Garai hartan 'estualdi, herstura' esanahia zeukan, izan ere, badirudi ditxosozko berba hau *arduo* berbatik datorrela (latinezko *arduus*), hau da, 'oso zaila, nekeza'.

Hala ere, Laudion ematen diogun esanahia, alegia, 'erantzukizuna, arta', ibarrean duela oso gutxi arte erabiltzen zen euskaratik dator, zalantza barik; izan ere, euskarak bere garaian jatorrizko *ardura* berbaren esanahia hedatu zuen.



La palabra *ardura* es empleada en euskera para denominar la 'responsabilidad, cuidado, preocupación, interés, diligencia, esmero...' con las labores, cosas, etc. y, tal cual, se usa en Laudio: "Qué poca *ardura* tienes" sería de significado a similar a «qué poco responsable eres», frente a alguna labor que hubiese que hacer.

La Real Academia Española acepta esta palabra como propia del castellano pero con la anotación de que es un término, ya prácticamente en desuso, e indicando que es usado exclusivamente en Álava, con el valor de 'estrechez, angustia, apuro'. Es decir, que nuestro territorio histórico conserva una forma lingüística arcaica ya desaparecida en otros lugares. Y es que nos encontramos de nuevo frente a una palabra que el euskera adopta del castellano antiguo y la mantiene viva mientras aquel prácticamente la perdió.



No hay duda de su origen fuera del euskera ya que la palabra *ardura* se usa en Gonzalo de Berceo, en el *Libro de Alexandre*, obra en verso del primer tercio del siglo XIII, anónima, y que narra, con abundantes elementos fabulosos, la vida de Alejandro Magno, etc. Por aquel entonces significaba más bien 'angustia, apuro' y es que no en vano la dichosa palabra parece proceder de *arduo* —del latín *arduus*— que equivale a 'muy difícil, penoso'.

Sin embargo, ese significado que le damos en Laudio de 'responsabilidad, esmero' lo tomamos sin duda del euskera que hasta no hace tanto se habló en el Valle, un euskera que amplió en su momento el significado de la palabra originaria *ardura*.

## ARKASTA

Laudio *arkasta* esaten zaie ardi heldu baina erditu gabeei. Hau da, *arkasta* dira tarteko heldutasun garai batean dauden artaldeko emeak, axurien (heldu gabeen) eta ardien (kumeak eduki dituzten ardi helduen) artekoa.

Hau da, *arkasta* dira ardien izen desberdinak, modu ahalik eta praktikoenean azalduta euren bizitzaren zikloen arabera: urtebetetik beherakoei *cordera* esaten zaie, *arkasta* urtebete eta bi urte bitartekoei, eta *oveja* handik aurrerakoei.

Berez, Laudioko gaztelaniazko berba euskarazko *arkazte(a)* edo *argazte(a)* berbatik dator eta 'ardi gaztea' esan nahi du. Azken berba hori, halaber, bi berbaren elkarketa da: *ardi* eta *gazte*.

*Arkasta* izenaren sinonimo bat *baldera* da. Terminoa gaztelaniatik dator, eta arabierazko *bātil* berbatik datorkio. 'Hutsala', 'alferrikakoa', 'baliorik gabea' da bere esanahia. Hala ere, gaztelaniak mailegatu zuenean esanahia apur bat aldatu zion. Hortik sortu ziren *baldí* berba, hau da, 'lur landugabea, ekoizteko prest dagoena', abeltzaintzako *baldera/o* horren parekoa: oraindik ernaldtu ezin dena. Eta, urrunago joanda, arabierazko *bātil* hartatik datoz erabat arruntak diren zenbait esamolde, adibidez, "en balde" edo "debalde", hau da, 'alferrik' eta 'doan'. Erdi Arotik datozkigu eta gaztelaniaren esparrutik ia guztiz desagertu dira. Dena den, sasoi bete-betean dago berba gure eskualdean, harrigarria bada ere eta, ziur aski, euskararen eraginez.

Bestalde, azpimarratzekoa da abere horien emeez ari garela, artaldea finkatzeko edo handitzeko ia beti erabiltzen direlako. Axuri arrek ez dute emeen zortea, erabilerarik ez dutenez, sakrifikatzen direlako. Gainera, hil eta gero, axurientzat zen esnea gure esku geratzen da, horrela *putxa* (gatzatua), gaztanbera eta gazta egin ahal izateko.



También en Laudio se llama *arkasta* a los ejemplares de ovino hembra, ya maduros, pero que aún no han tenido su primer parto. Es decir, las *arkastas* son las hembras de ganado ovino en un estadio de desarrollo intermedio entre las inmaduras corderas y las ovejas, madres adultas.

La referencia aproximada más práctica es la de denominar *corderas* a las de menos de un año, *arkastas* a las que ya tienen entre uno y dos años y *ovejas* de ahí en adelante, por los ciclos vitales de estos animales.

En realidad nuestro nombre se trata de la palabra de euskera *arkazte(a)* o *argazte(a)* y significa 'oveja joven', ya que es producto de la suma de dos términos: *ardi* 'oveja' y *gazte*, 'joven'.

Las *arkastas* son también conocidas como *balderas*. Éste término procede del castellano, cuyo origen está en el árabe *bātil* y que significaba 'vano', 'inútil', 'sin valor'. Sin embargo, cuando lo adoptó para sí el castellano le adjudicó un sentido algo diferente. De ahí surgen términos como *baldío* 'tierra que no está labrada, lista para producir', algo similar a lo que en la ganadería es *baldera/o*: que aún no puede ser fecundada. Y, yendo aún más allá, también de aquel *bātil* árabe provienen expresiones tan nuestras como "en balde" o "de balde", con significado de 'inútilmente o en vano' y 'gratis'. Son de origen medieval y están prácticamente desaparecidas en todo el ámbito del castellano. Sin embargo en nuestra zona gozan de gran salud, algo excepcional y en lo que, seguramente, habrá influenciado el euskera.

Por otra parte, conviene señalar que prácticamente siempre nos referiremos a la hembra de la especie, ya que es la que se usa para consolidar o acrecentar el rebaño. Los corderos machos corren peor suerte, ya que se sacrifican por no tener utilidad alguna. Con su muerte además, se consigue disponer de la leche materna con la que haremos *putxas* —cuajadas—, *gaztanbera* —requesón— y quesos.

## ARLOTE

Euskaraz *arrote* berbak hainbat esanahi du. Agian, Emiliano Arriagak eman zuen definiziorik onena 1896ko *Lexicón* lanean: «*se aplica al hombre vago, perdido, sinvergüenza, de esos que se ponen al mundo por montera*». Gure herrian pertsona zatarrari, narrasari ere esaten zaio: "¡Qué pinta llevas! ¡Mira que eres *arrote*!".

Hala ere, euskaraz 'eskale, erromes, txiro' ere esan nahi du eta, antza denez, hori da jatorrizko esanahia, Laudion dagoeneko ia galdua dugun arren.





Zalantza barik, 'alproja', 'narras' eta 'txiro' aukera semantikoek lotura dute elkarrekin.

Berriz ere, termino jator eta berezko honen jatorria gugandik urrun bilatu beharra dago. Gaztelaniazko lehenengo idazletzat hartzen den Gonzalo de Berceo bazerabilen XIII. mendean: «*omes sin arlotia...*». Euskaran ere goiz sartu zen «*Doguna jan dogu, ta arlot gara biortu*», (*Refranes y sentencias*, 1596).

Benetako jatorria ez dago argi, baina zantzu guztien arabera, italiara eta korsikera zaharrezko "*arlotto*" berbatik dator. Berba horren jatorrizko esanahia 'landerra, bizimodu txarrekoa' da. Jatorria lehenagokoa ere izan liteke, terminoa oso hedatua baitago. Esaterako, ingelesezko *harlot* berbak 'emagaldtu, prostituta' esan nahi du, eta horrek argi uzten digu ogibide zahar hori miseriarekin lotua egon izan zela beti.

Bukatzeko, esan dezagun euskararen lurraldearen beste muturrean, Zube-roan alegia, *arlot* esaten diotela gainerakoengandik ihesean dabilen ardiari eta, esanahia hedatuta, 'gizon ergel samarrari, misantropoari', alegia, giza-kiekiko antipatia agertzen dutenei, pertsona xeble, bakarti eta mukerrei. Baina Laudion eta eskualdean dugun errealitatetik ezin urrunago dago hori, hemen abestien bidez kalea girotzen duen talde tradizionala baita *Arloteak* izenekoa.



La palabra de euskera *arrote* es usada con diversos significados. Quizá su mejor definición la ofreció Emiliano Arriaga (*Lexicón*, 1896): «*se aplica al hombre vago, perdido, sinvergüenza, de esos que se ponen al mundo por montera*». También es referencia en nuestro pueblo para referirse a «desaliñado, descuidado»: «¡Qué pinta llevas! ¡Mira que eres *arrote*!».

Sin embargo, en euskera se ha usado también para definir al 'mendigo, vagabundo, indigente', un significado que parece ser el original y que ya prácticamente se ha perdido en Laudio. Sin duda, esas diferentes opciones semánticas de 'truhán', 'desastrado' y de 'pobre' están relacionadas entre sí.

Una vez más, el origen de este término que tan castizo y propio nos parece está lejos de nuestro entorno y el castellano ya lo usa desde su primer escritor, Gonzalo de Berceo (s XIII): «*omes sin arlotia...*». También irrumpe pronto en el euskera «*Doguna jan dogu, ta arlot gara biortu*», «*Hemos comido lo que tenemos y nos hemos hecho pobres*» (*Refranes y sentencias*, 1596).

Su origen real es incierto, aunque todo parece indicar a que sea el término *arlotto* 'pobre, de mala vida' del italiano y corso antiguos. Quizá incluso



pueda pensarse en algo anterior, ya que la difusión del término es muy amplia. Sin ir más lejos, en inglés se usa *harlot* para decir 'ramera, prostituta', algo que nos deja a las claras cómo esta antigua profesión se arraiga en la miseria.

Para acabar, digamos que en el otro extremo del espacio del euskera, en Zuberoa (Soule, Francia) se llama *arlot* en esta lengua a la 'oveja que huye de las compañeras' y, por extensión, al 'hombre algo imbécil, misántropo', es decir, 'una persona que muestra antipatía por los seres humanos', el 'raro, solitario, huraño'. Nada más lejos de la realidad que tenemos en Laudio y su comarca, ya que aquí *Los Arlotes* es un tradicional grupo de ambientación popular a través de sus canciones.

## ARRANA

*Arran* terminoa —*arrana*, artikulua eransten badiogu— erabiltzen da euskal mendebalde osoan 'zintzarri' edo 'joare' esateko. Aspaldidanik dugu dokumentatua haren erabilera, Oihenartek "*Idi zarrari, arran berri*" jaso baitzuen bere *Refranes y sentencias* lanean (1596).

Eta daborduko gure udalerrian berba hori oroitzen ez dugun arren, zeharka bai, gogoan dugu, eta jende oso gutxiri murriztua. Laudion, *arrana* berbaren ahozko erabilera jaso dugu gaztelaniaz *cocinilla* deritzon oholtzoa etengabe kolpatzen duen baliokide gisa, hau da, errota tradizionaletako txaramel edo kalaka izeneko piezari esateko. Zintzarri baten antzeko soinua ateratzen du bere triki-traka etengabeaz. Oholtxo horri *cítola* esaten zaio gaztelaniaz, nahiz eta Laudion *tarabela* berba erabiltzen dugun —*arrana* terminoaz gain, jakina—; bertoko berba hori gaztelaniazko *tarabilla* hartatik dator, eta hori, halaber, arabierazko *tarab* hitzetik, 'musika'.



El término *arran* —*arrana* cuando le añadimos el artículo— es la palabra usada en todo el occidente vasco para denominar el 'cencerro'. Su uso se documenta desde muy antiguo, con el «*Idi zarrari, arran berri*» ('cencerro nuevo a buey viejo') que Oihenart recogiese en sus *Refranes y sentencias* (1596).

Y, aunque ya no recordamos en nuestro municipio aquel vocablo, sin embargo, sí lo hacemos de un modo indirecto y restringido a poquísima gente. En Laudio, atestiguamos el uso oral de la palabra *arrana* a la hora de denominar una tablilla que golpetea continuamente la *cocinilla*, un compo-



nente de los molinos tradicionales. Con su incesante traqueteo, produce un sonido con una cadencia similar al de un cencerro. Esa tablilla es conocida en castellano como *cítola*, aunque en Laudio la conozcamos —además del término *arrana*— con el vocablo *tarabela*, una variante del castellano *tarabilla* y éste a su vez del árabe *tarab* 'música'.

## ARRAÑO

Gaur egun, ez du inork erabiltzen *arraño* berba gure herrian, baina duela mende eta erdi, antza, 'landare-estalkirik eta zuhaitzik ez duten baina bazkatarako larre finak dituzten mendiguneak' definitzeko erabiltzen zen. Gaur egun, berba generiko horren benetako ezagutza galdu denez, toponimo bihurtu dugu Arraño mendi biak izendatzeko. 1889an, udal artxiboan, honela definitu ziren, ostean, sailkatzeko: «...*los montes referidos [Arraño] en concepto de "dehesa boyal" por ser los únicos donde en determinadas épocas puede pasturar el ganado que representa para este país su mayor riqueza*».

Espainiako Errege Akademiak definitzen duen moduan ulertu behar dugu "dehesa boyal" hori: *buey* berbatik dator *boyal* hori, alegia, idiei lotutakoa. Zehazki, hau da Espainiako Errege Akademiaren definizioa: 'herri-larre edo bazkalekuak, herritarrek abereak bazkatzera eramateko, abelgorriak izan zein izan ez'.

Dokumentu historikoetan maiz agertzen da termino hori generiko legez, ez izen berezi legez, letra xehez idatzia. Hona hemen adibide bat: "*Condiciones bajo las cuales el ayuntamiento de este Valle saca a público remate los pastos tiesos de los dos arraños de Larra y Gogenuri*" (1855).

Normalean, bi *arraño* aipatzen dira, Larreakoa (Larra) eta Goienurikoa. Bigarren horri Santa Agatako *arrañoa* ere bazeritzaion: "*el arraño de Santa Águeda*". Bada beste bat gutxienez, udalerrriaren iparraldeko mugan, Gane-gokortaren magalean; udalerriko jurisdikzio-lurren neurketetan aipatzen da. Erabilera generikoa egin zuen Ricardo Becerro de Bengoa jakintsu gasteiztarrrak —*arraño* idatzia, letra xehez, ez larriz— gure udalerrriaren deskribapen labur batean: «...*sobre el pueblo, más allá de los arraños de pasto, el alto de Cucullu, cuajado de castaños...*» (*Descripciones de Álava*, 1880).

Udalerrian jadanik erabilera arrunteko berba ez den arren, egokitzen jo dugu hemen jasotzea, bitxia delako, eta gure eguneroko paisaian duen nagusitasuna dela medio, izan ere, toponimo bihurtua dugu gaur egun. Ez dakigu ezer berbaren jatorriaz, baina, aukeraren bat ematearren, agian, *larra* berbarekin lotu genezake, hau da, ekialdeko *larre* horren mendebaldeko gure



aldaerarekin, zeinak 'bazkalekua, bazkatarako mendia' esan nahi baitu. Hari —ño atzizki diminutiboa erantsita, *larraño* genuke. Baina kontua da ez dela inoiz dokumentatu hasierako *l*— horrekin, beraz, zalantzazkoa da proposamena.

Azkenik Arraño izeneko auzunea eta etxea ditugu Bizkaiko Lemoa eta Izurtza udalerrietan, hurrenez hurren. Abizena ere izan zen Arraño, egun galdua.



Hoy en día nadie en el municipio utiliza el vocablo *arraño*. Pero hasta hace siglo y medio se usaba para supuestamente definir 'zonas de monte desprovistas de árbolado por carecer de manto vegetal, pero de finos pastos'. Hoy en día, al perder el conocimiento verdadero de esa palabra genérica, lo hemos convertido en topónimo para denominar los dos montes Arraño. En 1889, en el archivo municipal, se definen para su clasificación como «...*los montes referidos [Arraño] en concepto de "dehesa boyal" por ser los únicos donde en determinadas épocas puede pasturar el ganado que representa para este país su mayor riqueza*».

Hemos de entender ese "dehesa boyal" —referente a buey— tal y como lo define la Real Academia Española: 'dehesas o prados comunales donde el vecindario de un pueblo suelta o apacienta sus ganados, aunque estos no sean vacunos'.

En la documentación histórica se usa a menudo ese término como genérico y no nombre propio, escrito en minúsculas, por ejemplo, "*Condiciones bajo las cuales el ayuntamiento de este Valle saca a público remate los pastos tiesos de los dos arraños de Larra y Gogenuri*" (1855).

Normalmente en la documentación se habla de dos *arraños*, el de Larrea (Larra) y el de Goienuri, denominado éste también en ocasiones como "*el arraño de Santa Águeda*". Existe al menos otro más, en el límite septentrional del municipio, bajo las laderas de Ganekogorta y que se cita en los apeos jurisdiccionales del municipio.

También lo usa como si de un genérico se tratase —escrito *arraño* con minúscula y no mayúscula— el erudito vitoriano Ricardo Becerro de Bengoa en una breve descripción que hizo de nuestro municipio: «...*sobre el pueblo, más allá de los arraños de pasto, el alto de Cucullu, cuajado de castaños...*» (*Descripciones de Álava*, 1880).

Aunque ya no sea una palabra común de uso en nuestro municipio hemos estimado oportuno el insertarla, por su curiosidad y por la preminencia de esa palabra —hoy convertida en topónimo— en nuestro paisaje diario.



Nada sabemos de su origen que, por apuntar alguna alternativa, quizá podría relacionarse con *larra*, variante occidental de *larre* 'monte de pasto, dehesal' más el sufijo diminutivo —ño. Pero el hecho de no documentarlo nunca con la /— inicial nos hace dudar.

Para terminar, conocemos un barrio y una casa de nombres Arraño, en los municipios de Lemoa y de Izurtza respectivamente. También fue Arraño un apellido, hoy desaparecido.

## ARRECHO/A

Behar bada, euskarazko *harro* berbarekin duen antza dela-eta, herrian beti pentsatu izan dugu euskarazko jatorria duela. Zaharra izan arren edo lehenago oso gaixorik egon arren, tente-tente, zutun zutunik, eta lerden dabilen pertsonari esaten zaio: "*Qué arrecho anda todavía tu abuelo*".

Dena den, herri-iritzi horiek alde batera utzi beharko ditugu, gaztelaniazko berba delako. Latinezko *arrectus* zaharrean, hau da, *arrigëre* 'zuzendu, tentetu' aditzaren partizipioan du jatorria.

Hala ere, gurean ematen diogun erabilera da berezi bihurtzen duena goian jasotako adieretan; izan ere, Espainiako Errege Akademiaren hiztegian dituen adiera bakarrak 'zakil zuta edo tentea' eta 'kitzikapen sexuala duen pertsona' dira. Espainolaren erabilera amerikar batean, bestalde, 'persona sumindua edo haserretua' esan nahi du, edo 'persona kementsu eta ausarta'.

Kasualitatez, azken adiera hori da interesatzen zaiguna, garai batean Espainiako gaztelaniaz ere erabili baitzen. Zalantza barik, Audio erabiltzen ditugun berba eta esanahia dira horiek. Bestela esanda: beste lekuetan ostendurik geratu den forma gorde eta bizirik mantendu dugu; benetako fasil lexikoa.



Quizá por su similitud con la palabra del euskera *harro* 'orgullosa, altivo, presumido', en los ambientes locales siempre hemos supuesto que era una palabra eusquérica. Se usa para designar a una persona que, a pesar de la edad o de haber estado muy enferma, va tiesa, erguida, con buena planta: "*Qué arrecho anda todavía tu abuelo*".

Pero, a pesar de nuestras suposiciones populares, se trata de un vocablo del castellano y que tiene su origen en el latín *arrectus*, participio de *arrigëre* 'enderezar'.



Lo que sí es particular es el uso que le damos nosotros, en las acepciones más arriba indicadas ya que, en el *Diccionario* de la Real Academia Española tan solo aparecen referencias a 'pene tieso o erecto', 'persona excitada sexualmente'. Y en un uso americano del español, como 'persona iracunda o furiosa' o 'persona valiente o animosa'.

Es casualmente este último significado el que nos interesa, ya que antiguamente también fue usado así en el castellano de España. Se trata sin duda de los mismos término y significado que usamos en Laudio. Es decir, que hemos guardado y mantenido viva una forma ya desaparecida en otros lugares, un auténtico fósil léxico.

## ARREKUTXUS

Gure udalerrian asko erabiltzen da "llevar a *arrekutxus*" esamoldea, adierazteko norbait lepoan garraiatzen dela —normalean, ume bat—, hanka bakoi-tza lepoaren alde batean duela. Badira beste aldaera batzuk, hots, *arrekotxas*, *akutxus*, *arrekotolas* eta abar. Gaztelaniaz "*a caballitos*", "*a la gigantona*" eta beste batzuk ere daude.

Hitz amaierako —*u* horren ondorioz pentsa liteke euskaran duela jatorria, baina ez da horrela. Berez, kantaurialde osoan hedatua dagoen gaztelaniazko esamoldea da; "*a cucho*" izan zen jatorrian, hau da, 'soraldaren edo lepoaren gainean'. Sorburu zaharra latinezko *coxa* berba da, 'mokorra' edo 'aldaka', alegia. Zalantza barik, hau da gure *arrekutxus* horren osaera: *arre* (zaldia mugiarazteko berba) + *cucho* 'soraldaren edo lepoaren gainean'.



Se usa en nuestro municipio mucho la expresión de "llevar a *arrekutxus*" cuando hacemos referencia a transportar a alguien —normalmente un niño/a— sobre los hombros, con una pierna por cada lado de nuestro cuello. Existen también otras variantes como *arrekotxas*, *akutxus*, *arrekotolas*, etc. y en castellano "*a caballitos*", "*a la gigantona*" u otras.

A pesar de su apariencia con ese final en —*u* que parece imprimirle apariencia de euskera, no lo es. Se trata en realidad de una expresión del castellano generalizada en la cornisa cantábrica y que parte de la expresión "*a cucho*", siendo su significado el de 'al hombro'. Su origen primitivo está en el latín *coxa*, 'cadera'. Sin duda nuestra expresión *arrekutxus* no es sino *arre* (expresión para arrear a las caballerías) + *cucho*, 'a hombro'.



## ARRUMACO

Berbaren soinua entzunda, uste izan dugu *arrumaco* berba euskarazkoa baina ez da horela, gaztelaniazkoa delako. Bere esamnahia 'keinuz edo imintziaz egindako maitasun-erakustaldia' da eta *remoque* berbatik dator, 'esaera burutsua, satirikoa, lizuna' eta hori, halaber, *re-moque*, *re-moca* 'iseka' hitzetatik: hortik dator gaztelaniazko *mueca* hitza.

Edozelan ere, *arrumaco* eta *achuchón* berbak sinonimo lirateke gurean, izaera sexualeko ñabardurarekin. Esanahiari begiram ez dago oso urrun hiztegi honetako *zirri* berbatik.



A pesar de lo que por su sonoridad suele presuponerse, el término *arrumaco* no es una palabra del euskera sino del castellano. Significa 'demostración de cariño hecha con gestos o ademanes' y parte de *remoque* 'dicho agudo, satírico, picante' y esta a su vez *de re-moque*, *re-moca* 'burla', de donde surge el término *mueca*.

Sea como fuere, *arrumaco* tendría entre nosotros un significado de *achuchón*, con cierto componente de índole sexual. No muy lejos de lo que significa la palabra *zirri* recogida también en este diccionario.

## ARTABURU

Gurean oso erabilia izan da *artaburu* berba, eta gaur egun ere bizi-bizirik dago. Hala ere, ez da jatorrizko esanahiaz erabiltzen, bigarren mailako batekin baizik. Baina zergatik diogu hori?

Bada, berez, artoaren landarearen fruitua delako *artaburua*, *arto* (landarea) eta *buru* (muturra) berbak elkartzearen emaitza. Bestela esanda, landare gramineo batzuen fruitua da, adibidez, artoarena, buru trinkoa eta aleak oso estu dituen.

Hala ere, albo-esanahia eman zaio eta irain legez ere erabiltzen da, fruituaren itxuragatik, edo. Beraz, 'ergel, mozolo' deitzearen parekoa da norbaiti artaburu deitzea. Artaburuaren itxura zelebrea bizi garen Euskal Herriaren mendebaldean "*Joan artaburuak urkultzera!*" bezalako esamoldeak eman ditu, gutxi gorabehera, "zoaz pikutara!" esaeraren parekoa. Hitzez hitz azalduta, 'Zoaz artaburuak aletzera!' izango litzateke.

Gure eskualdeko gaztelaniaz badugu *borono* berba ere, *artaburu* iraingarriaren baliokidea. *Borona* berbatik dator, eta horrek ere 'artoa' esanahia du.



Bitxia da, 'adimen urriko pertsona' izendatzeko *borono* berba erabiltzea euskal esparruan baino ez delako gertatzen. Hortaz, uste izatekoa da *artaburu* berbaren itzulpena edo paraleloa dela. *Borono* berba 'zakarra, baldarra' esanahiarekin erabili izan da, eta, tamalez, baserritarrak edo euskaldunak izategatik gaztelaniaz txarto moldatzen zirenak umiliatzeko eta barregarri uzteko ere.

Bitxitasun legez esango dugu hasiera batean ez zitzaiola *arto* deitzen gaur egungo landare berari, baizik eta lehendik ereiten zen artatxikiari, gaztelaniaz 'mijo'. Dena den, Amerikatik ekarritako artoa bat-batean hedatzean, eta landare bien aleek antza zutenez, ordura arteko artoa *arto txiki* izatera igaro zen, eta gaur egungo artoa, *arto handi*, elkarren artean bereizteko. Hala ere, Amerikako artoa baserrietako labore nagusi bihurtu zenez, beste barik *arto* deitzen hasi zitzaion, eta *arto txiki* edo *artatxiki* izenarekin geratu zen lehengo landatzen zena. Eta azken buruan zereal zaharra gure ortuetatik desagertu zenez ia, *arto* legez ezagutzen dugu gaur egun zereal amerikarra.

Antzeko zerbait gertatu zen jatorri zelta duen *borona* berbarekin, hori ere 'artatxikia' izendatzeko erabiltzen baitzen. Arto amerikarra ekarri zenean, artoa zein artatxikia izendatzeko erabili zen *borona*, eta, azkenean, 'artoa' izendatzeko berba legez finkatu zen. Laudion, ohikoa da gaztelaniaz *borona* berba erabiltzea 'artoa' izendatzeko.

Amaitzeko esango dugu *maíz* berba tainerazko *mahís* berbatik datorrela; tainera Antilletako hizkuntza zen (Kuba, Haiti, Dominikar Errepublika, Puerto Rico...).



El vocablo de euskera *artaburu* es y sigue siendo muy usado en nuestro municipio. Pero no con el significado primigenio, sino con otro secundario. ¿Por qué decimos esto?

Pues porque en principio, *artaburu* es la 'mazorca del maíz', resultado de la fusión de dos palabras diferentes como *arto* 'maíz' y "*buru*", 'cabeza'. Es decir, se trata del 'fruto en espiga densa, con granos muy juntos, de ciertas plantas gramíneas como el maíz'.

Pero, de modo colateral, quizá por su aspecto, el nombre de la mazorca se ha usado a modo de insulto entre las personas. Así, decir a alguien *artaburu* en nuestro municipio es como llamarle 'necio, bobalicón'. El aspecto jocoso de la espiga ha generado incluso expresiones como "*Joan artaburuak urkultzera!*", muy del occidente vasco al que pertenecemos, una especie de "¡Vete a freír espárragos!" y que, traducido literalmente es '¡vete a desgranar mazorcas!'.





Cuando hablamos en el castellano de nuestra zona, también existe el término *borono*, equivalente al despectivo *artaburu*. Surge de *borona*, que significa también 'maíz'. Es curioso, porque el uso de *borono* como 'persona corta de entendimiento' se usa solamente en el ámbito vasco, por lo que podemos suponer que es la traducción o el paralelo de la palabra en euskera *artaburu*. *Borono* se ha usado para indicar 'rudo, tosco' y, desgraciadamente también para ridiculizar y humillar a los que eran de caserío o no se manejaban bien en castellano por hablar euskera.

Como curiosidad, digamos que *arto* no era en origen 'maíz' sino 'mijo', un cultivo local. Pero con la irrupción repentina del maíz, traído de América, y por la similitud entre los granos de ambas plantas, el mijo pasó a ser *arto txiki* y el maíz *arto handia* para poder diferenciarlos entre ellos. Pero como el maíz llegó a ser el cultivo principal de los caseríos, sin más se le decía *artoa*, quedando el *arto txiki* o *artatxiki* para denominar el 'mijo'. Y como este último cultivo prácticamente desapareció de nuestros huertos, *artoa* se identifica en la actualidad solo con 'maíz'.

Algo similar sucedió con la palabra *borona*, de origen céltico, y que se usaba para denominar el 'mijo'. Con la traída del maíz americano, *borona* sirvió para denominar el mijo y el maíz y, al final, se quedó como 'maíz'. *Borona* es la palabra que tradicionalmente se ha usado en Laudio para denominar en castellano el 'maíz'.

Para finalizar, añadiremos que *maíz* proviene del taíno *mahís*, una antigua lengua hablada en las Antillas (Cuba, Haití, República Dominicana, Puerto Rico...).

## ASKA

Laudion, *aska* esaten zaio abereei bazka emateko edozein 'ganbela' edo 'edanlekuri', normalean, handiei. Zurezkoak izan ohi ziren, baina zementuz eta bestelako materialez egindako modernoagoei ere horrela deitzen zaie. *Aska* terminoa euskalki guztietan erabiltzen da, eta horrek agerian uzten du antzina antzinako berba dela, balio linguistiko handikoa.

Alde batera utzita gaur egun Laudio duen erabilera murriztagoa, garai batean, barruan zer edo zer eduki zezakeen zurezko ia edozein ontzi izendatzeko erabili zen *aska* terminoa —euskara galdu ez zuten herrietan gaur egun gertatzen den bezalaxe—, esaterako, azpilak (oraskak) zein oreak landu edota egiteko edozein ontzi. Hortik pieza etnografiko bikainak eskuratatu ditugu, esaterako, Gorbeia *taloaskak*, mendian jateko —normalean, indabak— eta taloaren oreak prestatzeko erabiltzen zen ontzia. Beste zenbait



lekutan edozein zulo izendatzeko erabiltzen da *aska* berba, baita goldeak igarotzean uzten duen ildo adierazteko ere.

Oso hitz malgua da. Izan ere, euskarazko beste hainbat berbaren atala baita, nahiz eta berba horiek gurean ezagutzen ez diren. Esaterako, *harraska* deritzo 'ura biltzeko harri hustuari', *sehaska* 'haurtxoen oheari', *ardanaska* 'ardo intsuldatzeko onil modukoari', *uraska* 'ura edateko ontzi handiari', *lurraska* 'zeraimazko ontziei'...



En Laudio se llama *aska* a cualquier tipo de 'pesebre', 'abrevadero', por lo normal de tamaño grande, para suministrar la comida a los animales. Normalmente han sido de madera aunque a los más modernos de cemento, etc. también se les denomina así.

*Aska* es un término que se usa en todos los dialectos del euskera, algo que nos da muestra de su gran antigüedad y valor lingüístico.

Al margen del uso más restringido que hoy le damos en Laudio, el vocablo *aska* ha servido en otros tiempos anteriores —como sucede hoy en los pueblos en donde no se perdió el euskera— prácticamente para denominar cualquier recipiente de madera que pueda acoger algo en su interior, como artesas o recipientes para amasar. De ahí conseguimos piezas etnográficas tan preciosas como esas *taloaskas* propias de Gorbeia, un utensilio de madera en el que se amasaba el talo y además se usaba como recipiente para comer en él, normalmente alubias. Incluso en otros lugares con *aska* se denomina cualquier tipo de foso o hasta el surco que crea el arado al pasar.

Es un término tan versátil que forma parte de otras muchas palabras de euskera, aunque desconocidas en nuestro municipio. Así, *harraska* 'piedra en la que se recoge agua', *sehaska* 'cuna', *ardanaska* 'especie de embudo para trasegar el vino', *uraska* 'bebedero', *lurraska* 'recipiente cerámico'...

## ASPALDIKO

*Aspaldiko* agur-formulak hirugarren silaban hartzen du azentua gurean (*aspaldíko*) gaztelaniaren eraginez, euskarazko ahoskera jatorrean bigarren silaban hartzen duen arren (*aspáldiko*). Hitzez hitz itzulita, 'duela denbora luze' esan nahi du eta "¡Cuánto tiempo sin verte!" eta enparauak dituzke baliokide.



*Aspaldiko* es una fórmula de saludo que entre nosotros se acentúa como *aspaldiko* por influencia del castellano, aunque la forma original en euskera se articula *aspáldiko*. Literalmente significa 'de hace mucho tiempo' y sería el equivalente a "¡Cuánto tiempo sin verte!" o similar.

## ASTAKO

*Astako* berba asto txikiak izendatzeko erabiltzen da Laudion. Ume txikiei ere esan ohi zaie: "¡No tires eso! ¡Mira que eres *astako*!". Euskara modernoaren bidez iritsi zaigun eta gizartean berriro txertatu dugun *astakilo* berbaren gutxi gorabeherako baliokidea da.

Baina bertan gorde dugun *astako* berba harribitxi linguistikoa da benetan, bere arkaismoa dela-eta: *asto* berba eta gaur egungo hizkera arruntean erabiltzen ez den —*ko* atzizki txikigarri zaharra elkartzetik sortu zen. Atzizki hori bera ikus dezakegu *mutil* berbatik *mutiko* eratortzen dugunean. Arkaikoa dela diogu, gaur egun *astotxu* esango genukeelako, zalantza barik. Eta bide batez esanda: hori ere erabili, erabili egiten dugu.

Horrez gain, bada gure udalerrian euskara galtzearekin batera atzendu genuen beste erabilera orokor bat: *Astako* izen bereziaz deitu ohi zitzaien umeentzako ipuin eta alegietako astoei. Zalantza barik, berreskuratatu beharreko zerbait da hori.



*Astako* es una palabra usada en Laudio y su significado es 'burrito' o 'borrico'. Normalmente se aplica para decírselo a los críos pequeños: "¡No tires eso! ¡Mira que eres *astako*!". Es un equivalente aproximado a la palabra *astakilo* que hoy sabemos a través del euskera moderno y que hemos reintegrado en nuestra sociedad.

Pero la palabra local *astako* es una auténtica joya lingüística, por su arcaísmo: surge de unir *asto* 'burro' con un antiguo diminutivo que hoy ya no se usa en la lengua habitual: —*ko*. Es el mismo que apreciamos cuando de *mutil* 'chaval' nos genera *mutiko* ('chavalito'). Decimos que es arcaico porque sin duda hoy diríamos *astotxu*, forma esta que por cierto también usamos.

Existe además otro uso general para esa palabra pero que perdimos en nuestro municipio a la vez que nos desprendimos del euskera. Se trata del



uso de "*Astako*" como nombre propio habitual de los burros que aparecen en los cuentos y fábulas infantiles. Sin duda, es algo que deberíamos recuperar.

## ASTEN

Ez dugu batere lekuko lexikorik *asten* berba euskarazkoa dela baieztatzeko. Ezta gaztelaniazkoa dela adierazteko ere. Baina ezaguna da oso inguruotan. Laudion eta eskualdeko herrietan uneko jardueran 'atsedenaldi edo geldialdi laburra egitea' da, gaztelaniaz "hacer un *asten*", azentua azken silaban dagoela. Horrez gain, eguraldiak *asten* bat egiten du euria ari duenean eta tarte batez gelditu eta ostartetxo bat irekitzean. Hau da, une bateko aterraldi txikia.

Zuhatza herrian bada toponimo bat ere, *Astena*, eta handik ez oso urrun, Okondon, *El Sentaje*; izen hori eman zitzaion abere taldeek eta zamalanetarako animaliek atsedeneku legez erabiltzen zutelako. Baliteke elkarrekiko erlazioa edukitzea, eta, behar bada, egunen batean argituko dugu berba honen jatorri misteriotsua.

Ez litzateke harritzekoa zerikusiren bat edukitzea euskarazko *eten* aditzarekin ('zerbait geldiaraztea, etetea'), baina espekulazio hutsa da hori, ezin izan baitugu identifikatu faltan dagoen eta eta jatorria argitzeko behar-beharrezkoa den lehenengo elementua.

Edozelan ere, oso arrunta da oraindik audioar zaharrenek "hacer un *astén*" esamoldea erabiltzea.



No disponemos de ninguna evidencia léxica para afirmar que *asten* sea euskera. Ni castellano. Pero sí es un término bien conocido en nuestro entorno. Hacer un *asten* —acentuado en la última sílaba: *astén*— es en Laudio y en los pueblos de la comarca 'hacer un pequeño descanso o pausa en una actividad que se está realizando'. También hace el tiempo un *asten* cuando en pleno chubasco para de llover y sale un pequeño claro de sol o luz. Es decir, una leve mejoría momentánea.

Existe incluso como topónimo en Zuhatza, *Astena*, no lejos de otro similar en significado, de nombre *El Sentaje* (Okondo), llamado así por ser un descansadero para rebaños y animales de carga cuando por allí pasaban. Quizá estén interrelacionados y nos aclaren algún día el misterioso origen de nuestra palabra.



No sería de extrañar que tuviese relación con el término de euskera *eten* 'cortar, interrumpir algo' pero son meras especulaciones y con un necesario primer elemento que no logramos identificar.

Sea como fuere, entre los laudioarras más mayores es aún muy corriente usar la expresión "hacer un *astén*".

## **ASTOTXU.** *Ikus / Ver* **ASTAKO**

### **AURRESKU**

Duela mende erdi, sanrokeetako gauza deigarri eta herrikoienetako bat zen "Kofradeen aurreskua", hau da, jaien azken egunean egiten zen dantza solemnea. "Berakatz Eguneako aurreskuak" ere sona handia zuen herritarren artean. Izan ere, *aurreskua* da gure herri-dantza berezkoena; gure herrialdeko dantzarik bereizgarriena, ziur aski. Eta hala ere, gaur egun ia inork ez daki aurreskua dantzatzen...

Izena soka-dantzaren hasierako dantzaritik datorkio, ohorezko lekuan dantza egiten duen horretatik, 'aurreko eskuarena', hain zuzen (*aurre* + *esku*). Atzeko lekuan dantza egiten duenari *atzesku* deritzo, '*atze* + *esku*'. Eta orain horren esanahia ezagutzen dugun arren, izena ez da sekula itzultzen, beti esaten da euskaraz: *aurresku* esaten dugu gaztelaniaz zein euskaraz.

Egiari zor, gaur egun gozitzen dugun bertsio murriztua baino nahiko korapilatsuagoa da jatorrizkoa.

Esan bezala, euskal dantza herrikoia da *aurreskua*, hotsandikoa eta dotorea, omenaldietan dantzatzekoa erreberentzia gisa, komunitateko pertsona garrantzitsu edota ospetsuen aurrean. Ez da edozelako dantza, beraz.

Gaur egun ikusi ohi dugun *aurreskua*, *aurrekulari* (aurreskua dantzatzen duen dantzari) bakar batek dantzatzen du. Era tradizionalen dantzatzen denean, ostera, lau zati dauzka, José Arruek (1885 - 1977) bere margolanetan ondo jaso legez: *aurrez aurrea* (erronka), *esku aldatzea* ('eskudela'), *zortzikoa* ('kontrapasa') eta *agurra* ('despedida').

Dantza sozial hau izan da Euskal Herriaren historian gehien dantzatutakoa; herritarrek dantzatzen zuten jai handietan, baita ahaldun eta alkateek ere. Hori dela eta, hainbat aldaera izan ditu, eta beste hainbat izen.

Soilik gizonak osatutako biribilean dantzatu ohi zen, eskuetatik elkarri helduta, edo zapiei eutsita, soka moduko bat osatuz. Dena den, zantzu guztien arabera, egun jakin batzuk emakumezkoentzat ziren, normalean, herriko jaietako hirugarrenak. Dirudienez, hori da gure *Berakatz Egunaren* jatorria,



hau da, emakumezkoek gizonezkoentzat erreserbatu ohi ziren ohore guztiak euren gain hartzeko eguna.



Si algo era llamativo y popular en los sanroques de hace más de medio siglo era el "Aurreku de los Cofrades", un baile solemne en el último día de las fiestas. También lo era el "Aurreku del *Berakatzegun*" o "Día de Ajos", con gran aceptación popular. Y es que el *aurreku* es nuestro baile popular más propio y, probablemente, la danza más característica de nuestro país. Y sin embargo prácticamente nadie sabe bailarlo hoy en día...

Recibe su nombre del primero de sus bailarines de la *soka-dantza* inicial o *cuerda*, el puesto más honorífico, el de la 'mano delantera' (*aurre* 'delante' + *esku*'mano') frente al del final, *atzesku* (*atze* 'detrás' + *esku* 'mano'). Y aunque sabemos ahora su significado, su nombre nunca se traduce y se dice tal cual: *aurreku*, también hablando en castellano.

En realidad, el baile es bastante más complejo que la versión reducida que solemos gozar hoy.

Como hemos dicho, el "*aurreku*" es una danza popular vasca, revestida de solemnidad y elegancia que se baila a modo de homenaje o reverencia, delante de personas o personalidades destacadas de la comunidad. No es un baile cualquiera, por tanto.

El *aurreku* que solemos ver hoy en día es bailado tan solo por un *aurrekulari* ('bailarín de aurreku'). Pero si se baila a la manera tradicional, esa que recogen las pinturas costumbristas de José Arrue (1885 - 1977), está compuesto de cuatro partes: *aurrez aurrea* ('desafío'), *esku aldatzea* ('pasamarnos'), *zortziko* ('contrapás') y *agurra* ('despedida').

Esta danza social ha sido la más bailada en el País Vasco a lo largo de la historia, la danzaba el pueblo en las grandes fiestas y también los diputados y alcaldes. Por ello, ha tenido múltiples variantes y ha recibido cantidad de nombres.

Se bailaba en corro, generalmente compuesto solo por hombres unidos de la mano, o sujetando pañuelos, y formando una "cuerda". Pero todo parece indicar que existían unos días específicos para las mujeres y que solía ser el tercer día de las fiestas. Ese parece ser el origen de nuestro *Berakatz Egun* o "Día de Ajos", en origen, día propio para que las mujeres asumiesen todos los honores normalmente reservados a hombres.



## AZPIGARRI

*Azpigarri* berbak —guk *aspigarri* ahoskatua— izendatzen du gure herrian ukuiluko abereentzako ohea egiteko erabiltzen den 'orbela', 'ira' edo antzeko beste edozein material.

Ez da bertoko berba, inondik inora, Bizkaia eta Gipuzkoa osoan erabiltzen baita. Elementu bik osatzen dute berba: *azpi* (azpikoa) + *-garri* (aproposa, egokia). Hau da, 'azpirako egokia dena' litzateke *azpigarri* gure hitza. Jakina, itzulpen literala da hori.

Dena den, aurrekoa gezurra izan barik ere, lehenengo terminoak (*azpi*) abereen oheei egiten die erreferentzia berez, hori baita mendebaldeko euskeran berbak duen esanahietako bat. "Zoru" berbaren sinonimo legez ere erabiltzen da, bere horretan.

*Azpigarri* edo abereen oheei esker, animaliak zorutik isolatzen dira eta leku bigun eta lehorragoa dute. Abereek euren barrenak *azpigarriaren* gainean askatzean, gorotz bihurtzen da lehenik eta orturako ongarri gero, norma-lean, oso ezagun zaizkigun metetan ipini eta ontzen eta hartzitzen utzi ostean. Bestela esanda: abereen oheak aldiro garbitzen zirenez, *azpigarria* bildu behar zen udazkenean, abereek ukuiluan emango zuten denbora osoan nahikoa izateko. Hori dela eta, ohikoa zen material horiek baserrien alboan metatuta ikustea, bereziki, ira.

Gaur egun, berbaren esanahirik zabalenean erabiltzen da Laudion *azpigarri*, baina baita zehazki pinu-hostoak izendatzeko ere. Hala ere, terminoaren espezializazio moderno eta hiritarragoa da hori, zalantza barik.



Con la palabra *azpigarri* —pronunciada *aspigarri*— se denomina en nuestro pueblo a la 'hojarasca', 'helecho'... o cualquier otra materia similar, con la que se hace la cama del ganado' que se encentra en la cuadra.

En absoluto es una palabra local ya que su uso es común en todo Bizkaia y Gipuzkoa. Se compone de dos elementos, que son *azpi* 'debajo' + *garri* 'apto, adecuado, apropiado', es decir, "*azpigarri*" sería 'lo adecuado de debajo'. Eso, haciendo la traducción del modo más literal posible.

Pero en realidad, sin que lo anterior deje de ser cierto, el primer término *azpi* hace referencia a las 'camas del ganado' ya que es este uno de sus significados en el euskera occidental. Incluso, se usa también como 'suelo', tal cual.

Con el *azpigarri* o camas para el ganado, se consigue aislar los animales del suelo y ofrecerles así un lugar más mullido y seco. Al deponer los animales



los excrementos en el *azpigarri*, éste se transforma en estiércol primero y abono para los campos después, normalmente tras haberlo dejado reposar y fermentar en las características pilas. Es decir, las camas del ganado se limpiaban habitualmente, por lo que era necesario hacer acopio del suficiente *azpigarri* en el otoño para tenerlo disponible para todo el tiempo en que el ganado permaneciese en la cuadra. Era habitual por ello verlo almacenado en pintorescas pilas o almiarés en las proximidades de los caseríos, especialmente cuando se trataba de helechos.

Hoy en día, en Laudio se usa la palabra *azpigarri* en su sentido más general, pero también para referirnos en especial a la hoja de pino. Pero es sin duda una especialización moderna y más urbana del término.

## **BALDERA.** *Ikus / Ver* **ARKASTA**

## **BARGASTA**

*Bargasta* euskarazko berba da, oraindik ere oso erabilia Laudioko baserri-inguruetan, eta 'tamaina eta adin ertaineko txerriak' izendatzeko balio du, ez txikiak, ezta ugaltzeko adina dutenak ere. Gutxi gorabehera azaltzearren, egile batzuek "zazpi bat hileko txerriak" direla diote eta beste batzuek "lau bat arroko txerriak".

la ziur, *arkasta* berbaren antzekoa da esanahiari zein egitura linguistikoari dagokienez, azken osagaia *gaztea* izanda. Tamalez, ez gara gai lehenengo osagaia identifikatzeko, zalantza barik txerriari erreferentzia egin behar dion arren (*txarri, urde...*).

Hasiera batean, ar zein emeentzako balio zuen *bargasta* berbak. Hala ere, gaztelaniara ekartzean, *bargasta* emeentzat erabiltzen hasi zen eta *bargasto* arrentzat, eta halaxe geratu da erabilera gure herrian. Zelanahi ere, ez da hori zuzena euskaraz, jakina.

Halaber, Laudion pertsonak iraintzeko ere erabiltzen da *bargasta*. Berriro ere, emakumeen aurka jaurtita, laidoa latzago. Emakume bati *bargasta* deitzeak esan nahi du 'emakume zatarrak dela, ez duela bere burua zaintzen, axolagabea edota desobediente dela'. Gure herriko mugez gaindi joanda, 'emakume lotsabakoa, aurpegi handia' adierazteko balio du, eta, apur bat urrunago joanda, 'ospe txarreko emakumeei, gizonekiko zaletasun handiegikoei' esaten zaie. Beraz, Laudion, emakume bati *bargasta* esatea edo *cerda* esatea antzeko iraina zen.





*Bargasta* es una palabra de euskera, muy usada aún hoy en el ambiente rural de Laudio, con la que se denomina a los 'cerdos de un tamaño y edad medianos'. No son ni los pequeños, ni los que ya han procreado. Para hacernos una idea, hay algún autor que los definía "como de siete meses" y otro "de unas cuatro arrobas".

Casi con seguridad es una palabra en su significado y estructura lingüística, similar a aquella que vimos de *arkasta*, en la que su último componente era *gaztea* ('joven'). Pero no conseguimos identificar el primer término que, sin duda hará referencia al porcino (*txarri, urde...*).

En principio, *bargasta* sirvió para el masculino y el femenino. Pero, por influencia del castellano, se generalizó el uso de *bargasta* para las hembras y *bargasto* para los machos y es así como lo usamos en el municipio. Algo que, claro está, no es correcto en euskera.

Asimismo, en Laudio se ha usado *bargasta* también a modo de insulto hacia las personas. Una vez más, la ofensa se hacía más patente con las mujeres. Una *bargasta* en estos casos era una 'mujer dejada, nada curiosa y hasta displicente o desobediente'. También, fuera ya de los recuerdos de nuestro municipio, 'desvergonzada, descarada...' o, yendo más allá, 'de mala fama y demasiado aficionada a los hombres'. En Laudio por tanto se decía *bargasta* a una mujer con similar grado ofensivo que si se le dijese *cerda*.

## BARREGARRI

*Barregarri, farregarri, parregarri, parragarri, barragarri, farragarri, barreikarri...* dira euskarazko aldaerak grazia egiten duen edota barrea eragiten duen zerbait edo norbait izendatzeko, baina baita hain barregarria izateagatik zelebre, bitxi, irrigarri izatera iristen dena izendatzeko ere.

Aldaera horietatik guztietatik, lehenengoa erabiltzen da mendebalde osoan, *barregarri*, eta, beraz, Laudion ere. Gure herrian, esanahi zehatzagoa du gainera: fundamenturik gabekoei esaten zaie. "Es más *barregarri* que yo qué sé".

Halaber, gure herrian, eta hizkuntzaren erabilera bihurrituago batean, *baragarri* eta *barragarri* jaso ditut, baina, zalantza barik, lehen aipatutako forma lehenetsi behar dugu.

Hau da berbaren osaera: *barre* (*barrea* edo baita *iseka* ere) eta *—garri*", (kasu honetan, eragilea, zerbait dakarrena).



*Barregarri, farregarri, parregarri, parragarri, baragarri, barragarri, farragarri, barreikarri...* son diversas variantes del euskera para denominar algo o a alguien que es 'gracioso, chistoso', pero también tan gracioso que lo convierte en 'ridículo, grotesco'...

De entre todas esas variantes, se ha utilizado y utiliza la primera de ellas, *barregarri*, en todo el occidente vasco y en consecuencia también en Laudio. En nuestro pueblo, además adquiere el significado más concreto de 'sin fundamento': "Es más *barregarri* que yo qué sé".

Asimismo en nuestro pueblo y en un uso más deformado de la lengua, he recogido *baragarri* o *barragarri* pero, sin duda, hay que dar prioridad a la formas *barregarri*.

En su composición toman parte las palabras *barre* 'risa' e incluso 'burla' y *—garri*, en este caso como 'causante, productor de'.

## BASAURDA

*Basaurda* esan izan zaie gaztelaniaz Laudion adin ertaineko txerriei, txerrikume eta txerri helduen artean daudenei, alegia. Hau da, gurean, lehenago aipatutako *bargasta* terminoaren sinonimoa da.

*Basaurda* berbaren erabilera nahiko murrizta da, ez da ibarrean mundu askok ezagutzen duen terminoa.

Egia esan, hizkuntzan bidegurutze bitxiren bat egon behar da, zalantza barik, gure *basaurda* berbaren jatorrian dagoen *basaurde* edo *basurde* terminoak 'txerri basatia' izendatzen baitu. Azalpen bitxi samarra eman behar badugu, hipotesi gisa bota dezakegu 'mendirakoi', 'zakar' esanahitik etor daitekeela, pertsoneri buruz ari garenean esanahi hori ematen baitzaio mendealdean berbari. Agian, txerri "nerabe" horien izaera horrelako zelako... Hala ere, espekulazio hutsa da hori, ez baitago egiaztatua.

Hitz bik eratzten dute *basaurda*. *Baso* da lehena, hitz hori beste batzuekin elkartuta 'basati', 'sasiko', 'basatu' esanahia hartzen baitu; hain zuzen, kasu honetan gertatzen dena.

Bigarren berba *urde* da, hots, 'txerri'. Berba ezagun-ezagunak datoz hortik, besteak beste: *urdaia* nahiz *urdaiazpikoa*.

Guztiok dakigunez, gaur egun, *txerri* —gure eskualdeko euskalkian, *txarri*— eta *urde* berbak sinonimoak dira. Baina, berez, ez dira gauza bera. Lehenengo etxeko txerria zen eta oraindik ere bada, gure baserrietan ezagutu dugun txerriaren antzekoa, eta *urde* dagoeneko galdua dagoen txerri mota



bat da, basoetan barrena txerri aldra handietan bazkatzen zena. Basurdearen antza zuen, baina animalia ezberdinak ziren. Erdi Aroko nahiz Errenazimentuko grabatu gehienetan ageri dena da, eta ia ez du antzik *txarri* herri-tartuarekin.

Eta gaur egun txerriak basoan haziak jaten aske ibiltzen zirela pentsatzea bitxia irudituko zaigun arren, dokumentazioak ez du zalantza izpirik uzten: 200 urte baino ez dugu atzera egin behar ikusteko Gorbeiaiko artzainek behiak zituztela batez ere, behor gutxi eta txerri asko. Batere ardirik ez, nahiz eta gaur egun "betikotzat" ditugun.



Con la palabra *basaurda* se han denominado los 'cerdos de media edad, entre crías y adultos'. Es decir, en nuestro municipio es un sinónimo del término *bargasta* que ya hemos tratado antes.

El uso de *basaurda* es bastante restringido, no es un término cuyo conocimiento esté generalizado en el Valle.

En realidad debe de haber algún extraño cruce en el idioma ya que *basaurde* o *basurde*, de donde sin duda procede nuestro *basaurda*, es 'jabalí'. Solo se nos ocurre explicarlo, por lanzar una peregrina hipótesis, con el significado de 'montaraz, arisco' que se le da a este término cuando en el occidente vasco se usa con las personas. Quizá estos cerdos "adolescentes" tenían el carácter así... Pero es una mera especulación, no algo constatado.

*Basaurda* está compuesto de dos términos. El primero es *baso*, 'bosque', palabra que al entrar en composición con otros términos adquiere el significado de 'salvaje, silvestre, asilvestrado', como sucede en nuestro caso.

El segundo componente de nuestra palabra es *urde*, 'cerdo' y de ella derivan palabras tan conocidas y sabrosas como *urdaia* 'tocino' o *urdaiazpikoa*, 'jamón'.

Como todos sabemos, hoy se consideran sinónimos para decir 'cerdo' las palabras *txerri* —en nuestra zona a través de la variante dialectal *txarri*— y *urde*. Pero en realidad no son lo mismo. El primero era y es un cerdo doméstico, más parecido a lo que hemos conocido en nuestros caseríos, y el *urde* un cerdo, ya extinguido, que pastaba por los bosques en grandes manadas o piaras. Tenía cierto parecido con el jabalí pero se trataba de animales diferentes. Es el cerdo que aparece en la mayoría de grabados medievales y renacentistas europeos, muy diferente al *txarri* urbano.

Y aunque ahora nos parezca extraño eso de pensar en cerdos pastando grana por el monte, la documentación es contundente: solo es necesario retroceder 200 años para comprobar que los pastores en Gorbeia lo eran



de vacuno, menos caballar y mucho porcino. Y poco o nada de ovejas, esas que ahora nos parecen tan "de siempre".

## BASKOTXAR

Ez dakigu benetan zein den *baskotxar* berbaren jatorria, baina Laudioko zaharrek erabiltzen dute gaur egun ere. Aditza da, eta 'lapikoan egostea' esan nahi du. Odolosteak prestatzeko prozesuan erabiltzen da batez ere. Beraz, norbait *baskotxando* ari dela esango dugu behin odolosteen oreka hestean sartuta, ontzi handi batean egosten ari denean.

Ontzi horietan egosten zen barazkiari erreferentzia egiteko ere erabiltzen da berba. Behin egosita, batzuetan, irina eransten zitzaion eta zanpatu egiten zen, normalean eskuz, pasta moduko bat egiteko. Hortik dator, besteak beste, "has dejado *baskotxada* la comida", janariaren bat pasio edo gustu gutxirekin prestatu dela adierazteko.

Ez dakigu zer jatorri duen, baina hipotesia botako dugu, zalantza barik, xelebrea izango den arren: hasieran *bertz* 'lapiko handia' har genezake; normalean kobrezkoa zen eta *laratzu* burdinatik eskegitzen zen suaren gainean. Zehazkiago, berba horretatik eratortzen den *berzko* barbari erreparatuko diogu, zeina mendebaldeko euskararen *besko* bihurtzen den. Ez litzateke arraroa izango *\*beskotxa* izatea horren diminutiboa, izan ere, Laudio inguruko herri euskaldunetan *lapikotxa* osatzen dute *lapiko* berbatik abiatuta. Eta *beskotxa* berbatik *baskotxar* berbara, gaztelaniazko aditz bukaera bereizgarriarekin, ez dago tarten handirik. Alegia, hala baldin bada, berba "gaztelaniaratu" oso bertokoa genuke, euskarazko hitz batetik sortua.

Hala ere, argi dago uste hutsen eremuan gaudela, esandakoari eusteko inongo oinarri sendo barik.



No sabemos en realidad el origen de la palabra *baskotxar* que en Laudio y alrededores aún usan las personas más mayores. Se trata de un verbo que hace referencia a 'cocer en una caldera'. Se usa en especial en el proceso de elaboración de las morcillas. Así, diremos que alguien está *baskotxando* las morcillas cuando, una vez embutida la masa en el intestino, se ponen a cocer en algún recipiente grande.

También se recurre a ella para referirnos a la verdura que se cocía en ellas para dar como comida a los cerdos. Una vez cocida se le añadía en ocasiones harina y se aplastaba, normalmente con las manos, haciendo una espe-



cia de pasta. De ahí que se recurra a ella en expresiones como "has dejado *baskotxada* la comida" o para hacer referencia al cocinar algo con poca pasión o gusto.

No sabemos de su origen pero lanzaremos una hipótesis, sin duda peregrina. Así, podríamos partir de *bertz* 'caldera', aquella normalmente de cobre que pendía del *laratzu* 'llar' sobre el fuego. Y más en concreto de su derivado *berzko* 'caldero', que en el euskera occidental pasa a ser *besko*. No sería extraño que un diminutivo de éste sería *\*beskotxa* al igual que en los pueblos euskaldunes colindantes con Laudio usan *lapikotxa* partiendo de *lapiko*. De *beskotxa* a *baskotzar*, con un final verbal característico, propio del castellano, no hay gran dificultad. Es decir que, de ser así, tendríamos una palabra "castellanizada" creada partiendo de una palabra de euskera.

Pero, claro está, nos movemos en el campo de la mera especulación, sin ninguna base sólida para sustentarlo.

## BATAN

Menda eta mendafinen familiako belar oso usaintsua da *batan* —azentua bigarren silaban darama, *batán*—. Oso preziatua zen laudioarren artean ogi edo talo zopa egosteko erabilitako katiluari gehitzeko hartu aurretik. Atseginagoa zen zaporea horrela. Zortetik handiena zutenek azukrea ere erantsi zezaketen, izan ere, ez zegoen denen esku.

P. A. Añibarro idazle arratiarra Areatzan jaio zen 1748an, eta lau batan mota deskribatu zuen: «*Hay cuatro clases: a) aizpatan, 'menta de peñascales', b) asto-batan, 'menta de burros', c) batan-uridin, 'menta azul', d) sapo-batan, 'menta de sapos'.*». Tamalez, galdu egin dugu jada kontzeptuzko eta hizkuntzazko aberastasun hori.

Nolanahi, oso modu mugatuan izaki, euskararen eremu geografikotik kanpo ere erabiltzen da *batan* hitza; beraz, suposatzen dugu euskarak maileguan hartu zuela eta, beste behin ere, denboran iraunarazi duela. Bere jatorri linguistikoa metatesi —hitz baten barruan dauden soinu batzuen posizioaldaketa— batean egon liteke latineko *menta* hitzetik abiatuta.



El *batan* —acentuado *batán*— es una hierba, muy fragante, de la familia de las mentas o hierbabuenas. Era muy apreciada entre los laudioarras para añadirla al cuenco en el que se había cocido las sopas de pan o de talo, antes de tomarlo. Así hacía más agradable su sabor. Los más afortunados



podían incluso añadir azúcar, un bien que no estaba al alcance de todo el mundo.

El escritor arratiano P. A. Añibarro, nacido en Areatza en 1748, describía cuatro tipos de batanes: «*Hay cuatro clases: a) aizpatan, 'menta de peñascales', b) asto-batan, 'menta de burros', c) batan-urdin, 'menta azul', d) sapo-batan, 'menta de sapos'.*». Desdichadamente, hemos perdido ya esa riqueza conceptual y lingüística.

Sin embargo, aunque de modo muy limitado, también se usa batán fuera del ámbito geográfico del euskera por lo que suponemos que el euskera lo tomó prestado y, una vez más, lo ha hecho perdurar en el tiempo. Su origen lingüístico podría estar en una metátesis —cambio de posición de algunos sonidos entro de una palabra— a partir de la palabra *menta* del latín o castellano.

## BEGITXINDOR

*Begitxindor* berba oso hedatua dago Laudioko herri erabileran, gaur egun ere. Berba horren deformazioaren ondoriozko hainbat aldaera ere entzun ditzakegu: *biritxindor*, *bitxindor* eta abar. Bekatxo ere esaten zaio euskaraz, eta, badakigunez, betazalaren ertzean ateratzen den irtenunetxo bat da, sebo-guruin baten hanturaren ondoriozkoa, gaiztotutako pikorta mingarri eta gogaikarri baten antzekoa.

Berriro ere, euskarak abantaila du, bi berba ezberdin batu ditzakeelako bian arteko batere loturarik gabe berba berri bat sortzeko. Horiek horrela, modu erraz eta mirarizkoan, *begitxindor* sortzen da *begi* eta *txindor* elkartuta.

Azken hitz horren jatorria ez daukagu argi. Izan ere, bere horretan, beste berba barik ere, *begitxindor* esanahia du, eta hor buka lezake ibilbidea. Jatorrian murgilduz, erosoena eta irisgarriena dirudi *txingor* berbarekin lotzea, 'pikorta' eta 'zerutik eroritako izotz bolatxo' esanahiak izan ditzakeena. Baina erakargarria iruditzen zait urrunago joan eta *txingar* 'su-txinparta, piztutako ikatz zatitxoa' berbarekin lotzeko aukera, baita *txondor* edo *txondar* berbekin 'ikatz egiteko egur meta' edota *txindor* 'txantxangorri / matxin' berbekin ere. Bestela esanda: jatorri zahar bera luketela esaten ari gara, dagoeneko ahaztu dugun hitz zahar bat, eta, gutxi gorabehera sutan dagoela dirudien multzokatze oro izendatzeko balioko luke, puntu jakin batetik kanpora ateratzen diren bero-isuriak izendatzeko, nonbait.

Bestalde, gaztelaniazko *orzuelo* berbak ere baditu bere bitxikeria linguistikoak ere, jatorrian 'garagar ale txikia' esan nahi zuelako; agian, garagar ale-txoaren eta begiko protuberantzia gogaikarriaren formak duten antza-



rengatik, edo. Izan ere, *orzuelo* berba latinezko *hordeölus* hartatik dator, eta hori 'garagar' esan nahi duen *hordeum* berbaren diminutiboa baino ez da.



La palabra *begitxindor* está muy extendida en el uso popular de Laudio, incluso en la actualidad. También podremos escuchar diversas variantes fruto de la deformación de la primera: *biritxindor*, *bitxindor*, etc. Su significado es el de 'orzuelo' que, como sabemos, es una protuberancia en el borde del párpado del ojo, debido a la inflamación de una glándula sebácea, una especie de grano infectado, molesto y doloroso.

Una vez más, el euskera goza de la ventaja de poder unir dos palabras diferentes, sin ligadura alguna entre ellas, para dar vida a una nueva. Así, de un modo tan simple como milagroso, es como surge *begitxindor*, a partir de *begi*, 'ojo' y *txindor*.

Sobre esta última palabra, no tenemos claro su origen. Ya de por sí, en solitario, también significa 'orzuelo' y ahí puede finalizarse su recorrido. Hurgando en su origen, lo más cómodo y accesible parece ser el relacionarlo con *txingor*, 'grano', incluso 'granizo, pedrisco'. Pero también parece sugerente la posibilidad de ir más allá y vincularlo con *txingar*, 'chispa del fuego', 'brasa, rescoldo', *txondor* o *txondar*, 'pira de las carboneras' y hasta con *txindor* 'petirrojo'. Es decir, que hablaríamos de un antiguo origen en común, en un antiguo término que ya no conocemos, y que significaría algo así como todo aquel amontonamiento que parece arder, una especie de pequeñas erupciones de calor que de un punto determinado brotan hacia el exterior.

Por otra parte, tampoco la palabra castellana *orzuelo* se libra de las curiosidades lingüísticas ya que en origen significaba 'grano de cebada pequeño', quizá por su similitud en la forma entre el granito de cebada y la incómoda protuberancia del ojo. En efecto, *orzuelo* surge del latín *hordeölus* que no es sino un diminutivo de *hordeum*, 'cebada'.

## BERAKATZEGUN

Euskaraz berba bi daude gutxienez barazki txiki horri deitzeko: *baratxuri* eta *berakatza*. Azken hori Euskal Herriko mendebaldean erabiltzen da, eta, beraz, gure udallerrian. Laudion inork erabiltzen ez duen arren, zahar guztiek arazo barik identifikatzen dute. Zelan? Bada, herriko jaietako egun baten izenari esker: gaztelaniaz "Día de ajos" deritzo, baina euskaraz *Berakatzegun* eta



berba hori bera gaztelaniaz ere erabiltzen da, zenbaitetan *beracacégun* erdal eran ahoskatuta.

*Berakatza* berba Lazarraga egile arabarraren lanean dokumentatu zen lehenengo aldiz, *barakatza* forman, beraz, *baratxuri* eta *berakatz* berbak sustrai beretik datozela ustea da, alegia, \**bara* errotik, gaur egun esanahi galdua duena.

Hizkuntzaren gaiaz gain, eta Laudioko jaiei helduta, esango dugu *Berakatzegun* jaia oso ezaguna dela gure eskualdean, baina aldi berean oso eskusiboa. Laudion ospatzeaz gain, Orozkon eta Arrankudiagan ere deitzen da horrela. Ugaon, ospatu egiten zen.

Lau kasuetan, *berakatzegun* zen hirugarren eguna, jaien zikloa ixten zuena, alegia. Laudion San Roke egunaren biharamuna zen —abuztuaren 15koa beranduago gehitu zen—, *Sanrokezar* eguna. Bestela esanda, gure Berakatzeguna abuztuaren 18a zen.

Printzipioz, badirudi emakumeen eguna zela, eta haiek jasotzen zituztela ohore guztiak. Ospakizun handiak bukatu ostean, sukaldeko lanetan atsedenditxo bat hartzen zuten. Eta horrexegatik gogoratzen da nola Laudioko etxe aberatsenetako neskameek jaieguna zuten eta jende ugari osatutako soka-dantza eginez joaten ziren haien bila. Baina ez zen soilik neska-meen kontua.

Gaur egun inork gogoratzen ez duen arren, jaiaren izenaren jatorria da jaiegun honen gauean neskatoak «...*adornadas con grandes collares de ajos...*» ageri baitziren, hau da, berakatz-iduneko handiz apainduta. Dantzaldietan, «...*los bailarines debían presentarse al público completamente adornados con ajos así como el balcón del ayuntamiento*». Horrelaxe dago jaso 1935ean, J. M. Barandiaranek jasotako erreferentzia batzuetan, eta orduko informatazaileek esan zioten apaintzeko berakatz kontua nagusiei entzuna zietela, beraz, ordurako galdua zen. Hau eransten zuten: «...*actualmente no se conserva de la fiesta más que el nombre*».

Jai horren testigantza grafikoa José Arruek (1885 - 1977) utzi zigun kasu honetan ere: *Berakatzegun eguneko dantza* margotu zuen Orozkoko kaleetan, eta han ikus daitezke mutiko batzuk, berakatz bezalako apaindutako kapelak buruan daramatzatela.

Laudiora itzulita, gaur egun, jai egutegia 1999an berregituratu zenetik, gure egunaren jatorrizko data aldatu zen eta honezkero galdu egin du jaien zikloaren bukaeraren izaera hura; aitzitik, gaur egun, jaiegun indartsuenen hasiera da, abuztuko azken igandearen aurreko asteazkena.





Para denominar al 'ajo' se utilizan básicamente dos palabras en euskera: *baratxuri* y *berakatz*, siendo esta última la usada en el occidente vasco y, por tanto, en nuestro municipio. Y, aunque nadie la emplee en Laudio, toda la gente mayor la identifica sin problema alguno. ¿Cómo? Pues a través del nombre de un día de las fiestas patronales que, además de con la forma paralela castellana de "Día de ajos", se ha conocido, usándolo incluso en castellano, como *Berakatzegun* —a veces pronunciado *beracacégun*— y compuesto, claro está, de *berakatz* 'ajo' y *egun* 'día'.

La palabra *berakatz* se documenta por primera vez en el autor alavés Lazarraga y lo hace en la forma *barakatz* por lo que se cree que *baratxuri* y *berakatz* parten de una misma raíz común *\*bara* cuyo significado desconocemos hoy en día.

Al margen del tema lingüístico y ya centrándonos en la fiesta de Laudio, diremos que el *Berakatzegun* es muy conocido en nuestra comarca pero a su vez muy exclusivo. Junto a Laudio se denomina así también en Orozko y Arrankudiaga. También se celebraba en Ugao.

En los cuatro casos, el *berakatzegun* era el tercer día, que cerraba un ciclo festivo. En Laudio era al día siguiente a San Roque —la incorporación del día 15 de agosto es posterior— y de *Sanrokezar*. Es decir, nuestro Día de Ajos era siempre el 18 de agosto.

En principio, todo parece indicar que era el día propio de las mujeres, quienes recibían todos los honores. Tras haber finalizado las grandes celebraciones, se tomaban además un respiro en la labor de cocina. De ahí que se recuerde aún cómo las sirvientas de las casas más pudientes del pueblo gozaban de fiesta y se las iba a buscar con una *soka-dantza*, una cadeneta de muchachos bailando. Pero no necesariamente se limitaba al servicio.

Aunque en la actualidad nadie lo recuerde, el nombre se toma porque en esa fiesta, a la noche, aparecían las muchachas «...*adornadas con grandes collares de ajos...*» y, en los bailes, «...*los bailarines debían presentarse al público completamente adornados con ajos así como el balcón del ayuntamiento*». Así se recoge en 1935, en unas referencias locales que recoge J. M. Barandiaran y los, los informantes, ya hablan de aquellos ajos decorativos por lo escuchado a los mayores pues, para esa fecha, estaba perdido y referían que «...*actualmente no se conserva de la fiesta más que el nombre*».

El único testimonio gráfico de aquella fiesta la tenemos una vez más gracias al pintor José Arrue (1885 - 1977) que dibuja el *Baile del día de Berakatzegun*



por las calles de Orozko, mostrando unos muchachos con unos sombreros engalanados con ajos.

Volviendo a Laudio, actualmente, con la reestructuración del calendario festivo, desde 1999 se ha desligado de su fecha propia y de carácter tradicional por ser el día final de un ciclo festivo; por el contrario, hoy es el arranque de los días más intensos de las fiestas, en el miércoles previo al último domingo de agosto.

## BETAGARRI

Printzipioz, gure udalerrian erabiltzen den *betagarri* berba *betegarri* berbaren aldaera baino ez da, hots, 'bete edo osatzen duena, osagarria, gehigarria, hutsuneak betetzeko balio duena' esanahia du. *Bete* aditzean dauka bere jatorria.

Baina gure herrian eta eskualdean "dar *betagarri*" esaten dugunean, esan nahi duguna da txondorraren goialdean ipinitako lehenengo egur zatiak ikatztu bihurtu direnean beste egur zati batzuk txertatzea.

Izan ere, betiko txondorretan, barruko ikatza egosten zenean, goialdetik betetzen joaten ziren, goiko zulotik egur zatiak sartuz.

Bigarren esanahi legez, gure herrian norbait jipoitzeko erabili izan da, "egurra ematea" edo "norbait egurtzea" erabiltzen den bezalaxe Halaber, antzekotasun saihestezina dela eta, sexuan, sartze-ekintzari ere esaten zaio, zerbait luzea eta gogorra zulo batean sartzearekiko analogiaz.

Gure herritik kanpo, *betagarri* deitu izan zaie pertsona astun, nekagarri, gogaikarriei ere.



En principio la palabra *betagarri* que se usa en nuestro municipio no es sino una variante de *betegarri* que significa 'lo que llena o completa, complemento, añadidura, lo que sirve para rellenar'. Tiene su punto de partida en el verbo *bete* 'llenar'.

Pero cuando en nuestro municipio y comarca decimos "dar *betagarri*" nos referimos concretamente al 'añadir trozos de leña que se vuelven a colocar en la cabeza de la carbonera cuando se ve que los primeros que se pusieron ya se han reducido a carbón'.

Y es que en las carboneras artesanales, a medida que el carbón del interior de la carbonera se cocía, se iba rellenando por arriba, introduciendo trozos de madera nueva por el orificio superior.



Como significado secundario se ha usado en nuestro municipio para designar el dar una paliza a alguien, similar a "dar leña" o "dar unos palos". También, por la inevitable similitud, hace referencia solapada al acto sexual del coito, por aquello de introducir algo alargado y rígido dentro un orificio. Fuera ya de nuestro pueblo, se ha usado *betagarri* también para decir de alguien que es muy cansino, pesado, cargante...

## BIHOTZERRE

"Tener un *bihotzerre*" (*biotxérre* ahoskatuta) esamoldea oso bizirik dago gaur egungo Laudion ere, eta urdaileko gehiegizko azidotasunari esaten zaio. Apur bat urrunago joanda, berez, pirosiari erreferentzia egiten diola esango dugu, alegia: urdailetik kanpo daudenean azido gastrikoek eragindako minei. Esofagoan nabaritzen den erremina da eta, agian, hortik datorkio izena.

Hitzez hitzeko itzulpena 'bihotz errea da', 'bihotzeko erremina', eta *bihotz* berba *erre* berbarekin lotzetik dator. Azken horri dagokionez, gaztelaniazko 'ardor (de estómago)' esamoldearen oso antzekoa da kontzeptua.



Tener *bihotzerre* —pronunciado *biochérre*— es una expresión aún muy vigente en el Laudio actual y se usa para indicar que se sufre de 'acidez de estómago'. Yendo más allá, concretaríamos que hace realmente referencia a la 'pirosis', es decir, a los dolores producidos por los ácidos gástricos cuando se encuentran fuera del estómago. Es una sensación de quemazón en el esófago y quizá de ahí surja su nombre.

Su traducción literal es la de 'corazón quemado' o 'quemazón del corazón', a partir de *bihotz* 'corazón' y *erre* 'quemar', 'quemado' o 'quemazón'. Respecto a este último, el concepto es similar es similar a la expresión 'ardor (de estómago)'.

## BIRIKI

*Biriki* terminoa abere bat hil ostean, zatikatzea bukatutakoan birikiei esateko erabiltzen da. Gaztelaniaz, *corada* da erabili ohi den terminoa. Gaztelaniazko *corada* berbak, Laudion, birikiei egiten die erreferentzia, baina benetako esanahia harago doa eta animaliaaren erraiei esateko erabiltzen da, izan ere,



oinarrian latinezko *cor* berba du, 'bihotza' alegia. Penintsularen iparraldean baino ez da erabiltzen.

Normalean, hitza pluralean erabiltzen da gaztelaniaz: "los *birikis*".

Ostera ere *biriki* berbari helduta, euskarazko *birika* izen arruntetik dator. Mendebaldeko euskaran, artikulua eranstea, *birikea* bihurtzen da, eta handik ez da zaila bertoko *biriki(a)* terminora iristea.

Esanahiaren hedapenez, *birika* edo *biriki* izeneko lukainka batzuei ere esateko erabiltzen da; ohikoa baino kalitate txarragokoak dira hesteki horiek, birika, bihotz eta beste errai batzuk erabiltzen baitira prestatzeko. Laudion ez dugu adiera hori jaso, baina.



El término *biriki* se usa para denominar los pulmones de un animal al hacer su despiece tras la matanza. Al usar el castellano, su denominación habitual suele ser la de *corada*. Esta palabra castellana *corada* hace referencia en Laudio a los 'pulmones', si bien, su significado real va más allá y es el de 'conjunto de las entrañas del animal', siendo su origen el término del latín *cor* 'corazón'. Su uso está reducido al norte de la Península.

Normalmente, nuestra palabra se usa en plural: "los *birikis*".

De vuelta al vocablo *biriki*, surge del sustantivo *birika* de euskera, 'pulmón'. En el euskera occidental, al añadirle el artículo, para a ser *birikea* de donde no es difícil llegar a nuestro *biriki(a)* local.

Por extensión, con los mismos vocablos *birika* o *biriki*, se denominan unas longanizas, de calidad inferior, elaboradas con los pulmones, corazón y otras vísceras, aunque esta acepción no la tengamos constatada en Laudio.

## BIRROTXA/O

*Birrotxa* berba oso erabilia da eta erreferentzia egiten dio adinean gora joan arren ezkontzea lortu ez duen pertsonari. Eta "lortu" esan dugu, *a priori*, hori zelako pertsonen bizitzaren helburua. Eta horrexegatik, kanon sozial hartatik kanpo geratzen zenak mespretxuzko tratua jasotzen zuen, baita iraingarria ere, zenbaitetan. Horrelakoa da *birrotxa* berbaren kasua, zelanbaiteko iseka zantzua duela.

Gaztelaniaz erabiltzen hastean, generoa bikoiztu genuen, *birrocha* eta *birrocho*, beraz, *neskazaharra* edo *mutilzaharra* esateko.

Izan ere, *neskazahar* eta *mutilzahar* terminoak oso arruntak dira Laudion, eta argitalpen honetan jorratu ditugu horiek biak ere.



La palabra *birrotxa* es de uso muy común y hace referencia a una persona que, entrada en años, no se ha conseguido casar. Decimos "conseguido" porque, a priori, ese era el objetivo primordial en la vida de las personas. De ahí que quien quedase fuera de ese canon social, recibiese un trato despectivo y hasta humillante en muchas ocasiones. Ese es el caso de *birrotxa*, que encierra cierta sorna.

Al pasar a usarse esta palabra al castellano, duplica su género para convertirse en *birrocha* y *birrocho* en función de que sea 'solterona' o 'solterón'. Son los equivalentes a los términos *neskazahar* y *mutilzahar*, también comunes en Laudio, y tratados en esta publicación.

## BIRRISGADA

*Birrisgada* hitzarekin izendatzen dira Laudion haize bortitzak eragindako euri- edo elur- denboraleak. Gaztelaniazko *cellisca* hitzaren parekoa litzateke. Ez dakigu ezer bere jatorriaz, ezta gaztelaniari edo euskarari zor zaion, ez dugulako bestelako erreferentziarik aurkitu. Baina egia da nahikoa erabilia dela oraindik. Bada gainera, hitza gorderik duen herri-esaera bat Laudion: «*Las birrisgadas de abril, si no han venido, ya han de venir*».

Hipotesi moduan iradokiko dugu *brist* euskarazko hitzarekiko harremana. *Brist* 'bat-bateko mugimendu azkar baten onomatopeia' da. Bestalde, R. M<sup>a</sup>. Azkuek 'tximista agertzearen onomatopeia' esanahia ere egokitu zion. Gero, *brist* hitzari 'kolpea' adierazteko gure —*kada* atzizki ezaguna baino ez genioke gehitu beharko: *harrikada, ostikada, makilakada...* berbekin egin bezala. Ez litzateke arraroa izango hori izatea gure berba azaltzeko bidea.



Con el término *birrisgada* se denominan en Laudio a los 'temporales de lluvia o nieve acompañados de fuerte viento'. Sería el equivalente a la *cellisca* del castellano.

Nada sabemos sobre su origen ni siquiera si pertenece al castellano o al euskera ya que no hemos localizado otras referencias. Sin embargo es una palabra aún en uso. Cuenta además con un dicho local que recoge el término: «*Las birrisgadas de abril, si no han venido, ya han de venir*».

Como hipótesis podría sugerirse su relación con la palabra del euskera *brist* 'onomatopeya de un movimiento repentino y rápido' al que R. M<sup>a</sup> Azkue atri-



buyó además el significado de 'onomatopeya de la aparición del relámpago'. No habría más que añadir a nuestro *brist* el sufijo —*kada* indicador de 'golpe' como sucede con *harrikada* 'pedrada', *ostikada* 'patada', *makilakada* 'varazo'... Bien podría ser este el camino para poder explicar nuestro vocablo.

## BITARTE

Laudioko gaztelaniaz *bitarte* berbak 'biren artean' esan nahi du, antza, nahiz eta esanahirik praktikoena 'tarte' den, 'tarteko espazio edo denbora'... Laudion, hala ere, askoz ere esanahi mugatuagoarekin erabiltzen da: goldea desbideratu delako, 'ildoen artean landu gabe geratzen diren lur tartekak' izendatzeko erabili ohi da.



La palabra *bitarte* parece significar, literalmente hablando, 'entre dos', si bien su significado más práctico es el de cualquier 'intervalo', 'espacio o tiempo intermedio'...

En Laudio, sin embargo, se recuerda y usa en la actualidad con un sentido mucho más limitado: se llama así a los 'trozos que quedan sin labrar o arar entre dos surcos', porque se ha desviado la máquina al pasar.

**BOINA.** *Ikus / Ver* **TXAPELA**

**BOLALEKU.** *Ikus / Ver* **BOLATOKI**

## BOLATOKI

Hitz sano jatorra irudituko zaigun arren, *bolatoki* berba gipuzkeratik hartu dugu, duela oso gutxira arte ez delako Laudion hori erabiltzeko ohitura sekula egon. Bola-jokoan ibiltzeko lekuari egiten dio erreferentzia, hau da, bolalekuari.

Laudioko euskaran, euskal mendebalde osoan bezalaxe, eta euskara inoiz galdu ez zuten inguruko herrietan gertatu legez, *bolaleku* erabiltzen da, sekula ez *bolatoki*. Bitxia izan daitekeen arren, Laudioko Odiaga basetxearen ondoan *Bolalekuzar* toponimoa dugu, hau da, esandakoa frogatzen duen



'bolaleku zaharra'. Hala ere, gure herrian gaur egun ez du inork *bolaleku* berba erabiltzen, bertokoa, baina bai *bolatoki* hori, esan bezala, ez bertokoa ezta berezkoa ere ez dena.

Gaztelaniaz, *jugabolas* eta *carrejo* berbez gain, *boladero* ere erabili ohi dugu gure herrian; agian, jatorrena azken hori dela. Ikus daitekeenez, euskarazko berbak, *bola* elementuari egiten zaio erreferentzia, ez *txirlo* edo "bolo" horri. Hortaz, euskaraz ez da egokia *bolo-jokoa*, *bolo-txapelketa*, *bolo-taldea* eta antzekoak esatea, *bola-jokoa*, *bola-txapelketa* eta *bola-taldea* baizik.



A pesar de la gran raigambre que pueda parecer que tiene entre nosotros, la palabra *bolatoki* proviene del euskera más bien guipuzcoano y nunca ha sido usada de manera tradicional en Laudio hasta tiempos modernos. Hace referencia al lugar en donde se practica el juego de los bolos, es decir, a la 'bolera'. En el euskera de Laudio, como en todo el occidente vasco, al igual que sucede en los pueblos limítrofes en donde nunca se perdió el euskera, se usa con ese fin *bolaleku* y jamás *bolatoki*. Curiosamente, cercano al caserío Odiaga (Laudio) tenemos el topónimo *Bolalekuzar*, 'la bolera vieja', que nos da fe de ello. Pero en la actualidad nadie usa en nuestro pueblo esa palabra local *bolaleku* y sí *bolatoki* que, insistimos, no es ni local ni propia.

En castellano lo hemos denominado también bajo las formas *jugabolas*, *carrejo* y, más castizo, *boladero*. Como puede apreciarse, en euskera, la palabra hace referencia en este juego a la *bola* y no al *txirlo* o 'bolo'. Por eso no procede hablar de *bolo-jokoa*, *bolo-txapelketa*, *bolo-taldea*... sino de *bola-jokoa*, *bola-txapelketa* o *bola-taldea*.

**BORONA.** *Ikus / Ver* **ARTABURU**

## BUTARGA

Berba arraroa da, ezezaguna, eta susmopean jarri behar dugu bere euskarazko jatorria. Hala ere, hemen jasotzea erabaki dugu, gutxienez, aipagarria delako bertoko berba den heinean, Laudion erabilitakoa eta baserritarrek horren berri eman ahalko digutelako.

Hizpide dugun *butarga* berba 'teilatu hegalaren azpiko zuloa' izendatzeko erabiltzen da, 'katuak sartu eta irteteko leihatila' neure familian zehaztasun handi barik definitzen duten legez.



F. Barrenengoak ere jaso zuen (*Onomástica de la Tierra de Ayala-I*, 1985) Aiaran, baina *butarka* aldakian eta 'argi-zulo' esanahiaz. Hark iradoki zuenez, *buharda* berbatik etor liteke, hots, *buharjilla* hitzaren diminutibo. Izan liteke, bai, baina zailtasun handiak daude bilakaera fonetiko hori arrazoitu ahal izateko.

Bestalde, *butargia* berba dugu euskaraz 'zeharkako argia, argi islatua', baina zantzu guztien arabera, *bote* + *argia* elkarketatik dator, hau da, 'errebota-tako argia', beraz, horrek ere ez gaitu asetzen.



Se trata de una palabra extraña, desconocida, y de la que dudamos que tenga su origen en el euskera. Pero preferimos incluirla, cuando menos, como algo reseñable por tratarse de una palabra local, usada en Laudio y de la que nuestros baserritarras podrán hablarnos de ella.

Se trata de la palabra *butarga* que se usa para denominar el 'agujero de debajo del alero, una "ventanica" por donde andaban los gatos', tal y como la definen, sin mucha precisión, en mi familia.

También la recogió F. Barrenengo (*Onomástica de la Tierra de Ayala-I*, 1985) en Aiara, en su variante *butarka* y que identifica con 'claraboya'. Sugiere que provenga de *buharda*, cuyo diminutivo es nuestra actual *buhardilla*. Podría ser pero hay grandes dificultades para poder razonar esa evolución fonética. Por otra parte, en euskera tenemos el término *butargia*, 'luz no directa, sino reflejada' pero todo parece indicar que proviene de *bote* + *argia* 'luz rebotada', por lo que tampoco nos convence.

## BUSTINA

Laudioko zaharrek sarritan darabilte *buztina* berba gaztelaniazko *arcilla* esateko, hori baita bere esanahia. *Bustina* ahoskatzen dute eta hitz-amaierako —*a* erantsita, nahiz eta hitzaren mugatzailea izanda beharrezkoa ez den, beti eusten zaio: "había una *bustina* que se pegaba en las botas", eta ez "había una *bustin* que..." espero zitekeen moduan.

*Buztin* berba euskalki eta eremu euskaldun guztietan erabiltzen da, beraz, nahiko zaharra behar du izan. Zenbait zonaldetan, esaterako, gurean, z soinu s bihurtzen da, beraz, *bustina* ahoskatuta entzungo dugu.

Oro har, esango dugu *buztina* dela lur mota bat, dituen ezaugarriengatik —aluminio silikatozko agregatuak— plastikotasun handia duena eta, horri esker, erraz modelatu daiteke. Baina, horrez gain, badu beste abantaila bat:





berotzean oso gogortzen da eta zeramika legez ezagutzen duguna bihurtzen da.

Edonola ere, buztin azaleratze asko eta onak daude Laudion. Horri esker, teileria ugari egon ziren gurean, baita *La Cerámica* fabrika bera ere, udalerriko lehenengo instalazio industrialia.



Entre los mayores de Laudio es aún habitual escuchar la palabra *buztina* cuando hacen referencia a la 'arcilla', ya que es ese su significado. Lo pronuncian *bustina* y la —a final, a pesar de ser un artículo del cual se podría prescindir, se mantiene siempre: "había una *bustina* que se pegaba en las botas" y no "había una *bustin* que..." como cabría esperar.

La palabra *buztin* es común en todos los dialectos y zonas del euskera por lo que la presuponemos como de cierta antigüedad. El ciertas zonas, como la nuestra, el sonido z se modifica a s por lo que escucharemos pronunciarlo *bustina*.

Como generalidad diremos que la arcilla es un tipo de barro que por sus características —con agregados de silicato de aluminio— adquiere una gran plasticidad; tanto que puede modelarse con facilidad, con la ventaja además de que adquiere gran dureza al someterla al calor, lo que conocemos como cerámica.

Laudio es, en cualquier caso, una población con buenos y abundantes afloramientos de arcillas. Ello hizo posible que aquí se dieran numerosas tejas o la misma fábrica de *La Cerámica*, la primera instalación industrial del municipio.

## CASCARRIA

Daukan soinuarengatik ohikoa den arren euskarazko berba dela sinestea, Laudion erabiltzen dugun *cascarría* horrek ez du zerikusirik euskararekin.

Animalien azalera edo artillera gogor atxikitzen diren gorozki hondakinei egiten die erreferentzia. Espainia osoan eta Amerikaren zati batean ere esanahi berbera du.

Dirudienez, latinezko *quassicare* berbatik dator eta 'kolpeak eman' esanahia du. Hortik eratorri zen gaztelaniazko *cascar*, 'kolpe bakarraz apurtu' eta hari —*rria* atzizki iraingarria gehituta lortzen ditugu, jorratzen ari garen berbaz gain, *mamandurria*, *fanfarria*... Nolanahi ere, Espainiako Errege Akademiak ez du arriskurik hartzen eta "zalantzagarri" legez katalogatua dauka.



A pesar de la creencia generalizada por lo sugerente de su sonido, la palabra *cascarria* usada en Laudio nada tiene que ver con el euskera.

Hace referencia a los restos de heces adheridos con fuerza en la piel o lana de los animales. Pero también se denomina así en toda España o gran parte de América.

Su origen está al parecer en el latín *quassicare*, 'dar golpes', de donde salió el castellano *cascar*, 'romper de un golpe' con el sufijo despectivo *—rria*, como en *mamandurria*, *fanfarria*... En cualquier caso, la Real Academia Española no arriesga y cataloga su origen como de "incierto".

**CORADA.** *Ikus / Ver* **BIRIKI**

## DERROÑAR

Zalantza handiak izan ditugu berba hau hemen jasotzeko, ez delako euskarazkoa, baina ez da eskusiboki gaztelaniazkoa ere, badirudielako hizkuntza bien artean elkarreragina egon dela. Hala ere, gure herriak oso berezko duen berba da, oso bereizgarria.

Mendi edo lur-zati bati buruz "se ha *derroñado*" esaten da luizi bat gertatu denean, lurra mugitzen denean. Aditza eta aditzetik eratorritako berbak erabiltzeaz gain, *derroñamiento* nahiz *derroñada* izen eratorriak ere erabiltzen dira: "Se ha hecho una *derroñada* muy grande en la ladera".

Berba horren jatorrian sekula hedadura handirik izan ez duen gaztelaniazko beste bat dago. Izan ere, desagertu egin zen eta gaur egun ez da erabiltzen. *Derruinar* da berba hura, *ruina* berbatik datorkigu eta azken hori, halaber, 'erortzea', 'jaustea' esan nahi duen latinezko *ruĕre* hitzetik.

Euskaraz, jatorri eta esanahi berbera dute *arroinatu* nahiz *erruinatu* aditzak ditugu. Hala ere, ez dirudi frogagarria denik gure *derroñar* horrek jatorria euskaran duenik, berba hori ez dutelako ezagutzen ondoan ditugun eta euskara galdu ez zuten herrietan.

Dena den, ez dira nahastu behar *derroñar* Espainiako zonalde batzuetan erabiltzen den berba berdin-berdinarekin —*desroñar* ere esaten da—, bigarrenaren esanahia 'zuhaitzen adarrik ahulenak kentzea' edo 'opaitzurarekin pinuen azala edo ugerra kentzea erretxina edo txorinegarra aterako den aldetik'. Baina esan bezala, ez du zerikusirik gure berbarekin, ezta horren jatorriarekin ere, kasu honetan *ruña* berbatik eratorri baita. Gauza bera



gertatzen da *roña* 'zikinkeria, herdoila' ezagunarekin, latinezko beste jatorri bat duelako: *aerūgo*, *-īnis*, 'metalen txiza, herdoila'.



Han sido muchas dudas para incluirla pues no es una palabra propia del euskera, aunque tampoco exclusivamente del castellano, ya que parece tener interacción de ambas lenguas. Sin embargo, se trata de una palabra muy propia y característica de nuestro pueblo.

Decimos que un monte o un trozo de terreno se ha *derroñado* cuando se ha producido 'un corrimiento de tierras, un desprendimiento'. Llegamos incluso a usar no solo el verbo y sus derivados sino también el sustantivo *derroñamiento* o *derroñada*: "Se ha hecho una *derroñada* muy grande en la ladera".

En su origen está una palabra antigua del castellano que nunca alcanzó grandes cotas de difusión. Tanto que desapareció y no se usa en la actualidad. Se trata de *derruinar* y tiene su base en *ruina* y ésta a su vez en el latín *ruĕre*, 'caer', 'venirse abajo'.

El euskera también ha usado con el mismo origen y significado los verbos *aroinatu* o *erruinatu*. Pero no parece probable que nuestro *derroñar* tenga un origen eusquérico ya que es una palabra desconocida en los pueblos limítrofes que nunca perdieron nuestra lengua.

Conviene no confundir este *derroñar* con otro idéntico que se usa en algunas zonas de España —también dicho *desroñar*— y que significa 'quitar las ramas más débiles de los árboles' o 'quitar con la azuela la roña o corteza de los pinos en la cara que va a resinarse'. Pero no tienen nada que ver con nuestro término ni su origen, en este último caso a partir de "*ruña*". Lo mismo que con *roña* 'suciedad, óxido', de otra procedencia a partir del latín *aerūgo*, *-īnis*, 'orín de los metales, óxido'.

## DESCONORTAR

Gure adinekoek sarri asko erabiltzen duten berba ekarri nahi izan dugu honetara. Esangura, 'konortea galtzea, zorabiatzea' du, eta 'kordea, konzientzia' esan nahi duen *konorte* terminoarekin erlazionatua dago. Hori dela eta, gurean "estoy *desconortado*" dioenak 'konorte barik nago, zorabiatuta'.

Hala ere, gaztelaniaz ez dugu erabiltzen berbaren jatorrian dagoen *konorte* hori bere horretan, euskaraz oso erabilia den arren, batez ere, gu gauden



lekuan. Edonola ere, gaztelaniazko *conhorte* berbatik dator eta hori, halaber, *conhortar* aditzetik, hau da, *confortar* horren parekotik. Definizio akademikoaren arabera, biek esan nahi dute 'norbaiti adorea, indarra, kemena ematea', hain zuzen ere, jorratzen ari garena.

Edo, bestela esanda, "estoy *desconortado*" eta 'estoy desconhortado' da eta, muturreraino eramanda, 'estoy *desconfortado*'. Hala ere, horrek ez du eragozten *konorte* berba zalantza barik euskarazko lexikoaren parte izatea, maileru linguistikoa izan arren.



Hemos querido traer aquí esta palabra, muy usada entre nuestros mayores, y que hace referencia al 'perder el sentido', 'marearse' y que está relacionada con el término *konorte*, 'sentido, consciencia'. Por ello, entre nosotros, decir "estoy *desconortado*" equivale a 'estoy inconsciente, mareado'.

Sin embargo no usamos tal cual la palabra que la origina, *konorte*, muy usada en euskera y sobre todo en su zona occidental, donde estamos. En cualquier caso, proviene en realidad del castellano *conhorte*, del verbo *conhortar* y que es mismo que genera *confortar*. Según su definición académica, ambas son 'dar vigor, espíritu y fuerza a alguien', justo lo que estamos tratando.

Es decir, nuestro "estoy *desconortado*" no es sino 'estoy desconhortado' o, yendo al extremo, 'estoy *desconfortado*'. Lo cual no quita para que la palabra *konorte* forme parte del léxico del euskera, sin duda alguna, por mucho que se trate de un préstamo lingüístico.

## DINDIRRI

Gure herrian *dindirri* hitza erabiltzen da gaztelaniaz ere sudurzuloei darien 'muki garden' eta oso likidoari esateko. "Estar con *dindirri*", beraz, 'mukia jariatzea' da, sudur estuarekin gaudenean.

Alderdi orokorreari erreparatuta, eta gure udalerriko mugetatik harago, esan dezakegu 'muki jario' hori dela esanahirik hedatuena. Hala ere, izotz-kandelak edo garrangak izendatzeko erabiltzen da, baina baita soinekoen dandarra, animalien adarrak, edozein oihalen piltzarrak izendatzeko ere, hau da, sostengu handirik gabe eskegita dagoen edozer izendatzeko.

Eta *dindirri* berbaren jatorrizko esanahia den muki likido horretara itzulita eta horrekin lotua, *gingirri* dugu, dirudienez, aurrekoaren aldaera, baina alde txiki batekin: 'sudurzuloetako hazkura' da. Baina ez dugu euskarazko azken hitz hau Laudioko gaztelanian txertatuta topatu.



En nuestro pueblo se usa la palabra *dindirri* para hacer referencia al 'moquillo' o 'moquita', moco claro y muy líquido que fluye de la nariz. "Estar con *dindirri*" es por tanto 'estar con moquillo', en estados de congestión nasal o similares.

En el aspecto general de nuestra palabra y superando los límites de nuestro municipio, diremos que ese de 'moquita' es el significado más extendido. Sin embargo, también se usa para denominar los carámbanos o calamocos de hielo, la cola de un vestido o hasta de animal, cualquier pingajo o jirón en una tela o, en definitiva, cualquier cosa que cuelgue sin mucho sostenimiento. Y volviendo a esa mucosidad fluida que significa *dindirri* y relacionado con ella, está el término *gingirri* que en apariencia es una variante de la interior y que se recoge como 'picor en el interior de las fosas nasales' como veremos. Pero no la constatamos como palabra de euskera insertada en el castellano de Laudio.

## ENÁNAGO. *Ikus / Ver* ZIRAU

### ENE

*Ene!* esamoldea harridura, sorpresa edo atsekabea adierazteko erabiltzen da gure udalerrian.

*Ene* berbatik dator (neurea) eta euskalki guztietan erabiltzen da, aspaldiko garaietan gehiago erabili arren. Hala ere, euskal mendebaldean, beraz, Laudio dagoen eskualdea hartzen duen eremuan baino ez da arrunta *ene* enfasi apur batez ahoskatzea, usteak adierazteko edo sentimenduak berba bihurtzeko. Eta horregatik entzuten diogu jendeari gaur egun ere euskarazko esamolde hori erabiltzen gaztelaniaz.

Zaila da zehaztasunez itzultzea, baina baliokideak izan litezke 'Jainkoarren!' edo 'Ene Jainkoa!'.

Laudion, bere horretan erabiltzen da berba. Hala ere, euskara galdu ez zuten beste leku batzuetan, gure *ene* hori oinarri legez duten beste formula batzuk erabiltzen dira, esaterako: "*Ai, ene!*", "*Ene bada!*", "*Ene bada eta bada!*", arrapaladan "*Ene barataba!*" ahoskatuta, "*Ene bada eta badatxoa!*", arrapaladan "*Ene baratatxoba!*" ahoskatuta, "*Ene bada eta ni!*"... Denen esanahai berbera da: "*Alajaina!*". Ildo beretik sortzen dira "*Ene galdua!*" ('¡hay perdido (mío)!) eta antzekoak.



La expresión *ene!* es una interjección usada en nuestro municipio y con la que pretende mostrarse asombro, sorpresa o contrariedad ante algo. Proviene de la palabra *ene*, 'mío/a' de uso general en todos los dialectos, sobre todo en épocas antiguas. Sin embargo esta variante para manifestar impresiones o para verbalizar unos sentimientos, pronunciando el *ene* con cierto énfasis, es solo común en el occidente vasco, curiosamente en donde se encuentra Laudio. De ahí que aún escuchemos a gente de cierta edad use esa expresión del euskera con cierta asiduidad.

Es difícil darle una traducción pero podría ser un '¡válgame Dios!', '¡Dios mío!' o similar.

En Laudio se usa la palabra en solitario. Pero en otras tierras en las que nunca se perdió el euskera se usan también otras fórmulas que se basan en nuestro *ene*, como serían "*Ai, ene*", "*Ene bada*", "*Ene bada eta bada*" —pronunciado descuidadamente "*Ene barataba*"—, "*Ene bada eta badatxoa*" —pronunciado descuidadamente "*Ene baratatxoba*"—, "*Ene bada eta ni*", todas ellas con el mismo significado del tipo "*¡válgame Dios!*". Asimismo del tipo "*ene galdua!*", '¡hay perdido (mío)!' o similares.

## EPETXA

*Epetxa* berbaz —beti femeninoan: "la *epetxa*"— gure lorategi, sasiarte eta basoetan nahiko arrunta den txoritxo bat izendatzen dugu. Gaztelaniaz *chochín* esaten zaio, baina Laudion ez dio horrela deitzen ia inork, euskarazko berba, ostera, oso erabilia den arren.

Dirudienez, Euskal Herriko txori txiki arrunten arteko ugariena da. Horregatik, txoritxoaren tamaina txikiagatik, *chochín* deitzen zaio gaztelaniaz, berez, *chocha* izenaren txikigarria, horrela baitzaie oilagor edo oilitsuei leku batzuetan.

Izen zientifikoa ere bitxia du: *Troglodytes troglodytes*, hau da, 'leizeetan bizi dena'. Dirudienez, horrela deitzen zaie habiaren formarengatik, leize formarekin eraikitzen dutelako haitzen batean horrelakorik aurkitzen ez dutenean. Euskaraz, txori hori izendatzeko formarik hedatuena *txepetxa* da, baina Nafarroako iparraldeko zonalde batzuetan eta Bizkaiko mendebaldean, Laudion eta inguruetan barne, *epetxa* du izena.

Animaliari dagokionez, itxura ahula eta jokabide atsegina dituen arren, *epetxak* oso ospe txarra izan du gure artean; adur txarreko hegaztitzat hartu izan da, zorte txarra, heriotza eta beste hainbat zorigaizto zekarrela uste



baitzen. Hori dela eta, gure baserritarrak jo eta su ibili izan dira euren kontra, eta ahal beste habi eta txita suntsitu izan dituzte. Kontran, *matxin* txoritxoak hartzen ditugu ontasunaren irudi eta zorte onaren ekarle legez, txantxangorriak, alegia.

Amaitzeko, esango dugu euskaraz (*tx*)*epetx* berba izenondo gisa ere erabili dela, eta pertsoneri buruz esanda, 'kikil', 'koldar' edota 'memelo' zentzua duela. Baina hori beste eskualde batzuetan da, ez Laudion, garai batean hala erabili baldin bazen, guk ez baitakigu.



Con la palabra *epetxa* —siempre en femenino: "la *epetxa*"— denominamos a un pajarillo bastante común en nuestros jardines, jaros y bosques. En castellano es conocido como 'chochín' aunque en Laudio no hay prácticamente quien lo denomine así de un modo tradicional y, por el contrario, son multitud los que usan su nombre en euskera.

Al parecer es la más pequeña de las aves comunes en Euskal Herria. Por eso, por su pequeño tamaño, su nombre es en castellano *chochín* que es en realidad un diminutivo de *chocha*, forma en que se denomina a las becasas o sordas en algunos lugares.

Su nombre científico es también curioso: *Troglodytes troglodytes*. Es decir, 'el que habita en las cavernas'. Al parecer recibe ese calificativo por la forma de su nido, que lo construye con forma de cueva cuando no lo tiene de forma natural en alguna roca.

En euskera, en general, la forma más extendida para denominarlo es *txepetxa* si bien en algunas zonas del norte de Navarra y en el occidente de Bizkaia se conoce con su variante *epetxa*, entre ellas, Laudio y su comarca.

En lo que respecta al animal y a pesar de su frágil aspecto y simpático comportamiento, la "*epetxa*" ha gozado de muy mala reputación entre nosotros, considerándose como un ave de mal agüero ya que se creía que traía la mala suerte, especialmente la muerte, etc. Por ello, nuestros baserritarras de Laudio han luchado sin cuartel contra ellas y han destruido todos los nidos y polladas que les ha sido posible. En el punto contrario, como ave de la bondad y buena suerte, está el *matxin*, el petirrojo del cual ya hablaremos en su momento.

Para finalizar, digamos que en euskera, la palabra (*tx*)*epetx* se ha usado también como adjetivo, a aplicar a personas, con un significado de 'apocado', 'cobarde' y hasta de 'bobo'. Pero nos referimos a otras zonas, no en Laudio en donde, si se usó así en su día, hoy no lo conocemos.



## FRAKESTU

Hitz hau ezizen edo goitzen gisa baino ez da gogoratzen gaur egun, ez jatorrizko esanahian.

Izatez, *fraka* 'praka' + *estu* berbez osatua dago, literalki, 'praka estu dituen', baina hedaturaz dagokion esanahia 'eretxin' da.



Dicho término tan solo se recuerda en la actualidad como un sobrenombre o apodo, no en su significado original.

Se compone de *fraka* 'pantalón' + *hestu* 'prieto', literalmente, 'de pantalón prieto' aunque el significado que por extensión le corresponde es el de 'cascarrabias'.

## GALGA

Idiek, mandoek eta zamalanetarako bestelako animaliek tiratutako gurdien balazta izendatzeko erabiltzen da euskarazko *galga* berba. Hortik dator "galga eman" esamoldea, hau da, 'balaztatzea', literalki, 'balazta ematea'.

Baina berba konplexua da, inguruko herri euskaldunetan *nibel* edo *gramil* ere esan nahi du, hau da, zur zatiak ahokatzeko eta berdintzeko tresna.

Eta hortik, nibelaren esanahi horretatik dator frenoarena. Jatorriz, gure mugetatik kanpo, gurdian luzetara kokatutako makila luzeak ziren. Beharrezkoa zenean altxatuta, gurdiaren ardatzaren kanpoko aldean marruskatzen zuten, eta horrela, gurdiari galga ematen zitzaion.

Gure lurretan, oster, zeharka erabiltzen ziren: gurdiaren azpiko aldean kate zati batzuetatik eskegitako zur zati bat zen. Soka edo antzeko zerbaiten laguntzaz atzetik tiratuta, zur zati hori gurdiaren hagunen kontra marruskatzen zen, zamalanetarako animaliek maldan behera hainbeste lan egin behar ez izateko.

Geroago agertu ziren zurezko zapata moduko batzuk —esaten dutenez, pikondoekoak ziren onenak—, zeintzuk biradera baten nahiz torloju amai-gabe baten bidez aktibatzen baitziren gurdiari galga emateko. *Retranca* ere deitzen zaie.

Hala ere, berriro diot: Laudion *galga* berbak aipatutako sistemetako bigarrenari egiten dio erreferentzia.

Gure altxor linguistikoaren zati den arren, *galga* berba, 'balazta' esanahiarekin, gure eskualdetik urrun dauden beste hainbat lekutan erabili izan da.





Adibidez, Asturiasen ere, berezkotzat dute berba euren dialektoan: "Echa la galga al carru". Baina ez da hori leku bakarra: 'Muturrak gurdiaren kutxara gogor lotuta dituen makil luze eta lodia, gurpiletako baten kubo marruskatzean freno gisa erabiltzekoa' definitzen du euren Akademiak.

Ezer segururik ez dakigu berbaren jatorriaz, beraz, berba zalantzarrien zerrendan sartuko dugu.

Laburbilduta, euskaraz erabiltzen den berba da, eta halaxe hartu dugu, baina, ziur aski, beste hizkuntza batean du jatorria, jakin barik hori zein den.



*Galga* es una palabra usada en euskera para nombrar al 'freno' de los carros tirados por bueyes, mulas, etc. De ahí surge la expresión "*galga eman*" 'frenar' y que literalmente es 'dar freno'.

Pero es una palabra compleja ya que también significa en los pueblos euskaldunes de nuestros alrededores 'nivel' o 'gramil', aparato para ensamblar mejor e igualar las maderas.

Y de ahí, de ese concepto de *nivel*, surge nuestra concepción de freno. Eran en origen y fuera de nuestro territorio, unos largos palos acoplados de manera longitudinal en el carro y que, levantándolos cuando era necesario, se friccionaba en la parte exterior del eje del carro, frenándolo.

En nuestra tierra, se usaba sin embargo de modo transversal: era un madero que colgaba de unos trozos de cadena en la parte inferior del carro. Tirando desde atrás con una soga o similar, aquella madera rozaba contra las llantas del carro, haciendo que se frenase en gran medida, para que no trabajasen tanto los animales del tiro en los descensos.

Posteriormente aparecieron unos frenos con una especie de zapatas de madera —dicen que la de higuera era la mejor— y que por medio de una manivela y un sinfín, se accionaban para frenar el carro. Son conocidas, como *retranca*.

Pero, en Laudio, insistimos, la palabra *galga* hace referencia al segundo de los sistemas citados.

A pesar de formar parte de nuestro acervo lingüístico la palabra *galga* con el significado de 'freno', también se ha usado en castellano en otras zonas alejadas de la nuestra. En Asturias, por ejemplo, también tienen por propia de su dialecto esta palabra: "*Echa la galga al carru*". E incluso en el castellano de algunas zonas: 'Palo grueso y largo atado por los extremos fuertemente a la caja del carro, que sirve de freno, al oprimir el cubo de una de las ruedas' dice su Academia.



De su origen, nada cierto se sabe, por lo que quedará en el listado de palabras dudosas.

En resumen, se trata de una palabra usada en euskera y tenida como tal, pero cuyo origen es incierto.

## GALLUR

Mendi-tontorrei *gailur* esaten zaie euskaraz. Baina horrez gain, beste esanahi batzuk ere baditu, esaterako: 'zerbaiten muturra' edo, horrekin erlazionatuta, 'teilatuaeren astotxoa', 'teilatuaeren goiko aldea'.

Eta azken hau da Laudioko hiztegitxo honetarako gorde dugun esanahia: eraikin baten teilatuko piezarik garaiena, tontorrekoa. Hala ere, ez dugu Laudion 'mendiko tontor' esanahiarekin ezagutzen. Izan ere, hizkuntzaren aldetik kontua zaildu egiten da, badelako esaten duenik gure teilatuetako *gailur* berbak, berez, ez duela zerikusirik mendietako *gailur* berbarekin, baizik eta hegaztien *galdor* edo gandorreakin.

Edonola ere, kontuan hartu behar da euskara batuan *gailur* idazten dugun arren, Laudion *gallur* dela egiten zaion ahoskera.



Con la palabra *gailur* se denominan en euskera las cumbres de las montañas. Pero además, se usa con otros significados como 'extremo de una cosa' o, relacionado con ello, 'caballete del tejado', 'parte alta del mismo'.

Es este el significado que ha reservado para nuestro diccionario de Laudio esa palabra: el de la parte más elevada del tejado de un edificio. No lo conocemos, sin embargo, como 'cumbre montañera' en Laudio. Y es que... la cosa se complica en lo lingüístico ya que hay quien sostiene que en realidad la palabra *gailur* de nuestros tejados no tiene nada que ver con el *gailur* de las montañas sino más bien con *galdor*, 'cresta de las aves'.

Sea como fuese, sí que hemos de tener en cuenta que, aunque lo escribamos *gailur* en el euskera estándar, la pronunciación local en Laudio es la de *gallur*.

## GANGARRA

Euskal Herriko zatirik handienean *gangarra* berbak 'eztarriaren barruko aldea' (zintzurra, gingila...) esan nahi duen arren, mendebaldean, hau da,



gure eskualdearen kokalekuan, 'gandor' esanahia du, dela hegaztiena, dela mendiena, dela itsasoko olatuena.

Egile batzuek diotenez, gandorren artean, oilarrarenari egiten dio erreferentzia batez ere. Ziur aski, horregatik erabiltzen da *gangarra* berba 'handiuste' hitzaren sinonimo legez. Hala ere, jakin badakigu, oilarraren gangarra ez dagoela beti zurrun eta, gehienenetan, dotorezia handirik gabe erortzen da alde batera eta bestera.

Hortik etorriko zen, ziur asko, berbaren beste adiera bat, hain zuzen ere, gaur egun Laudion ezagutzen eta erabiltzen duguna: gaztelaniaz *gangarra* esaten zaie 'pertsona trauskilei, kemen handirik gabekoei'. *Gangarra* da 'pertsona alferra, lanzale ez dena' eta hala definitu izan da noiz edo noiz. Laudion erabiltzen ez diren arren, badira berbaren beste adiera batzuk ere: 'lotsabakoa', 'ganorabakoa', baita 'emakume kaskarina' ere.

Bitxia da Laudion gaztelaniaratutako bertsio maskulinoa erabiltzen dugula. "ese chico es un *gangarro*" beti *gangarra* beharko lukeen arren: "mutil hori oso *gangarra* da".



A pesar de que en la mayor parte de Euskal Herria *gangarra* significa el 'interior de la garganta' (gaznate, campanilla...), en el extremo occidental, en donde nos encontramos, designa la 'cresta', ya sea de aves, de montañas o incluso de las olas marinas.

Dicen algunos autores que, de entre las crestas, hace especial referencia a la del gallo. Probablemente por eso se utiliza también *gangarra* para denominar la 'soberbia'. Pero, como sabemos, la cresta del gallo no siempre muestra rigidez y, la mayor parte de las veces, cae sin mucha elegancia de un lado a otro.

De ahí debió inspirarse otra acepción de esta palabra y que es precisamente la que conocemos y usamos en Laudio para este término: se dice *gangarra* a la 'persona desgarbada, de poco arranque'. *Gangarra* es una 'persona retozona y poco trabajadora' como se definió en alguna ocasión. Otras acepciones de la palabra, aunque no se usen en Laudio, son el de 'desvergonzado', 'gambero' y hasta 'mujer algo ligera de cascos'.

Es curioso que en Laudio usemos castellanizada su versión marculina: "ese chico es un *gangarro*" cuando siempre debiera ser *gangarra*: "mutil hori oso *gangarra* da".



## GANORABAKO

*Ganorabako* oso berba erabilia da Laudion eta euskal mendebalde osoan. Esanahi zabala du, ñabardura askorekin, baina laburbilduta, 'buru eta funtsik gabeko pertsona', 'txepela' gisa definitu genezake. Ohikoa da aurrean dugunari esatea irain arin legez, eta normalean jasotzaileak ez du txartoegi hartzen.

Berez, *ganora* 'funtsa, fundamentua, iaiotasuna' eta *bako* 'gabe' bizkaieraz berbak elkartzetik dator. Bestela esanda, 'funtsik gabeko pertsona' da *ganorabako* bat.

Azken berba, *bako*, *bageko* hitz zaharragoaren laburtze bat da, eta *bage* 'gabe' berbari egiten dio erreferentzia, metatesi baten —*b* eta *g* konsonanteen leku-trukaketa eragiten duen salto baten— ostean, gaur egun euskara batuan erabili ohi dugun *gabe* bihurtu zen. Hori dela eta, erdialdeko euskalkietan, gure *ganorabakoaren* baliokidea *ganoragabe* da.

*Ganora* lehenengo elementuari dagokionez, esan daiteke itxura guztien araber, jatorria latinezko *candorem* terminoan duela, *candor* —*oris* hitzetik sortua eta 'zintzotasuna, fede ona edota onberatasuna' esanahia duena. Hortik dator gaztelaniazko *candor* ere, antzeko esanahiarekin: 'zintzotasuna, soiltasuna, tolesgabetasuna eta gogo-garbitasuna'.



*Ganorabako* es una palabra muy usada en Laudio y en todo el occidente vasco. Su significado es amplio, con diversos matices, pero que podríamos resumir en 'persona sin cabeza ni fuste', 'insustancial'... Es habitual usarlo como insulto de baja intensidad, muy asumible por quien lo recibe.

En realidad proviene de la conjunción de las palabras *ganora* 'fuste, fundamento, destreza' y de *bako* 'sin' en dialecto vizcaíno. Es decir, *ganorabako* sería 'persona sin fundamento'.

El último término, *bako* es la reducción del más antiguo *bageko* y hace referencia a *bage* 'sin' de donde, tras una metátesis —un salto con intercambio de posición de las consonantes *b* y *g*— se convirtió en el *gabe* que hoy generalmente usamos en el euskera unificado. Por ello, en los dialectos centrales, el equivalente a nuestro *ganorabako* es *ganoragabe*.

Respecto al primer elemento, *ganora*, todo parece indicar a que su procedencia inicial se encuentre en el término del latín *candorem*, de *candor* -*oris*, 'franqueza', 'de buena fe', 'benevolencia' de donde surge también el castellano *candor* con similar significado de 'sinceridad, sencillez, ingenuidad y pureza del ánimo'.



## GARA

Gure herrian oso ohikoa da "*gara* de un ajo", "*gara* de una cebolla" entzutea, landare batzuekin. Landareen kimu edo begiei egiten die erreferentzia eta Larramendik bere *Diccionario* ospetsuan honela utzi zuen jaso 1745ean: 'tallo en las lechugas y otras hortalizas que por crecidas van espigando'. Gaztelaniaz *escapo* esaten zaio horri.

Nahiz eta azaletik izan, *gara* berba jorratu genuen *arbigera* —*arbigara*— sarreran, eta adierazi dugunez, *arbi* + *gara*, 'arbiaren kimua edo *gara*' esan nahi du. Beraz, Laudion, oso arrunta da esatea berakatzak, tipulak eta abarrek *gara* egin dutela.

Halaber, *garar* aditza eratorri da berba horretatik, garatzea zentzuarekin. Azken batean, euskarazko *garatu* aditzaren bertsio gaztelaniaratu baina ez da.

Horiek horrela, aza beti garatu aurretik jan behar dela entzungo dugu, "antes de que se *gare*", uraza bati buruz "se ha *garado*" eta antzekoak.



En nuestro pueblo es muy común escuchar hablar de la *gara* de un ajo, cebolla o cualquier otra planta. Hace referencia a los 'brotes o vástagos de las plantas' o al, según decía Larramendi en su *Diccionario* (1745), 'tallo en las lechugas y otras hortalizas que por crecidas van espigando'. Es lo que en castellano se denomina *escapo*.

Aunque someramente, ya nos referimos a la palabra *gara* al tratar la palabra *arbigera* —*arbigara*— no era sino el resultado de *arbi* + *gara*, 'el escapo o brote del nabo'. Es por tanto muy común en Laudio hablar de la *gara* que ha echado el ajo, la cebolla, etc.

Del mismo modo se utiliza *garar* como palabra para indicar el verbo de brotar la *gara*. Es la versión castellanizada del verbo en euskera *garatu*, 'desarrollar'.

Así, siempre escucharemos que hay que comer la berza antes de que "se *gare*", que una lechuga "se ha *garado*" o similares.

**GARAR.** *Ikus / Ver* **GARA**



## GARRAZTA

Oraingo berba hau oso Laudiokoa da, zalantza barik, eta nahiko erabilera murrizta du, hemen aurkeztu ditugun batzuk baino murriztagoa. Hala ere, aitaren aldeko nire familiak basoarekin nolabaiteko harremana izan du eta maiz erabiltzen dute.

Hiztegiaren arabera, *garrazta* —Laudion, *garrásta* ahoskatuta— 'zuhaitz makatza da, adin ertainekoa'. Berba hori Bizkaiko mendebaldean baino ez da erabiltzen, kostaldetik gure Aiaralderaino. Nire familian 'txertatu eta inausi gabeko gaztainondoa, haritza edo bestelako zuhaitzari' esaten zaio, altu, zuzen eta harro hazten denean. Bestela esanda, gizakion esku-hartzerik jasan ez duen zuhaitza. Izan ere, senideek esaten dutenez, "normalean besteak inausi egiten ziren, ikatza errazago egiteko".

Agerikoa denez, euskaraz, *garrazta* berbak erreferente maskulinoetarako eta femeninoetarako balio du. Baina Laudio, gaztelaniaz erabiltzean, bikoiztu egiten da: *garrazta* ("un haya *garrazta*") eta *garrazto* ("un castaño *garrazto*").

Esan beharrik ez dago berba horretatik datozela zenbait toponimo, esaterako: Garrastatxu —zaharrek oraindik hasierako azentuazioarekin esaten dute: *Garrástatxu*— eta garai bateko *mintegiei* egiten die erreferentzia, horiek ere, toponimian jasoak.



Presentamos en esta ocasión una palabra local de Laudio pero que, sin duda, su uso está bastante restringido, más que otras que aquí hemos presentado. Sin embargo, en mi familia paterna, que han tenido cierta relación con el bosque, la usan habitualmente.

*Garrazta* —pronunciado en Laudio *garrásta*— es, según los diccionarios, un 'árbol bravío, de mediana edad'. Es una palabra cuyo uso se limita al occidente de Bizkaia, desde la costa hasta nuestra comarca de Aiaraldea. En mi familia se ha conocido como 'un castaño, roble u otro árbol sin injertar ni podar y que crece muy alto, recto y bravo'. Es decir, un plantón, previo a la intervención humana. Porque, añaden, "normalmente los demás se podaban, para facilitar el hacer carbón".

Evidentemente, el vocablo *garrazta* sirve en euskera para el femenino y el masculino. Pero, en Laudio, al acoplarlo al uso del castellano, suele desdoblarse en *garrazta*, "un haya *garrazta*" y *garrazto*, "un castaño *garrazto*".

Sobra decir que de esta palabra surgen topónimos como Garrastatxu —acentuados aún por los mayores en la forma original de *Garrástatxu*—



y que hace referencia a los antiguos viveros de plantones que se recogen en la toponimia en la forma *mintegi*.

## GARRIKO

Ez dut uste Laudion *garrikoa* zer den ez dakien pertsona asko egongo denik. 'Gerriko' edo 'paxa' tradizional bat da, eta gerriari hainbat bira eman ostean, gerriari eutsi, gerria babestu eta berotzeko erabiltzen da. Gaur egun, ia soilik jaietan erabiltzen diren jantzi herrikoietan baino ez da ikusten.

Hala ere, hamarkada batzuk atzera eginda, ohikoa zen gure baserritarrak lanean ikustea haien *garriko* eta guzti. Garai batean, egunero erabiltzen ziren, ohiko kontua zen, eta nekazari zebilen jendeak estimu handia zien. Lanerakoak beltzak izan ohi ziren eta gorriak, berdeak edo zuriak apainago jantzi behar zen egunetarakoak. Berbari berriz helduta, *garri + ko* da horren osaera, gerrian jartzekoa.

Eta zergatik da *garriko* eta ez *gerriko* beste leku batzuetan bezala? Bada, beste barik, bizi garen euskal mendebaldeko euskalkiaren, hau da, bizkaiera legez ezagutzen dugun euskalkian, ezaugarri berezia delako *rr* aurreko *e* hori *arr* bihurtzea. Aldaketa horren adibideak dira besteak beste: *berri > barri*, *txerri > txarri*, *pitxer > pitxar...* Horrexegatik *gerri* berba *garri* bihurtzen zaigu hemen, eta *gerriko garriko*, horrela erabili izan baita eta erabiltzen baita Laudion.



No creo que exista mucha gente en Laudio que no sepa lo que es *garriko*, una especie de 'cinturón' tradicional, 'faja', 'ceñidor', 'cincho' o 'cíngulo', una banda ancha de tela que se enrolla con múltiples vueltas en la cintura para sujetar, proteger y calentar ésta. Hoy su uso está prácticamente restringido a los trajes populares que se visten en las fiestas.

Sin embargo, hasta hace alguna década, no era extraño ver a nuestros *base-rritarras* trabajando con su *garriko* en la cintura. Su uso era diario, habitual, y era muy apreciado por la gente que trabajaba en el campo. Solían ser negros para el trabajo y rojos, verdes, blancos... para ocasiones en que se precisaba ir vestido con más decoro. Volviendo al vocablo, su traducción litersal es la de 'de (la) cintura', a partir de *garri + ko*.

¿Y por qué es *garriko* y no *gerriko* como en otros lugares? Pues simplemente porque en el occidente vasco, en donde nos encontramos, la *e* previa a la *rr* se convierte en *arr* como rasgo distintivo de este espacio dialectal occiden-



tal y que habitualmente conocemos como "euskera vizcaino". Así, para nosotros se producen los cambios de *berri* > *barri*, *txerri* > *txarri*, *pitxer* > *pitxar*... Por eso también *gerri*, 'cintura', se convierte aquí en *garri* y *gerriko* en *garriko*, que es tal y como se ha usado y usa en Laudio.

## GAZTANBERA

Laudion *gazanbera* erabiltzen dugu —*gastanbéra* ahoskatuta— 'zenbera' izendatzeko. Esnekia da, eta Laudion *putxa* deritzon gatzatuaren eta gaztaren erdibidean dago. Zonalde batzuetan, esaterako, Nafarroako iparraldean, gatzatu edo mamiari ere *gazanbera* esaten zaio, baina ez gurean, biak ondo bereizten ditugu.

Gure etxean erabili izan den errezeta jasoko dugu jarraian. Hemen jasoa utzi nahi izan dugu, geure izate kulturalaren berebiziko zatia diren gauza txikiak galdu ez daitezen. Hona, gerora euskaratuta, nire amaregandik (Olarte, 1941) aspaldi jaso nuen:

"Litro bat esne ipintzen zen ontzi batean, gatzagia erantsi eta solidotzen eta jalkitzen uzten zen. Hurrengo egunean, apurtu eta beste litro bat esne gehitzen zitzaion. Eta gauza bera hurrengo egunean. Eta beste behin hurrengoan... Horrela lauzpabost egunez, nahi beste. Nahikoa irizten zitzaionean, irabiatu eta zapi batekin iragazten zen. Geratzen zen produktu pikortsua bakarrik jaten zen, edo, ahal bazen, azukrearekin. Txikienen gutizia zen".

Berbara itzulita, hau da bere osaera: *gazta* + *bera* 'biguna, samurra'. Gainera, *gazta* hitzaren forma arkaikoaren berri ematen digu, jatorriz \**gastana* izango baitzen berba. Hortik datorkio *gazanbera* berbari *n* hori, ezerezetik irtena dirudien arren. Bestela esanda: harribitxi linguistiko baten aurrean gaude, benetako fosil bat.



En Laudio usamos *gazanbera* —pronunciada *gastanbéra*— para denominar el 'requesón', ya que ése es su significado. Se trata de un producto lácteo, a medias entre la cuajada —llamada *putxa* en Laudio— y el queso. En algunas otras zonas como el norte de Navarra también se llama también *gazanbera* a la 'cuajada' pero no es nuestro caso, bien diferenciadas ambas.

Añado la receta tradicional que conocemos en nuestra familia. La aportamos a este diccionario para que ni el tiempo ni el olvido se lleven estos elementos que son parte intrínseca de nuestra esencia cultural. Así lo tenemos anotado, recogido hace años de mi madre (Olarte, 1941):





"Se ponía un litro de leche con cuajo y se dejaba solidificar y reposar. Al día siguiente se rompía y se añadía otro litro de leche. Y otro al siguiente día. Y otro... hasta hacer 4 ó 5 días, lo que se quisiera. Cuando ya se estimaba que se tenía suficiente se batía y se colaba con un trapo. Quedaba un producto grumoso que se comía solo o, si era posible, con azúcar. Era la delicia de los más pequeños".

Volviendo a la palabra en sí, se compone de *gazta* 'queso' + *bera* 'blando, tierno'. Recoge además el origen arcaico de la palabra 'queso' y que fue en origen un supuesto *\*gaztana*. De ahí procede esa *n* de la palabra *gaztanbera* y que parece surgida de la nada. Es decir, que estamos frente a una joya lingüística, un verdadero fósil.

## GIBELURDIN

*Gibelurdin* izena perretxiko jangarri bat izendatzeko erabiltzen da. Oso estimatua da. Gaztelaniaz *rúsula* deitzen zaio (*Russula virescens*). *Gibelurdin* izena oso hedatua dago Euskal Herri osoan.

Euskaraz ez dakienarentzat esan behar da ahoskatu behar dela gaztelaniaz *guibelurdín* irakurriko bagenu bezala. Osaketa eta esanahia hjonelakoak dira: *gibel* 'atzeko alde, bizkar, azpialde' + *urdin* 'urdin edo gris'.

*Urdin* edo *gris* esan dugu Euskal Herriko mendebaldean, hau da, gurean, *urdin* berbak 'gris' esan gura duelako, nahiz eta beste euskalkietan *urdina* 'urdin', erdarazko 'azul' izan. Eta perretxikoari erreparatuta, zaila da esatea zein den kolore zehatza. Baina, jarraibide legez, 'grisa' balitz, oso gurea litzateke berba, baina esanahia 'urdin' (azul) balitz, arrotza litzaiguke.



El nombre *gibelurdin* se usa en Laudio para denominar un tipo de seta comestible, muy apreciada. Se trata de la 'rúsula', *Russula virescens*. El de *gibelurdin* es un nombre muy extendido por toda la geografía vasca.

Su pronunciación es como si fuese en castellano *guibelurdín* y el significado es el de *gibel* + *urdin* que significa 'dorso, espalda, envés azul o gris'.

Decimos *azul* o *gris* porque en el occidente vasco, en donde estamos, *urdin* es 'gris', 'enmohecido', mientras que en los otros dialectos significa 'azul'. Y viendo la seta en cuestión resulta complicado discernir a qué color se refiere. Pero, como pauta, si fuese 'gris' haría esa palabra más propia nuestra mientras que si fuese 'azul' sería extraña en nuestro pueblo.



## GIHARRA

Arraroa da Laudion norbait entzutea gaztelaniaz "*carne magra*" edo "*magro*" eskatzen, normalena delako "*filetes de giharra*" aditzea xerrak eskatzen ari denari.

*Giharra* izena ematen diogu 'gantz bakoa den txerri okel mota' bati, batez ere, giharrez osatua baitago. Eta horixe bera esan nahi du *giharra* berbak euskaraz: 'giharra', jakina.

Agian, berba honen gauzarik bitxiena izango da hainbat aldagai fonetiko dituela euskal lurralde guztietan, Zuberoa kenduta: *inhar*, *giñar*, *iñar*, *inhar*, *ginharra*, *giñarra*, *giharre*, *giar*, *ginharre*, *giñarre*, *ginharri*, *gearre*, *gierre*, *ginherre*, *gidarra*, *gier*, *gierra*, *gierrri*, *gigarra*, *giger*, *gizarra*, *igerri* nahiz *iñer*.

Bestalde, tarteko *h* horrek adierazten digu diptongoa dagoela, hau da, ez dela *gia-rra*, silaba bikoa, baizik eta hirukoa: *gi-ha-rra*.

Berba honen beste bitxikeria bat da mendebaldeko euskaraz, hau da, gure euskaraz, amaierako —*a* hori berezkoa dela eta, hortaz, ez zaiola inoiz kentzen. Horrela, beste leku batzuetan "gihar zati bat" esango litzatekeen arren, hemen "giharra zati bat" esaten dugu.

Bukatzeko, eta datu bat gehiago gehitzeko, *magro* berba latinezko *macer*, *macri* berbatik dator, eta hortik sortzen da *demacrado* hitza, 'argala, iharra' esateko zentzu iraingarriaz akaso. Bistan denez, gaur egun ez bezala, argaltasuna eta koipe falta ez zen ziren batere estimagarriak.



Es raro en Laudio escuchar a alguien en una carnicería pidiendo filetes de "carne magra" o "magro" porque lo habitual es pedir filetes de *giharra*, pronunciado como si en castellano escribiésemos *guiárra*.

Con el nombre de *giharra* denominamos una 'carne del cerdo que se caracteriza por ser magra, es decir, no de grasa sino muscular'. Y es que es eso mismo lo que significa la palabra *giharra* en euskera: 'músculo'.

Quizá lo más curioso de esta palabra es que se usa, con diversas variantes fonéticas —*inhar*, *giñar*, *iñar*, *inhar*, *ginharra*, *giñarra*, *giharre*, *giar*, *ginharre*, *giñarre*, *ginharri*, *gearre*, *gierre*, *ginherre*, *gidarra*, *gier*, *gierra*, *gierrri*, *gigarra*, *giger*, *gizarra*, *igerri* o *iñer*— en todos los territorios del euskera excepto en el de Zuberoa.

Por otra parte, la *h* intermedia esa nos indica que no existe diptongo, es decir, no es *gia-rra*, en dos sílabas, sino en tres: *gi-ha-rra*.

Otra curiosidad de esta palabra es la de que en el euskera occidental, en donde nos encontramos, la —*a* final es intrínseca a la palabra y por tanto



no se prescinde de ella. Así, mientras en otros lugares sería "*gihar zati bat*", 'un trozo de magro' aquí lo hacemos "*giharra zati bat*".

Para finalizar y por añadir una nota más, digamos que la palabra *magro* viene del latín *macer*, *macri* y que de ella surge la palabra *demacrado*, con significado de 'flaco, enjuto', algo despectivo. Como se ve, al contrario que sucede en la actualidad, la delgadez y ausencia de grasa era algo no apreciado.

## GINGILLA

*Gingila* berba arran edo zintzarri mota bat da, ardiei jartzen zaienen arteko arruntena. Etimologia faltsu baten ondorioz, eta gaztelaniarekin nahastuta, batzuetan *guindilla* entzungo dugu baina ez da hori bere benetako izena.

Euskaraz, zintzilik dagoen edozer izan daiteke *gingila*: 'pendulua, zintzilikari apaingarri bat, belarrietako gingilak, ahuntzen aurpegian dauden apendiz haragitsuak' —gaztelaniaz, *cuentas* edo *mamelas*— edo, adibidez, 'eztarriaren goialdean duguna', *gingila* izenekoa baita. Batzuetan, antzekotasuna dela eta, 'ezkila-mihia' atalari ere *gingil* deitu izan zaio.

Termino honen baliokide edo aldaera bat da *txingila* da, dagoeneko galdua, eta arran txikiei esateko erabiltzen zena, Pedro Antonio Añibarro billaroztarrak —areatzarrak— jasotakoaren arabera (*Voces Vascongadas*, c. 1800): «*si es pequeño [zintzarria], "arran txingilea"*».

Hori alde batera utzita, behin baino gehiagotan entzun dut nire familia ingurunean abere taldeak bazka-larre batetik bestera eramaten zirenean, lekuz aldatzen zirenean edo arkumeak zeudenean, *zumba* —*dunba*— izenekoak ipintzen zitzaizkiela, hau da, *gingil* handiagoak, sabel handiagokoak eta ikusgarriagoak, erakustaldia egiteko asmo bakarrarekin. Hala ere, mendira eramatean, ez zenez egongo hainbeste ikusle, *gingilak* ipintzen zitzaizkien, arinago eta erosoago ibili zitezten.



La palabra *gingila* —pronunciado como si en castellano escribiésemos *guinguilla*— es un tipo de cencerro, el más habitual de los que se pone a las ovejas. Por falsa etimología, por confundirse con el castellano, en ocasiones lo escucharemos como *guindilla*, aunque no es ese su verdadero nombre.

*Gingila* es en euskera todo aquello que cuelga, como un 'péndulo, un colgante decorativo, los lóbulos de la oreja, apéndices carnosos en la cara de las cabras' o, por ejemplo, la 'campanilla que tenemos dentro de la boca'.



También, por similitud, se ha usado en algunas ocasiones para referirse, al 'badajo de los cencerros'.

Un equivalente o variante de este término, ya desaparecido, sería el de *txingila*, para denominar los cencerros pequeños según recogió el *billaroztarrá* —areatzarra— Pedro Antonio Añibarro (*Voces Vascongadas*, c. 1800): «*si es pequeño [el cencerro], "arran txingilea"*».

Fuera de los aspectos lingüísticos y ya centrados en la etnografía, en más de una ocasión he escuchado en mi ámbito familiar que cuando se cambiaba el rebaño de pasto, cuando se llevaba a otro lugar o con los corderos, se les ponía las *zumbas*, más grandes y abombadas, más vistosas, con la única intención de presumir. Sin embargo, al echarlas al monte en donde ya no iban a contar con tanto público admirador, se ataviaban de nuevo con *gingillas* para que así anduviesen ligeras y cómodas.

## GOITIBEHERA

Laudion ez dago *goitibehera* bat zer den ez dakienik, duela ez asko oso ezagunak baitziren, eta sanroke guztietan egiten baitziren goitibehera lasterketak, ikusle ugarirekin egin ere. Baina istripuak oso sarritan gertatzen ziren, batzuetan, jendea hil ere egin zen eta, beraz, lasterketak egiteari utzi zitzaion. Oso gurdi soila da *goitibehera*, batez ere, umEEK erabiltzekoa da eta, normalean, hiru gurpil izaten ditu, aukoak ere zeuden arren; atzean bi gurpil eta aurrean bakarra eramaten dute, eta, biratzeko aukera ematen du sistema oso simple baten bidez.

Normalean, metalezko errodamenduak —kojineteak— erabiltzen ziren gurpil legez. Eta Laudion siderurgia eta metalgintza enpresa handiak zeudenez, eta txatarra galdatzen zenez, ume guztiek zuten gurasoren bat, senideren bat, auzokideren bat edo lagunaren bat horietako batzuk lantegitik ateratzeko prest, euren ametsetako *goitibehera* egin zezaten.

Oso gardena da hitzaren esanahia: 'goitik behera'. Berez, ez da gure baserri-tarrek tradizionalki erabilitako berba, nahiko berria da-eta. Baina hain erro-tua egonda, gure zerrendan jasotzea erabaki dugu. Beste leku batzuetan, gaztelaniaz, hainbat izen desberdin ditu: *triángulo*, *cojinete*, *patinete de cojinetes*, *carrilana*, *carrico de rodamientos*.



No hay nadie en Laudio que no sepa qué es una *goitibehera* ya que, hasta no hace muchos años han sido muy populares y no había fiestas sin su correspondiente carrera, con excelente acogida de público, por cierto. Pero los accidentes eran muy habituales e incluso mortales en algunos casos, por lo que dejaron de celebrarse.

La *goitibehera* es en sí un carro muy elemental, especialmente usado por niños y generalmente compuesto por tres ruedas —también las había de cuatro—, dos traseras y una delantera que, con un sistema muy simple, podía girar.

Las ruedas más comunes eran rodamientos —cojinetes— metálicos. Y como en Laudio había grandes empresas siderometalúrgicas, con fundición de chatarra, no había nadie que no tuviese algún padre, pariente, vecino o amigo que no les sacase algunos para fabricar la codiciada *goitibehera*.

El significado de la palabra es muy diáfano: *goitik behera*, 'de arriba a abajo'. En realidad no es una palabra que hayan usado nuestros baserritarras de modo tradicional ya que su incorporación es relativamente reciente. Pero, es tal su grado de arraigo, que hemos querido traerla a nuestra lista. En otros lugares se conocen como *triángulo*, *cojinete*, *patinete de cojinetes*, *carri-lana*, *carrico de rodamientos*...

## GORRINGO

Gure udalerrian *gorringo* deitzen zaio arrautzen erdiko atal horiari, gaztelaniaz ere. Jatorria *gorri* berban dauka, arrautzaren beste zatiaren jatorri etimologikoa *zuri* berban dagoen legez, hortik baitator *zuringo*, arrautzen zati zuria. Laudion oso arrunta da *gorringo* erabiltzea gaztelaniaz berba egitean ere, baina ez *zuringo*.

Gainera, bada Laudioko baserri inguruetan *gorringo* izena hartzen duen perretxiko bat. Gaztelaniaz *huevo* edo *huevo de rey* esaten zaio, zalantza barik, arrautzekin duen antzaren ondorioz. *Amanita caesarea* da perretxikoaren izena, 'zesarren amanita', zapore bikainarengatik.

Gertu dauden Bizkaiko herrietan, bestalde, gaztaina errearen mamiari esaten zaio *gorringo*, baina adiera hori ez dugu ezagutzen gaur egungo Laudion.



En nuestro municipio usamos *gorringo* para nombrar la 'yema' de los huevos'. Su origen lo encontramos en *gorri* 'rojo' y en oposición a *zuri* 'blanco', de donde surge *zuringo*, 'clara de los huevos'.

En Laudio es corriente usar la palabra *gorringo* al hablar en castellano, pero no la de *zuringo*.

Existe además un tipo de seta que en Laudio es conocida en los ambientes rurales como seta de *gorringo*. En castellano es la de *huevo* o *huevo de rey* y sin duda se llama así por la similitud con los huevos. Se trata de la *Amanita caesarea*, la 'amanita de los césares', llamada así por su exquisitez.

También en los pueblos cercanos de Bizkaia se usa *gorringo* para designar la carne de la castaña asada, pero es algo que no conocemos en el Laudio actual.

## GURPILADA

Termino honen esanahia ez dugu bereziki ondo zedarritua. Printzipioz, jaten ari garenean, 'oso koilarakada betea' da *gurpilada* bat, eta hori da Laudion ezagutzen dugun erreferentzia nagusia. Baina, antza denez, esku-pilotan, eskumuturraren biratze-mugimendu bati egiten dio erreferentzia eta, bola-jokoan, bolari efektu zehatz bat emateri.

Edonola ere, koilara betearen esanahiari dagokionez, koilara ahora gerturatzean ere, badirudi erreferentzia egiten diola eskumuturraren biratze-mugimendu txiki bati. *Gurpil* berbarekin harremana duela dirudi.



Se trata de un término que no lo tenemos muy bien acotado en lo que a su significado se refiere. En principio, *gurpilada* es una 'cucharada bien llena' cuando se está comiendo y es esa la referencia principal que conocemos en Laudio. Pero también parece referirse a un movimiento, una especie de giro de muñeca al jugar a pelota o, en los bolos, al darle un determinado efecto a la bola.

En cualquier caso, incluso en el de la cuchara a la hora de acercarla cargada hasta la boca, parece hacer referencia al movimiento levemente giratorio de la muñeca. Apareta estar relacionada con *gurpil*, 'rueda'.



## GUZUR-ZAKU

Hitz ezezagun samarra bada ere, badira oraindik bertako gaztelaniaz *guzur-zaku* erabiltzen duten laudioarrak —gaztelaniazko *gusursáku* bailitzan ahoskatua— pertsona bat 'gezurti' dela adierazteko: "Ese era un *guzur-zaku*: ¡valiente mentiroso!".

Bere osaera eta esanahi literala *guzur* 'gezur' eta *zaku* 'zaku' izango lirateke, hau da, 'gezurrez betetako zakua'.

*Guzur* da *gezur* hitzaren mendebaldeko aldaera eta lehenbiziko idazleen garaitik dokumentatua dago: lehen aldiz Lazarraga arabarrak, 1567an.

*Gezur* hitzari edo haren *guzur* aldaerari eta ontzi edo edukiontzia lotzeko formula ohikoa da gure hizkuntzan 'gezurti' adierazteko: *gezur-arka*, *gezur-etxe*, *gezur-ontzi*, *guzur-aska*... 'Arka, etxe, ontzi, artesa... bete gezur' adierazteko. Gure *guzur-zaku* lokalaren antzeko zerbait.

Gogora dezagun amaitzeko, Larrazabal auzunean, aspaldiko bideak banatzen ziren lekuan haritz bat zegoela eta hari —gaur egun toponimo bihurtuta— *Guzurraretx* (*guzur* + *haretx*, 'gezur' + 'haritz') esaten zitzaiola.



A pesar de una palabra relativamente desconocida, existen aún personas en Laudio que utilizan en el castellano local *guzur-zaku* —pronunciado *gusur-sáku*— para decir de alguien que es un 'embustero': "Ese era un *guzur-zaku*: ¡valiente mentiroso!".

Su composición y significado literal serían las de *guzur* 'mentira' y *zaku* 'saco', es decir 'saco repleto de mentiras'.

*Guzur* es la variante occidental de *gezur* 'mentira' y se encuentra documentada desde nuestros primeros escritores: por primera vez en el alavés Lazarraga, en 1567.

La fórmula de sumar la palabra *gezur* o su variante *guzur* 'mentira' a la de un recipiente o contenedor para indicar 'embustero' es un recurso habitual en nuestra lengua: *gezur-arka*, *gezur-etxe*, *gezur-ontzi*, *guzur-aska*, 'arca, casa, recipiente, artesa... de mentiras'. Algo similar a nuestro *guzur-zaku* local.

Recordemos para finalizar que, en un punto del barrio de Larrazabal, en el lugar en que se separaban los antiguos caminos existía un roble conocido como *Guzurraretx* (*guzur* + *haretx*, 'roble de las mentiras').



## HAMAIKETAKO

Laudioarren artean berba erabilia da, oso. Jakin badakigunez, goizaren erdian hartzen den otamen edo kopau bat da hamarretakoa.

Izena goizaren erdiko ordutik dator; izan ere, '11:00etan egitekoa' da berbarekin hitzez hitzeko itzulpen literala, nahiz eta guztiz derrigorrezkoa ez den kopautxoa ordu zehatz horretan jatea.

Tarteko otamenaren ekintza berari dagokionez, euskaraz modurik tradizionalenean esaten da, hau da, "hamaiketakoa egin". Gaztelaniaz, "*hacer (el bocado) de las once*" litzateke. Horrela esaten dute gaztelaniaz, Laudioko zaharrenek: *hacer* erabiltzen dute *comer* erabili beharrean. Esan bezala, euskarazko formaren berbaz berbako itzulpena da.

Antzeko erabilera eta esanahia du *hamarretako* berbak, geroago jorratuko dena.



Palabra de uso muy generalizado entre los laudioarras, de carácter general. Se trata, como bien sabemos, de 'un pequeño bocado o tentempié que se toma a media mañana'.

Su nombre procede de la hora, a mitad de mañana ya que, su traducción literal, es '[el bocado] de las 11:00 h.' aunque el refrigerio no coincida necesariamente con esa hora.

Respecto al acto de esa comida ligera intermedia, en euskera se dice de la forma más tradicional, *hamaiketakoa egin*, es decir, 'hacer (el bocado) de las once'. De esta manera, con el verbo *hacer* en vez de *comer*, etc. es como lo usan los laudioarras más mayores y, como decimos, es la traducción directa de la forma en euskera. Otra palabra con uso y significado similar es *hamarretako* que trataremos posteriormente.

## HAMARREKO

Kartekin musean jokatzean, bada Laudio ez ezik, Euskal Herri osoan eta hemendik kanpo ere erabiltzen den berba bat: *hamarreko* berba da: "hamar unitatekoa" esan nahi du eta horrelaxe ahoskatzen den arren, *amarraco* esaten da oro har eta gehienetan.

Bitxia bada ere, jokoaren etapa zaharrago batetik etorriko da berba, izan ere, gaur egun, *hamarrekoa* edo *amarracoa* bost harri direlako, nahiz eta hamar izan beharko luketen, izenari erreparatuta.





Jokoaren aldaera asko dauden arren, gure artean ohikoena da lau harri lortzekoa. Dena den, ez dira bat-batean lortzen, zortzi *hamarreko* lortu behar dira lehendabizi, eta horietako bakoitzak bost harri balio du.



Jugando con los naipes al mus, hay una palabra que se usa no solo en Laudio sino en todo Euskal Herria y fuera de ella. Es la palabra *hamarreko* que significa 'de diez (unidades)' y que suele pronunciarse como *hamarreko* pero, sobre todo y generalmente, como *amarraco*.

Curiosamente el nombre debe surgir de otro estadio más antiguo del juego, ya que en la actualidad un *hamarreko* o *amarraco* son cinco "piedras", cuando por el nombre debieran ser diez.

Aunque existen diversas variantes en el juego, entre nosotros la más conocida es la conseguir cuarenta piedras. Pero no se logran de repente sino que han de acumularse consiguiendo ocho *hamarreko*s, cada uno de ellos de cinco piedras.

## HAMARRETAKO

*Hamaiketako* terminoa jorratu dugunean bezala, laudioar askok ezagutu eta erabiltzen duten berba da hau, izaera orokorrekoa. Jakin badakigunez, goizaren erdian hartzen den otamen edo kopau bat da hamarretakoa.

Izena goizaren erdiko ordutik datorkio; izan ere, 10:00etan egitekoa [egiteko kopautxoa] da berbaren itzulpen literala, kopautxoa ordu zehatz horretan izan ez arren.

*Hamaiketako* berba azaltzean adierazi dugun bezala, zaharrenek *hacer (el) hamarretako* esaten dute, ez *comer el hamarretako*. Izan ere, euskarazko forma tradizioaletik itzulia da: *hamarretakoa egin*.



Al igual que nos sucedía cuando hablábamos del término *hamaiketako*, también es una palabra que conocen y usan muchos laudioarras. Se trata, como bien sabemos, de 'un pequeño bocado o tentempié que se toma a media mañana'.

Su nombre procede de la hora a mitad de mañana ya que, su traducción literal, es '[el refrigerio] de las 10:00 h.' aunque no tiene que coincidir necesariamente con esa hora.



Al igual que comentábamos al hablar del vocablo *hamaiketako*, los más mayores lo usan como *hacer* (el) *hamarretako* en vez de usar el verbo *comer*. Siguen así la forma de uso tradicional en euskera, *hamarretakoa egin*.

## HANKA

*Hanka* berba 'zangoa', 'berna' edo 'oina' esateko beste modu bat da eta, batzuetan, animalien ipurtaldeari esateko ere erabiltzen da, esaterako, zaldienari. Gaztelaniaz ere, *anca* erabiltzen da 'ipurdi' adierazteko zaldi-behorrez ari garenean, eta 'hanka' esanahiarekin ere, baina, gaur egun, ia eksklusiboki igelen hankei esateko.

Dirudienez, bien jatorrian okzitanierazko edo italierazko *anca* berba dago. Eta euskarak nahiz gaztelaniak ia erabat amankomunean badute, nola dakigu Laudioko gaztelaniaz berba egiten dugunean euskarazko termino bat erabiltzen ari garen?

Aldea agerikoa da, esaterako, oilaskoez berba egitean. Normalean oilaskoei buruz berba egitean, gaztelaniaz "comer unos *muslos* asados" esango genukeen arren, Laudioko jende zaharrak edota herrian errotuta daudenek esango dute "(h)*ancas* de pollo" gozoak jan dituztela, eta horrek harritu egingo du hemengoa ez den edonor. Hori da barbari ematen zaion erabilerera euskaratik hartzean, ohikoa delako euskaraz, baina ez gaztelaniaz.



La palabra *hanka* se usa en euskera para definir 'pierna', 'pata', 'pie' o hasta las 'posaderas' de animales como las caballerías. El castellano también usa *anca* con la acepción de 'posaderas' con el ganado caballo y con el de 'pata', prácticamente limitado en la actualidad a la referencia a las ranas.

El origen común para ambas parece estar en el occitano o italiano *anca*. Y, si es prácticamente común al euskera o al castellano, ¿cómo sabemos si al hablar en "el castellano de Laudio" estamos valiéndonos de un término en euskera?

La diferencia es clara al hablar, por ejemplo, de los pollos. Mientras lo general es hablar de comer unos *muslos* asados, la gente de cierta edad o rai-gambre en Laudio dirá que se ha comido unas sabrosas "(h)*ancas* de pollo", expresión que chocará al que no sea de aquí. Ese es el uso de esa palabra cuando la hemos heredado del euskera, por ser habitual en esta lengua pero no en castellano.



## HONDAKIN

Normalean pluralean erabiltzen da, *hondakines* forman, eta 'soberakinak, hondarrak, apurrak, edo aurriak' izendatzeko erabiltzen da. Oso erabilia da, "que no queden *hondakines* en el plato" moduko esamoldeetan.

Bide batez, aipa dezagun gaztelania zaharreko antzeko berba bat, ia galdua, Laudiokoek erabili ohi zutena platerren aurrean, antzeko egoeran. Janaria *maladar* egiten zen —berez, *malhadar* idatzi behar da—; *malfadar* berbatik dator hori, 'zorigaitzoko izatea, triste' esanguraz, baina, gure kasuan, janaria 'lizuntzea, hondatzea' esan nahi du. Esaten zizutenean "deja de *malhadar* el pescado: cómelo ya y no dejes *hondakines*" zerbait ez zebilen ondo.



Normalmente se usa en plural, *hondakines* y es una palabra que hace referencia a tipo de 'restos, despojos, residuos, sobras o ruinas'. Es muy recurrida en expresiones del tipo "que no queden *hondakines* en el plato".

De paso, citemos otra palabra del castellano arcaico, casi desaparecida, y que solían usar en Laudio en similar situación frente al plato. Era la de *maladar* la comida —en realidad se ha de escribir *malhadar*—, procedente de *malfadar* 'ser infeliz, desventurado' pero que en nuestro caso era 'echar a perder, estropear' la comida. Cuando te decían "deja de *malhadar* el pescado: cómelo ya y no dejes *hondakines*" algo iba mal.

## HORCACHA. *Ikus / Ver KAKO*

## HORDAGO

*Hordago* berba —azentuazioa *hórdago* izanda— karta-jokoen esparruan erabiltzen da batez ere, eta, bereziki, mus jokoan.

Gainerako jokalariei erronka jotzeko erabiltzen da, enbido modukoa da, baina ultimatum baten bidezkoa, hau da, *hordago* bat botata. Hedapenez, gauza bat "de órdago" dela esaten da gure gaztelaniaz apartekoa denean, normalaz gaindikoa.

Dagoeneko ikusi dugunez, gaztelaniak berba hori mailegatu zuen, esanahi berberarekin baina, bidean, hasierako *h*— hori galdua. Euskarak, ostera, gorde egin du, *hordago* idazten baitugu.

Jatorria euskarazko "hor dago" esamoldeetik dator.



La palabra *hordago* —acentuado *hórdago*— se usa especialmente en el ámbito de las partidas de naipes o cartas especialmente en el juego del mus. Se usa para hacer un resto a los demás jugadores, una especie de envite por medio del ultimátum, que es el órdago. Por extensión, se dice de algo que es "de *órdago*" cuando es algo extraordinario, fuera de lo normal.

Como hemos comprobado ya, el castellano adoptó para sí también esta palabra, con idénticos significado, pero con la pérdida de la *h*— inicial en su evolución: órdago que sí conserva el euskera, *hordago*.

Procede de la exclamación "*hor dago*", 'ahí está'.

**HUESQUE.** *Ikus / Ver* **OSPA**

## INTXAUR-SAL TSA

*Intxaur-saltsa* da Gabonetako euskal postre gorena, baina turroia orokortu zenetik, egiteari utzi zitzaion neurri handian. Hala ere, azken hamarkadotan berriz ekin zaio apur bat gutizia hori egiteari.

Batez ere, esnez egiten zen —eta egiten da—, baina bada bakailaoa gezatzetik berreskuratutako ura erabiltzen duenik ere. Kolorea alaitzeko, nork bere errezetaren arabera, jakina, arrautzak edo arto-ogiaren apurrak eranstzen zitzaizkion. Horrez gain, intxaurrak birrintzen ziren, hala motrailu batean, nola mahaiaren gainean, botila bat alfer legez erabilita. Kanela ere gehitzen zitzaion, aromatizatzeke.

Konpotarekin batera, Gabon Gaueko postre berezigarrietako bat da. Izen garde-gardena du esanahiaren aldetik; 'intxaurrez egindako saltsa'. Sarritan batera idatzita ikusten dugun arren, gramatikalki forma jasoari eutsi nahi badiogu, bananduta idatzi beharko dugu, *intxaur-saltsa* edo *intxaur saltsa*, erdiko marratxoa hautazkoa baita.

Gure udalerrian euskarazko berba hau oso hedatua egon den arren, eta oraindik ere erabiltzen bada ere, baserri batzuetan gaztelaniazko *nogada* berbaz izendatzen zen postrea, *nogal* berbaren familiakoa; fruitu gozoaren bila abiatzen gaitu berba horrek osterera ere, beraz. Eta, hara nola definitzen duen Espainiako Errege Akademiak *nogada* berba: 'intxaurrez eta espeziatz egindako saltsa...'; hortaz, gure *intxaur-saltsa* gozoaren antzekoa. Eta bada bitxikeria bat Espainiako Akademiaren definizioan: eransten duenez, "arrain batzuk prestatzeko ere erabiltzen da".



La *intxaur-saltsa* es el postre navideño vasco por excelencia y que decayó en gran medida tras la generalización del consumo de turrón. A pesar de ello, ha gozado de un repunte en las últimas décadas.

Se elaboraba —y se elabora— mayormente con leche, aunque hay quien también se vale del agua de desalar el bacalao. Para darle color, según cada receta particular, se le solía añadir huevos o simplemente migas de pan de maíz. Aparte, se molían las nueces, bien en un almirez, bien sobre la mesa con una botella a modo de rodillo. También se acompañaba de canela para aromatizar.

Era, junto a la compota, uno de los postres característicos de la Nochebuena. Su nombre, como fácilmente puede deducirse, proviene de *intxaur* y *saltsa*, es decir, 'salsa de nueces'. A pesar de que muchas veces lo veamos escrito junto, la forma gramaticalmente correcta de hacerlo es separada en dos palabras *intxaur-saltsa* o *intxaur saltsa*, con el guión intermedio opcional. Aunque la palabra en euskera ha estado muy generalizada en nuestro municipio y se usa aún en la actualidad, también en algunos caseríos se denominaba ese postre con el castellano *nogada* que, similar a la palabra *nogal*, nos encamina de nuevo al sabroso fruto. Curiosamente la definición que la Real Academia Española da de *nogada* es la de 'salsa hecha de nueces y especias...', similar a nuestra *intxaur-saltsa*. Añade la academia española que la *nogada* es una salsa con la que 'se suelen guisar algunos pescados'.

## IÑARRA

Laudion, gaztelaniaz *inarras* esaten dugunean —*iñarras* ahoskatuta— 'txilar altu batzuei buruz ari gara; askotan, erratz legez erabiliak'. Horregatik esaten zaio *escoba* landare horri beste leku batzuetako gaztelaniaz. Ez da txilar txikiarekin nahastu behar: azken hau askoz txikiagoa eta finagoa da, eta erleek bereziki maite dute ezti bikaina egiteko. Bestalde, bertoko gaztelaniaz, *iñarra* formaz gain, *berozo* ere deitu izan zaie. Agerikoa denez, *brezo* berbatik dator.

Erdialdeko euskaraz, *txilar* esan izan zaio, baina bada forma zaharrago bat, geografia osoan hedatuagoa: *ginarra*. Gainera, aldaera asko eman ditu azken horrek: *giñarra*, *gilarra*, *gillarra*, *giñarre*, *kilarra*, *killarri*, *gilharre*, *gilharri*, *gindarra*, *gillar*, *gindarra*, *giñarra*, *kiñar*... baita geure-geureak diren *inar* eta *iñar* ere.



Bitxia da, izan ere, muga linguistiko bat antzeman dezakegulako berba honen bidez. Toponimiari begiratzea besterik ez dugu; Aiara *n* soinuaz ahoskatzen da —*Inortza*, *Inartza*, *Inortzagarai* eta beste hainbat toponimotan—, baina Laudion, Arrankudiagan eta Orozkon legez, ñ letraz: *Iñarrondo*, *Iñarritu*... Bestalde, komeni da gogoan edukitzea azken —*a* hori berezkoa duela berbak, hau da, ez dela artikulua, eta, ondorioz, ezin dugula nahieran kendu. Beraz, "*inarra bat*" eta ez "*inar bat*".



Cuando hablamos de las *inarras* —pronunciado *iñarras*— en Laudio nos referimos a unos 'brezos altos, usados muchas veces como escobas ordinarias'. De ahí que en otras latitudes se conozca a esta planta como *escoba*. No hay que confundirlo con el brezo bajo o brecina, mucho menor y fino y especialmente adecuado para que las abejas hagan su sabrosa miel. Por otra parte, en el castellano local, además de la forma *iñarra* también han solido denominarse *berozo* que, como salta a la vista, proviene de *brezo*.

En el euskera central, se ha conocido como *txilar* si bien existe otra forma arcaica más extendida por toda la geografía, *ginarra*, y de la que surgen numerosas variantes: *giñarra*, *gilarra*, *gillarra*, *giñarre*, *kilarra*, *killarri*, *gilharre*, *gilharri*, *gindarra*, *gillar*, *gindarra*, *giñarra*, *kiñar*... así como nuestras *inar* e *iñar*. Es curioso porque en nuestra comarca detectamos a través de esta palabra un límite lingüístico simplemente observando la toponimia, ya que mientras en Aiara se pronuncia con *n* —presente en los topónimos *Inortza*, *Inartza*, *Inortzagarai*...— en Laudio, al igual que en Arrankudiaga u Orozko, lo hacemos con ñ: *Iñarrondo*, *Iñarritu*... Por otra parte, conviene recordar que la —*a* final de esta palabra es en principio intrínseca a la misma, es decir, que no es un artículo que pueda prescindirse de él cuanto nos conviene. Así, es "*inarra bat*" y no "*inar bat*".

## JAIKO

Argitalpen honetan erakusten ari garen berben artean enigmatikorik bada, horixe da *jaiko*, ez baitut kanpo-erreferentziarik aurkitu, ezta antzekorik ere. Dena den, aise asko identifikatzen dute izen hau udalerriko bazterretako auzotarrek: Olarte, Markuartu, Larrazabal, Isusi...

Beraz, horri dagokionez, zalantzarik ez, akordua apur bat lausotu zaien arren, hamarkada asko igaro dituztelako gaztetan dastatzen zuten *jaiko* hura probatu barik.



Ogi berezia zen *jaikoa*, ogi arrunten labekadak aprobetxatuta, noizean behin egitekoa. Arto-irinezkoa zen, baina borona ogien kasuan ez bezala, ez zeukan legamiarik. Taloarekin ere ez dago parekatzerik, berbabide duguna lodiagoa zelako, eta labean egiten zelako, ez plantxa gainean. Zelanbait esatearren, borona ogi arruntaren eta taloaren arteko zer edo zer zen.

Baina forma ere deigarria zuen, berezia, triangelu forma ematen zitzaielako. Orea prestatu ostean, baina labean sartu baino arinago, zatitu egiten zen, patata arrautzopilak zatitzeko egiten den bezala, gutxi gorabehera. Horrela ateratzen ziren ogi bikain horiek, txikiek opari miresgarri legez hartuko zituzten horiek. Labetik atera berritan jaten ziren, bero, izan ere, gari irinezko ogiak urdailari kalte ez emateko hoztu egin behar diren legez, gari irinezkoak bero jan daitezke tripako minen beldur barik... izan ere, orduan daude gozoen. Horrek guztiak ogi berezi bihurtzen zuen.

la segurtasun osoz, "*jaiko [ogia]*" zen jatorrian, 'jai[egun]etako ogia', 'jaikoa'. Eta bazeukan, eduki ere, egun galdua dugun zera bereziren bat. Forma biritila ez izateak berak, zeregin berezien zantzuak ematen dizkigu.

Garizuman mendebaldeko ibarretan kontsumitzen den edo aita-amabixiek haur besoetakoei jaiotzean oparitzen dieten triangelu formako ogia ekar lezake gogora, eta horrek izaki berriari oparotasuna errazteko ekandu zahar-zaharrekin lotzen du gure ogitxoak. Beste izen batzuk ere badituzte: *Karapaixo* (Arrasate), *Garipaua* (Elgeta) edo *Mokotza* (Arratiako ibarrean). Hala ere, ogi horiei arrautzak, txorizoa eta beste hainbat gauza ipintzen zaie orean. Laudioko gure *jaikoak*, ostera, horrelako osagairik gabe ere egiten zen.



Si hay alguna palabra enigmática entre todas estas que estamos mostrando en esta publicación, esa es la de *jaiko* ya que no he localizado ninguna referencia externa similar. Sin embargo es bien conocida en los barrios extremos del municipio: Olarte, Markuartu, Larrazabal, Isusi... Por tanto no hay duda al respecto si bien es cierto que tienen un recuerdo ya algo vago por muchas décadas sin gozar de aquel *jaiko* de su juventud.

*Jaiko* era un pan especial que, aprovechando la hornada de los panes normales, se hacía de vez en cuando. Era de harina de maíz pero, al contrario que los panes de borona, no llevaba levadura. Y a su vez era diferente al talo ya que era más grueso y cocido en horno, no sobre una plancha. Es decir, era algo intermedio entre el pan de borona normal y el talo.

Asimismo, su forma era llamativa, especial, ya que se hacían con forma de triángulo. Se preparaba la masa y, antes de hornearla, se cortaba en porcio-



nes, similar al troceado de cuando hacemos pinchos de una tortilla de patatas. Así salían aquellos deliciosos panes que eran recibidos como un regalo extraordinario entre los más pequeños. Se comían nada más salir del horno, calientes, ya que, así como los panes de trigo deben enfriarse para que no nos hagan daño al estómago, los de maíz pueden comerse calientes: es cuando más sabrosos están. Por todo ello era un pan especial.

Su nombre, casi con seguridad, provendrá de *jaiko* [*ogia*], '[pan] de fiesta', 'festivo'. Y es que algo de especial tenía que hoy hemos perdido. Su misma forma no redonda nos habla de funciones especiales.

Recuerda al pan triangular que en otros valles occidentales se consume en Cuaresma o regalan los padrinos / madrinas a sus ahijados al nacer, sin duda, enlazando con antiquísimas costumbres de regalar un pan ritual que facilitaría la prosperidad del nuevo ser. Reciben nombres como *Karapaixo* (Arrasate), *Garipaua* (Elgeta) o *Mokotza* (Arratia), si bien estos panes cuentan con huevos, chorizo, etc. en la masa, ingredientes que en muchas ocasiones no llevaban los *jaiko* de Laudio.

## **KAIKU.** *Ikus / Ver* **TXAMARRA**

## **KAKANARRO**

Laudion sarri samar erabiltzen dugu *kakanarro*, esateko norbait txikia dela baina modu iraingarrian esateko, gauza zatar eta mespretxagarri gisa.

*Kakanarru* berbaren aldaera baino ez da, alegia: *kaka* + *narru*, 'kakaz betetako larru-zorroa', berba bitan: 'kaka-zakua'.

Berbaren kontzepzio psikologikoari begiratzen badiogu, agian planteatzeko modukoa litzateke gure kondairetan jasotako larruaren antitesia irudikatzen duela, idiarena izan ohi den urrez betetako larruaren legenda haren aurkakoa: "*idi-narru bat, urregorritz bete*". Antzinako sinesmenen arabera, non eta Goikogana beraren gailurrean, urrez betetako larru bat ei dago, ora-indik inork aurkitu barik... egunsentietako eguzkiak lehenik jotzen duten lekuan omen dago lurperatuta.



En Laudio usamos con cierta asiduidad la palabra *kakanarro* para indicar que alguien es 'pequeño' pero siempre dicho con un sentido despectivo, convirtiéndolo en algo 'ruin, despreciable'.





Se trata de una variante de *kakanarru* que no es otra cosa que *kaka* + *narru*, 'pellejo (lleno) de mierda', como si dijésemos "un saco de caca".

En su concepción psicológica, quizá deberíamos plantear este vocablo como la antítesis de lo que recogen nuestras leyendas, en las que siempre se habla de un pellejo, normalmente de buey, relleno de piezas de oro: "*idinarru bat, urregorritz betea*". Según las antiguas creencias, en la misma cumbre de nuestro monte Goikogana existe un pellejo lleno de oro aún sin descubrir. Según se dice, está enterrado en el punto en donde primero pega el sol de los amaneceres.

## KAKO

*Kakoa* baserriko 'kakotx' edo 'kroka' bat da, adar batez egina, edozer hurbiltzeko edo eskuratzeko erabiltzen zena. Fruta biltzean, adarrak gerturatzeko egiten zitzaion erabilerarik arruntena, adarrak altuenetan eta iristeko zailenatan egoten delako frutarik zoliena, eguzkiak han jotzen duelako indartsuen. Berbaren esanahia hedatu da, eta beste adiera batzuk hartu ditu, beti gantxo itxurarekin erlazionatuak. Besteak beste, metalezko bi punta dituen aitzur bat izendatzeko ere balio du Laudioko gaztelaniaz *harpón* ere esaten zaio, baita horren antzekoa den eta gantxo itxuran tolestutako moko bi dituen *harpa* tresna izendatzeko ere.

Halaber, *kako* deritzo 'mutur bietan punta duen makilari'. Belar moztu berriari heltzeko erabiltzen da, garraiatzerakoan. Gako formako muturra belarrean sartzen zen, saskiaren gainean, arrasean, eta nahikoa zen eduki preziatuari seguru heltzeko eta mugitzeko. Halaber, sudur handiak izendatzeko ere erabiltzen da gure terminoa, txantxa tonuan. Edonola ere, gako itxurari egiten dio erreferentzia beti gure berba honek.

Hasieran aipatutako zurezko *kako* hori adar bat banatzen den puntua erabiltza fabrikatzen da. Banatze-gune edo urkila hortik abiatuta —horri *horcacha* esaten zaio Laudioko gaztelaniaz— bi besoetako bat nahi zen luzerarekin uzten zen eta bestea elkartze puntutik ez oso urrun moztzen zen, gako edo kroka forma har zezan.

*Horcacha* berbari dagokionez, askotan pentsatu izan dugu euskarazkoa dela, baina esan beharra dago Euskal Herritik kanpo ere erabiltzen dela, eta latinezko *furca* berbatik datorrela. Hortik *forca*, *horca* nahiz *horcacha* txikigarria atera ziren... Espainiako Errege Akademiaren arabera, hau da definizioa: 'bi mutur puntadun dituen makila bat, zuhaitzen adarrei heltzeko, maha-tsondoen adarrak kokatzeko eta abarretarako erabiltzen dena'.



El *kako* es una especie de 'garfio' o 'gancho' rústico, elaborado con una rama, y que se usaba para acercar o coger cualquier elemento. Su uso más generalizado era el de acercar las ramas de los árboles a la hora de recoger la fruta, pues en las ramas más altas e inaccesibles se encontraba la fruta más sazónada por haber recibido más sol.

Por extensión, ha adquirido otros significados varios, siempre relacionados con la forma de gancho. Entre ellos están el de una especie de azada de dos puntas metálicas —también conocida en Laudio como *harpón*— y otra herramienta similar con las púas dobladas en forma de garfio o *harpa*.

Asimismo se denominaba *kako* a un 'palo con punta en los dos extremos' y que se utilizaba para sujetar la hierba verde recién segada a la hora de transportarla. El extremo en gancho se clavaba en la hierba, encima del cesto, a ras, y era suficiente para inmovilizar y asegurar el preciado contenido. Se usaba nuestro término hasta para denominar las narices grandes en un tono de mofa. En cualquier caso, siempre hace nuestra palabra referencia a la forma de gancho o garfio.

El *kako* de madera solía fabricarse aprovechando la bifurcación de una rama. A partir de esa división u horquilla —que en Laudio conocemos como *horcacha*— se mantenía uno de los brazos con la largura que se desease mientras que el otro era cortado a poca distancia del punto de unión, para que hiciese de gancho o garfio.

Respecto a la palabra *horcacha*, que erróneamente tantas veces hemos tenido como propia del euskera, hemos de decir que se usa también fuera de Euskal Herria y que surge del latín *furca* que deriva luego a *forca*, *horca* o su diminutivo *horcacha*... con un significado de 'palo que remata en dos puntas y sirve para sostener las ramas de los árboles, armar los parrales, etc.' según la Real Academia Española.

## KANKALLO

*Kankailu* berba hedatua dago oso gure herriko belaunaldi zaharretakoen artean. Euskara sekula galdu ez zuten gure inguruko herrietan (Orozkon, Arrankudiagan...) *kankallo* ahoskatzen dugu; terminoaren idazkera akademikoa, ostera, *kankailu* da.

Zaila da terminoaren itzulpen edo definizio zehatza ematea, izan ere, errealtatea baino, pertzepzio pertsonal bat adierazten du. *Kankallo* erabiltzen da



'pertsona altu bat izendatzeko; gogobakoa izaten da, energia gabekoa, alferra, trebeziarik gabea, baita nagia ere'.

Gure udalerritik kanpo, eta euskararen historian, gauza handi guztiak definitzeko ere erabili izan da: "mendi *kankailuak*", hau da, mendi handiak, garaiak. Izan ere, tamainari eta altuerari egindako erreferentzia da terminoaren ezaugarri bereizgarriena.



El uso de la palabra *kankailu* está bien extendido entre las generaciones mayores de nuestro municipio. Al igual que en los pueblos de alrededor que no perdieron jamás el euskera (Orozko, Arrankudiaga...) lo pronunciamos *kankallo* aunque la escritura académica del término sea la de *kankailu*. Es difícil dar una definición o traducción concreta del mismo ya que se describe más una percepción subjetiva que una realidad. Así, se usa *kankallo* al referirnos a una 'persona alta pero desganada, grande pero de poca disposición, sin correa, alguien gandul y desmañado o hasta holgazán'. Fuera de nuestro municipio y en la historia del euskera ha sido usado incluso para definir todo lo grande: "*mendi kankailuak*", 'montañas gigantes'. Y es que esta referencia al tamaño, a la altura, es la característica principal del término.

## KANKARRO

Gure *kankarro* hitzaren bidez izendatzen ditugu 'likidoak gordetzeko tamaina handiko ontziak'.

Hala ere, kontuan hartu behar dugu euskararen esparru geografikotik kanpo ere erabilia dela. Beraz, ez du euskaren barruan jatorria izango. Baina egia da bestalde, euskarak bere egin zuela eta bere altxor lexikoaren parte dela.

Esan bezala, ontziak izendatzeko erabili ohi da baina, gurean behintzat, arruntaz gaindiko kopuruari egiten dio erreferentzia, normala baino gehiago edaten denean: "se tomó un buen *kankarro* de leche con sopas". Hau da, asko hartu zuela, gehiegi ia: "vaya *kankarros* de vino se metía".



Por medio de la palabra *kankarro* —o *cancarro*— nombramos 'recipientes para líquidos de gran tamaño'.



Sin embargo hemos de tener en cuenta que también se usa fuera del ámbito geográfico del euskera. No tendrá por tanto su origen en esta lengua. Pero igual de cierto es que el euskera lo ha hecho propio y que hoy forma parte de su acervo léxico.

Tal y como hemos adelantado, se usa para nombrar los recipientes pero, al menos entre nosotros, para hacer referencia a una cantidad de líquido grande, que sobrepasa lo normal: "se tomó un buen *kankarro* de leche con sopas". Quizá incluso hasta excesivo: "vaya *kankarros* de vino se metía".

## KAPARRA

Ez dugu uste *kaparra* berba erabili edo entzun ez duen laudioar bakar bat ere egongo denik. Hona hemen definizioa estandarra: "Kaparrak forma obalata duten akaro batzuk dira: lau eta sei milimetro arteko luzera dute, eta hanketan bi azazkal dituzte, ugaztun batzuen gorputzei heldu eta haien odola zurrupatzeko. Hainbeste zurrupatzen dute, ezen gorputza ia biribila bihurtzen baitzaie". Gainera, hainbat gaixotasun kutsatu ditzakete, ondo dakigunez.

*Kaparra* deitzen zaio mendebaldeko euskaraz parasito gogaikarri horri, baina sinonimoak ere baditu: (*l*)*akain* eta *lakasta*.

Egia esan, ez dakigu euskarak hizkuntza erromantzeetatik edo beste hizkuntzetatik hartu zuen. Ziurrenik, gaztelaniatik hartuko zuen, izan ere, gutxi erabiltzen den arren, gaztelaniak eduki, badauka *caparra* berba.

Izan ere, *garrapata* berba bera *caparra* zaharretik dator, metatesia edo konsonanteen posizioen trukea gertatu eta gero. Horregatik eman zuen *caparra* berbak *carrapa*, *rr* eta *p* trukatu ostean, mentalki *pata* berbarekin erlacionatuta, eta egungo *garrapata* berbara iritsi arte.

Edozelan ere, gaztelaniak ere *caparra* berba hartu egin zuen, ez baitu berezkoa; erromanizazio aurreko hitza da, denboraren lainoan galtzen diren horietako bat.



No creemos que exista ningún laudioarra que no haya usado o escuchado la palabra *kaparra*. Con ella se denomina a la *garrapata*, un 'ácaro de forma ovalada, de cuatro a seis milímetros de largo, con las patas terminadas en dos uñas mediante las cuales se agarra al cuerpo de ciertos mamíferos para chuparles la sangre, que suele ingerir en tal cantidad que su cuerpo llega a hacerse casi esférico'. Es además, un potencial transmisor de enfermedades, como bien sabemos.



*Kaparra* es la forma con la que se conoce este molesto parásito en el euskera del occidente vasco y es sinónimo de otros términos como (*l*)*akain* o *lakasta*, de idéntico significado.

En realidad se trata de un término que el euskera adopta no sabemos si de las lenguas romances o de otras lenguas anteriores. Lo más probable es que lo cogiese del castellano ya que, aunque sea con un uso minoritario, este idioma usa y tiene por propia la palabra *caparra*.

De hecho, la misma palabra *garrapata* surge de la antigua *caparra*, tras producirse una metátesis o un trueque de la posición de las consonantes. De ahí que *caparra*, tras intercambiarse la *rr* con la *p* diese *carrapa* y, tras relacionarse mentalmente con la palabra *pata*, derivó en la *garrapata* actual.

En cualquier caso el vocablo *caparra* también lo adopta el castellano pues en origen no le es propia, ya que se trata de un término de origen prerromano, de esos que se pierden en la incertidumbre de los tiempos.

## KAPIRUTXU

Termino horren bidez izendatzen dugu egun euritsuetan burua edo bizkarra estaltzeko erabiltzen den edozer. Aurrerago aztertuko dugun *txapilo* berbak esangura bera du.

Normalean, zaku bat izaten da, burua eta lepoa estaltzeko moduan ipinia. Gaztelaniaz, *capirucho* terminoa ere onartua dago, eta gauza bera da, duda barik. Lagunarteko erabilerarako uzten du Espainiako Errege Akademiak, *capirote* terminoari erreferentzia egiteko, bere defizioa 'sorbalden gainaldea estaltzen duen behinolako txanoa' dela.

*Kapirutxu* honen jatorria bilatzeko, gaztelaniara jo beharko dugu ziurrenik, —*ucho* atzizki txikigarri eta iraingarriari erreparatuta, zeina *capirón* barbari aplikatuko baitzitzaion, edo hartatik eratorritako *capirote* hitzari. Latinezko *capus* 'buru' terminoan dago denen jatorri urruna.



Con este término denominamos a cualquier cobertura de cabeza y espalda usada en días de lluvia. Es lo mismo que el *txapilo* que trataremos más adelante.

Normalmente consiste en un saco que se coloca de tal forma que podamos colocarlo sobre nuestra cabeza y dorso.

En castellano, se acepta también el vocablo *capirucho* que sin duda significa lo mismo. La Academia de dicha lengua lo relega a un uso coloquial,



para hacer referencia al *capirote* 'capucha antigua con falda sobre los hombros'.

El origen de *kapirutxu* habrá que buscarlo probablemente en el castellano, a través del sufijo diminutivo y despectivo —*ucho* aplicado a la palabra *capi-rón* o su derivado *capirote*. Tienen todos su origen en un lejano *capus* 'cabeza' del latín.

## KARRAMARRO

Gaur egun *karramarro* berba itsasoko animalia txiki horiek izendatzeko erabiltzen dugun arren, erreketakoak izendatzeko ere erabiltzen zen garai batean, beraz, uste dugu hortik barneratu genuela herrian. Dena den, oso ezaguna da Laudion.

Berba bitxi horren jatorria zein den ez dakigu, baina badakigu *kamarra* edo *amarra* ere esaten zaiola, eta horrek jatorri amankomuna izan zutela pentsatzera garamatza.

Bada dokumentatutako beste izen bat, testigantzak gutxi eta beti Laudiotik kanpokoak izanda ere: *amarratz*. Berba horretatik abiatuta, batek baino gehiagok pentsatu izan du *hamar* + *hatz* zela osaera, alegia, 'hamar hatz edo hanka' eta handik eratorri zela *karramarro*, baina horrek zaila dirudi hizkuntzalaritzaren ikuspegitik. Esan gabe doa karramarroek hamar hanka dituztela.

Karramarroak harrapatzea umeen entretenimendu handienetako bat izan da gure belaunaldira arte. Ezin eutsi, beraz, bertoko erreka eta latsetan harrapatu genituen karramarroak gogoratzeko irrikari. Hainbeste karramarro zeuden, ezen ez baitzegoen erreka bazterreko zulorik edo adreilu abandonaturik matxarda izugarri haiek prest edukita zain zegoen maizter barik. Batzuetan, jan egiten genituen zuzenean sutan prestatuta, eta, besteetan, ur pota batean egosi ondoren, baina, horretaz gain, benetako ankerkeriak ere egiten genizkien. Adibidez, matxardak bihurritzen genizkien, edo buztanaren muturrean zituzten lau hegatzetik bi kentzen genizkien, hori eginda irentzen omen zirelako. Ez dakit hala den ala ez, baina egia da erraiak ateratzen zitzaizkiela, eta nahiago genuela hori zer zen zehazki ez jakitea.

Garai horietan uste hedatua zen animaliek ez dutela minik sufritzen. Basakeria itzela, benetan. Hala ere, onartu beharra dago abentura une gogoangarriak bizi izan genituela animalia gaixoentzat infernua zen horri esker.



Aunque hoy en día el uso de la palabra *karramarro* la limitamos a denominar los 'cangrejos de mar' también lo ha sido para denominar los 'cangrejos de río', por lo que suponemos que es de ahí de donde se interiorizó en nuestro municipio dicha palabra. En cualquier caso, es muy conocida en Laudio.

Desconocemos el origen de tan curioso vocablo pero sabemos que existen otras denominaciones como *kamarra* o *amarra* que nos hacen pensar en un origen común.

Otra designación documentada, aunque escasamente y siempre fuera de nuestro municipio, es la de *amarratz*. Ésta ha llevado a pensar a algunos en una composición de *hamar* + *hatz*, es decir, 'diez dedos o patas' y que de ahí allí derivado la palabra *karramarro* aunque parece complejo desde el punto lingüístico. Sobra decir que los cangrejos cuentan con diez patas.

La captura de los cangrejos ha sido hasta nuestra generación, uno de los grandes entretenimientos de la infancia. No podemos por ello evitar el traer al recuerdo aquellas cangrejadas cogidas en nuestros ríos y regatos. Eran tan abundantes que no había piedra grande, orificio en las orillas o ladrillo abandonado en el río que no tuviese un inquilino esperando con sus amenazantes pinzas. Al margen de comerlos, alguna vez echándolos directamente al fuego o en un bote con agua puesto al fuego, se les infringían hacíamos auténticas torturas. Desde forzarles las pezuñas para inutilizarlas, hasta arrancarle las dos pestañas centrales de las cuatro que poseían en el extremo de la cola y así, caparlos. No sé si era así, pero es cierto que salían algunas vísceras que es mejor no saber de qué se trataban.

Eran épocas en las que existía la creencia generalizada de que los animales no sufrían el dolor. Una auténtica barbarie. Pero hemos de reconocer que aquello que era un infierno para los desdichados animales, nos dio inolvidables tardes de aventura.

## KARTOLA

Ez dakigu ziur Laudion *kartola* berba erabiltzeko dugun modua euskaratik datorkigun edo gaztelaniatik. Izan ere, hizkuntza batekoa ala bestekoa den ere ez dakigu, gaztelaniak ere *cartola* berba duelako. Gaztelaniaz, haien hizkuntzaren Akademiaren arabera, 'kamioien kutxa mugikorrari' esaten zaio *kartola*, baina Akademiak ere ezin izan du zehaztu berbaren jatorria. Gainera, badakigu Errioxako zonalde batzuetan eta Burgoseko iparraldean



ohikoa dela berba hori erabiltzea atoen alboetako pieza desmontagarriak izendatzeko.

Baina ziur dakigu horixe dela Laudion darabilgun esanahia, eta uste dugula euskaratik hartua dela. Federico Baraibar idazle eta arkeologoak (1907) Zuia eta Aiara berba arrunt legez jaso zuen, azalpen honekin: «*tableros que se colocan a ambos lados de los carros de labranza cuando han de transportar castañas, basura o cosas semejantes*» hau da, gurdien alboetan ipintzen diren oholak, gaztainak, satsa eta antzeko gauzak garraiatzeko. Hori dela eta, erraza da pentsatzea berba horren atzean *ohol* dagoela.

Halaber, berba horretatik eratorria da Laudioko *kartolada* terminoa, hau da, kartolak ia gairitzen dituen zamaldi bat: "lleva ahora mismo una *kartolada* de basura a la huerta". Era berean, esanahia hedatuta, zer edo zer oso betea dagoenean edo baten batek egundoko tripakada hartzean ere erabiltzen da: "nos pusimos hasta las *kartolas* de comer".

Gure eskualdeaz kanpoko euskalkietan, *kartola* berbak bestelako esanahiak hartzen ditu, besteak beste: 'irina oraskan bahetzean, bahearen azpian ipintzen den egur zatia', 'zama handiak garraiatzean gurdietan zeharka ipintzen diren makilak, gurdia apurtu ez dadin', 'gaztak egiteko erabiltzen den tresna' edo 'emakumeek zaldiz ibiltzeko erabiltzen dituzten eserlekuak'. Larramendik 1745ean argitaratutako hiztegiokoak dira esanahi horiek, eta orduantxe dokumentatu zen berba lehen aldiz.



No sabemos a ciencia cierta si el uso que de la palabra *kartola* hacemos en Laudio nos viene dado a través del euskera o del castellano, ni siquiera si es propia de una u otra lengua ya que también ésta tiene como propia la palabra *cartola*. En el castellano hace referencia a la 'caja móvil de un camión' según su academia, sin que ésta sea capaz de concretar cuál es el origen del término. Sabemos además que su uso es habitual en zonas de La Rioja y norte de Burgos para denominar los laterales desmontables de los remolques. Pero lo que sí sabemos es que ese mismo es el significado que, suponemos que a través del euskera, usamos en Laudio. El escritor y arqueólogo Federico Baraibar (1907) la recogió como palabra común de Zuia y Aiara y decía de ella que era «*tableros que se colocan a ambos lados de los carros de labranza cuando han de transportar castañas, basura o cosas semejantes*». Por ello sería fácil pensar que en su composición subyaga la palabra *ohol*, 'tabla'.

También derivada de ella, tenemos en Laudio el término *kartolada*, que es una carga entera, rebasando casi las *kartolas*: "lleva ahora mismo una *kartolada* de basura a la huerta". Del mismo modo hace, por extensión,





referencia a cuando algo está muy lleno o a excesos en las comidas, etc.: "nos pusimos hasta las *kartolas* de comer".

En el euskera de fuera de nuestra comarca, *kartola* adquiere otros variados significados como 'el madero que se pone bajo el cedazo al cerner harina en la artesa', 'palos con que se atraviesa el carro para que no se rompa al transportar grandes cargas', 'utensilio empleado en la elaboración de quesos' o hasta 'asientos para andar a caballo las mujeres' que citara Larra-mendi en su diccionario de 1745, siendo ésta la primera vez que se documenta nuestra palabra.

## **KARTOLADA.** *Ikus / Ver* **KARTOLA**

## **KASKALLU**

*Kaskailu* berba hedatua dago oso gure herriko belaunaldi zaharretakoen artean. Baina kontuan hartu behar da *kaskallu* edo *kaskallo* ahoskatzen dugula bertan.

Berba honen esanahiaren azalpena eta *kankailu* berbarena ez daude elkarrengandik oso urrun, eta daukaten antza dela medio, ez litzateke arraroa berba biak elkarrekin erlazionatuta egotea. 'Pertsona handikotea, baina alferra, ganora gutxikoa' da esanahia.

Agian Anbrosio Zatarain (1912-1999) eta J. A. Elexpuru gipuzkoarrek eman zituzten definiziorik argienak, hurrenez hurren, esan baitzuten *kaskailu* 'txoriburua, begirunerik gabeko eta adimen urriko pertsona' zela edo 'handikotea, ergel samarra'. Beraz, ezer gutxi geratzen da gehitzeko.

Nolanahi ere, erreferentzia faltaren ondorioz gurean era desordenatuan erabiltzen den arren, izenondoa da berez, eta, ondorioz, "gizon *kaskailu* bat", "neska *kaskailu* bat"... edo antzeko zer edo zer izan beharko luke.



El uso de la palabra *kaskailu* está bien extendido entre las generaciones mayores de nuestro municipio. Pero tengamos en cuenta que aquí lo pronunciamos *kaskallu* o *kaskallo*.

La descripción de su significado no dista mucho del de *kankailu* que citamos en una entrada anterior y, por su similitud, no sería descabellado que ambas palabras estuviesen relacionadas entre sí. Se trata de una 'persona grandullona, pero zángana y de poco fuste'.



Quizá las definiciones más sagaces para este término las dieron en sus obras los guipuzcoanos Ambrosio Zatarain (1912-1999) y J. A. Elexpuru, diciendo respectivamente que un *kaskailu* era 'majadero, persona desconsiderada y poco inteligente' o 'grandullón y más bien tonto'. A partir de ahí, poco más se puede añadir.

En cualquier caso, aunque en nuestro municipio se usa de un modo desordenado por la falta de referencias, en realidad se trata de un adjetivo, así es que sería "gizon *kaskailu* bat", "neska *kaskailu* bat"... o similar.

## KASTAÑIZA

Ez dakigu Laudion erabiltzen den *kastañiza* berba gaztelaniaren edo euskararen ondarea den. Baina susmatzen dugunez berbaren sorreran gure hizkuntza egon zela, hemen jaso dugu. Horrela, aldi berean, ahanzturatik salbatuko dugu bertoko berba bat, Laudioko ondare kulturalaren atal bat.

Laudioar nagusienei entzuten badiegu, kontatuko digute han eta hemen, basoen barruan, daudela "algunas *kastañizas*". Eta izan badira 'gaztainondo makatzak, gazteak, txertatu eta hezi gabeak' aipatzen diguten hori.

Zelanbait esateko, *garrastak* bezalakoak, baina soilik gaztainondoen kasurako.

Bitxikeria bat, bestalde: gaur egun *Kastinza* legez ezagutzen dugun Larrazabalgo baserria *Kaztáinitza* da berez, eta lehenago *Gaztainitza*. Beraz, berba bien arteko harremanekin amestu dezakegu. Halaber, abizen nahiko eza-guna ere bada.

Bestalde, *castañiza* berba ez dago gaztelaniazko termino generiko legez jaso. Eta horregatik guztiagatik erabaki dugu hemen, obratxo honetan jasotzea.

Tokiko gaztelaniaren bitartez iritsi zaigun *kastañiza* horietatik *\*kastainitza* formara iristea ez da zaila, eta hori izango zen euskarazko jatorrizko forma, ziur asko. Hala ere, berreraikitze linguistikoa da, hipotetikoa.



No sabemos si este vocablo *kastañiza* usado en Laudio es patrimonio del castellano o del euskera. Pero como sospechamos que en su génesis toma parte nuestra lengua, la incluimos. Así, a la vez, preservamos del olvido un vocablo local, elemento del patrimonio cultural del lugar.

Si escuchamos a los laudioarras más mayores, nos contarán que allí y aquí, en un bosque, hay "algunas *kastañizas*". Se trata de árboles 'castaños bravíos, jóvenes, sin injertar ni domar'.



Es, por así decirlo, lo mismo que eran las *garrazta* pero limitado a los castaños.

Curiosamente el caserío de Larrazabal que hoy conocemos como *Kastinza* es en realidad *Kaztáinitza* —y antes *Gaztainitza*— por lo que nos hace soñar con una relación entre ambas palabras. También es un apellido relativamente conocido.

La palabra *castañiza* por otra parte, no se registra como término genérico del castellano. Es por todo ello por lo que se decidió incorporarla aquí, en esta obra.

De esas *kastañiza* que nos han llegado por medio del castellano local actual, no es aventurado llegar hasta la forma *\*kastainitza* que hubo de ser la original para el euskera. Pero se trata de una reconstrucción lingüística hipotética.

## KILI-KILI

*Kili* berbak euskaraz 'kilima' esateko balio du, alegia, 'emeki ukitzean, gorputzaren zati batzuetan nabari den eszitazio urduria, nahigabeko barrekinadekin batera datorrena'.

Euskal Herriko mendebaldean, ostera, bikoiztua erabiltzen da beti, *kili-kili*, eta hortik dator Laudioko gaztelaniazko *kilikilis* berba, 'kilimak' esateko balio duena. Batez ere, umeein berba egitean erabiltzen da, "¿Qué tienes aquí escondidito? ¿Kilikilis?" esaten diegu eskuekin jolas egiten zaien bitartean, erantzun gisa euren irribarrea lortzeko esperoan.



Con la palabra *kili* se denominan en euskera a las 'cosquillas', esa 'excitación nerviosa acompañada de risa involuntaria, que se experimenta en algunas partes del cuerpo cuando son tocadas ligeramente'.

En el occidente vasco, sin embargo, suele usarse ese vocablo no en solitario sino siempre repetido, *kili-kili*, y de ahí surge el término *kilikilis* que usamos en Laudio para denominar las 'cosquillas'. Se usa sobre todo en un lenguaje infantil, cuando a un bebé se le dicen cosas del tipo "¿Qué tienes aquí escondidito? ¿Kilikilis?" mientras se les hace unos juegos con las manos, esperando obtener por respuesta su sonrisa.



## KILI-KOLO

Ikusten denez, soinu errepikapen edo jolas baten bidez sortu da *kili-kolo* berba. Oso ezaguna da eta gaur egun ere erabiltzen da Laudion. 'Zerbaiten ezegonkortasuna' adierazteko erabiltzen da, gaztelaniazko 'ni fu ni fa' esamoldearen antzera, gutxi gorabehera.

R. M. Azkue apaizak bere hiztegi ospetsuan (1905) emandako definizioaren arabera, 'zerbait ezegonkorra da, irmotasunik gabea. Harri lokei esaten zaie, baita pertsona gaixoei nahiz mugitutako hortzei ere'. Halaber, interesgarria da E. Arriagak 1896ko *Lexicón Bilbaíno* lanean emandako erreferentzia: «*Estar quilicolo o andar quilicolo, es hallarse con malestar, entre si me siento o me levanto. Toda esta temporada ando quilicolo (molestado, sin completa salud)*».

Jatorriz, edozein enkatxo edo harri-zoladuran txarto finkatutako harriez esaten zen, horien dantzaren soinua gogoratuz, edo. Dena den, esanahi gehiago hartu ditu, hedapenez. Gurean, Laudion, ohikoena da pertsonen sentazioei buruz berba egiteko erabiltzea: "se me ha pasado la fiebre pero los antibióticos me han dejado bastante *kili-kolo* el cuerpo". Erdi eginik, bukatu gabe utzi diren gauzez berba egiteko ere erabiltzen da: "todavía tenemos un poco *kili-kolo* la obra del tejado".



La expresión *kili-kolo* se genera en base a una repetición o juego de sonidos como puede apreciarse. Es muy conocida y usada aún hoy en día en Laudio y su significado es el de 'inestabilidad de algo' o algo similar al castellano 'ni fu ni fa'.

Como lo definiera el sacerdote R. M. Azkue en su famoso diccionario (1905) se trata de algo 'inseguro, no afianzado, poco firme. Se dice de piedras dislocadas, de personas enfermas, de dientes movidos'. También es interesante por antigua la referencia de E. Arriaga en su *Lexicón Bilbaíno* de 1896: «*Estar quilicolo o andar quilicolo, es hallarse con malestar, entre si me siento o me levanto. Toda esta temporada ando quilicolo (molestado, sin completa salud)*».

En origen parece ser que hacía referencia a las piedras mal asentadas en cualquier encachado o empedrado, recordando el sonido a su bailoteo. Pero por extensión, adquirió los demás significados. Entre nosotros, en Laudio, el más usual es el que hace referencia a sensaciones de las personas: "se me ha pasado la fiebre pero los antibióticos me han dejado bastante *kili-kolo* el cuerpo". También lo usamos en referencia a cosas que están a medio hacer, sin concluir: "todavía tenemos un poco *kili-kolo* la obra del tejado".



**KIMA.** *Ikus / Ver* **QUIMA**

**KIÑAR.** *Ikus / Ver* **QUIÑAR**

## KISKETE

Oso hitz arrunta da *kiskete* gure herrian. Ateak, kutxak, lehioak... ixteko erabiltzen diren atalak dira.

Jatorriz, *kisketa* da berba baina guk *kiskete* baino ez darabilgu.

Kontua da mendebaldeko euskaran, berba —*a* letraz amaitzen denean —"artikuluak izan barik"—, bikoiztu eta —*ea* bihurtzen dela. Eta *giltza* edo *neska* berbak *giltzea* edo *neskea* bihurtzen diren legez, *kisketa* ere *kisketea* bihurtzen da. Hortik hitz-amaiera artikularekin nahastera ez dago tarte handirik. Horiek horrela, *kiskete* berbari erreparatuta, uste izan zen atzean zegoena *malte zela*, ez *kisketa*.

Eta horrelaxe hasi zen erabiltzen *kiskete* berba leku askoan; hainbeste orokortu zen horren erabilera, ezen *kisketa* terminoa ordezkatu izan duen hainbat herritan.



En nuestro pueblo es habitual escuchar la palabra *kiskete* y se hace en referencia al 'pestillo', 'pasador', 'picaporte', 'cerrojo' de puertas, arcones, ventanas...

La forma original del término es *kisketa* pero nosotros solo usamos *kiskete*. La cuestión es que, en el euskera occidental, cuando una palabra acaba con una —*a* propia —no siendo artículo— se desdobra en —*ea*. Y así como palabras del tipo *giltza* o *neska* dan *giltzea* o *neskea*, también de *kisketa* se pasa a *kisketea*. De ahí a confundir el final con un artículo poco recorrido ahí. Así, teniendo *kisketea* se creía que lo que había detrás era *kiskete* en vez de la palabra *kisketa*.

Y es así como se empieza a usar *kiskete* en muchas zonas y se generaliza su uso hasta hacer extraño el término *kisketa*.



## KIZKALLU

Laudion *kizkailu* deitzen diegu —*kiskallu* ahoskatuta— duela gutxi arte oso ugariak ziren erreka arraintxo batzuei. Asko eta asko arrantzatzen genituen berakatzaz frijituta edo nahaskia eginda jateko.

Mendebaldeko aldaera da izena, bertokoa, izan ere, terminorik hedatuena, Euskal Herri ia osoan erabilia *ezkailu* baita.

Gaztelaniaz *mermejuelas* deitzen genien, alegia, *bermejuelas* berbaren aldaera bat. Izen horren zergatia da arren hegatsen azpiko aldeak kolore gorrixka izaten duela ugaltze garaian: *bermejo* berbak 'gorri' esan nahi du, dakigunez. *Mermejuela* esanda 'gorrixka' esaten ari gara, beraz.

Baina are gehiago zailtzen da kontua gure *kizkailu* arraintxoak eta *bermejuelas* ez direlako, berez, espezie bera. Azken horiek Arabako hegoaldean baino ezin dira aurkitu, ez gure erreka eta ibaietan. Laudion gozamen handiz harrapatu ditugunei *piscardos* deritze, baina, izen erabat zuzena izanagatik, herrian ez dugu ezagutzen.



En Laudio denominamos *kizkailu* —pronunciado *kiskallu*— a unos pececillos de río, hasta no hace mucho abundantísimos. Los pescábamos en grandes cantidades para comerlos fritos con ajo o en revuelto de huevo.

Su nombre es una variante dialectal occidental, local, siendo el término más generalizado *ezkailu*, que se usa en la mayor parte de Euskal Herria.

En castellano los conocíamos como *mermejuelas* que no es sino una deformación de la palabra *bermejuelas*, llamadas así por tener una coloración rojiza en la base de las aletas de los machos durante la época de reproducción, ya que *bermejo* es 'rojo' como bien sabemos. Es decir, que el significado de nuestras *mermejuelas* sería el de 'rojillas'.

Pero todo ello se complica aún más porque nuestros pececillos *kizkaillus* no son en realidad *bermejuelas*, una especie con presencia limitada al sur de Álava pero no en las corrientes fluviales de Laudio. Lo que hemos gozado en los regatos de Laudio son *piscardos*, la denominación correcta para esta especie, pero totalmente desconocida entre nosotros.

## KOIBE

Gurean jadanik ia batere erabiltzen ez den esamoldea da, eta umeei esaten zitzaien losintxari edo lausengari samarrak zirela adierazteko.



*Koipea ematea* esapidea 'labainkortasuna' adierazten du, eta, hedapenez, 'loreak botatzea, lausengatzea'.



Expresión prácticamente en desuso en nuestro municipio y que se usaba para decírsela a los pequeños, en referencia a lo zalameros y aduladores que eran.

El significado de *koipe* es el de 'grasa, aceite' y por extensión el de 'adulación, halago'.

## KOIPETSU

Ez da berba ezaguna, izan ere, oso jende gutxi ezagutu eta erabiltzen du Laudion.

*Koipetsu* berbaren jatorrizko esanahi hertsia 'koipe asko duen gauza bat', 'likitsa' edo 'oliotsua' da. Baina gure inguruan 'sutan erretako urdailari' esaten zaio. Jariatzen zituen koipe tantak ogiaz harrapatzen ziren, kaloria-ekarpenaren ezertxo ere ez xahutzeko.

Bertoko kondairetan kontatzen denez, horixe eskatzen zieten sorginek base-rritarrei, setati-setati: "¡danos *koipetsu*, *koipetsu*!".



No es ésta una palabra conocida y es mínima gente que la conoce y usa en Laudio.

Hablando literalmente, *koipetsu* —o su variante *koipatsu*— es algo 'aceitoso', 'grasiento' o 'pringoso'. Pero en realidad en nuestro entorno hace referencia al 'tocino asado al fuego', cuyo goteo se dejaba caer sobre el pan para no desperdiciar ni una gota de su aporte calórico.

En las leyendas locales, se cuenta que era lo que pedían insistentemente las brujas a los habitantes de los caseríos: "danos *koipetsu*, *koipetsu*!".

## KOKOLO

Oso berba ezaguna, erabilia eta hedatua da Laudion *kokolo*. "Aquel es un *kokolo*" diogunean, adierazi nahi dugu delako pertsona hori «ergela, sinplea, adimen urrikoa edo ulermen mugatukoa» dela.



Adierazten duenaren larritasuna alde batera utzita, irain arina da gurean, askotan soilik familia giroan erabilia, batzuetan txera puntu eta guzti. Horrexegatik izango da zaila inor haserretzea hori esaten diogunean.



*Kokolo* es una palabra bien conocida, usada y extendida en el municipio de Laudio. Cuando decimos "aquel es un *kokolo*" queremos expresar que se trata de una persona «bobalicona, simple, corta de razón o entendimiento». A pesar de la gravedad de lo que expresa, en nuestro municipio se usa como una ofensa de baja intensidad, muy a menudo restringida al ámbito familiar, usada hasta con cierto cariño. Por ello será difícil que alguien se enfade al decirselo.

## KOLKO

*Kolko* berbaren erabilera nahiko hedatua dago gurean, ia mundu guztiak ezagutzen du. Pertsonen 'idun edo samaren eta bularraren arteko espazioa' esan nahi du.

Jatorri urruna du, grezierazko *kólpos* berbatik baitator, zeinak 'badia, itsasadar' esangura baitzuen —izan ere, handik sortu zen gaztelaniazko *golfo*, hau da, 'bi lurmuturren artean lurrean sartzen den itsaso zati handia'—; baina *kólpos* horrek 'altzoa, bularraldea' ere esan nahi zuen. Latinak grezieratik hartu zuen eta euskarak latinetik. Eta gaur egunera gatozela, hainbat menderen ostean, *kolko* erabiltzen jarraitzen dugu.

Hizkuntzalaritzarekin lotutako alderdi horiek gorabehera, gogoeta txiki bat eskatzen du *kolko* berbak, antropologikoagoa. Izan ere, giza anatomiaren zati bat baino askoz gehiago da *kolkoa*. Amaren *kolkoa* lekurik sakratuena da, bihotzetik gertuen dagoena, umetan berotasuna eta abaroa bilatzeko lekua, zeinetatik baretasuna, gelditasuna, beroa eta maitasuna jariatzen baita. Bularreko umeek bizileku legez eduki nahiko luketen paradisua da *kolkoa*. Gainera, baserritarren itsulapikoa edo kutxa gotorra ere bazen, han gordetzen baitzuten dirua saltzera joaten zirenean. Azkenik, maitasun debekatu askoren abiapuntua ere bazen... Horregatik guztiagatik, atsegina da, oso, geure berba hori entzutea, oroitzapen ederrak ekartzen dizkigulako gogora eta oso berezko ditugun sentsazioak pizten dituelako.





La palabra *kolko* es de un uso relativamente generalizado en nuestro municipio y prácticamente todo el mundo la conoce. Hace referencia al 'espacio entre el cuello y los senos' de las personas.

Su lejano origen parte del griego *kólpōs*, usado en griego con el significado de 'bahía' —de ahí surge el castellano *golfo* 'gran porción de mar que se interna en la tierra entre dos cabos'— pero también con del de 'seno, regazo'. Del griego lo adopta el latín y del latín el euskera. Hasta nuestros días en que, después de tantos siglos, seguimos usando el vocablo *kolko*.

Al margen de esos aspectos lingüísticos, la palabra *kolko* necesita una pequeña reflexión más antropológica. Porque *kolko* es mucho más que una parte de la anatomía humana. El *kolko* materno era el lugar más sagrado, más cercano al corazón, donde más se buscaba la calidez y refugio en la infancia, de donde la serenidad, quietud, calidez y amor manaban a borbotones. *Kolko* es el paraíso en el que sueñan vivir eternamente los lactantes. Era, además, la hucha o caja fuerte de nuestras baserritarras cuando bajaban a la vendeja, ya que ahí guardaban el dinero. Era asimismo el inicio de muchos amores prohibidos... Por todo ello, nuestra palabra conlleva entrañables recuerdos y las más humanas sensaciones.

## KORTINA

Berba honen kasua arraroa da, izan ere, gaztelaniazko berba den arren, oso ohikoa da eskualdeko euskarari. R. M. Azkuek berak jaso zuen bere Diccionario ospetsuan (1905): «*cerrado de valla para guardar castaña en el monte*». Eta horixe da Laudion duen esanahia: biribilak izan ohi diren itxitura batzuk dira, harlangaitzez eraikiak, normalean basoan bertan. Horietan gordetzen ziren gaztainak kirikino eta guzti, animaliek jan ez zituzten.

Halaber, kirikinoa lizundu ahala, gaztaineri ematen zien gordea zeukan ahogozo osoa, eta zapore bikaina hartzen zuten gaztaineri horrela. Gogoratu dezagun, halaber, Laudio izan zela eskualde osoan gaztaineri gehien bildu eta esportatzen zituen herria, behintzat, gaztaineriaren ezkabiaren epidemiek XIX. eta XX. mendeen artean negoziaren amaiera ekarri zuten arte.

*Kortina* esaten diegu Laudion, besteak beste, Orozko eta Arratia aldean *kirikino-hesi* legez edo ezagutzen diren itxitura horiei, hitzez hitz: '(gaztaineriaren) kirikinoetarako hesi edo itxiturak'. Badirudi *heskorta* (*hesi* + *korta*) izenaz ere izendatu izan zirela gaztaineri biltegi horiek.



Gaztelan, bestalde, *cortina* legez ezagutzen dira 'harrizko hormaz itxitako larrainak', eta harlanduzko itxitura bereizgarri horiek bihurtzen omen ziren larrainak *cortina*. Zalantza barik, gauza beraz ari da aipua.

Laudio *cortin* nahiz *cortijo* berbak ere erabiltzen ditugu gaztelaniaz ukuiluan txerriek duten lekua izendatzeko, eta hizkuntza-jatorri bera dute.

Denak datoz latinezko *cors*, *cortis* edo *cohors*, *cohortis* berbetatik (kohorte) eta, ageriko esanahiak alde batera utzita (esaterako, Gorteak, Espainiako Parlamentua), beste zenbait esanahi jaso ditu Espainiako Errege Akademiak, adibidez: 'persona garrantzitsu baten inguruan dagoen jende multzoa', 'abe-reak gaua igarotzeko biltzeko eskorta edo ukuilua' edo 'ardiak ixteko sarroia'. Gaztainak gordetzeko lekuari deitzeko *cortina* edo *kortina* berbak erabili izana Enkarterriko Foruan dokumenta daiteke (1503): «...*castannos e cortina e vivero se han de defender con seto suficiente [...] segun costunbre antigua...*». *Kortina* asko egon ziren Laudion, baina pinuak aterazeko makinek gehien gehienak apurtu dituzte, eta, beste askotan, beste eraikuntzetan erabili dira horien harriak. Hala ere, arrasto ugari geratu zaigu. Daukaten balioa aitortu beharko litzaeke, eta udalerriko ondarearen identitate-elementu legez tratatu.



El caso de esta palabra es extraño ya que, a pesar de tener su origen en el castellano, es a su vez habitual en el euskera de la comarca. Lo recoge como tal R. M. Azkue en su famoso *Diccionario* (1905): «*cerrado de valla para guardar castaña en el monte*».

Y es que ese es el significado que le atribuimos en Laudio, el de unos cierres de mampostería, normalmente circulares, que se suelen encontrar en los bosques. En ellos se guardaban las castañas con su erizo, para evitar que los animales las comiesen.

Asimismo, según se iba pudriendo el erizo transmitía toda la sazón del mismo a la castaña allí almacenada, confiriéndole un sabor extraordinario. Recordemos asimismo que Laudio fue el gran recolector y exportador de castañas de la comarca, un negocio que tuvo su fin con las epidemias de tiña del castaño entre el XIX y XX.

Esos cierres que se llaman en euskera en Orozko, Arratia... *kirikino-hesi* —literalmente 'cercados para los erizos [de castaña]'— los conocemos en Laudio como *kortina*. Parece ser que también se denominaron *heskorta* (*hesi* 'seto, valla' + *korta* 'cercado') esos almacenes para castañas.

Con el mismo nombre de *cortina* se conocen en varias zonas de Castilla las 'eras cercadas con muros de piedra' o son esos cierres de mampostería la característica para que sean *cortinas*. Sin duda, hace referencia a lo mismo.



También en Laudio usamos *cortin* o *cortijo*, el lugar en la cuadra para los cerdos, con el mismo origen lingüístico.

Todas ellas derivan del latín *cors*, *cortis* o *cohors*, *cohortis* 'cohorte' y, al margen de significados evidentes como el de Las Cortes —parlamento español— también sirve para definir al 'entorno de personas que rodean a alguien famoso o importante', 'corral o establo donde se recoge de noche el ganado' o 'aprisco donde se encierran las ovejas', entre otras, según el diccionario de su Real Academia.

El uso de la palabra *cortina* —o *kortina*— como lugar para resguardar las castañas la documentamos por primera vez en el *Fuero de las Encartaciones* (1503): «...*castannos e cortina e vivero se han de defender con seto sufficiente [...] segun costunbre antigua...*».

Son muchas las *kortina* que han existido en Laudio si bien la gran mayoría las han roto las máquinas al sacar pinos o se han usado sus piedras para otras construcciones posteriores. Pero aún perduran abundantes restos. Habría que acometer su puesta en valor, para convertirlo en un elemento patrimonial identitario del municipio.

## KOSKOL

*Koskol* berba nahiko ezaguna da baserri inguruetan. Landareen bilgarriak izendatzeko erabiltzen da; zehazkiago, indabean, baben ilarren eta abarren lekei ematen zaien izena da. Kendu egin behar dira, aleak biltzeko. Laudion pluralean erabili ohi dira, euskara eta gaztelaniaren arteko nahasketan: "los *koskoles*". Harropuzkeriari erreferentzia egiteko esaera hau erabili ohi da herrian: «*Que si será, que si será... el ruido de los koskoles más que el de las nueces será*».

Berton dugun erabileraz gain, artaburuén muinari ere esaten zaio, baita arrautzen oskolei, zuhaitzen azalari eta gaztainen kirikinoari ere.

Berez, *Oskol* berbaren mendebaldeko aldaera baino ez da *koskol*, eta edozein hiztegitan aurkituko dugu 'azal, krosko, kusk...' esanahiarekin. Zoolo-giara aplikatuta, 'bibalbo, krustazeo eta abarren estalki babesgarria' izendatzeko ere balio du. Eta eskualde batzuetan, 'eskuko azazkal' berbaren sinonimo legez ere erabiltzen da: *atzamar-oskol*.



La palabra *koskol* es relativamente conocida en el ámbito rural. Se usa para referirse a los envoltorios vegetales o cáscaras de alubias, habas, guisantes, etc. que se eliminan para extraer el grano. En Laudio se usan normalmente



en plural, en una mezcla de euskera y castellano: "los *koskoles*". Para hacer referencia a la fanfarronería suele usarse la expresión «*Que si será, que si será... el ruido de los koskoles más que el de las nueces será*».

Fuera de nuestro uso local, también sirve para denominar el zuro o corazón de las mazorcas de maíz, la cáscara del huevo, la corteza de árbol o incluso el erizo de las castañas.

*Koskol* es en realidad la forma occidental de *oskol* y que encontraremos en cualquier diccionario con el significado de 'cáscara, corteza, cascarón...'. Si lo aplicamos a la zoología, también nos sirve para denominar 'conchas, caparazones...' de los animales. Incluso en alguna comarca se usa para denominar la 'uña de los dedos de la mano': *atzamar-oskol*.

## KOSKOLLO

Ez dakigu ziur euskaran sortutako hitza den. Hala balitz, *koskoilo* idatzi beharko litzateke, baina Laudion *koskollo* ahoskatzen dugu.

Kasu honetan ere, 'handiak ez diren pertsonak, pertsona zatar edota makalak' izendatzeko erabiltzen da berba.

Ez daukagu euskarazko erreferentzia argirik, izan ere, gure berbak 'barrabialak, eskrotoa' esan nahi du Iparraldeko euskalkietan, gutxienez. Hortaz, gaztelaniazko 'cojonazos', 'huevoón' edo 'huevazos' berben antzekoa izan liteke. Hala ere, ez dakigu zeintzuk diren berbaren nondik norakoak Euskal Herriko mendebaldean.

Halaber, badakigu 'kriskitin' esateko ere balio duela, eta susmatzen dugu batzuk zein besteak, soinudun zintzilikarioak nahiz soinu barikoak, latinezko *cusculium* berbatik datozela. Handik jaio zen *coscojo* berba ere, hau da, 'kermezak abaritzari (artearen antzeko zuhaitz baxu bati) eragiten dion sakatsa'. Hizkuntzalari askoren ustez, *cusculium* beretik datoz euskarazko beste zenbait hitz, esaterako, *moskol*, *mokol*, *oskol*, *kozkil*, *kozkor*... Eta *cusculium* hori, halaber, aurreko hizkuntza ezezagun batetik hartu ei zuen latinak. Benetako nahas-mahasa, beraz; ebidentzia baino zalantza gehiago.

Laburbilduta, gutxi samar dakigu gure *koskollo* berbaz. Baina egon badago, horren zalantzarik ez dugu, nahikotxo erabiltzen dutelako ibarreko zaharrek.



No sabemos a ciencia cierta si se trata de una palabra surgida del euskera. De ser así, su escritura correcta sería la de *koskoilo* aunque en Laudio la pronunciamos como *koskollo*.



Con ella se denominan en nuestro municipio, una vez más, a aquellas 'personas un poco grandes, desgarbadas, flojas', dicho siempre de un modo cariñoso.

No tenemos ninguna referencia clara en euskera ya que nuestra palabra significa, al menos en los dialectos de Ipar Euskal Herria, 'testículos, escroto...' Por tanto podría ser algo similar a los 'cojonazos', 'huevón', 'huevazos'... del castellano. Sin embargo, desconocemos su uso en el occidente vasco.

Sabemos asimismo que significa 'cascabel' y suponemos que, unos y otros, proceden de una misma palabra latina, *cusculium*, de donde surge también la palabra *coscojo* 'agalla en forma de bola producida por el quermes en la coscoja' siendo la *coscoja* un 'árbol achaparrado semejante a la encina'.

De la misma fuente originaria *cusculium* —que al parecer también el latín adopta de una lengua desconocida anterior— proceden, según diversos lingüistas, otras palabras del euskera como *moskol*, *mokol*, *oskol*, *kozkil*, *kozkor*... Un verdadero enredo, con más de incertidumbres que evidencias.

Poco sabemos por tanto de nuestra palabra *koskollo*. Pero de su existencia no hay duda porque su uso aún es bastante generalizado entre la gente más mayor del valle.

## KOSKORRA

Gure terminorako gaur egun lehenetsitako forma *koskorra* da, eta, gainera, bat dator bertoko ahoskerarekin, nahiz eta gure ibarreko egile batzuek *kozkorra* aldera ere dokumentatu izan duten.

Esanahi askotako terminoa da: 'konkorra', 'gaztea', 'errekarriak', 'zerbaiten muturreko aldea'... Agian azken adiera horiekin harremana izango du lur batez berba egitean izenondoak ematen dion ezaugarriarekin, hau da, 'latza, malkartsua eta harritsu' dela.

Eta hemen audioarrek ematen dioten balio semantikoa jorratuko dugulako diogu hori, ez hiztegietako sarreretan jasotakoa. Euren arabera, nekazari-tzako terminoa da *koskorra*, eta 'landutako lur eremu bateko zatirik altuenari' egiten dio erreferentzia. Mendi mazeletan kokatutako ortuez ari gara, luberriez. Kasu horietan, goiko aldeak kareharria jo eta ia lurrik gabe geratu arte lantzen da saila. Halaber, euri urak mantenugaiak eramaten dituenaz, emankortasun gutxieneko lur zatiak izaten dira. Beraz, *koskorra* da sailean emankortasun txikiena duen zatia, lantzeko zailena eta uztarik eskasnak ematen dituena. Kontrako muturra *hondonera* dugu herriko gaztelaniaz, beheko aldea, zeinetan metatzen baiten denboraren poderioz beheraka



doan lur mantua; lantzeko errazena da, zatirik emankorrena eta uztarik onenak ematen dituena.



La forma escrita actualmente priorizada para nuestro término es la de *koskorra*, que coincide además con nuestra pronunciación local, si bien en algunos autores de fuera de nuestro valle se documenta también con la variante *kozkorra*.

Se trata de un término polivalente con el significado de 'bulto', 'joven', 'guijarrros de piedra', 'parte extrema de algo'... Quizá relacionado con estas últimas acepciones tenga algo que ver el valor que le da ese adjetivo cuando se refiere a un terreno, refiriéndose a que es 'duro, rocoso, escabroso'.

Y decimos esto porque, lejos de las formas propias de diccionarios, vamos a referir el valor semántico que los laudioarras atribuyen a ese término. Según ellos, la *koskorra* de un terreno de cultivo es 'la parte más alta o elevada de éste'. Hacemos referencia a huertos en terreno montuoso o roturas. En estos casos, la heredad se labra hasta que la parte superior apenas tenga tierra porque topa con la cayuela. Asimismo, por efecto de los arrastres del agua de lluvia se convierte en la zona con menos nutrientes. La *koskorra* es por tanto la parte más pobre de ese labrantío, la más dura en la labor y la de peores resultados en la cosecha. El extremo opuesto es la *hondonera*, la parte baja, la zona en donde se acumula el manto de tierra que con el paso del tiempo va descendiendo, la más fácil de trabajar, la porción más rica y de mayor productividad de esa pieza.

## KUKU

*Kuku* berbaz ezagutzen dugu gaztelaniaz *cuco* edo, forma txikigarrian *cuclillo* deritzon txoria.

Bi berben jatorria latin berantiarreko *cucus* hartan ei dago, eta horren jatorria grezieran; berez, agerikoa den legez, hegazti txiki horren soinu bereizgarria deskribatzen du berbak. Horrexegatik, herri jakintzak dioskunez, txori hori da bere izena ahoskatzen dakien bakarra.

Euskarazko formaren —*u* amaierak argi uzten du duela asko mailegatu zela gaur egun Laudioko hiztun gehienek erabiltzen duten berba. Gaztelaniak, ostera, genesian eta bilakaeran, ez ohi ditu ondo hartzen —*u* bukaerak, eta, ondorioz, —*o* bihurtu izan ditu ia automatikoki. Aitzitik, euskarak arazo barik eusten die. Gauza berbera gertatzen da *Basurtu*, *Deustu* edo



gure *Ermu* toponimoekin: gaztelaniaz *Basurto*, *Deusto* eta *Yermo* bihurtu ziren.

Laudion bitxi samarra da gaztelaniazko *cuco* forma entzutea, agian, euskara-zkoan silaba bera birritan errepikatzen denez, erosoagoa delako.

Txori honetaz luze eta sakon egin genezake berba. Jakina denez, habiei dagokienez parasittoa da, beste txori batzuen habiak okupatzen dituelako han zeudenak imitatuta. Guraso faltsuak txitatzeaz eta hezteaz arduratuko dira, eta txita arrotzak galbidera ere eraman ditzake gainerako guztiak.

Udaberrian iristen denez, jokabide immorala izan arren, txori ontzat jo izan da beti, adur onekoa, zorte ona dakarkiguten horietakoa. Horiek horrela, gure herrian, pertsona edo animalia bat gaixo dagoenean, apirila bada eta *kukua* entzuten badu, sendatuko dela eta urtebete gehiago biziko dela uste izaten da. Halaber, sarri entzuten da *kukua* urtean lehenengo aldiz entzuten duzunean patrikan dirua izanez gero, aberastasuna izango duzula urte osoan.

Baina txori migratzailea da, eta, beraz, etortzen den bezalaxe, joan egiten da. Bertoko baserritarrek sinesten dutenez, ekainaren 29an egiten dute alde, gure zaindari zahar San Pedroren egunean. Eta haien abiadaren xehe-tasun batzuk ere badakizkigu: edozein audioar nagusiri galdetzen badiogu, zalantza barik erantzungo digu lehenik Muruetarantz egiten dutela hegaz (Orozkorantz), eta han bazkaria edo askaria egiten dutela —bertsioen araber—, inork ez dakien lekurantz abiatu baino lehenago indarrak hartzeko. Gogoan izan behar da oso sona eta oparotasun handiz ospatzen direla sanpedroak Muruetan.

Ondoan ditugun herrietako herri jakintzan oso ondo jaso dute hitzordu hori egutegian: «*Sanjoanetan kuku, sanpedrotan mutu*».

Hori guztia alde batera utzita, eta, ziur aski txoriaren izaera iheskorrengatik eta hura ikustearen zailtasunarengatik, *kuku* esaten da norbait ezkutatu denean eta besteek non dagoen jakiteko zantzuak eman nahi dituenen, batez ere, umeen hizkeran. Pertsona bat 'ez fidatzekoa, faltsua' dela esateko ere erabiltzen da.



La palabra *kuku* se usa para denominar un pájaro que en castellano se conoce como *cuco* o, en su forma diminutiva, *cuclillo*.

Ambas palabras provienen supuestamente del latín tardío *cucus* y éste también del griego, una palabra que en realidad describe el característico sonido de esa ave. De ahí que, en la sabiduría popular, se asegure que ese ave es el único animal que sabe pronunciar su nombre.



El final en *—u* de la forma en euskera, la que en Laudio se usa, nos indica que se adoptó en épocas muy antiguas. El castellano, sin embargo, en su génesis y evolución, no soporta por lo general los finales en *—u* y los convierte en *—o* casi automáticamente, mientras que el euskera los mantiene por no resultarle desagradable. Es lo mismo que sucede con los topónimos *Basurtu*, *Deustu* o nuestro *Ermu...* que el castellano transforma a *Basurto*, *Deusto* y *Yermo*.

En Laudio resulta muy extraño escuchar la forma del castellano *cuco*, quizá también porque resulte más cómoda la del euskera, al repetir dos veces la misma sílaba.

De este pájaro se puede hablar largo y tendido. Como sabemos es un parásito en lo que a nidificación se refiere y ocupa los nidos de otras aves para poner sus huevos, imitando los que allí están. Los falsos progenitores se harán cargo de su incubación y cría, llegando a hacer perder el intruso el resto de la nidada.

Por su llegada en primavera y a pesar de su inmoral comportamiento, se le ha considerado como una buena ave, de buen agüero, de las que ella misma porta la buena suerte. Así, en nuestro pueblo, cuando una persona o animal está enferma y, allá por abril, escucha el *kuku*, se supone que sanará y vivirá un año más. También es común escuchar que hay que tener dinero en el bolsillo al oírlo por primera vez, pues eso supone riqueza para todo el año.

Pero al ser un ave migratoria, como viene, también se va. Su marcha es, según creen nuestros baserritarras, el día 29 de junio, día de nuestro antiguo patrón, San Pedro. Sabemos hasta ciertos detalles de su partida: a cualquier laudioarra mayor que le preguntemos nos contestará sin dudar que primero vuela hacia Murueta (Orozko), y allí come o merienda —según versiones— para recargar fuerzas antes de emprender ese fatigoso vuelo hacia nadie sabe dónde. Recordemos que en Murueta se celebraban las fiestas de San Pedro con gran prodigalidad y renombre.

El saber popular de otros pueblos ha recogido muy bien esa cita del calendario: «*Sanjoanetan kuku, sanpedrotan mutu*», 'por San Juan aún canta el cuco mientras que para San Pedro enmudece'.

Al margen de todo ello y probablemente por el carácter huidizo y lo difícil de observar de esta ave, también se usa *kuku* cuando alguien está escondido y pretende que hacerse notar, especialmente en el lenguaje infantil. También se dice de una persona para indicar que es una 'falsa, de poco fiar'.





## LAIA

Behar bada, Espainiako Errege Akademiak eman du termino honen definitziorik onena, bere hiztegi "laya" sarreran. Euskarazko *laia* berbatik eratorria dela dio, eta honela definitzen du: 'zurezko kirtena duen burdinazko tresna, lurra landu eta iraultzekoa. Bi punta ditu, eta kirtenaren goiko aldean zeharka sartutako eskulekua, zeina bi eskuekin oratzen baita, oinekin estuztearekin batera, eskuekin ere estutzeko'.

Bestela esanda: burdinazko bi horzdun lanabesa da, zurezko helduleku batean bukatua, zeina oinen eta besoen laguntzaz lurrean sartzen baita, lur koskak iraultzeko. Pertsona batek baino gehiagok erabiltzen dute aldi berean, errenkada osoak iraultzeko; emakumeek erdiko lekuetan kokatu ohi ziren, indar gutxiago behar omen zelako koska horiek atera eta iraultzeko. Lehen aldiz dokumentatzen ditugu Erriberriko Erregeen Andre Mariaren elizako portadan (XIII. mendea). Bertan Adan ageri da betiko kondenatua lurra lantzerako, laia bi daramatzala. Detaile horrek "euskal kutsuarekin" lotzen du. Idatzizko erreferentziak geroagokoak dira: «*Utzi alzórra edo láia atárian*» idatzi zuen Joakin Lizarragak 1780an.

Ezer gutxi dakigu izenaren jatorriaz, proposamen ugari egin den arren. Baina zalantza barik, euskal terminoa burdinaren eskutik hedatuko zen, gure lurretan lantzen zelako eta hemendik esportatzen zelako burdinaz ekoiztutako guztia.



Quizá la mejor definición de este término lo de la Real Academia Española, en la entrada *laya* de su diccionario, y que hace derivarlo del *laia* vasco que nos ocupa: 'instrumento de hierro con cabo de madera, que sirve para labrar la tierra y revolverla. Lleva dos puntas, y en la parte superior del cabo tiene una manija atravesada, que se ase con ambas manos para apretar con ellas al mismo tiempo que se aprieta con el pie'.

Dicho de otro modo, es una especie de bidente de hierro culminado con un mango corto de madera y que, ayudado de pies y brazos, se introduce en la tierra para voltearla en las labores de labranza. Su uso suele realizarse con diversas personas a la vez, volteando hiladas enteras, y tradicionalmente con las mujeres ocupando los puestos centrales ya que supuestamente exigían menos fuerza.

Documentamos su existencia por primera en la portada de Sta. M<sup>a</sup> la Real de Olite (s XIII), en el que se representa a Adán, condenado eternamente a cultivar la tierra, con dos *layas*, algo que lo caracteriza con "lo vasco".



Las referencias escritas son más tardías, «*Utzi alzórra edo láia atárian*» 'deja en el portal la azada o la laya' (Joaquín Lizarraga, 1780).

Poco o nada sabemos del origen del nombre a pesar de las diversas propuestas hechas. Pero sin duda, el término vasco se expandiría de la mano del hierro, ya que era en nuestros territorios en donde se trabajaba y exportaba todo lo producido con hierro.

## LARATZU

*Laratzu* berbaren bidez —gurean, gaztelaniaz, *larachu* ahoskatuta— identifikatzen dugu etxeetan arrunta zen burdinazko pieza bat: tximiniaren alde bietako horman ahokatua doan barra batek eta handik eskegitako kate batek osatzen dute. Katearen muturrean gako bat edo gehiago dago, lapikoak eskegitzeko. Definizio zehatzenen arabera, 'burdinazko katea da, tximiniaren kanoitik eskegia, beheko muturrean gako bat dauka, eta distantzia gutxira beste gako bat, igo eta jaitsi ahal izateko'.

*Laratzu* aldaera Bizkaiko mendebaldekoa da (Arratia, Orozko, Nerbioi...), izan ere, beste leku gehienetan, eta batuaz, *laratz* esaten zaio.

Laudion, gaztelaniak nahastuta, ez da arraroa "*el arachu*" ere entzutea, baina "*el laratzu*" da forma zuzena eta erabiliena.

Gure basetxeetako elementu bereizgarri hori *llar* deitzen da gaztelaniaz.

*Laratzu* hori, burdina forjatuzko pieza izaki, etxe batean harrotasunik handinez erakusten ziren objektuetako bat zen, inbertsio handienetako bat zelako, gehien hautatzen eta zaintzen zirenetako bat. Baserrietan objektu estimatuenetako, etxearen bihotza.



Con el vocablo *laratzu* —pronunciado entre nosotros como *larachu*— identificamos una pieza de hierro compuesta por una barra que va de lado a lado de la chimenea, encajada en su obra. De ella pende una cadena que finaliza en uno o varios ganchos de donde se colgaban las calderas sobre el fuego. Según las definiciones más precisas, es una 'cadena de hierro, pendiente en el cañón de la chimenea, con un garabato en el extremo inferior para colgar la caldera, y a poca distancia otro para subirla o bajarla'.

*Laratzu* es una variante del occidente vizcaíno —Arratia, Orozko, Nervión...— ya que en el resto del territorio se conoce como *laratz*.

El Audio, confundidos con el castellano, no es raro también escucharlo alguna vez como "*el arachu*" pero es "*el laratzu*" la forma correcta y más usada.



Este elemento tan característico de nuestros caseríos se denomina *llar* en castellano.

El *laratzu*, como pieza de hierro forjado que es, era antiguamente uno de los elementos que con mayor ostentación se mostraban en una casa, una de las principales inversiones, de las más elegidas y cuidadas. Era el orgullo del caserío, el corazón del hogar.

## LARRI

*Larri* berbak kontu ezinezko adierak ditu eta, gutxitan gertatzen den zerbait gertatzen da kasu honetan: ia Euskal Herri osoan dago hedatua.

Eskaintzen digun aukera guztietatik, badago Laudioko berbaeran oraindik bizi-bizi dagoen bat, nahiko ezaguna laudioarron artean, gainera. Aipatu-tako *larri* berbari gaztelaniazko *estar* aditza gehituta osatzen den esamol-dea da.

Horiek horrela, "estoy *larri*" dioenak esan nahi du osasunaren eta gaixotasu-naren arteko puntu batean dagoela, tristeziaren eta pozaren artean. Ez da alarma pizteko moduko egoera, baina ondo edo normal ere ez gaudela adierazteko balio du. "Estar *larri*", beraz, indar barik egotea da, aldarte txarrean...

Bitxia da *larri* berba egoera biren artekotzat jotzen duen pertzepzioak adiera berezia hartzen duela Orozkon eta Arrankudiagan, eta, beraz, esan gene-zake ziur aski Laudion ere hala izan zela, galdu genuen arren. Adibidez, "*harri larri bat*" esatean, apur bat (zati txiki bat) baino handiagoa, baina zati bat baino txikiagoa esan nahi da. Tamalez, Laudio ondoko udalerrietako egungo belaunaldiek ere aurrekoek gorde eta gozatu zuten hizkuntzaren altxor joria galdu dute. Pertsona zahar batzuek baino ez dituzte gordetzen harribitxi horiek, beraz, tamalgarria den arren, hamarkada baten buruan galduak izango ditugu.

Amaitzeko, ohikoa da Bizkaia osoan entzutea emakume bat *larri* dagoela adierazteko haurdun dagoela, eta beraz, tarteko egoera batean: ama izatear-en eta ez izatearen arteko egoeran, hain zuzen.



La palabra *larri* tiene infinidad de acepciones y, como pocas veces sucede, su uso se extiende por toda la geografía vasca.

De todas las opciones que nos ofrece, existe una que aún se mantiene muy vigente en el habla de Laudio y que es suficientemente conocida entre la



población. Es la de usar la palabra *larri* acompañada del verbo castellano *estar*.

Así, decir "estoy *larri*" significa estar en un punto intermedio entre la salud y la enfermedad, entre la tristeza y la alegría. Una situación que no es de alarma pero que tampoco nos deja estar en plenitud o normalidad. Estar *larri* es, por tanto, encontrarse sin fuerzas, con malas sensaciones...

Curiosamente, de esa percepción de la palabra *larri* como estado intermedio entre dos situaciones, adquiere en lugares como Orozko y Arrankudiaga —con seguridad se dio por tanto en el euskera de Laudio— una curiosa acepción. Por ejemplo, decir "*harri larri bat*" equivale a un tamaño de piedra superior al *apur* —fracción pequeña— pero menor que el *zati*, un trozo ya considerable. Desgraciadamente, también las generaciones actuales de estos municipios colindantes con Laudio han perdido el rico tesoro lingüístico que durante siglos gozaron sus generaciones precedentes. Tan solo algunas personas mayores conservan esas joyas que, desdichadamente, las perderemos para siempre en una década.

Para finalizar, también es común escuchar en toda Bizkaia que una mujer está *larri* para referirse a su embarazo, en referencia de nuevo a un estadio intermedio ente ser madre y no serlo.

## LATA

Laudioko baserri inguruan *lata* berba erabiltzen denean, 'edozein landa edo lursail ixteko erabiltzen diren hesi modukoak' izendatzeko da. Bertikalki paratutako bi ostiko ditu aldeetan, zeintzuei Laudio *latones* esaten baitzaie. Ostikoetan bi zulo egiten dira zeharraga horizontalak edo *latak* ahokatzeko. Euskal Herriko beste eskualde batzuetan *langa* esaten zaie euskaraz, eta *cancilla* gaztelaniaz. Gure udalerritik kanpo bada *lataka* aldaera ere, alegia, *lata* berbaren txikigarria.

*Lata* berbatik abizenak ere sortu dira, esaterako, *Latatu*, hau da, 'latekin itxia', baita nahasmen toponimiko antologikoak ere, adibidez, Urduñako *La Teta*, berez, *Lateta* izan beharko bailuke —eta gaztelaniaz, 'las latas' edo "las cancillas", beraz—, batzuk hor emakumeen bularren formak ikusten tematu arren.

Dirudenez, *lata* berbak, hasiera batean, edozein pertikari egiten zion erreferentzia, edo baserriak eraikitzean erabiltzen ziren ohol edo taula luzangei. Baina gaur egun, hain bereizgarriak diren hesi horiei egiten die erreferentzia, geroago eta gutxiagotan ikusten diren horiei. Izan ere, hamarkada baten buruan, betirako joango zaizkigu gure paisaietatik.



Agerikoa denez, *latón* berba *lata* horren handigarria da, gaztelanian zehar eratua.

Hori guztia alde batera utzita, *lata* erabiltzen dutenek diotenez, soilik partzialki ireki ahal izatearen abantaila du, pertsoneri edo animaliei igarotzen uzteko, kasuan kasuko beharren arabera. Osorik ere ireki daiteke, artaldea edo gurdia igaro dadin.

Halaber, behin baino gehiagotan jaso dugu *laton* edo makila bertikal horiek haritzekoak edo gaztainondoekoak izan behar dutela ahal bada, horiek zur gogorrak direnez, luzeago irauten dutelako. Kontuan hartu behar dugu zuloak egitean, zailagoak direla fabrikatzeko, eta, gainera, hesiaren indar guztiari eutsi behar diotela. Hori dela eta, mimo bereziz egiten ziren. Zeharkako makilak, hau da, *latak*, ostera, edozein zur motatakoak izan zitezkeen eta normala zen maiz aldatzea.



Cuando en el mundo rural laudionario se usa la palabra *lata* se hace referencia a unas 'barreras rústicas que cierran cualquier terreno cercado'. Consta de dos machones laterales colocados en vertical, llamados en Laudio *latones*, en los que se practican unos orificios que sujetan las traviesas horizontales o *latas*. En otras partes de Euskal Herria ese tipo de cierres se conocen como *langa* en euskera y *cancilla* en castellano. Existe también, fuera de nuestro municipio, la variante *lataka* que no es sino un diminutivo de *lata*.

De la palabra *lata* surgen incluso apellidos como *Latatu*, 'cerrado o cercado con lata' o antológicos equívocos toponímicos como el de la fuente de *La Teta* en Orduña que no es sino *Lateta* —'las latas' o 'las cancellas'— por mucho que se empeñen algunos en ver allí una forma de pecho femenino. Al parecer la palabra *lata* hacía referencia en origen a cualquier tipo de pértigas o de maderas o tablas alargadas usadas en la construcción de los caseríos.

Pero hoy en día hace referencia a esas barreras tan características y que cada vez son más difíciles de ver. Tanto que en una década habrán desaparecido para siempre de nuestros paisajes rurales.

Evidentemente, la palabra *latón* es un término aumentativo de *lata*, forjado a través del castellano.

Al margen de todo ello, dicen los que la usan que la *lata* tiene la ventaja de poder abrirse solo en parte, para pasar una persona o animal, según nos convenga. O entera si se necesitaba atravesar con un rebaño o carro.

Por otra parte, hemos recogido en más de una ocasión que los latones o palos verticales tenían que ser preferentemente de roble o castaño ya que



son maderas fuertes y que duran mucho tiempo. Tenemos que tener en cuenta que, al practicar los orificios, son más dificultosas para elaborarlas y han de soportar además toda la fuerza de la barrera. Por ello se ponía especial mimo en su elaboración. Por el contrario, los palos transversales o *latas* podían ser de cualquier tipo de árbol y era normal cambiarlos a menudo.

**LATÓN.** *Ikus / Ver LATA*

## LATXA

Herrialdeko berezko ardi motetako bati eman zaion izena da. Batez ere, garai batean, rasa, txurra eta, bereziki, merino arrazakoetatik bereizteko. Hala ere, ez da gurean antzinatik erabilitako izendapena; aitzitik, garai berriotan erantsi diogu hiztegiari, beste arrazetako ardietatik bereizteko. Jatorrian, *latz* berba dauka, ardion artilearen kalitatearengatik. Ostera ere, R. M. Azkuek eman zigun definiziorik onena 1905eko hiztegian: «*Ardi-latz, ovejas de lana basta, no merinas*» 'artile latzerako ardiak, ez merinoak'.



Es la denominación que se ha dado a la tipología de la oveja propia del país. Sobre todo, antiguamente, para diferenciarla de las de raza rasa, churra o, especialmente, merina. No es sin embargo una denominación que hayamos usado tradicionalmente en nuestro municipio sino que se ha incorporado en tiempos modernos para diferenciarla de otras razas.

Su origen está en *latz(a)* 'áspera', en referencia a la calidad de su lana. La mejor descripción la da una vez más R. M. Azkue en su diccionario de 1905: «*Ardi-latz, ovejas de lana basta, no merinas*».

## LAZTANA

*Laztana* berbaren —Laudion *lastana* ahoskatzen dugun horren— esangura nagusia fereka da euskaraz. Eskualde batzuetan, baita 'besarkada' edo 'musua' ere.

Baina beste adiera bat ere badauka: pertsona bati diogun txera eta maitasuna adieraztea eta transmititzea. Gaztelaniaz pertsona bati *cariño, corazón*



edo, garai batean bezala, *amante* esatearen parekoa da. Oso gertuko jendearekin erabiltzen da, sendian, asko maite ditugunekin, eta, batez ere, bikotearekin edo etxeko txikitxoekin. Hortaz, "¿Qué te has hecho, *laztana*? ¿Te has caído?" eta antzeko esaldiak gaztelaniazko erregistro estandarra-goan "¿Qué te has hecho, corazón?", "¿Qué te has hecho, cariño?", "¿Qué te has hecho, amante?" izango lirateke.

Adierazpide hain amultsu eta ederra da, ezen berreskuratu eta indartu beharko baikenuke, gure artetik ihes egiten ikusten geratu beharrean.



El vocablo *laztana* —que en Laudio pronunciamos *lastana*— tiene el significado principal de 'caricia' dentro de la lengua vasca. E incluso de 'abrazo' o 'beso' en algunas zonas.

Pero tiene otra acepción que es la de transmitir y mostrar a una persona el gran afecto que se tiene por ella. Es decirle a una persona *cariño*, *corazón* o, como antes solía decirse, *amante*. Suele usarse en un ámbito de mucha cercanía, de familiaridad, de amor, y en especial, con la pareja o los más pequeños de la casa. Así pues, frases del tipo "¿Qué te has hecho, *laztana*? ¿Te has caído?" significan lo que en el castellano más estándar sería "¿Qué te has hecho, corazón?", "¿Qué te has hecho, cariño?", "¿Qué te has hecho, amante?".

Es una expresión tan entrañable y bonita que la deberíamos recuperar y reforzar en vez de observar cómo desaparece.

## LEGAÑA. *Ikus / Ver PISTA*

## LOLO

*Lolo* esamoldea, bitxia da gutxienez. 'Lo egoteari' egiten dio erreferentzia eta, batez ere, umeen hizkeran erabiltzen da. Hortik datoz gure udalerrrian hain ezagunak eta erabiliak diren gaztelaniazko adierazpide hauek, bestea beste: "*hacer lolo(s)*", "*(ir) a lolo(s)*".

*Lo* berbak errepikatuz eratuta dago, *lo* berbak, berez, lo egitearen ekintza adierazten du. Eta horixe da, hain zuzen ere, helduen hizkera eta umeena bereizten duena helduek lo egiten baitute, baina umeek *lolo*.

Horregatik, euskarazko *lo egin* berba gaztelaniara itzuliko bagenu, helduen kasuan "*hacer lo*" litzateke eta "*hacer lolo*" umeen kasuan. Eta "*lo egon*" esa-



moldetik "*lolo egon*" esamoldera aldatuko dugu berdin-berdin, adinen araberan. Laudioko erabilerari helduta, "*hacer lolo(s)*" edo "*estar lolo(s)*" esaten diegu txikiei, helduekin erabileran hori galdu egin baikenuen.

Baina *lo* edo *lolo* berbek dimentsio zabalagoa hartzen dute euskaraz, gaztelaniaz ez bezala. Izan ere, *lo* edo *lolo* du izena lokartzen garenean harrapatzen gaituen izakiak: "*oak hartu nau*". Pertsonak ez du loa hartzen, loak pertsona baizik.

*Lo* eta horren errepikapena, *lolo*, arruntak dira euskalki guztietan, ia aldaketarik gabe, beraz, zilegi zaigu uste izatea gure kulturaren berezko termino zaharrenetakoa dela. Laudion, esan bezala, forma errepikatua baino ez da gorde, txikienekin darabilgun hizkera horri esker.

Amaitzeko, *lo* silaba behin eta berriro errepikatuta erabiltzen da haurtxoak lokartzeko doinu legez (*lo-lo-lo-lo-lo...*), baita Laudion ere.



La expresión *lolo* es cuando menos curiosa. Hace referencia al 'estar durmiendo' y se usa en especial en el lenguaje infantil. De ahí afloran expresiones como "*hacer lolo(s)*", "*(ir) a lolo(s)*" o similares, sobradamente conocidas y usadas en nuestro municipio.

Surgen de la repetición de la palabra *lo* que designa 'el acto de dormir'. Y eso es lo que básicamente diferencia un lenguaje de adultos, usando *lo*, de uno infantil, valiéndonos de *lolo*.

De ahí que en euskera "*lo egin*", literalmente "*hacer lo*", sea 'dormir' para un mayor pero "*lolo egin*" para un menor. O "*lo egon*" o "*lolo egon*", 'estar dormido', en función de las edades. Y, traído ya a nuestro uso local de Laudio, "*hacer lolo(s)*" o "*estar lolo(s)*" cuando estemos con los pequeños, ya que el uso con adultos lo perdimos.

Pero *lo* o *lolo* describen un estado que adquiere otras dimensiones más amplias que no da el castellano. Porque es *lo* o *lolo* el que te coge, el que te atrapa cuando se concilia el sueño: "*loak hartu nau*". No es la persona la que coge el sueño sino que es el sueño el que nos captura.

*Lo* y su repetición *lolo* son comunes a todos los dialectos del euskera, sin apenas variaciones, por lo que podemos suponer que es uno de los términos más antiguos e intrínsecos a nuestra cultura. En Laudio, como ya hemos dicho, solo hemos conservado la forma repetida, gracias a ese lenguaje que usamos con los más pequeños.

Para finalizar, la repetición continua de la sílaba *lo* (*lo-lo-lo-lo-lo...*) es una cantinela que suele usarse para adormecer a los bebés, también en Laudio.





## LUKAINKA

*Lukainka* euskarazko berba da eta, audioar zaharrek zailtasunik gabe identifikatzen duten arren, nekez entzuten da gaur egungo erabileran. Gaztelaniazko *longaniza* berbaren baliokidea da.

Gaztelaniaz, *longaniza* berbak okela adobatuz betetako edozein hesteki izendatzeko balio du, beste barik. Hala ere, gure ingurunean, kalitate eska-seko txorizoa izendatzeko erabiltzen da, normala baino apur bat lodiagoa. Gihar onaz egin beharrean, birikiz eta kalitate txarragoko handakinez egiten zen. Izan ere, gure baserritar askok muzin egiten zioten lukainkari. Dena den, badu zale porrokaturik ere...

Hestekia bera legez, bitxiak dira, oso, berba eta haren historia ere. Hasteko, esan beharra dago txorizo eta lukainken eboluzioan, "betikoa" ei den piper txorizeroa gehitzeko ohiturak... mende eta erdi baino ez duela berez. Bai: hain geureak eta hain gorriak diren txorizo horiek berri samarrak dira historian. Eta, hein batean behintzat, hestekiak hobetzeko aldaketa horiek Italian dute jatorria. Horra hor gure berbagaia ulertzeko gako bat.

Euskarazko *lukainka* berba honelako hestekiak egiten irakatsi zigun Italiako zonaldeetik datorkigu: Lucania, gaur egun, Basilicata, Italiako penintsularen botaren orkatilan kokatua. Antzeko zer edo zer gertatzen da gaztelaniaz; Lucania toponimo hartatik *lucanicia* eratorri zuen, eta, hestekiaren formaren ondorioz eta herri interpretazio okerrari jarraikiz, luzea esan nahi duen *longa* berbarekin nahastu zen, gaur egungo *longaniza* berbara iritsi arte.



*Lukainka* es una palabra de euskera que, aunque los audioarras mayores la identifiquen sin dificultad, es extraño escucharla en un uso actual. Con ella nos referimos a la 'longaniza'.

*Longaniza* es en castellano, dependiendo de zonas, un embutido relleno con carnes adobadas, sin más. Sin embargo, en nuestro entorno es una especie de chorizo de calidad inferior, algo más grueso y el que, en lugar de elaborarse con buen magro, se hacía con pulmones y otros restos de inferior calidad. De hecho, muchos de nuestros *baserritarras* hacían ascos a la *lukainka* o longaniza. Pero también cuenta con acérrimos defensores...

Al igual que el embutido en cuestión, también la palabra en sí y su historia son curiosas. Comenzaremos por adelantar que en la evolución de nuestros chorizos y longaniza, la carne de pimiento choricero que hemos añadido "de toda la vida"... no cuenta en realidad más que con siglo y medio... Sí: esos chorizos tan nuestros y tan rojos son relativamente novedosos en



nuestra historia. Y en cierto modo aquellas modificaciones para mejorar los embutidos se inspiraron en Italia. Esto es clave para poder entender el origen de nuestra palabra.

El término vasco *lukainka* surge del nombre de la zona de Italia de donde aprendimos a hacer este tipo de embutidos: Lucania, actual Basilicata, en el tobillo de la bota de la península italiana. Algo similar a lo que sucede con el castellano que, de aquel topónimo Lucania hace surgir *lucanicia* y que, por la forma del embutido y por una errónea interpretación popular se confunde con *longa* 'larga' para darnos la actual *longaniza*.

## LUPETZA

Kasu honetan ere, zaharrentzat oso ezaguna den berbaz ari gara, gaur egungo erabilera arruntean ezohikoa den arren; desagertu dela ere esan genezake kasu gehienetan. Laudion *lupetxa* edo *lupecha* ahoskatzen dugun *lupetza* berbaz ari gara, 'lokatz' esanahiarekin.

Bizkaiko mendebaldeko termino jatorra da, Arratia, Orozko, Nerbioi eta Uribe-Kosta eskualdeetan arrunta.

Beste lekuetako *lokatza* berbaren baliokidea, esan bezala.

Bitxikeria legez esango dugu *lupetz* oinarriari —*tza* atzizkia gehituta lortzen dugula *lupetza* berba, baina esanahia aldatuko diogula, hau da, 'lokatzez betetako lekuari, zikintzari, istingari' esateko balioko duela.

Ziur aski, *lur* eta *be* berbek osatuko zuten jatorrian, 'lur biguna' esanguraz.

Bide zaharretako *lupetza* zatiei beldur zitzaien, are beldur handiagoa gurea hain ibar heze eta buztintsua izanda. Ibiltzeko deserosotasuna eta zikinkeria alde batera utzita, arazo handiak zekartzan gurdiak garraiatzeko, gurpilak hondoratu egiten zirelako eta oso zaila zelako handik ateratzea. Eta gurdiak zenbat eta karga handiagoa, are sakonago sartzen zen gurpila, eta are zailagoa zen handik ateratzea eta bideari berriz ekiteko. Zama-lanetarako abereak, bestalde, oso nekatzen ziren.



De nuevo nos sucede que nos enfrentamos a una palabra que es conocida para muchos mayores de nuestro municipio pero que es extraña o inexistente en el uso común actual. Se trata de la palabra *lupetza* que en Laudio pronunciamos como *lupetxa*, *lupecha*. Significa 'barro'.

Es un vocablo característico del extremo occidental de Bizkaia, usual en comarcas como la de Arratia, Orozko, Nervión o Uribe-Kosta.



Es el mismo significado que tiene el término *lokatz* en otros lugares. Como curiosidad diremos que si a *lupetz* 'barro', le añadimos el sufijo *—tza* que indica abundancia, tendremos de nuevo *lupetza*" pero ahora con el significado de 'barrizal', 'lodazal', 'ciénaga'...

Su origen probablemente esté en *lur* y *be*, 'tierra blanda'.

Las zonas de *lupetza* eran temidas en los antiguos caminos, más en especial en un valle tan húmedo y arcilloso como el nuestro. Al margen de la incomodidad para caminar y lo que ensuciaba, generaba grandes problemas para el transporte en carros, ya que las ruedas se hundían y era muy dificultoso el sacarlas. A mayor carga, más se hundía el carro y más complicado era luego reflotarlo para ponerlo de nuevo en marcha. Los animales de tiro, por otra parte, se fatigaban en sobremanera.

## LUPU

*Lupu* da berba hau euskara batuz idazteko modu zuzena, nahiz eta Laudion *lupo* esaten diogun. Zalantza barik, euskara galtzean hartu zuen —o amaiera, gaztelaniaren eraginez. Bestela esanda: *lupu* euskal berbaren aldaera da gure *lupo*, gaztelaniaren fonetikara moldatua.

Horretaz berba egitean, eta Laudiotik atera barik, jende askok 'uhandrea', 'arrabioa' edo baita 'eskorpioi' (*Buthus occitanus*) animaliarekin ere identifika-tzen duen jendea.

Euskal herri-kulturan beldurra eragiten dute animalia horiek guztiek, uste baitzen oso pozoitsuak zirela, berez, pozoirik ia ez duten arren. Hortaz, gaiztakeriaren idealizazioa eta sintesia da *lupu* hori, urrun eduki beharre-koarena. Gogoan dut txikia nintzela hainbat kontakizun botatzen zizkigutela, zehaztugabeak eta lausoak denak, *lupo* gaiztoak eragindako zorigaitzen inguruan; deabruzko animalia hura ia naturaz gaindiko gaiztakeriak egiteko gai zen.

Idea hori indartzen du *lupu* terminoaz izendatzea 'Kontakizun oso txarretako zomorro pozoitsua; baserrietan azaleko tumoreak eragiten zituzten hainbat gaixotasunen erruduntzat jotzen zen'. Horrez gain, 'madarika-zio', 'pozoj' edo 'baserrian oso ospe txarra duen animalia' esanahiak ere badauzka.

Hori dela eta, gauza txarren hezurmamitzea zen gure arbasoentzat, arris-kuaren aurreko antzinako beldurra...

*Lupu* berbak, edo *lupo*, gure aldaera modernoak, beraz, erakarri eta emozio-natu egiten gaituzte, gizaki legez dugun esentziara ekartzen gaituztelako, sentimendu eta sentsazioen sinpletasunera.



Hablaremos de *lupu*, porque así es como corresponde escribirlo en euskera, aunque en Laudio lo conocemos como *lupo*. Si duda, nuestro final en —o se debe a la influencia del castellano tras perderse el euskera. Es decir, que nuestro *lupo* es la versión de una palabra vasca, *lupu* adaptada a la fonética del castellano.

Al hablar de ello, encontraremos sin salir de Laudio, gente que lo identifica con la 'salamandra', el 'tritón' o incluso el 'escorpión' (*Buthus occitanus*).

En la cultura popular vasca todos ellos son animales temido por suponerse extremadamente venenosos aunque en realidad apenas lo son. Por ello el *lupu* era en realidad la idealización y síntesis de lo malo, de aquello de lo que siempre había que huir. Recuerdo como, siendo niños, nos contaban diversos relatos, indefinidos y difusos, sobre desgracias provocadas por el temido *lupo*, una especie de animal que entrañaba maldades casi sobrenaturales.

Nos refuerza esa idea el hecho de que con el término *lupu* se designen además 'salandija venenosa de muy mala leyenda en el caserío' diversas enfermedades que provocan tumores en la piel, 'maldición', 'veneno' o 'salandija venenosa de muy mala leyenda en el caserío'.

Por eso para nuestros antepasados era lo malo, el miedo atávico ante el peligro...

*Lupu* o nuestra variante moderna *lupo* son por tanto palabras que emocionan, porque nos lleva a nuestra esencia como seres humanos, a la mayor simplificación de los sentimientos y sensaciones.

## MAKERA

*Makera* berba erabiltzen dugu 'kumeak izan dituen txerri-emea', 'ama txerria' izendatzeko. Begirada batez bereiz daitezke, izan ere, kumeak izatean, animalia gorpuzta eraldatu egiten da: pisua handitzen du, eta, batez ere, errapeak askoz handiagoak egiten zaizkio, sabeletik zintzilik geratu arte.

Azaletik eta hain laburrean azaltzeak dakartzan gabezia guztiak gorabehera, esango dugu, oro har, txerri eme gazte eta emankorrek udaberrian jartzen direla irausi, eta, orduan, izaera ipurtarina hartzen dutela. Behin arrak estalitakoan, zuhurtziazko hiru aste eman behar zitzairen. Berriz irausi jarri izanaren zantzurik ez bazegoen, haurdun zeudela ulertzen zen. Gure baserritarrek zehatz-mehatz gogoratzen zuten haurdunaldiaren iraupena formula soil baten bidez: 3 hil, 3 aste eta 3 egun. 114 egun, alegia.



Epe horretan, animaliaaren gorputza eraldatu egiten da barruan dituen kumeen ondorioz eta horiek edoskitzeko prestakuntzaren ondorioz.

Horri dagokionez, esango dugu behin txerrikumeak jaiota, errape bana izango dutela, eta elkarren errapeak errespetatuko dituztela guztiek. *Makerak* hamabi errape ditu —arrazen arabera aldatzen diren arren—, bi lerrotan kokatuak, eta kumeak hamar inguru izan ohi dira. Hala ere, normala da kumaldi bakoitzean 8 eta 16 txerrikume bitartean ibiltzea. Errape baino txerrikume gehiago zeudenean, saskitxo batean hazten ziren soberakoak, sutondotik gertu, bero egon zitezten. Biberioiaz elikatzen ziren errapea uzteko unea iritsi arte.

Bestalde, atzeko errapeek esne gutxiago ematen dute aurrekoek baino, eta, horren ondorioz, kumeen artean neurri aldeak egoten dira.

Abelazkuntzak berezko dituen hazkuntzaren alderdi horiez gain, esan beharra dago *makera* terminoaren erabilera oso hedatua dagoela gure udalerrian, eta bizi-bizi. Bizkaieraren mendebaldeko aldaeraren berezko terminoa da. Beste zenbait lekutan, *urdanga* esaten zaio, baina, batez ere, *zerrama*, hau da, *zerri + ama*, 'txerrien ama'.

Edozelan ere, *makera* berba Enkarterriko gaztelanian eta ia Araba osoan erabiltzen da.

Amaitzeko, emakume batzuk izendatzeko ere erabili izan da *makera* terminoa, haien itxurarengatik edo jokabidearengatik. Esan gabe doa horrelako erabilerak onartezinak direla gaur egungo gizartean.



Cuando usamos la palabra *makera* estamos haciendo referencia a la 'cerda que ha criado', a una 'cerda madre'. La diferenciación se hace a simple vista ya que, con la crianza, se transforma el cuerpo del animal, aumentando en peso y, sobre todo, el de las tetas que, grandes, le cuelgan del vientre.

Explicado por encima y con todas las carencias de matices que pueda conllevar el describirlo tan brevemente, como norma general y habitual, las cerdas jóvenes y fértiles solían entrar en celo por primavera, mostrando un carácter inquieto. Una vez cubiertas por el macho, había que esperar tres semanas de cautela. Si no había nuevas muestras de estar en celo, se daba por hecho que estaban ya preñadas. La duración de la gestación era muy bien recordada por nuestros baserritarras con una simple fórmula: 3 meses, 3 semanas y 3 días. Es decir, 114 días.

Durante ese período el cuerpo del animal se transforma, como respuesta biológica a las crías que está gestando en su interior y por la preparación para la lactancia.



Una vez nacidas las crías, cada una de ellas tenía una teta que siempre era respetada por las demás. Son doce las tetas de la *makera* —aunque varían según las razas—, dispuestas en dos filas. Las crías, un promedio de diez, si bien es normal el fluctuar en un rango entre 8 y 16 crías por camada. En el caso de que fuesen más que las tetas, se criaban las sobrantes en un cesto con paja cerca del fuego para que estuviesen calientes. Se las alimentaba con biberón hasta llegar el momento del destete.

Por otra parte, las tetas traseras siempre suministraban menos leche que las delanteras lo que originaba una diferencia de tamaño entre las propias crías.

Fuera de estos aspectos propios de la cría ganadera, el vocablo *makera* está muy extendido en el uso actual de nuestro municipio, con plena vigencia. Se trata de un término propio del occidente del dialecto vizcaíno. En otras zonas se denomina *urdanga* o, sobre todo, *zerrama* que no es sino *zerri* + *ama*, 'madre porcina'.

En cualquier caso, la palabra *makera* se usa también en el castellano de Encartaciones y prácticamente toda Álava.

Para finalizar, también se ha usado entre nosotros el término *makera* para denominar de forma peyorativa a ciertas mujeres, bien por su aspecto, bien por su conducta. Sobra decir que este tipo de empleos son ya inaceptables en la sociedad actual.

## **MALADAR.** *Ikus / Ver* **HONDAKIN**

## **MALLUGI**

*Mallugi* berbarekin izendatzen dira, printzipioz, 'marrubi' guztiak: dena den, badira *ortu-mallugiak*, hau da, landatutakoak, eta *basa-mallugiak*, basokoak. Hala ere, gaur egungo Laudion, *mallugi* berba azken horiek izendatzeko erabiltzen dugu, hau da, 'baso-marrubiak' izendatzeko: aldi berean eguzkit-suak eta hezeak diren lekuetan hazten diren perla gorri horiek, txikitan hain arratsalde onak eman zizkiguten oparitxo bikain horiek.

Euskal Herriko mendebaldeko berba horren aldaera ugari daude: *mailuki*, *mauliki*, *maillugi*, *maillugai*, *mallugin*...

Jakina denez, *marrubi* edo *mailubi* deritze beste euskalkietan.

Fruituak udan biltzen dira eta, normalean, marrubi landuak baino apur bat mikatzagoak izaten dira. Hala ere, zapore indartsuagoa eta naturalagoa izaten dute, basoko fruitu guztiak bezalaxe. Gure inguruan, umeeek eskumutu-



rrekoak egin ohi zituzten horiekin edo, sarriagotan, iduneko ederrak, denak gustu handiz jan aurretik, jakina.



La palabra *mallugi* es con la que, en principio, se denominan todas las 'fresas', diferenciándose entre *ortu-mallugi*, cultivada, y *basa-mailugi*, la silvestre. Pero en la actualidad en Laudio usamos nuestra palabra *mallugi* para denominar esta última, 'la fresa silvestre', esas pequeñas perlas rojas que crecen en lugares húmedos y soleados a la vez, esas que tantas buenas tardes nos han hecho pasar cuando éramos pequeños.

Son diversas las variantes que existen de esta palabra propia del occidente vasco: *mailuki*, *mauliki*, *maillugi*, *maillugai*, *mallugin*...

En otros dialectos se denominan, como sabemos, *marrubi* o *mailubi*.

Los frutos se recogen en verano y generalmente saben un poco más ácidas que las fresas cultivadas. Pero a su vez su sabor es más contundente y natural, como todo lo silvestre. En nuestro entorno local, los más pequeños solían elaborar con ellas pulseras o bellos collares antes de ser devoradas.

## MALTE

Berba bitxia dugu hau, izan ere, euskarazko berba ez den arren, euskararen bitartez eraldatua erabiltzen dugu Laudion.

Edozein pertsona zaharri galdetzen badiogu, kafearen ordeko prestakina da *maltea*, alde batetik, kafeinaren efektu txarrak ekiditeko, baina batez ere, gerraostean zegoen kafe eskasiari aurre egiteko. Bere horretan edo txikoria-belarraz nahastua hartzen zen *maltea*. Geroago jaki dugu zeinen kualitate bikainak dituen organismoarentzat. Hori dela eta, berriz erabiltzen hasi gara, elikadura osasungarriaren ildo berriari helduta.

Laudion eta euskal mendebalde osoan *malte* legez ezagutzen duguna, berez, *malta* da berbaren erreferentea da, alegia: artifizialki ernetako eta txigortutako garagarra. Osagai bera erabiltzen da garagardoa fabrikatzeko, nahiz Iberiar Penintsulako ekialdean hain arrunta den "garagar ura" egiteko.

Baina heldu diezaiogun berbari berriro. Kontua da mendebaldeko euskararen, berba —*a* letraz amaitzen denean, baina artikulua izan gabe, bikoiztu eta —*ea* bihurtzen dela. Eta *giltza* edo *neska* berbak *giltzea* edo *neskea* bihurtzen diren legez, *malta* ere *maltea* bihurtzen da. Hortik amaiera artikuluekin



nahastera ez dago tarte handirik. Horiek horrela, *maltea* berbari erreparatuta, uste izan zen atzean zegoena *malte zela*, ez *malta*.

Eta horrelaxe hasi zen erabiltzen *malte* berba Bizkaia osoan; hainbeste orokortu zen horren erabilera, ezen *malta* terminoa baztertu ere egin baitzuen. Halaber, lagunduko zuen, ziur aski, portugesez *malte* deitzea, eta garai batean herrialde hartatik inportatutako paketeek horrela errotulatuak egotea.



Nos encontramos frente a una palabra curiosa ya que, sin ser propiamente del euskera, sí que la usamos en Laudio transfigurada como consecuencia de dicha lengua.

El *malte* es un preparado que se usaba como sustituto del café, por una parte para evitar los efectos perniciosos de la cafeína pero, sobre todo, para suplir la carencia de café que había en la posguerra o en épocas anteriores. El *malte* se tomaba solo o mezclado con achicoria. Posteriormente hemos sabido que sus cualidades para el organismo son extraordinarias. Por ello hoy en día está viviendo un repunte, gracias a los nuevos hábitos de alimentación saludable.

Aunque en Laudio y en todo el oeste vasco la conozcamos casi exclusivamente como *malte* en realidad se trata de la palabra *malta*, es decir, la cebada germinada artificialmente y tostada. El mismo ingrediente que se usa para la la fabricación de la cerveza o para hacer el granizado de "agua de cebada" tan típico del Levante.

Pero volvamos al vocablo. La cuestión es que, en el euskera occidental, cuando una palabra acaba con una —a propia —no artículo— se desdobra en —ea. Y así como palabras del tipo *giltza* o *neska* dan *giltzea* o *neskea*, también de *malta* se pasa a *maltea*. De ahí a confundir el final con un artículo poco recorrido ahí. Así, teniendo *maltea* se creía que lo que había detrás era *malte* en vez de la palabra *malta*.

Y es así como se empieza a usar *malte* en toda Bizkaia y se generaliza su uso hasta hacer extraño el término *malta*. A ello ayudaría asimismo el hecho de que en portugués se denomine *malte* y que por ello en algún caso los paquetes importados de ese producto apareciesen rotulados como tal.





## MAMARRO

Nire familia ingurunean *mamarro* erabili izan dugu edozein zomorro txiki izendatzeko. Baina, bereziki, harrak izendatzeko balio zuen, zehazkiago, lodi, zuri eta oso jatun batzuk, zeintzuk loreen, zuhaitz zaharren eta antzekoen lurretan egoten baitzen.

Berez, Euskal Herrian hedatuago dagoen *mamorro* berbaren aldaera linguistikoa da *mamarro*, Nerbioi arrokoa, hau da, Orozko eta inguruko herrietakoa. Udalerri horretan, gainera, *mamaro* formaz gain, *mamarrao* ere erabiltzen da kalterik eragiten ez duten zomorro ez oso handien izen orokor legez.

*Mamarro* berbak, halaber, beldurra eragiten duen zerbait esateko erabil daiteke —uste dut hori dela definitzeko modurik zuzenena—, umeak beldurtzeko izaki ezezagun bat. Izan ere, izen hori dute jeinutxo mitologikoen ere. Baina utzi ditzagun adiera horiek hurrengo berbaren definizioan hobeto azaltzeko.



En mi entorno familiar hemos solido usar la palabra *mamarro* para denominar a cualquier 'bichillo', siempre de tamaño pequeño. Pero servía en especial para denominar a los gusanos y, más concretamente, a unos gruesos, blancos, muy voraces, y que se localizaban en la tierra de las flores, árboles viejos, etc.

En realidad, *mamarro* es la variante lingüística que hacemos en la cuenca del Nervión, Orozko, etc. de la palabra *mamorro*, más generalizada en el resto de Euskal Herria. En este último municipio se usa además de *mamaro* la forma *mamarrao* con la que se denominan a todos aquellos bichillos perjudiciales no muy grandes.

*Mamarro* adquiere asimismo el valor de "algo" —la mejor manera de definirlo— que produce miedo, un ser desconocido con el que poder aterrorizar a los pequeños. De hecho así se denominan también unos geniecillos mitológicos. Pero dejemos estas acepciones para explicarlas mejor con la palabra siguiente.

## MAMAU

*Mamau* berba umeekin erabiltzen da, familian, txikienak beldurtzeko baliatzen den irudizko izaki bat izendatzeko. Laudion gatzelaniaz "va a venir un



*mamau* y te va a coger" esatea "el coco" edo "el hombre del saco" etorriko dela esatea bezalakoa da.

Aldaera desberdinak ditu berbak gure herritik kanpo: *mamalo*, *mamautu*...

Baliteke jatorria soinu deigarri batean izatea, beste barik. Baina halaber, posible dirudi lehenago ikusitako *mamarro* berbarekin zerikusia izatea; esan bezala, berba horrek 'zomorro' txikiak izendatzeko balio du, baina baita giza-kiak gogaitzen dituzten jeinu mitologikoak izendatzeko ere.

Beste aukera bat litzateke *mamu* berbarekin lotzea, (fantasma, munstroa), eta, berez, sinesgarriena dirudi, izan ere, hor dugu *mamautu* aditza —*mamutu* aditzaren aldaera dialektala—, hau da, 'mozorrotutako pertsona, pertsona transfiguratu', edo 'ergeldua, sorgindua, deabrutua'.

Hori egia bada, gure *mamau* hori izango litzateke 'fantasma bihurtu den norbait, gaur egungo *zombien* baliokidea, nola edo hala berpiztu daitekeen gorpu bat'.



La palabra *mamau* se usa en Laudio dentro del entorno del lenguaje infantil para hacer referencia a un ser imaginario, no real, con el que se infunde miedo a los más pequeños. Decir en Laudio "va a venir un *mamau* y te va a coger" es como decir en castellano que va a venir "el coco" o "el hombre del saco".

Son diferentes las variantes de esta palabra fuera de nuestro municipio: *mamalo*, *mamautu*...

Puede ser que su origen sea un sonido llamativo, sin más. Pero también parece factible que estuviese relacionada con la palabra *mamarro* que hemos visto en la palabra precedente, con un significado de 'bicho' y hasta de 'genios' mitológicos que molestan a los humanos.

Otra opción sería la de enlazarla con *mamu*, 'fantasma, monstruo, coco' y parece tratarse de la más convincente ya que existe el verbo *mamautu* —una variante dialectal de *mamutu*— que no significa sino 'alguien disfrazado, transfigurado' hasta 'atontado, poseído'.

De estar en lo cierto, nuestro *mamau* sería 'alguien que se convertido en fantasma', el equivalente al *zombi* moderno, 'un cadáver que de una u otra manera puede resucitar o volver a la vida'.



## MAMI

*Mami* berba erabiltzen da Laudioko gaztelanian gaur egun ere ogiaren barruko aldea izendatzeko. Genero maskulinoa hartzen du: "deja de comer el *mami* del pan".

Egia esan, gure gertuko erabilera-esparrutik kanpo, *mami* berbaz izendatzen da edozein elementuren zatirik haragitsuena. Berdin balio du fruten, hezurrik gabeko okelaren, hezur-muinen eta abarren kasuan.

Halaber, funtsa edo fundamentua definitzeko balio du, oro har. Horiek horrela, *mamitu* esaten dugunean, hau da, *mami egin*, zerbait egia bihurtu dela, gorpuztu dela esaten ari gara. Halaber, eta berriz berbaren kontzeptu orokorretik atera barik, gauza baten zati interesgarria deskribatzeko ere balio du, gai baten esentzia, arazo edo kontzeptu baten muina.

Dena den, errepikatu egingo dugu: gure udalerrian ogiaren barruko zati bigunari deitzeko baino ez du balio gaur egun.



La palabra *mami* se usa aún en Laudio para designar la parte más blanda del pan, su interior, la 'miga'. Lo usamos como masculino: "deja de comer el *mami* del pan".

En realidad, y ya fuera del uso de nuestro ámbito local, *mami* designa a la parte más carnosa de cualquier elemento. Puede referirse a la pulpa de una fruta, la carne sin hueso, el tuétano, etc.

También es habitual hacer uso de ella para definir la substancia en general. Así cuando decimos *mamitu* nos referimos a que algo se ha hecho realidad, que se ha materializado. También, y de nuevo sin salir del concepto general de la palabra, sirve para referirse a lo interesante de una cosa, a su esencia, lo más intrínseco de un problema o concepto.

Pero, insistimos, en nuestro municipio su uso está ya limitado al de 'miga de pan'.

## MANCAR

Ez dakigu zergatik baina gure herri ustean uste izan da berba hori oso gurea dela, berezkoa eta, batzuetan, euskararekin zerikusia duela uste izan da.

Errealitatetik urrun dagoen pertzepzioa da, gaztelaniazko terminoa delako, Palentzian, Asturiasen, Txilen... bezalako tokietan oso erabilia eta Espainiako Errege Akademiak bere Hiztegian ere jaso duena.



'Min hartzea', 'zauritzea', 'elbarritzea'... esan nahi du, eta latinezko *mancus* hitzean du jatorria, "zerbait falta" esan nahi baitu. Jatorri berekoa dira gaztelaniazko *manco* 'besobakar' hitza edo *manquer* 'falta izan' aditz frantsesa. Laudion eta bere inguruetan, halere, min hartzeari egiten dio erreferentzia: "Ten cuidado, no te vayas a *mancar*".



No sabemos debido a qué pero, en los ambientes populares, se ha solido considerar esta palabra como muy propia de nuestra comarca e, incluso, se la relacionado con el euskera.

Nada más lejos de la realidad. Se trata de un término del castellano, muy usado en zonas como Palencia, Asturias, Chile... y recogido asimismo en el *Diccionario* de la Real Academia Española.

Hace referencia al 'lastimarse', 'hacerse daño', 'lisiarse'... y tiene su origen en la palabra *mancus* del latín con el significado de 'faltar algo'. Del mismo origen son el castellano *manco* 'que le falta un brazo' o el verbo francés *manquer* 'faltar'.

Pero es el de 'hacerse daño' el significado que se le da en Laudio y su comarca: "Ten cuidado, no te vayas a *mancar*".

## MARMEAR

Euskaraz, *marmar egon*, *marmar egin* esamoldeak esan nahi du "mar-mar-mar" egitea, hau da, "txutxu-mutxutan ibiltzea, xuxurlatzea".

Halaber, gogo txarreko 'murmurioetan ibiltzea' esan nahi du, hau da, haserrearen haserrez, 'ahopeka eta berbak ondo artikulatu gabe hitz egitea'. Eta esanahi horrekin erabiltzen da Laudion, hain zuzen ere, hala *marmear* aditza, nola horren eratorri baliokidea, *marmujear*, baita *marmeón* / *marmeona* izena ere, zeina etengabe *marmeando* dabilen pertsonari esaten zaion. Izan ere, gurean "se pasa todo el día *marmeando*" edo "¡Qué *marmeona*! No hace más que *marmujear* a todas horas" horixe da: nekagarriro marmarka ibiltzea, ahopeka protestatzen, esaten dena modu ulertezinean ahoskatuta. Ikusten denez, jatorria euskaran dute bi berba horiek, baina forma gaztelaniaratzaila eman zaie.



Las expresiones de euskera *marmar egon* o *mamar egin* significan literalmente estar o hacer "mar-mar-mar" o, lo que es lo mismo, 'cuchicheando, susurrando...'.  
 Asimismo significa 'murmurar' pero de mal grado, es decir, con el valor de 'refunfuñar', protestar por lo bajo y sin siquiera articular bien las palabras. Es con este significado con el que se usan en Laudio tanto el verbo *marmear* como su derivado equivalente *marmujear* o el sustantivo *marmeón* / *marmeona* que es la persona protestona que *marmea* sin cesar. Decir en nuestro municipio que alguien "se pasa todo el día *marmeando*" o "¡Qué *marmeona*! No hace más que *marmujear* a todas horas" es exactamente eso: estar refunfuñando, protestando por lo bajo, sin dar a entender lo que dice. Como vemos, estos últimos son vocablos con origen en el euskera pero a los que se les una forma castellanizante.

**MARMEÓN/A.** *Ikus / Ver MARMEAR*

**MARMUJEAR.** *Ikus / Ver MARMEAR*

## MATXIN

Gurean txoritxo maitagarririk bada, hori dugu *matxin* izenekoa, azentua *i* hizkian jarria duela. Esaten denez, zorte ona, maitasuna, ontasuna eta abar ekartzen ditu. Ez da gure berezko sinesmena; Europa osoan hedatua dago. Gaztelaniaz, *petirrojo* esaten zaio, eta, euskara globalizatuan, *txantxangorri*. Mendebaldeko euskaraz, inguruan ditugun herri euskaldunetan gertatzen den legez, *txindor* da txori horren ohiko izena.

Baina kontua da gure eskualdean txoriaren ezizena edo goitizena gailendu dela, *matxin*, alegia: ez dago gure udalerrian txori horri *matxin* edo horren txikigarri *matxintxu* deitzen ez dion baserritarrik, *txindor* berba ezagutu ere egiten ez duten bitartean.

*Matxin*, berez, 'Martin, Martie' izenaren lagunarteko aldaera da, eta hala deitzen zitzaien gure burdinoletan lan egiten zuten ofizialei. Ziur aski, txoriaren kantua eta mailuak burdina goriaren gaina jotzean ateratzen duen soinu erritmikoak duten antzetik etorriko da izena, gutxi gorabehera, *txantxangorri* izenean *txan-txan-txan* soinu-errepikarekin gertatzen den legez.



Edonola ere, gera gaitezen *matxin* edo *matxintxu* txoria adur ona eta etxerako auguriorik onenak ekartzen dutelako ideiarekin. Edozer egiten zen gertu edukitzeko. Aurkako lekuan dago (*tx*)*epetxa*, gaztelaniaz, *chochín*, dago-kion sarreran ikusi dugunez, txoririk madarikatuena baita; horren ondorioz, desagerrarazteko saiakerak egin dira beti.

Tratu hain ezberdinari logika minimo bat emateko, azalpen bitxi berbera eman ohi dute behin eta berriz gure zaharrek: Jesukristo gurutziltzaturik eta hiltzorian zegoela, *epetx* batek gurutzearen gainean kaka egin zuen. Laidoarekin eskandalizaturik, *matxintxu* bat joan zen berehala zikinkeria mokoaz garbitzera. Harrezkero, zeruko nahiek markatuta geratu ziren *epetxen* nahiz *matxinxuen* zoria. Hala ere, sinesmen zaharrak dira, paganoak, hau da, kristautasunaren aurrekoak, beraz, ez dute zerikusirik ebanjelioetan esaten denarekin, eta fabula baten bidez justifikatu behar izan zuten kristautasunean txertatzeko.

Hain txoritxo maitagarri, ongile eta gertukoa izanda ez da harritzekoa Ruperto Urquijok behin eta berriz aipatzea *matxina* bere abestietan. Laudioko haurtzaindegiaren izena *matxintxu* izatea, Orozkoko emakumeen taldearen izena *Matxintxu* izatea edo *matxintarrak* (matxinaren zaleak) Aretako (Laudioko) talde mitiko baten izena izatea ere ez dira kointzidentzia hutsak, izan ere, azken talde horren armarrian txantxangorri eder bat ageri zen.

Aparteko ahalegina egin beharko litzateke hezkuntzaren esparrutik *matxin* eta *matxintxu* izenak ez galtzeko, gure-gureak ditugulako. Izango dugu tartea besteren batean *petirrojo*, *txantxangorri* eta enparauetarako. Izan ere, desberdinak dira *matxinak*: geure gauzarik berezkoena dira.



Si hay un pajarillo especialmente querido en nuestra cultura popular ese es el *matxin*, acentuado *matxín*. De hecho, se le atribuye la buena suerte, el amor, la bondad... No es una creencia propia sino que se encuentra generalizada por toda Europa.

En castellano se conoce como *petirrojo* y como *txantxangorri* en el euskera globalizado. Sin embargo, es *txindor* en el euskera del occidente vasco, como sucede en los pueblos euskaldunes que nos rodean.

Pero sucede que en nuestra comarca se ha impuesto su sobrenombre o apodo *matxin*: no existe baserritarra en nuestro municipio que no lo denomine *matxin* o su diminutivo *matxintxu* a nuestro pajarillo, mientras que desconocen la palabra *txindor*.

*Matxin* significa 'Martín', dicho en un lenguaje cercano, y era el apodo genérico con el que en euskera se denominaba a los oficiales que trabajaban en



nuestras ferrerías. Probablemente la gran similitud del sonido de su canto con el golpeteo rítmico de los martillos sobre el hierro candente dé lugar a dicho nombre, algo similar a la resonancia onomatopéyica del *txan-txan-txan* que encierra la denominación *txantxangorri*.

En cualquier caso, quedémonos con la idea de que el *matxin* o *matxintxu* era portador de la buena suerte y los mejores augurios para la casa. Todo parecía poco para intentar tenerlo cerca. En el lado opuesto estaba la *(tx)epetxa*, el 'chochín', como ya vimos en su entrada correspondiente, el pájaro maldito por excelencia y al que siempre se ha intentado exterminar.

Para dotar de una mínima lógica a tan dispar trato, se recurre a una curiosa explicación que repiten una y otra vez nuestros mayores: estando Jesucristo agonizando, una *epetxa* defecó sobre la cruz. Escandalizado con la afrenta, acudió raudo un *matxintxu* para limpiar la porquería con su pico. Desde entonces, la suerte de todas las *epetxas* y *matxintxus* quedó marcada por los designios celestiales. Aunque nada tenga que ver con lo recogido en los evangelios, ya que se trata de creencias más antiguas, paganas, previas al cristianismo y que este justifica por medio de una fábula para integrarla en su credo.

Siendo una avecilla tan entrañable, benefactora y familiar no es de extrañar que Ruperto Urquijo nos traiga el *matxin* una y otra vez a sus canciones. Ni que la guardería de Laudio reciba el nombre de *Matxintxu*, o que *Matxintxu* sea el grupo de mujeres de Orozko o que *Matxintarrak* —'los amantes del matxin'— fuese un grupo legendario de Areta (Laudio), cuyo dibujo del escudo estaba culminado por un bello petirrojo.

Habría que hacer un esfuerzo extraordinario desde la enseñanza para no perder el nombre de *matxin* o *matxintxu*, tan nuestro. Ya habrá sitio en otras ocasiones para *petirrojos*, *txantxangorris* o similares. Porque los *matxines* son diferentes: son lo más nuestro que tenemos.

## MAUS

Dagoeneko, ez da *maus* berbaren esanahi zehatza gogoratzen duen inor bizirik geratzen. Hala ere, entzun egiten da oraindik ere leku jakin batzuei erreferentzia egiteko. Hala, baditugu Balentxako, Landaluzeko, Goienuriko *maus* izeneko guneak, besteak beste.

Ez dakigu zer ezaugarri erreparatu zitzaion izendapen horiek ipintzeko. Dirudenez, landu gabeko lursailak ziren, aprobetxatu gabeak, sasitzen antzekoak. Horrexegatik, eta ez daukagunez oinarri legez erabiltzeko beste erreferentziarik, ausartu egin beharko gara espekulatzerara *mausa* landarearen izena



datzala oinarrian —gaztelaniaz, *yezgo*—, 'intsusa txiki' legez ere ezagutzen den landare belarkararena, alegia.

Kasualitate izan zein ez, nahiko arruntak dira landare horiek Goienuriko Arrañon dauden eta gorago aipatu ditugun *maus* izeneko lekuetan.

Beste aukera bat litzateke *mausar* berebarekin lotzea. 'Alubioiko lurra', 'uholdeek ibai bazterretan uzten duten lohia, bereziki orbel ustel asko daukana' da berebaren definizioa, baina ez da erabiltzen gure inguruan, eta ez dator bat ur-korronteak dauden lekuekin.

Ez dakigu ezer ziurtasun osoz, baina egoki iritzi diogu berba hau hemen jasotzeari, oroimen galduaren hortzek triskatu ez dezaten.



No vive nadie ya que recuerde qué significaba exactamente el vocablo *maus*. Sin embargo aún se escucha para referirse a determinados lugares. Existen "el *maus*" de Balentxa, el de Landaluze, el de Goienuri... entre otros.

Y no se sabe a qué característica hacía referencia para que se denominasen así. Al parecer eran terrenos inclultos, desaprovechados, un tipo jaro.

Por ello, sin más referencias a las que aferrarnos, nos atrevemos a especular con la posibilidad de que detrás esté el nombre de la planta *mausa*, 'yezgo', una especie de herbácea conocida también como 'sauco menor'.

Casualmente esas plantas son relativamente comunes en los *mauses* antes citados, todos ellos en Arraño de Goienuri.

Otra opción sería la de relacionarlo con *mausar* 'tierra de aluvión', 'limo que dejan en las riberas las riadas, sobre todo con mucha hoja podrida' si bien ni la palabra se usa en nuestro entorno ni se corresponde a lugares con corrientes de agua.

Nada sabemos a ciencia cierta pero parecía oportuno incluirla aquí para que no la devoren las fauces de la desmemoria.

## MEHEKO

Laudion pertsona edo animalia batez esaten dugunean *mehekoa* dela —*méko* ahoskatuta—, esan nahi dugu 'argala, makala, ahula' dela.

Euskarazko jatorrizko berbak ez du genero-bereizketarik: "mutil *meheko* bat" edo "neska *meheko* bat" esan dezakegu arazo barik. Baina gaztelaniaz erabiltzen dugunean bai, hizkuntza horrek berezko dituen genero-ezaugarriak eransten dizkiogu, beraz: "un chaval *meheko*" eta "una chavala *meheka*"





esaten dugu. Bestela esanda: ez da euskara, ezta gaztelania ere, baizik eta bi hizkuntzen arteko nahasketa xeble samarra.

*Mehe* barbari —*ko* txikigarri zaharra erantsita lortzen da *meheko*; bide bere-tik sortu genuen *mutiko*, hau da, *mutil* hitzaren bidez. Beraz, zehatzago esanda, *meheko* berbaren baliokidea izango litzateke 'argaltxo'. Euskal Herriko mendebaldeko berba da, batez ere, Arratia-Nerbioi eskualdekoa.

Berba bertoko kultura altxorrean bilatuta, hor dugu Ruperto Urquijoren *Isabel y Pepe Meko* abestia. Bertan esaten zaigu *Pepe Meko* izeneko baten —oso argala izango zen baten— alaba gorteiatzera joan zirela bi gazte, "está vieja y sin casar" 'zaharra eta ezkongabea' zelako, abestiaren arabera. Eskopeta aterata erantzun zion neskaren aitak atrebentzia horri, baina ardo zahatoa eskaini zioten ondoren, trebezia handiz eskaini ere, eta *Pepe Meko* haren haserrea baretu egin zen, gorputzez txiki izanik ere, umore benetan txarrekoa baitzen. Azkenean, abestiak dioenez, alaba Isabelen eta hura gorteiatzeko koadrilakoen laguntza eskatu zuen Patxo gaztearen arteko ezkontzarekin amaitu zen istorioa.

Laudio zaharreko pertsonaia klasiko biren arteko istilu etengabeek, ostera, emaitza txarragoa izan zuten, Rupertoren abesti honetan jaso bezala: *El grande Chano*. Haietako bat —Vetri "el Cordobés" ezizenekoa— handia eta otzanagoa zen, eta bestea "grande Chano" edo "Media libra" goitzenekoa, ile-apaintzaile altueraz txikia zen, *mehekoa*, baina umore txar trinko-trinkoarekin. Horiek horrela, Rupertoren abestian mehatxuak eta erronkak botatzen ibiltzen da, iseka nabarmenez gainera: «*Soy un barbero meheko / yo soy el orduñés, / vengo a afeitarse en seco / al Vetri, el Cordobés*».

Beraz, argi ibili *mehekoekin*, batzuetan, itxurak ez baitu egia esaten.



Cuando al hablar de una persona o animal decimos que está o es un *meheko* —pronunciado *méko*— queremos indicar que está 'delgado, debilucho, enclenque'.

La palabra original en euskera no hace distinción de género: puede decirse "mutil *meheko* bat" o "neska *meheko* bat" perfectamente. Pero al usarlo nosotros en castellano, sí le damos características de género propias de esta última lengua y así, diríamos: "un chaval *meheko*" o "una chavala *meheka*". Es decir, que no es ni euskera ni castellano sino una mezcla un poco extraña de ambos idiomas.

La palabra *meheko* se forma a partir de *mehe* 'delgado, flaco' al que se le une un antiguo diminutivo, —*ko*, al igual que de *mutil* 'chico' hacemos surgir *mutiko* 'chiquillo'. Es decir, siendo más exactos, *meheko*, significaría 'flaquillo',



'flacucho'. Es una palabra propia del occidente vasco, especialmente de la comarca de Arratia-Nervión.

Trayendo nuestra palabra al acervo cultural local, tenemos la canción de Ruperto Urquijo "*Isabel y Pepe Meko*" en la que cuenta la aventura de unos muchachos que fuero a rondar a la hija de un tal *Pepe Meko* —al que suponemos muy delgado—, porque "está vieja y sin casar" según cuenta la canción. A tal osadía respondió el padre sacando una escopeta hasta que, gracias al hábil ofrecimiento de la bota para beber vino, se calmaron los ánimos de aquel *Pepe Meko* que era pequeño de cuerpo pero no de mal humor. Al final, cuenta la canción, aquella historia concluyó con el matrimonio entre la hija, Isabel, y Patxo, el joven que había pedido ayuda a sus amigos para ir a cortejar a la muchacha.

Peor resultado tuvieron las continuas disputas entre dos personajes clásicos de Laudio antiguo y que se reflejan en otra canción de Ruperto: *El grande Chano*. Uno de ellos —apodado Vetri "el Cordobés"— era grande y más tranquilo mientras que el otro, de sobrenombres "grande Chano" o "Media libra", era un peluquero pequeño de estatura, *meheko*, aunque con el mal carácter bien concentrado. Así, amenazaba desafiante en la canción de Ruperto, no con poca sorna, diciendo: «*Soy un barbero meheko / yo soy el orduñés, / vengo a afeitarse en seco / al Vetri, el Cordobés*».

Así es que, cuidado con los *mehekos* que las apariencias a veces engañan.

## MERRO

Aurreko berbaren kasuan bezala, honetan ere, pertsona edo animalia batez berba egitean, *merro* dela edo *merro* dagoela esaten dugu Laudion adierazteko itxura edo 'morfologia argalekoa, iharra dela'.

Eta kasu honetan ere, euskarazko jatorrizko berbak ez du genero-bereizketarik: "mutil *merro* bat" nahiz "neska *merro* bat" esan daiteke arazo barik. Baina gaztelaniaz erabiltzen dugunean bai, hizkuntza horrek berezko dituen generoezagarriak eransten dizkiogu, beraz: "un perro *merro*" edo "una oveja *merra*". Bestela esanda: berriz ere nahaste arraroa egin dugu bi hizkuntzekin. Gainera, euskarazko *merro* berbatik *merrotu* aditza eratortzen dugu, baina, tamalez, ezezaguna zaigu Laudion gaur egun. 'Murritzitu, txikiagotu' esan nahi du eta berdin erabiltzen da pertsonekin, animaliekin, landareekin nahiz, esaterako, ur korronteekin.

Pertsonen kasuan, argala, iharra, meharra izatearen ezaugarri horrek batzuetan Laudion 'gaixobera, osasunez delikatua' esan nahi duen arren, ez da hori *merro* berbaren esanahi zehatza.



Al igual que nos sucedía con la palabra anterior, también en esta ocasión cuando, al hablar de una persona o animal, decimos en Laudio que está o es un *merro* pretendemos indicar que cuenta con una morfología o aspecto de 'delgado, chupado'.

De nuevo, la palabra original en euskera no hace distinción de género: puede decirse "mutil *merro* bat" o "neska *merro* bat" perfectamente. Pero al usarlo nosotros en castellano, sí le damos características de género propias de esta última lengua y así, diríamos: "un perro *merro*" o "una oveja *merra*". Es decir, que de nuevo hacemos una fusión extraña de ambos idiomas.

La palabra *merro* cuenta en euskera además con el verbo *merrotu* que por desgracia desconocemos ya en Laudio. Significa 'menguar', 'hacerse pequeño' y se aplica indistintamente a personas, animales, plantas o, entre otras, a corrientes de agua.

En las personas, esa característica de 'delgado, flaco, chupado, consumido'... también conlleva a veces en nuestro municipio la percepción de 'enfermizo, delicado' aunque no es en sí el significado literal de la palabra *merro*.

## MEMELO

*Memelo* terminoa tonu zertxobait iraingarriaz erabiltzen da gure udalerrian, normalean, 'ganora bariko pertsona, gatzbakoa, buru-argi urrikoa' izendatzeko. Gaztelaniara egokitu dugunez gure herrian, maskulinoaren eta femeninoaren arteko desberdintasuna markatzen dugu, *memelo* eta *memela*, nahiz eta, euskaran, berbaren jatorrizko hizkuntzan, horrelakorik ez dagoen. Hizkuntza horretan, *memel* aldaera ere badago, eta alde batera utzita bertoko erabilerari eman diogun esanahia, biei, *memel* nahiz *memelo* berbei, beste esangura bat erantsi behar diegu: 'gauza soila, sinplea'. Horiek horrela, R. M. Azkuek *euri memel*, 'llovizna' erreferentzia ematen du bere *Hiztegi ospetsuan* (1905), 'euri arina' izendatzeko.



El término *memelo* se usa en nuestro municipio con un cierto aire despectivo, por lo general para referirnos a una 'persona insustancial, insulsa, de pocas luces'. Como está adaptado al castellano, lo articulamos con la distinción entre masculino y femenino, *memelo* y *memela*, algo que no existe en el euskera, su lengua de origen.



En este idioma cuenta asimismo con la variante *memel*, y ambas, *memel* y *memelo*, al margen del significado que ya le hemos atribuido a nuestra utilización local, tenemos que sumarle el de 'cosa sencilla, simple'. Así, R. M. Azkue ofrece en su *Diccionario* (1905) la referencia de *huri* ['llovizna'] *memel* para referirse a la 'llovizna'.

## MILLU

Euskal geografian zehar, berba honen hainbat aldaera aurkitu ditzakegu, esaterako: *mirilu*, *mirula*, *merilu*, *migelo*, *mullu* eta abar. Baina *milu* forma da —*millu* ahoskatuta— gurean eta inguruetan erabiltzen duguna.

Adarkatze ugari duen landare belarkara da *milua*. Areketan eta leku laiotz baina zabaletan aurkitu dezakegu, besteak beste. Oso aromatikoa da, zapore gozokoa. Medikuntzan eta janarietarako bizigarri legez erabiltzen da. *Mihilu* deitzen zaio euskara batuaz, eta gure herrian jende askok ezagutuko du *Corpus Cristi* egunean etxe aurrean ipintzen zen alfonbra modukoaren osagai nagusia baitzen *milua* —garai batean, ospakizun garrantzitsua zen, baina, gurean, 1989an utzi zion jaiegun izateari. *Miluaren* gainean beste lore batzuk edo arrosa petaloak ipintzen ziren.

Landare hau izendatzeko aldaera lexiko ia amaiezina ez da euskararen ezauzgarri eksklusiboa, gaztelaniaz ere izen kopuru zenbatezina dauka: *abrojo*, *acinoji*, *acinojo*, *acinoju*, *aguardiente*, *ahinojo*, *alinoji*, *alinoju*, *almacio*, *anisete silvestre*, *anís bravo*, *arinojo*, *cañiguera*, *cenajo*, *cenoyo*, *cinajo*, *eneldo*, *enojo*, *esmeldo*, *espárrago bravo*, *fanoyo*, *fenol*, *fenoll*, *fenullo*, *fenículo*, *finojo*, *fiollo*, *funcho*, *hacinojo*, *henajo*, *hierba de San Juan*, *hierba santa*, *hinoja*, *hinojo*, *jenoyo*, *jinojo*, *linojo*, *matalahuga*, *matalauva*, *perejil burrero*, *perejil de gitano*, *perejilón*, *senijo*, *sinijo*, *tenajo*, *tinajo*, *zenajo*, *zenoll*, *zenollo*, *zenullo*, *zinoja*, *zinojo* eta abar.

Gure *milua* berbak eta gaztelaniazko *hinojo* horrek sustrai bera dute: latinezko *feniculum* dute biek jatorrian, 'belar txar' edo 'albitz [*fenus*] txiki' esanahia duen.

Edonola ere, belar berezia da eta magikotzat edo santutzat hartu izan da, beraz, komeni da ez ahaztea, sinesmenen alorrean duen ondare-balioari erreparatuta.



A través de la geografía vasca, encontraremos variantes diversas como *mirilu*, *mirula*, *merilu*, *migelo*, *mullu*, etc. Pero es la forma *milu* —que en Lauadio pronunciamos *millu*— la que usamos en nuestro pueblo y alrededores.



El *milu* es una planta herbácea de muchas ramificaciones que podemos encontrar en las cunetas, en sitios más bien sombríos aunque abiertos, etc. Sus características son el ser muy aromática, de gusto dulce. Sabemos además que se usa en medicina y como condimento.

Se trata del 'hinojo' y en nuestro pueblo mucha gente lo recordará porque delante de los caseríos se ponía el día del *Corpus Cristi* —antaño una fiesta de gran renombre y que dejó de ser festiva entre nosotros en 1989— una especie de alfombra floral en la que el principal componente era el *milu* y sobre él se esparcían otras flores o pétalos de rosa.

La multiplicidad casi ilimitada de variantes léxicas para denominar esta planta no es solo algo del euskera ya que en castellano son interminables sus nombres: *abrojo, acinoji, acinojo, acinoju, aguardiente, ahinojo, alinoji, alinoju, almacio, anisetesilvestre, anís bravo, arinojo, cañiguera, cenajo, cenoyo, cinojo, eneldo, enojo, esmeldo, espárragobravo, fanoyo, fenol, fenoll, fenullo, fenículo, finojo, fiollo, funcho, hacinojo, henojo, hierbadeSanJuan, hierba santa, hinoja, hinojo, jenoyo, jinojo, linojo, matalahuga, matalauva, perejilburrero, perejildegitano, perejilón, senijo, sinijo, tenojo, tinojo, zenajo, zenoll, zenollo, zenullo, zinoja, zinojo, etc.*

Tanto *milu* como *hinojo* proceden de una raíz común: el término del latín *fenuculum* que viene a significar algo así como 'hierbajo', un 'heno [*fenus*] pequeño'.

En cualquier caso, es una hierba especial y se ha tenido por mágica o santa por lo que conviene no perderla de nuestra memoria, también por su valor patrimonial en el campo de las creencias.

## MINZA

*Mintza* berba erabiltzean —gurean, *mínza* ahoskatuta—, hurritzaren makiletatik, baina, bereziki, gaztainondoaren makiletatik ateratzen diren zumitz batzuei egiten diegu erreferentzia. Horiek saretuta, otzarak, aulki-ipurdiak, eta beste hainbat gauza fabrikatzen da: "hay que comprar un cesto de *minzas* para sacar la basura". Gaur egun ere, *minza* da horiek izendatzeko berbarik arruntena; bakarra dela esatera ere ausartuko nintzateke.

Egia esan, *mintza* berbak zerbait estaltzen duen edozein 'geruza fin' izendatzeko balio du: arrautzaren oskolaren azpian dagoena, esnea egostean eratzten den esne-gaina, gaztainen azalaren azpian dagoen azal mingotsa, sugeek azala aldatzean atzean uzten dutena, hezur batzuk estaltzen dituen *mintza*, etab. Esanahi horiek guztiak ezezagunak ditugu Laudion gaur egun. Hori dela eta, *mintza*, alegia, gure *minza* berbak ez digu arazo handiegirik



sortzen, gaur egun, zurezko zumitz horietarako baino ez dugulako erabiltzen.

Baina euskara galdu ez duten herrietan, besteak beste, Orozkon zein Zeberion, lehenago aipatutako esanahi zerrenda horrekin darabilte *mintza* berba. Horrexegatik, gaztainondoeko zumitzena eta gainerako esanahiak bereizteko modu bat behar dute, eta, beraz, *zimetza* edo *zimentza* erabiltzen dute; horiek, halaber, *zumentza* nahiz *zumintza* berben aldaera hedatuagoak baino ez dira. Azken buruan, den-denak datoz *zur* + *mintza* berba konbinaziotik, alegia, 'zurezko mintza', edo 'zurezko geruza'.

Baina guk nahikoa eta soberan dugu *minza* berbarekin —euskarazko idazkera zuzena *mintza* da—, ezer gehitzeko beharrik ez dugu. Bere horretan, ondo.

Bestalde, gogoan izan behar dugu Laudio gaztainondoengatik eta gaztainondoetarako bizi izan zela, eta zuhaitz horiek osatzen zutela gure basoen zatirik handiena. Horregatik erabili izan da hainbeste horien zura eta horregatik gordetzen dute gaur egun ere baserri askoan aihotz bitxi bat; bi eskuez tiratuta, gaztainondo xafla horiek ateratzeko balio du, betiere, zura denbora luzez uretan izan ondoren.



Al usar la palabra *mintza* —pronunciada entre nosotros *minza*—, nos referimos a unos flejes que se extraen de las varas de avellano o, sobre todo, de castaño. Luego se entretejen y se forman con ellos cestos, culos de sillas, etc.: "hay que comprar un cesto de *minzas* para sacar la basura". Aún hoy en día *minza* es la forma más habitual y diría que única para denominarlos. En realidad, la palabra *mintza* designa cualquier 'película' o 'membrana fina' en el euskera occidental: la que se encuentre bajo la cáscara del huevo, natilla que se forma en la leche, piel amarga interior de las castañas bajo su corteza, piel de la que se desprenden las serpientes al hacer la muda, una telilla que cubre algunos huesos, etc. Todos ellos son significados que nosotros hoy en día desconocemos en Laudio. Por ello *mintza* —nuestra *minza*— no nos genera mayor problema, porque solamente la usamos hoy en día para esos flejes de madera.

Pero en pueblos en los que no perdieron el euskera, como pueden ser Orozko o Zeberio entre otros sí que usan *mintza* con todo ese abanico de significados. De ahí que, para referirse a nuestros flejes de madera, necesitan diferenciarlo de las otras posibilidades y usen *zimetza* o *zimentza*, variantes de las más extendidas *zumentza* o *zumintza* y que en realidad proceden todas de *zur* + *mintza*, es decir 'mintza de madera' o tira de madera'.



Pero a nosotros nos sobra y basta con la palabra *minza* —*mintza* en su escritura correcta en euskera— sin tener que añadirle nada. En estado puro.

Laudio, por otra parte, ha sido un pueblo que vivió por y para los castaños y éstos ocupaban la mayor parte de nuestros bosques. De ahí que su madera haya sido muy usada y en muchos caseríos se conserve aún la curiosa cuchilla que, tirando con las dos manos, sacaba aquellas finas tiras de castaño, tras haberlas tenido largo tiempo en el agua.

## MIRRIZKI

Gutxienez nire familia ingurunean, *mirriski* berba erabiltzen genuen 'persona edo gauza txikiei' esateko. Pertsonen erreferentzia egiten diegunean ere, 'ahulak, meharak, indarrak gabeak' izendatzeko baliatzen dugu.

*Mirrizkin* terminoaz ari gara, hau da, 'gutxi jaten duen persona', eta, zalantza barik, *mirri* berbarekin dago erlazionatuta, zeinak Orozkon eta gertuko beste leku batzuetan 'aurpegi iharrekoa, argala' esan nahi baitu. Izan ere, *mirritu* aditzak ere —hacerse *mirri*— esan nahi du 'ahitzea, leher eginda geratzea'.

Eta espekulazioaren eremuan sartuta, ez dakit noraino izan dezakeen gaztelaniazko *esmirriado* berbaren jatorri bera; gaztelaniazkoaren sustraia, bestalde, portugesezko *mirrado* berban dago, zeinak 'iharra, zimeldua' esan nahi baitu.

Hasierara itzulita, ez da oso zaila ulertzea euskarazko *mirrizkin* eta Laudioko gaztelaniazko *mirrizki* berben arteko lotura —azken hori, *mirriski* ahoskatua—, alegia, amaierako —*n* galtzea. Antzekoa zerbait gertatuko da *txakolin* / *txakoli* edota *pitikin* / *pitiki* berbeekin, baina aurrerago jorratuko dugu hori.



Al menos en mi entorno familiar se usa la palabra *mirriski* para referirnos a las 'personas o cosas pequeñas'. O cuando nos referimos a personas, también 'débiles, delgaduchas, sin fuerza...'.  
Se trata del término *mirrizkin*, 'persona que come poco' y sin duda está relacionado con *mirri* que, en lugares como el cercano Orozko, significa 'de cara enjuta', 'esmirriado'. De hecho, también el verbo *mirritu* —'hacerse *mirri*'— significa 'extenuarse, demacrarse'.

Y, tirando de especulación, no sé hasta qué punto puede tener el mismo origen que la palabra de castellano "*esmirriado*", procedente del portugués "*mirrado*" 'amojamado', 'marchito'.



Volviendo a nuestro municipio, no cuesta mucho entender la diferenciación entre el *mirrizkin* del euskera y nuestro *mirrizki* —pronunciado *mirriski*—, es decir, esa pérdida de la *-n* final. Debe de ser similar a lo que nos sucede con *txakolin* / *txakoli*, *pitikin* / *pitiki*, etc y que ya trataremos más adelante.

## MOKOTZA

Berba hau nahasgarria da, ez delako inongo hiztegitan edo beste lekutan jaso Laudion eta inguruetan ematen diogun adierarekin. *Mokotza* berbak —gaztelaniaz, *mocócha* ahoskatuta— zuhaitz enbor handiak izendatzeko balio du. Zuhaitzaren enborra bera edo zuhaitzen adar nagusietako bat izendatzeko balio dezake, azken kasu horretan, adar malgua bainoago, enborraren zati denean.

Eta 'handia', 'mardula' esanahi horrekin berarekin aplikatzen diegu pertsona obesoei edo tamaina handikoei, oraingoan bai, genero bereizketa eginda: "¡Vaya *mokotzo* de hombre!".

Oso berba hedatua da *mokotza*, eta, Orozkoko euskaraz, behintzat, esanahi horrekin erabiltzen da.

Hala eta guztiz ere, ez dugu berba aurkitu kontsultatu ditugun askotariko lanetan edo hiztegitan. Aitzitik, badaude gure udalerritik kanpo 'gaztaina-kirikinoa' edota 'artaburua' izendatzeko adierak eta aratuste garaian egiten diren ogi berezi batzuei deitzeko ere erabiltzen da; ogi horien hiru muturrek lehenago deskribatu dugun *jaiko* ogia ekartzen digu gogora.



Este término resulta desconcertante ya que no se recoge en ningún diccionario ni lugar con la acepción que en Laudio y alrededores le damos. Al decir *mokotza* —pronunciado *mocócha*— nos referimos a un grueso tronco de árbol. Puede tratarse del propio tronco o de una de sus ramas principales, en su parte baja, cuando tiene más de tronco rígido que de rama flexible.

Por esa significación de 'grande', 'grosso', también lo aplicamos para referirnos a las personas obesas o de gran envergadura, ahora sí, incluyendo además la versión de género: "¡Vaya *mokotzo* de hombre!".

La de *mokotza* es una palabra muy extendida y que, al menos, se usa con ese significado en el euskera de Orozko.

Pero acudiendo a trabajos varios o diccionarios no la localizamos. Sí, sin embargo fuera de nuestro municipio para referirnos al 'erizo del castaño', 'mazorca de maíz' o incluso unos tradicionales panes que se hacen en torno





al carnaval y que, por su forma en tres picos, nos recuerda al que aquí describimos anteriormente en la entrada del término *jaiko*.

## MOLINTXIN

Gaitza da esaten berba hau euskarazkoa, gaztelaniazkoa, edo, uste dugun legez, bien nahasketa den. Gure eskualde osoan oso erabilia da eta, normalen, errota partekatuei egiten die erreferentzia, gaztelaniaz *viqueros* deritzenei; errota horietan, partaide bakoitzak ehotzeko txanda edo ehotze-eskubide batzuk zeuzkan. Errota edo bolu partikularretan, ostera, errotariari ordaintzen zitzaion ehotze-zerbitzuarengatik.

Noiz edo noiz, *molino* terminoaren txikigarri legez entzun dugu *molintxin* berba, baina salbuespena edo bitxikeria izan da beti. Adiera hori ez da kon-tuan hartzeko modukoa, beraz, eta *molintxin* berbaren erabilera orokortuak ematen duen esanahiaren alde egingo dugu, txandaka errotei erreferentzia egiten duenaren alde, alegia.



Resulta difícil discernir sobre si esta palabra pertenece al euskera, al castellano o, como pensamos, a una mezcla de ambas. En toda nuestra comarca es de gran uso y, por lo general, hace referencia a aquellos molinos compartidos, los denominados *viqueros*, en los que cada partícipe tenía unos turnos o derechos de molienda. Se denominan así en oposición a los molinos particulares en los que se pagaba al molinero por el servicio de la molienda.

En ocasiones hemos constatado el uso del término *molintxin* —*molinchín*— como diminutivo de *molino* pero es siempre con carácter de excepcionalidad o rareza. Tanto como para no tenerlo en cuenta y decantarnos por el significado que nos ofrece el uso generalizado del vocablo *molintxin*, en referencia a los molinos *viqueros*.

**MOLLINA.** *Ikus / Ver* **ZIRIMIRI**



## MOROKIL

Ez da egongo *morokila* zer den ez dakien laudioar zaharrik, bere garaian gutxienez, behin baino gehiagotan hartuko baitzuten denek.

'Arto irinez egindako ahi otamena' da; txikiek eta nagusiek hartzen zuten gosaldu edo afaltzeko, gosea asetzeko ahalmen handia du eta. Baserrietan, goseari aurre egiteko baliabide garrantzitsua izan zen.

Arto irina esnearekin nahastuta prestatzen zen, baina esnea urri zenean, urarekin ere egiten zen. Behin lodituta, azpil edo plateretan zerbitzatzen zen eta, horren gainean, azukrea botatzen zen. Jaterakoan esnea gehitzen zitzaion gainean, normalean, esne beroa.

Berez, udalerrian *morokil* lege ezagutzen duguna gaztelaniaz 'polenta' esaten dena da; hizkuntza horretan, *gacha* edo *farineta* ere deitzen zaio.

Euskaraz, berbaren beste aldaera batzuk ere erabili izan dira gure herritik kanpo, esaterako, *morokilo*, *morakil*, *morikila* edo *moakil*, baina *morokil* da gure eskualdeari dagokiona eta hedatuena. Likido bat 'lodia' dela esateko ere erabili izan da, gure udalerrian adiera hori galdua daukagun arren.



No habrá laudioarra de cierta edad que no sepa lo que es el *morokil*, ya que habrá sido su alimento en más de una ocasión.

Se trata de una especie de 'papilla hecha con harina de maíz' y que consumían pequeños y mayores para desayunar o cenar, por su gran capacidad de saciar. Fue un recurso clave para sobrellevar el hambre en los caseríos.

Se preparaba mezclando harina de borona —maíz— con leche aunque, cuando escaseaba esta, era también habitual hacerlo con agua. Una vez bien empastado, se echaba a unas fuentes o platos y, sobre todo ello, se espolvoreaba azúcar. A la hora de comerlo se le añadía leche por encima, normalmente caliente.

En realidad lo que llamamos en nuestro municipio *morokil* es la 'polenta', una papilla que en castellano también se conoce con los nombres de *gacha* o *farineta*.

En euskera y fuera de nuestro pueblo se han usado otras variantes como *morokilo*, *morakil*, *morikila* o *moakil*, siendo la de *morokil* la que corresponde a nuestra zona y la más extendida. También se ha usado como adjetivo para indicar 'espeso', si bien es una acepción que ya nosotros no conocemos.



## MORROSKO

*Morrosko* berba erabat hedatua dago gure artean eta gaur egun bizi-bizi dago horren erabilera eta ezagutza. 'Mutil gazte, sendo, lirain eta handikoteari' esaten zaio. Eta *mutil* esan dugu euskaraz ere gizonezkoei baino ez zaielako aplikatzen. Izan ere, eskualde batzuetan *andre* eta *emakume* berben antonimo legez erabiltzen da.

Berba bitxia da, gero. Adibidez, Euskal Herriaren beste muturrean, Erronkariko euskaraz, 'mutiko edo ume koskor' esan nahi du, gurean duen esanahiaren guztiz kontrakoa.

Berbaren jatorria ere erakargarria da. Berez, *morrone* berba zaharraren aldaera da. Gaur egungo euskaraz *morroi* eman du, alegia, 'zerbitzaria, mirabea, laguntzailea, sehia' eta, oro har, nekazaritza lanetan eta abarretan laguntzeko kontratatzen diren mutil gazteak; eta jakina, zilegi zaigu pentsatzea indartsuak izango zirela.



La palabra *morrosko* está plenamente extendida entre nosotros y se identifica y usa con plena vigencia. Hace referencia a un 'muchacho fornido, robusto, corpulento...'. Y decimos *muchacho* porque en euskera se usa para hacer mención al masculino. Tanto es así que en algunas comarcas se emplea como contraposición a *andre*, *emakume*, 'mujer'.

Es un vocablo curioso. Sin ir más lejos, en nuestro otro extremo de país, en el euskera del Roncal (Navarra), hace referencia a un 'muchachillo, un chiquillo', justo lo contrario de lo que significa en nuestra zona.

Su origen es también sugerente. En realidad es una derivación de la antigua palabra *morrone*, la que hoy conocemos como *morroi*, que significa 'criado, sirviente, ayudante, dependiente', muchachos jóvenes contratados como apoyo para labores del campo, etc. y que se presuponían fuertes, claro está.

## MOZKORRA

*Mozkorra* terminoa txantxazko tonuan erabili ohi da. Guk, Laudion, *moskórra* ahoskatzen dugu gaztelaniaz. Erreferentzia egiten dio 'mozkorraldiari', hau da, alkoholdun edari gehiegi edateagatik agertzen den egoerari, zeinak zentzumenak nahasten dituen eta jokabide normala eraldatzen duen.

Beste leku batzuetan, 'hordi dagoen pertsona' izendatzeko ere balio du, bereziki, alkoholismoak jotakoa.



Ez dirudi oso berba zaharra denik, ez baita esanahi horrekin dokumentatu XIX. mendera arte. 'Artaburu aletua' eta 'zuhaitz enbor handia' adierazteko esanahiarekin ostera, bai. 'Mozkorraldia' izendatzeko esanahi hori baldartasun sentzazioak emango ziolakoan gaude, mozkorraren pisuak eragindako trakestasun horrek.

Baina ezagut dezagun jorratzen ari garen berbaren ibilbide linguistikoa. Lehenago emandako esanahiez gain, mozkorra berba zuhaitzetako 'irtenguneak' adierazteko ere erabiltzen zen, zehazki, zuhaitzei ateratzen zaizkien tumore itxurako irtenguneei deitzeko. Irtengune horietatik abiatuta eta alde-raketa bat eginda, *mozkor* izena hartu zuten emakumeen bularrek lehenago, eta bularrak erakusten zituzten emakumeek gero. Eta hortik, are urrunago joanda, gaztelaniak *mozcorra* berba hartu du 'emagalduek' izendatzeko, 'bular handiko emakumeen' esanahia hedatu ostean.

Hala ere, esan denez, Laudion esanahi bakarrarekin erabiltzen da, hau da, hasiera batean aipatutako 'horditasun' edo 'mozkorraldi' adierarekin.



El término *mozkorra* suele ser usado habitualmente con un tono jocoso. Nosotros, en Laudio, lo pronunciamos *moskórra*. Hace referencia a la 'borrachera', ese 'estado de embriaguez producido por la ingestión excesiva de bebidas alcohólicas y que trastorna los sentidos, deformando la conducta normal'.

En otros lugares, también sirve para denominar a la 'persona borracha', en especial al enfermo por alcoholismo.

No parece ser una palabra muy antigua, ya que no se documenta con ese significado antes del XIX. Sí lo hace con los de 'mazorca de maíz desgranada' o 'tronco grande de árbol'. Suponemos que el significado de 'borrachera' lo dará la sensación de torpeza y de llevar un gran peso que conlleva la embriaguez.

Pero conozcamos un curioso recorrido lingüístico de la palabra que nos ocupa. Al margen de los significados dados anteriormente, el vocablo *mozkorra* se usaba y usa para denominar unas 'protuberancias', una especie de 'bultos tumorosos de los árboles'. De esas protuberancias y haciendo un símil de los mismos, pasó a llamarse *mozkor* a los pechos grandes primero y, después, a las mujeres que los lucían después. Y de ahí, rizando más el rizo, adopta el castellano el término *mozcorra* para denominar a las a las 'prostitutas', por extensión del significado de 'muchachas de pechos voluminosos'. Pero, como se ha dicho, en Laudio solo se usa con un significado, con el inicialmente citado de 'borrachera', 'embriaguez'.



## MOZOLLO

Laudion, *mozollo* erabiltzen da —gaztelaniaz, *mosóllo* ahoskatuta— pertsona burumotelari esateko, gehienetan, tonu amultsuan, gaztelaniaz *tordo* edo *torpe* erabiltzen diren legez.

Berez, *mozollo* berba —idazkera jasoan *mozolo* idatzita— eta gaztelaniazko *mochuelo* sinonimoak dira, eta gaueko hegazti harraparia izendatzeko balio du. Esanahia hedatuta, gaueko iluntasunean ibiltzen diren harrapari guztiei deitu zaie: hontzak, txirristak, mozoloak, adiakariak, urubiak...

Eta horrexegatik erabiltzen da gure ibarretik urrun *mozollo* berba 'aurpegi biribila eta betea duten pertsonak' izendatzeko.

Dena den, Nerbioi arroko euskaran beste esanahi bat hartzen du, esan dugun legez: 'lotia, loguratua, burumotela, tentela, ergeldua, leloa'. Baina Laudion berba gozotu egin dugu, eta 'patxadati' edota 'lodixko' esanahia du. Zalantza barik, hegaztiaren itxura maitagarriak izan du zerikusirik.



En Laudio, usamos *mozollo* —pronunciado *mosóllo*— para utilizarlo en referencia a una persona algo limitada, en tono cariñoso, y que es como llamarle 'tordo', 'torpe'...

En realidad *mozollo* hace referencia al 'mochuelo', —*mozolo* en escritura académica— un ave nocturna y, por extensión, en muchas ocasiones se ha usado para denominar a todas la rapaces que actúan en la oscuridad de la noche: lechuzas, búhos, mochuelos, autillos, cárabos...

De ahí que también se use el término *mozollo* para, lejos de nuestro valle, denominar a las 'personas de cara redonda, llena'.

Pero en el euskera de la cuenca del Nerviión adquiere el significado de, como hemos dicho, 'adormilado, soñoliento, tardo, tonto, atolondrado, lelo...', si bien en Laudio lo hemos dulcificado mucho y es sinónimo de 'tranquilote' o hasta de 'regordete'. Sin duda, por el gracioso aspecto del ave en cuestión.

## MUKURRE

Laudion ez da zaila jende zaharra entzutea sua pizteko gauzarik onena *mukurrak* erabiltzea dela esaten; sukaldeko 'su-tokiaren albo bakoitzean jartzten diren enbor handiak' eta erdian egur zati txikiagoak ipini behar omen dira.



Tokiko gaztelanian, enbor horiei *mukurre* zein *mokotza* esaten zaie, nahiz eta kontzeptu hau izan: *mukurre mokotza* baino zertxobait handiagoa da. Biak *arrimadero* bezala ere ezagutzen dira.

*Mukur* berbaz ari gara, artikulua erantsita, *mukurra*. Hala ere, jakin badakigunez, euskararen mendebaldean, Laudio dagoen tokian, beraz —*a* artikulua —*e* bihurtzen da ahoskatzerakoan baldin eta aurreko soinua —*i* (*ardia* > *ardie*) edo —*u* bada (*txakurra* > *txakurre*).

Eta horrela da Laudion erabiltzen den modua: "poner un *mukurre* a cada lado" edo "colocar unos *mukurres* buenos", singularrean eta pluralean erabiltuta, hurrenez hurren.

Esanahi bat baino gehiago dauka *mukurra* berbak gure mugetatik kanpo. Guri interesatzen zaiguna da 'zuhaitzaren adar lodia' edo 'zuhaitzaren oinarria' edo 'enborrharen beheko aldea' izendatzen duena, nahiz eta batzuetan 'zuhaitzaren orpo'a edo 'zuhaitzaren enborrharekin egindako ikatza' ere adierazi dezakeen. Azken batean, esanahi berdina edo oso antzekoa eman genion *mokotza* barbari.

Azkenik, gogora ekarri behar dugu Laudion zegoen ohitura bat, Gabon gauean enbor oso handi bat erretzea. Naturaz gaindiko ezaugarriak egokitzten zitzaizkion, magikoak. Enbor horri, Bizkaian eta Laudion seguruenik *gabon-mukurra* esaten zitzaion.



No es extraño escuchar en Laudio, a la gente de cierta edad, que lo mejor para encender un fuego bajo es colocar un par de *mukurres*, uno a cada lado, y poner leña más menuda en el centro.

En el castellano local, esos maderos se denominan por igual *mukurre*, *mokotza* si bien se tiene el concepto de que el *mukurre* es algo mayor que la *mokotza*. También se conocen ambos como *arrimaderos*.

Se trata de la palabra *mukur* y que, al añadirle el artículo, se convierte en *mukurra*. Pero, como sabemos, en el territorio más occidental del euskera —donde se ubica Laudio— ese artículo —*a* se convierte en —*e* a la hora de pronunciarlo, si el sonido que le precede es una —*i* (*ardia* > *ardie*) o una —*u* (*txakurra* > *txakurre*).

Y es así como lo usamos en Laudio: "poner un *mukurre* a cada lado" o "colocar unos *mukurres* buenos", con su uso en singular y en plural respectivamente.

*Mukurra* es una palabra que adquiere diversos significados ya fuera de nuestra demarcación. El que nos atañe a nosotros es el de las 'ramas gruesas de árbol', 'base del árbol, parte inferior del tronco', 'cepa de árbol' o, incluso en



algunas zonas, el 'carbón hecho de tronco de árbol'. Al fin y al cabo, con similar o idéntico significado que el que dimos a la palabra *mokotza*. Para finalizar recordemos que en Laudio existía la costumbre de quemar un gran tronco la noche de Navidad. Se le atribuían cualidades sobrenaturales, mágicas. Pues a ese madero en Bizkaia, y suponemos que también en Laudio, se le llamaba *gabon-mukurra*.

## MUNA

*Muna* berba oso bizirik dago Laudion nekazaritzarekin edo abeltzaintzarekin harremanen bat duen jendearen artean, eta asko erabiltzen da.

Aitzitik, ez da erraza horren esanahia zedarritzea. Nolabait esateko, 'labore desberdin bi dauzkaten sail bi mugatzeko erabiltzen den lur muinotxo luzanga' da.

Gaztelaniaz, *ribazo* esaten zaio 'finka bi edo labore bereizten dituen ildobizkar edo muinotxoari'.

Laudion ematen diogun erabilera zehatz hori gorabehera, edozein 'gune goraturi' esateko erabiltzen da beste leku batzuetan, baita 'muinoak' edo 'mendi ez oso garaiei' esateko ere. Zenbait lekutan, 'muga' esanahiarekin ere erabiltzen da. Horrexegatik uste du batek baino gehiagok *muna* eta *muga* berbek erro bera dutela.

Hala ere, berbaren ezaugarri berberak dituzten arren, inguruotako *muno* nahiz *muino* aldaerak ez ditugu erabiltzen gurean. Hortik dator, esateko, *Una-muno* abizena, zeinak 'behizainaren muinoa' esan nahi duen: *unai* + *muno*.

Amaitzeko, hona hemen bitxikeria bat: *muna* berbaren azkeneko —a hori artikulua da Bizkaiko zonalde batzuetan (izan ere, *mun bat* esaten da) baina, gainerakoetan, Laudio eta inguruko herrietan barne, —a hori berezkoa du berbak, ezin da bereizi: "*muna* bat", "una *muna*".



La palabra *muna* está muy vigente y en pleno uso entre la gente de Laudio que tiene una mínima relación con el mundo de la agricultura o de la ganadería.

No es fácil de explicar su significado. Se trata de una especie de 'lomo de tierra alargado que se usa para delimitar dos piezas o cultivos o usos del terreno diferentes'.

En castellano se conoce como *ribazo*, que es un 'lomo o caballón de tierra que divide dos fincas o cultivos'.



Al margen de ese uso concreto que le damos en Laudio, en otros lugares se usa para denominar 'cualquier elevación', tanto como denominar las 'colinas' o 'montañas no muy elevadas'. En ciertos lugares, significa incluso 'límite'. De ahí que hay quien opine que nuestra palabra *muna* y *muga*, 'límite, frontera' parten de la misma raíz.

Otras variantes cercanas de la palabra, con idénticas características pero de fuera de nuestro uso local, son *muno* o *muino*. De ahí, apellidos como *Unamuno*, 'la montaña del vaquero', de *unai* + *muno*.

Para finalizar, citemos una curiosidad: la *—a* final de la palabra *muna* es artículo, por lo que en algunas zonas de Bizkaia, se dice *mun bat*, mientras que en el resto, incluidos Laudio y su pueblos cercanos, esa *—a* es parte intrínseca de la palabra y no puede separarse: "*muna bat*", "*una muna*".

## MURKO

Laudion *murko* esaten zaie 'pertsone gogaikarri, hotz eta ez oso adierazko- rrei, berba gutxi egiten dutenei'. Eta bitxia da horren azalpena.

Berez, *murkoa* da 'pitxer lakarra, apur bat hondatua', baina 'pixontzia' ere. Eta ezaguna da euskarak ontzien izenetatik irainak eratortzeko duen joera: *tontolapikoa, kaikua...* Beraz, ontzia zenbat eta zakarrago, hobe. Gaztelaniazko "tonto del *bote*" edo "estar mal de la *olla*" ez dabilta urrun...

Bada, horietako bat da gure kasua, eta horregatik erabiltzen dugu kalitate- rik txarreneko ontzi baten izena iraindu nahi dugun pertsona deskriba- tzeko.

R. M. Azkuek berak jaso zuen bere *Hiztegi* ospetsuan (1905) *murko* berba, 'pertsone zakarra' esanahiarekin Orozko, Arrankudiaga, Plentzia, Gernika eta beste zenbait herritan. Gure herriko zaharrenek ere hala erabiltzen dute gaur egun.

Euskara galdu ez zuten herri mugakideetan, horrez gain, badira beste for- mula batzuk, adibidez: "*murko dago*" esaten da 'norbait haserre' dagoela adierazteko. Formula horiek ere argi uzten dizkigute terminoaren ezaugarri iraingarriak. Horren oroigarri bat geratu zaigu suari aplikatzeko. Sua biziago- tzea lortzen ez denean, garrek indarrrik hartzen ez dutenean, sua *murko* dagoela esaten da



Se dice en Laudio que alguien es *murko* cuando es 'desagradable, seco, poco expresivo, que no habla'. Y la explicación del término es curiosa.





En realidad, *murko* es un 'jarrón basto, algo golpeado', incluso un 'orinal'. Y ya es sabida la costumbre del euskera de generar insultos con nombres de recipientes: *tontolapikoa*, *kaikua*... Y cuanto más tosco sea éste, mejor. Un estilo al "tonto del *bote*", "estar mal de la *olla*", etc. del castellano.

Pues bien, nuestro caso es uno más de ellos y por eso se usa el nombre de un recipiente, de la más infame calidad, para describir a la persona que se desea injuriar.

El mismo R. M. Azkue recogió en su *Diccionario* (1905) la palabra *murko*, con la acepción de 'persona grosera' en pueblos como Orozko, Arrankudiaga, Plentzia, Gernika... la misma que usa aún la gente más mayor de nuestro municipio.

En los pueblos limítrofes en donde no se perdió el euskera, existen además fórmulas como "*murko dago*", 'está enfadado' que nos dejan a las claras las características peyorativas del término. De ello nos ha quedado un recuerdo, que aplicamos al fuego. Cuando no acaba de conseguir viveza éste, cuando no consiguen las llamas coger fuerza, se dice que el fuego está *murko*.

## MUSIERO/A

*Musiero* izenondoa edo emakumeentzako *musiera* aldaera erabiltzean, zizkamizkan ari den, hau da, han-hemenka zentratu barik jaten dabilen animalari egiten diogu erreferentzia. Aurrerago jorratuko dugun *suskiñar* aditzetik oso hurbil dago.

Den arraroa izanda, batzuetan berba oso euskalduntzat jo izan den arren, egokiagoa dirudi lotzea ia erabiltzen ez den gaztelaniazko *musiar* aditzarekin, zeinak 'kexatu, intziri egin, garrasi egin, hasperenka ibili, muzindu, zinkurinatu, erreklamatu' esan nahi duen. Haren senide dugu *mustiar*, 'zimeltzea'.



Al usar el adjetivo *musiero* o su variante femenina *musiera* hacemos referencia a una persona o animal que anda comiendo ligeramente, aquí y allá, sin centrarse. Es concepto es muy similar al del verbo *suskiñar* que trataremos más adelante.

A pesar de que por su extrañeza a veces se ha tenido por palabra muy propia, en realidad más adecuado parece relacionarla con el verbo del castellano *musiar*, en desuso, y que significa 'quejarse, gemir, clamar, suspirar, gimotear, sollozar, reclamar'. Se emparenta con *mustiar*, 'marchitar'.



## MUSTRUKEAR. *Ikus / Ver* MUSTURKEAR

### MUSTRUKEAR

Laudion, *musturkear* edo horren *mustrukear* aldaera erabiltzen dugu basurdeek, txerriek eta abarrek zelaietan muturraz induska ibiltzen direneko ekin-tzari esateko. Euskarazko *mustur* berbatik dator, zeina *mutur* estandarraren mendebaldeko aldaera den. Hortaz, gaztelaniazko 'hociquear' eta 'hocicar' berben baliokidea da *musturkear*.

Hedakuntza semantikoa eginda, 'bazterrak nahastea, mahaian zizka-mizketan ibiltzea, armairu bat nahastea' esateko ere badarabilgu *musturkear* gurean... Gaztelaniazko "meter el morro" esamoldeetik hurbil samar, beraz.



Al usar *musturkear* o su variante *mustrukear* nos referimos en Laudio al revoltijo que provocan en las campos los jabalíes, cerdos, etc. cuando lo escarban con el hocico. Proviene del vocablo de euskera *mustur* 'morro, hocico', variante occidental de *mutur*. Es decir, *musturkear* es el equivalente al 'hociquear' u 'hocicar' del castellano.

Por extensión, también se usa *musturkear* en nuestro municipio con el fin de designar el 'revolver, picotear en la mesa, revolver un armario'... que no anda lejos de la expresión "meter el morro" del castellano.

## MUTIKO. *Ikus / Ver* MUTIL

### MUTIL

*Mutil* berba ezaguna da oso, eta gure udalerriko gaztelanian ere erabiltzen da. Ohikoa da "¿Qué andas, *mutil*?" eta antzeko esamoldeetan. 'Ume, gazte-txo edo gazteei' egiten die erreferentzia, betiere, oraindik ezkongabeak direnean.

Gainerako mutilek dagoeneko familia osatzeari ekin diotenean edo beranduago ere ezkongabe geratzen direnei *mutilzaharra* deritze —gurean, *mutil-sárra* ahoskatuta—, edo, bestela esanda, 'zaharko' edo 'senton'.

Badakigu Erdi Arotik erabiltzen dela *mutil* berba Aiaraldean: «*Sancho Pérez de Motila, que tomó este nombre porque, criándolo el rey don Alonso que fue*



*en la de Alarcos, le preguntó que como llamaban al mozo en su tierra de vascuence e dijo que "motila"; e por esto le llamo el Motila e así se llamaron los que sucedieron de él» (Bienandanzas y Fortunas, 1475).*

*Mutil* berbaren txikigarria lortzeko, —ko atzizkia eransten zaio, eta, horrela, *mutiko* lortzen dugu, hau da, 'mutiltxoa, mutil txikia', *mutila* baino gazteagoa den gizonezkoa. Beste barik, gertutasun edo maitasun handiagoa adierazteko ere egiten da hori. Kasu honetan ere, gaztelaniaz, "¡Ánimo, *mutiko*!" eta beste formula gutxi batzuetan baino ez da erabiltzen, ume bati berba egitean.

Hala *mutil* berbak, nola hortik eratorritako *mutilzahar* edo *mutiko* berbek gizonezkoentzat baino ez dute balio.



La palabra *mutil* es sobradamente conocida y usada aún en el castellano de nuestro municipio. Es común en expresiones del tipo "¿Qué andas, *mutil*?". Hace referencia a los 'niños' o a los 'mozos' o 'muchachos' de cierta edad pero todavía solteros por la edad.

Pero cuando esa soltería se mantiene en edades en las que el resto de chicos ya forman su propia familia o incluso más tarde, pasan a ser *mutilzaharra* —pronunciado entre nosotros como *mutilsárra*—, 'solterón' o, traducido al pie de la letra, 'chico viejo'.

Sabemos del uso de la palabra *mutil* en Ayala desde la Edad Media: «*Sancho Pérez de Motila, que tomó este nombre porque, criándolo el rey don Alonso que fue en la de Alarcos, le preguntó que como llamaban al mozo en su tierra de vascuence e dijo que "motila"; e por esto le llamo el Motila e así se llamaron los que sucedieron de él» (Bienandanzas y Fortunas, 1475).*

Un diminutivo de *mutil* se consigue añadiéndole la partícula diminutiva —ko y así obtendremos *mutiko* que es 'muchachillo' o 'chavalillo', alguien más joven y pequeño que *mutil* o, sin más, usado como fórmula expresiva para indicar más cercanía o cariño. También en esta ocasión su uso está limitado a fórmulas del tipo "¡Ánimo, *mutiko*!" para dirigirnos a algún niño.

Tanto en la palabra *mutil* como en las de sus derivadas *mutilzahar* o *mutiko*, hacemos referencia al género masculino.

**MUTILZAHAR.** *Ikus / Ver* **MUTIL**



## NARRA

*Narra* bat zurezko 'larda' bat da, 'lera zarpail baten antzekoa', gainean askotariko gauzak garraiatzeko gurdirik eskuratu ezin zenean edo maldarengatik edo dena delako arrazoiengatik gurdia egokia ez zenean. Taula batzuekin fabrikatzen zen edo, beste barik, ebakitako adar batzuekin. Malda handiko lekuetan hainbat gauza garraiatzeko balio zuen, esaterako, belar moztu berria.

M. Larramendi (1745) eta beste zenbait egilek gailuaren alderdi morfologikoen arteko aldeak antzeman zituzten, baina guri ezinezkoa zaigu horiek bereiztea gaur egun: «...*del vascuence "narra", que significa la 'rastra cuadrada', a diferencia de "lera" que es triangular*».

Berba beraren aldaera bat da *narrria*, baina Laudion ez dugu erabiltzen.

Gaztelaniak euskarazko *narra* berba maileguan hartu zuen, Espainiako Errege Akademiak bere hiztegian jaso legez.

Antzekotasunaren ondorioz edo, gure herrian pertsona pisu eta lodiei esan izan zaie *narra*, txantxazko tonuan: "¡Menuda *narra* de persona; a ver quién la saca de la cama!"



Una *narra* es una 'rastra' de madera, una 'especie de trineo' rústico sobre la que se acarreaban diversos elementos cuando no se disponía de un carro o cuando éste, por la excesiva pendiente o lo que fuese, no era apropiado. Se fabricaba con algunas tablas o, sin más, con unas ramas cortadas sobre las que se transportaba, por ejemplo, la hierba recién segada en una gran pendiente.

Autores como M. Larramendi (1745) apreciaban la diferencia en aspectos morfológicos del aparato en sí pero que a nosotros hoy en día se nos escapan: «...*del vascuence "narra", que significa la 'rastra cuadrada', a diferencia de "lera" que es triangular*».

Otra variante de la misma palabra pero que no usamos en Laudio es la de *narrria*.

La palabra del euskera *narra* fue asimismo adoptada por el castellano desde el euskera tal y como se indica el diccionario de su Real Academia Española. Por semejanza, en nuestro pueblo se ha usado también el término *narra* para referirnos en tono jocoso a una 'persona muy pesada y gruesa': "¡Menuda *narra* de persona; a ver quién la saca de la cama!"



## NASTADO. *Ikus / Ver NASTAR*

### NASTAR

Gure herrian, *nastar* aditza erabiltzen da gaztelaniaz —*nastár* azentuatua—, hau da, euskarazko *nahastatu* aditza, zeina *nahastu* forma estandarraren aldaera baino ez den. Aditzak sortzeko —*ar* hori gehituta, gaztelaniazko aditza sortzen da.

Zerbaiten osagaiak nahasten direnean erabiltzen dugu, esaterako, abereentzako janaria prestatzean.

Hain zuzen ere, *nastado*, hau da, *nastar* aditzaren partizipio hipotetikoa, edozein gauzarekin egindako nahaspilak edo nahasketak izendatzeko erabiltzen da. Ondorioz, 'nahasketa' bat izango litzateke *nastado* bat. Berba horren erabilera bereizgarria animalien janaria izendatzekoa da, bereziki, txerriena: irin apur bat, barazki xehatuak, gizakien janari-hondarrak... Horri deitu ohi zaio *nastado*, normalean, *nastao* ahoskatuta, jakina.

Bitxikeria legez esango dugu su gainean *laratzu* batetik eskegitako eta ur beraz betetako lapiko batean garbitzen zirela gure baserrietan gizakien janarirako platerak. Gero, ur horrekin prestatzen zen aipatutako *nastado* hori txerrientzat, plater horietan gera zitezkeen koipe apurrak ere aprobetxatzeko. Gosearen legea zen hori: orain bazter uzten dugun koipe hori, gutizia zen orduan.



Al usar el verbo *nastar* —acentuado *nastár*— en nuestro municipio nos estamos sirviendo del euskera *nahastatu* —variante de *nahastu*—, 'mezclar', al que añadimos —*ar*, un final verbal de infinitivo propio del castellano.

Se utiliza *nastar* cuando nos referimos al mezclar diversos componentes de algo, por ejemplo, al hacer la comida de los animales.

Precisamente *nastado*, el hipotético participio derivado del verbo *nastar*, se utiliza también para nombrar las mezclas o revoltijos que hagamos con cualquier cosa. Literalmente sería un 'mezclado' o 'mezcla'. Un uso característico de dicho vocablo suele ser para denominar la comida de los animales, especialmente la de los cerdos, hecha con algo de harina, verdura picada, resto de comida de los humanos... Eso suele denominarse *nastado*, pronunciado normalmente *nastao*.

Como curiosidad citaremos que en nuestros caseríos se limpiaban los platos de la comida de las personas en una caldera de agua caliente que pen-



día del fuego, colgada del *laratzu*. Era con esa agua con la que se hacía el *nastado* para los cerdos, para así aprovechar la poca grasa que podía haber quedado en aquellos platos. Era el dictamen impuesto por el hambre: la grasa que ahora desdeñamos antes se anhelaba.

## NEKE

Termino hau oso hedatua dago gure herrian nahiz kanpoan. "Estar *neque*" edo "quedarse *neque*" esamoldeez ari gara; nekearen nekeaz, edo loguraren loguraz ahituta geratu den norbaitez esaten da.

Euskarazko *neke* berban dute jatorria bi esamoldeek: 'akidura, lana, esfortzua, zailtasuna, arazoa, eragozpena'... Hain zuzen ere, "*nekatua nago*" edo "*neke eginda nago*" esatean erabiltzen duguna da, hitzez hitz gaztelaniara itzulia, "estoy hecho *neke*".

Jakin badakigunez, *nekezari* terminoa *neke* berbarekin lotu izan da, lan horrek teorian hain nekegarriak ez diren abeltzaintzarekin alderatuta dakarren akidurarengatik.



Este término forma parte de una expresión generalizada en nuestro pueblo y también fuera de él. Se trata de "estar *neque*" o "quedarse *neque*" para referirnos a alguien extenuado por el cansancio o dormido de puro agotamiento.

Ambas expresiones tienen su origen en el término en euskera *neke*, 'cansancio, fatiga, trabajo, esfuerzo, dificultad, problema, molestia...', el mismo que usamos al decir "*nekatuta nago*", 'estoy fatigado/a' o "*neke eginda nago*", literalmente, 'estoy hecho *neke*'.

Como ya es bien sabido, se ha solido relacionar el término *nekezari*, 'agricultor' con *neke* por las fatigas que esa labor conllevaba frente a la ganadería, en teoría menos esclava o atada a la tierra.

## NESKA

*Mutil* berba bezalaxe, *neska* ere oso ezaguna da eta gure udalerriko gaztelanian ere erabiltzen da. Ohikoa da "¿Qué andas, *neska*?" eta antzeko esamoldeetan. Daukaten adina dela eta, oraindik ezkondu gabe dauden 'emakumezko ume' edo 'gaztetxoei' egiten die erreferentzia.



Hala ere, hasiera batean, gazte koskortuei edota emakume helduei egiten zien erreferentzia *neska* terminoak, eta hala erabiltzen da oraindik ere leku askotan. Orduan, adinez txikiagoak ziren neskei edo umeei erreferentzia egiteko *neskatila* erabiltzen zen, gure zonaldean, *neskatxa* edo *neskato*. *Neska* berba, ostera, emakume helduekin erabiltzen zen soilik, gaur egun erabiltzen dugun *andre* edo *emakume* berbaren antzeko esanahiarekin. Beste kasu batzuetan, zerbitzariei baino ez zitzaien deitzen *neska*.

Edonola ere, eta bitxikeria horiek alde batera utzita, *neska* berbak 'emakumezko edozein ume edo gazte' izendatzeko balio du.



De un modo similar a lo que nos sucedía al tratar el vocablo *mutil*, la palabra *neska* es sobradamente conocida y usada en el castellano de nuestro municipio. Es común en expresiones del tipo "¿Qué andas, *neska*?". Hace alusión a las 'niñas' o a las 'mozas' o 'muchachas' de cierta edad pero todavía solteras por la edad.

Sin embargo, el término *neska* se refería en origen, y aún así se mantiene en diversos lugares, a muchachas mayores e incluso a mujeres adultas. Entonces, cuando se hacía referencia a chicas de menos edad o niñas se usaba *neskatila*, *neskame* o, como en nuestra zona, *neskatxa* o *neskato*. Pero *neska* se reservaba para las mujeres adultas, similar al *emakume* o *andre* que usamos actualmente. En otros casos, *neska* se usó para denominar exclusivamente a las sirvientas.

En cualquier caso, y dejando a un lado esas curiosidades, la palabra *neska* nos sirve hoy en día para denominar a toda aquella 'muchacha joven o niña'.

## NESKAZAHAR

Adiskideek bikotea lortu eta familia osatzen hasi ondoren ezkongabe geratzen ziren emakumeei deitzen zitzaien *neskazahar*, gurean *neskasár* ahoskatuta, mutxurdin berba ez bereziki ederra ere *neskazahar* terminoaren sasisinonimoa da.

*Neskazahar* terminoak beti izan du konnotazio iraingarri bat, ironikoa, mespretxuzkoa. Bizi izan dugun gizarte matxistaren ondorioa da hori, izan ere, emakumearen zeregin existentzial nagusia ezkontzea eta ugaltzea zen. Baina lehenago aipatutako *mutxurdin* berba da neska ezkongabeei deitzeko formarik zakarrena, mingarriena eta ohikoena, inondik inora. Laudion, dago-



eneko ez da ezagutzen, baina arrunta da oraindik Orozkon. *Mutxu + urdina* da haren osaera, hau da, 'alu urdindua', ustez, harreman sexualik ez izatearren ondorioz.



Cuando la soltería de una muchacha se prolongaba en edades en las que el resto de compañeras ya se emparejaban o formaban familia, pasaban a ser *neskazahar* —pronunciado entre nosotros como *neskasár*—, 'solterona' o, traducido al pie de la letra, 'muchacha vieja'.

Este último término siempre ha tenido una connotación peyorativa, irónica, despectiva. Era consecuencia de la sociedad machista en la que hemos vivido ya que la función primordial atribuida a la mujer era la del contraer matrimonio y procrear.

Pero quizá la forma más burda, hiriente y habitual para denominar a una solterona era la de *mutxurdina*, que desconocemos ya en Laudio pero que aún es corriente en municipios colindantes como Orozko, por lo que suponemos que en su momento sería también nuestra. Se trata de *mutxu + urdina*, es decir, 'vagina encanecida', supuestamente por no mantener actos sexuales.

**NOGADA.** *Ikus / Ver INTXAUR-SAL TSA*

## OKOTX

*Okotx* berba nahiko ezaguna eta erabilia da gure udalerrian, batez ere, zaharren artean. 'Kokotsari' edo 'bidarrari' egiten dio erreferentzia, hau da, beheko barailak eratzen duen irtenguneari. *Okotx*, halaber, *kokots*, *kokotz* edo *kokotx* terminoen mendebaldeko euskarazko aldaera da, hots, Laudiri dagokiona. Esanahi berbera du, baina 'arrainen bizarrak' definitzeko ere erabiltzen da. Horrexegatik deitzen diegu *kokotxa* bakailaoaren edo legatzaren zati preziatu horiei...

Hala ere, Laudion, *okotx* berba beheko barailako irtengunea izendatzeko baino ez da erabiltzen: "Tienes una mancha de tomate en el *okotx*".



La palabra *okotx* es relativamente conocida y usada en nuestro municipio entre la gente de más edad. Hace referencia al 'mentón' o 'barbilla' de la





cara. Es decir, la prominencia que forma la mandíbula inferior. *Okotx* es la variante occidental —en donde se encuentra Laudio— del término más general *kokotz* o *kokotx*, de idéntico significado y también con el de la 'barbadilla del pescado'. De ahí nuestras famosas *kokotxas* de merluza o bacalao...

Pero en Laudio limitamos el uso de la palabra *okotx* al de 'barbilla': "Tienes una mancha de tomate en el *okotx*".

## **ORCACHA.** *Ikus / Ver* **HORCACHA**

## **ÓRDAGO.** *Ikus / Ver* **HORDAGO**

## **ORPO**

Oro har, 'oinaren beheko eta atzealdeko zatiari' deritzo *orpo*. Baina baditu gure gure tokiko erabileratik kanpo hain hedaturik ez dauden aldaerak ere: 'zutabeen oinarria', 'ate-erroa', 'zuhaitzaren oinarria', 'oinetako baten takoia', 'zaldien apatxa' eta abar. Ikusten denez, kasu guztietan oinen orpoen eginkizunetatik gertu daude adiera horiek guztiak. Eta bide batez esanda: gaztelaniaz *zancajo* edo *calcañar* ere deitzen zaio gorputz atal horri.

Berbaren erabilerari Laudiotik begiratuta, *orpo* bete-betean identifika dai-teke 'oinaren atzeko eta beheko aldea' adierarekin. Baina berbaren erabilerera praktikoa, 'galtzerdien orpoei' edo antzekoei esaten zaie, normalean pluralean: "esas medias tienen los *orpos* muy gastados", "arreglar los *orpos* de unas medias"...

Bitxikeria legez, eta Laudion ematen diogun erabilera alde batera utzita, esango dugu 'oinetako gabe ibiltzeari' *ortozik ibili* edo *ortozik egon* esaten zaiola... Eta beste hainbat lekutan *orpozik*. Gure *orpo* horretatik datoz dendanak, eta 'barik' esanahia duen *hutsik* erantsita, 'oinak, orpoak biluzik dituzula ibiltzea' bihurtzen dira.



En general, el vocablo *orpo* significa 'talón del pie'. Pero también tiene otras acepciones fuera de nuestro uso local, menos extendidas como la de 'base de columna', 'quicio de puerta', 'base de árbol', 'tacón de un zapato', 'casco de un caballo', etc. siempre en cualquier caso con funciones con cierta simi-



litud al del talón del pie, por cierto, también conocido como *zancajo* o *calcañar* en castellano.

Si acotamos el uso de ese vocablo a Laudio, *orpo* se identifica perfectamente con el 'talón del pie'. Pero en el uso práctico de esa palabra suele referirse a los 'talones de los calcetines' o similares, normalmente usado en plural: "esas medias tienen los *orpos* muy gastados", "arreglar los *orpos* de unas medias"... Como curiosidad, al margen del uso en Laudio, digamos que 'andar o estar descalzo' se dice también *ortozik ibili* u *ortozik egon*.... Y en otros lugares *orpozik*. Todos ellos provienen de nuestro *orpo* al que se le añade *hutsik*, 'en ausencia', algo así como 'andar / estar con los talones desnudos'.

## OSPA

Laudion, *ospa!* interjekzioa animaliei aginduak emateko erabiltzen da. Gutxi gorabehera, 'alde hemendik! Zoaz!' esan nahi du. Gure udalerriaz kanpo, pertsoneri esateko ere balio du, baina gure inguruan animalientzako erabilerera horri eutsi zaio, eta, zehazkiago, zaldi, asto edota mandoei esatekoa.

Eskaraz, guk erabiltzen dugun *ospa* horretaz gain, bada *ospa egin* aditza, zeinak 'alde egin', 'ihes egin' esan nahi baitu.

Zentzu horrekin berarekin erabili da *ospa* forma 'goazen denok', 'alde egin dezagun' esateko.

Amaitzeko iruzkin gisa, esango dugu behiak ez diren animaliak xaxatzeko, berbagai dugun *ospa* horrez gain, *huesque* terminoa erabiltzen dugula Laudio. Hortxe dugu, adibidez, gure Ruperto Urquijok (1875-1970) *Roque, el carretero de la Rioja* abestian behin eta berriz erabili zuen güesque (sic) hura, herri-erabileraren adierazgarri.

Berez, gaztelaniazko esamoldea da *huesque*, 'arre' ezagunaren antzekoa, baina leku askotan alde batera edo bestera biratzeko erabiltzen da soilik, eta, zehazkiago, zenbait herritan, ezkerretara egiteko. Tokiko kontu bitxiak...



La interjección *ospa!* se usa en Laudio para dar una orden a los animales. Significa algo similar a '¡fuera! ¡largo!' Su uso general, al margen del de nuestro municipio, sirve también para las personas, etc. si bien, en nuestro entorno, se ha mantenido en el uso con animales y más concretamente con caballos, burros o mulas.

En euskera, al margen del *ospa* que nosotros usamos, existe también el verbo *ospa egin*, literalmente es 'hacer ospa', es decir, 'marcharse' o 'escapar'.



Con ese sentido se ha usado también la forma *ospa* para indicar algo así como 'vayámonos todos', 'pirémosnos'.

Para finalizar, recordemos que para azuzar a los animales de carga no vacunos, al margen del *ospa* que nos ocupa, se usaba también en Laudio el término *huesque*. Testimonio de ese uso popular, es el *güesque* (sic) que tanto repite nuestro músico Ruperto Urquijo (1875-1970) en su canción *Roque, el carretero de la Rioja*.

En realidad *huesque* es una expresión del castellano, similar a 'arre' aunque en muchos lugares se usa solamente cuando se da la orden de girar a uno u otro lado y, más concretamente y en otros pueblos, cuando han de girar a la izquierda. Curiosidades locales...

## OTAKA

la ez dago inor Laudion *otaka* erabiltzen ez duenik. Gaztelaniaz eta beste zenbait hizkuntza erromantzeetan 'árgoma', 'tojo', 'toxu' edo 'coyoya' izena jasotzen duen landareari deitzeko erabiltzen da.

Arantzas jositako sasia da, inbaditzeko ahalmen handikoa eta, beraz, kendu beharreko belar txar legez tratatzen da. Normalean, *otaka* hedatzeak esan nahi du lur hori idortua dagoela, antzutua. Egoera hori nekez leheneratu ohi da, gainera.

Negatibotasun handi horri aurre egiteko aipatuko dugu gure herrian oso estimu handian genuela *otakaren* egurra, karobi, teileria, eta abarretarako erregairik onena ei zelako.

Euskaraz, oro har, *otea* esaten zaio landare horri, baina *ota* bihurtzen da berba hori gure mendebalde honetan. Azken horretatik datoz, besteak beste, *Otadui* eta *Otaegi* toponimoak. Baina gure zonaldean eta inguruko herrietan, izurra izurtzeko zalean garenez, *otea* edo *ota* erabili barik, txikigarria eransten diogu berba-oin horri; —*ka* partikula zaharra, alegia. Gauza bera gertatzen da *ate* berbari partikula hori gehitzean, 'ate txikia' baita *ataka*.

*Otaka* berba sakon-sakon dugu errotua gurean; hainbeste, ezen laudioar gehienok ez baikenuke jakingo beste izen batez deitzen. Eta hain indartsu errotua dugu, euskarazko berbatik gaztelaniazko termino berriak asmatzen ere ausartzen baikara. Adibidez, maiz entzun ditzakegu "no se puede subir por ahí porque hay un *otacal* muy grande que te cierra el paso" eta antzekoak. Eta sailkatzen zaila da *otacal* xeblebre hori, ez delako ez euskara, ezta gaztelania ere.



Prácticamente no hay persona en Laudio que no utilice la palabra *otaka*. Se usa para nombrar una planta que en castellano y otros romances se conoce como 'árgoma', 'tojo', 'toxu' o 'coyoya'.

Es un arbusto lleno de espinas, con gran potencial invasor, por lo que está considerado como una mala planta, algo a erradicar. Su presencia suele ser también el indicador de que el suelo en donde se expande está degradado, empobrecido, normalmente irreversible.

Como contrapunto a tanta negatividad, añadiremos que en nuestro pueblo su madera ha sido muy apreciada por considerarse el mejor combustible para hornos caleros, tejas, etc.

En euskera, como norma general, se nombra a esa planta con la palabra *otea*, vocablo que pasa a ser *ota* en el euskera occidental. De esta última palabra surgen topónimos como *Otadui*, *Otaegi*, etc. Pero en nuestra zona y en los pueblos que nos rodean, por rizar el rizo, no usamos *otea* u *ota* sino que nos valemos de un diminutivo de dicha palabra. Y lo conseguimos añadiéndole la antigua partícula *—ka*. Al igual que siendo *ate* una 'puerta' pero *ataka* es 'portezuela' o 'portillo'.

El arraigo de la palabra *otaka* es tan fuerte entre nosotros que la mayoría de los laudioarras no sabrían denominarla de otra manera. Incluso hasta nos permitimos el lujo de elaborar nuevos términos en castellano basados en el término en euskera. Así, oiremos a menudo decir cosas como "no se puede subir por ahí porque hay un *otacal* muy grande que cierra el paso". Una palabra esa de *otacal* difícil de clasificar porque ya no es ni euskera ni castellano.

## PA

Agian ez da egokia izango hiztegi berezi honetan *pa* berba jasotzea; izan ere, umeekiko berbakeran baino erabiltzen ez den soinua da. Hala ere, sarri erabiltzen da eta, gainera, euskarazko berba legez hartu dute hiztegi arruntek: 'musu' esan nahi du *pa* berbak, baina umeena. Soinu hori ahoskatuta animatzen ditugu haurtxoak haien musu preziatuak bidaltzera.

Halaber, sarri-sarri erabiltzen dugu *patxu* txikigarria, hau da, 'musutxu'.



Quizá no corresponda recoger la expresión *pa* en este curioso diccionario, por limitarse a un sonido reducido al lenguaje infantil. Pero lo cierto es que



se usa con habitualidad y que se da como palabra del euskera en los diccionarios comunes: *pa* significa 'beso', pero un beso infantil. Es la palabra con la que se incita a los bebés a que nos den unos de sus codiciados besos. Asimismo, usamos a menudo su diminutivo *patxu*, 'besito'.

## PAPARRA

Laudion, *paparra* berba ezaguna da oso. 'Bularraren goiko alde' izendatzeko erabiltzen dugu, 'eskote' edo 'bularralde' berben esanahi bertsuarekin. *Kolko* berbaren oso antzekoa da ere.

Sasoi betean dugu berba gure tokiko gaztelanian: "bebiendo de la bota se le calló por la *paparra* todo el vino".

Eta horri gehitzeko, ezer gutxi. Agian, bitxikeria legez aipa genezake Bizkaiko zonalde batzuetan *papargorri* esaten diotela txantxangorriari, (*papar* + *gorri*), hau da, gurean *matxin* deitzen dugun txoriari.



La palabra *paparra* es bien conocida en Laudio. Al hacer uso de de ella nos referimos a la 'parte alta del pecho', como si dijésemos la zona del 'escote' o 'pechera'. Es similar a lo que vimos en la palabra *kolko*.

Se trata de un término que goza de perfecta salud entre nosotros: "bebiendo de la bota se le calló por la *paparra* todo el vino".

Poco más podemos añadir. Quizá la curiosidad de que, en algunas zonas de Bizkaia, se conozca como *papargorri* al 'petirrojo', de *papar*, 'pecho' + *gorri*, 'rojo'), pájaro llamado *matxin* entre nosotros, como se ha visto anteriormente.

## PAPAU

Ziur laudioar askok ondo barneratua dutela *papau* berba gaztelaniaz, horrekin beldurtzen baikintuzten txikitán: "¡Corre que viene un *papau* y te coge!". Zelanbait lausoa da berbaren esanahia, beldurra eragin dezakeen edozein zomorro edo izaki izendatzeko balio baitu: Idealizazioa da, errealitatea bainoago. Ziur aski, bi hizkuntzalari hauek eman zituzten azalpenik zehatzenak: R. M. Azkuek (1905) «*Duende, el bú, el coco con que se asusta a los niños*» idatzi zuen eta E. Arriagak (1896) «*A los niños se les asusta aquí* [en referencia a Bilbao] *con el papau, como en otras partes con el coco. Una antigua casa de la*



*calle Somera, remataba su fachada con doce figurones de piedra, a los que el pueblo llamaba los papaus de Guendica».*

Gure herriaz kanpo, "txorimalo" esanahia ere eman izan zaio.

Atzera hizkuntzaren lurretara itzulita, esango dugu *papau* bera eta haren aldera den *papao* berbak euskal mendebaldekoak direla, hau da, gaur egun Bizkaia eta Araba legez ezagutzen ditugun lurraldeetakoak.



Seguro que muchos audioarras tendrán bien interiorizada la palabra *papau* porque era con la que se nos atemorizaba a los niños/as pequeños/as: "¡Corre que viene un *papau* y te coge!". Su significado es algo indefinido ya que representaba a cualquier bicho o ser que pudiese dar miedo: es más una idealización que una realidad. Quizá las mejores descripciones las dieron los lingüistas R. M. Azkue (1905) «*Duende, el bú, el coco con que se asusta a los niños*» o E. Arriaga (1896) «*A los niños se les asusta aquí [en referencia a Bilbao] con el papau, como en otras partes con el coco. Una antigua casa de la calle Somera, remataba su fachada con doce figurones de piedra, a los que el pueblo llamaba los papaus de Guendica*».

Fuera de nuestro pueblo se ha usado incluso con el significado de 'espantapájaros'.

Retornados al campo lingüístico, diremos que la palabra *papau* o su variante *papao* son palabras propias del occidente vasco, es decir, en los actuales territorios de Bizkaia y Araba.

## PASPI

Kasu arraroa eta kezagarria da *paspi* berbarena, izan ere, oso erabilia da Audio, Aiara, Okondo eta beste zenbait herritan, baina erabat ezezaguna inguru horretatik kanpo.

Euskara galdu ez zuten herri hurbiletan ere, Orozkon nahiz Arrankudiagan adibidez, ez dute erabiltzen. Beraz, zalantzan ipini genezake berba euskarazkoa denik.

Dena den, bada euskarazkoa dela pentsatzeko argudio sendo bat: berbak —*i* amaiera dauka, eta oso arrunta da hori euskaran —*iturri, mendi, ardi...*— baina oso ezerosoa gaztelanian. Izan ere, kasu horietan, —*e* bihurtzen dute gaztelaniadunek, askoz atseginagoa egiten zaielako. Horrexegatik, salbuespen urri baina aipagarri batzuk alde batera utzita, ez dago ia —*i* amaiera daukan berbarik gaztelanian.



Horiek horrela, heldu diezaiogun berriz gure hiztegiari: gaztelaniazko terminoa balitz, *paspi* barik, \**paspe* beharko luke eta, ondorioz, euskararen presentziaren bidez baino ezin dugu azaldu esku artean dugun forma hau. *Paspi* bat da 'fruitu batzuen barrualdea osatzen duten zati bakoitzari' esaten zaio, esaterako, laranja, limoi eta intxaurren barrualdeko zatiei. Antzekotasunaren bidetik jota, berakatzaren atalei esateko ere erabili izan dugu.

Euskaraz ezagutzen dugun antzeko erreferentzia bakarra garai bateko Erronkariko euskalkia zenak ematen digu, han jaso baitzuen R. M. Azkuek bere hiztegian (1905): *azpi* zen sarrera, eta 'intxaur atal' esanahia zuen. Berba bera izan daiteke, hasierako kontsonantea galduta, *okotx* berbaren kasuan gertatzen den bezala.

Erronkarierazko erreferentzia bakun horrekin geratzen bagara, z hizkiaz idatzi beharko genuke, hau da, *pazpi* beharko luke *paspi* ordeaz. Dena den, agerian geratzen da erreferentzia ahula dela eta guk Laudion *páspi* ahoskatzen dugu.



La palabra *paspi* es un caso extraño y perturbador de ya que, siendo muy usada en Laudio, Aiara, Okondo, etc., es absolutamente desconocida fuera de dicho entorno.

En el euskera de los pueblos cercanos que no perdieron nuestra lengua, como Orozko o Arrankudiaga, tampoco la usan, por lo que podríamos dudar de que fuese propia del euskera.

Pero, por otra parte, hay un elemento muy contundente que nos hace pensar que sí lo es. Se trata del final de la palabra en *—i*, muy normal en euskera *—iturri, mendi, ardi...*— pero incómodo para el castellano. Tanto que en esos casos, lo convierte a *—e*, porque le resulta mucho más agradable. De ahí que el castellano, salvo algunas honrosas y contadísimas excepciones, no dispone de palabras acabadas en *—i*.

Por ello, y de retorno a nuestro vocablo, de tratarse de un término del castellano, usaríamos \**paspe* y no *paspi*, forma ésta por tanto que solo podemos explicar por la presencia del euskera.

Un *paspi* es 'cada una de las partes en que está naturalmente dividido el interior de algunos frutos, como la naranja, el limón, la nuez...'. También lo hemos usado, por su similitud, para nombrar los 'dientes de ajo' o similares.

La única referencia parecida que conocemos en euskera la tenemos en el desaparecido dialecto del navarro valle del Roncal en donde R. M. Azkue



recogió en su diccionario (1905) que *azpi* era 'gajo de nuez'. Podría tratarse de la misma palabra, con la pérdida de la consonante inicial, como ya vimos al hablar de *okotx*.

Si nos aferrásemos a esa única referencia roncalesa, lo deberíamos escribir con *z*, esdecir, *pazpi* en vez de *paspi*. Aunque claro está, es una referencia vaga y nosotros en Laudio, lo pronunciamos *páspi*.

## PATIN

Lurrean 'zulatutako putzu bertikala da *patin* —*patín* ahoskatuta—, lerro freatikoaren geruzetara' iristeko erabiltzen dena, likido preziatua baserrietan eta abarretan falta ez zela bermatzeko. Azken batean, hobeto datorki-gun lekuan iturri bat artifizialki sortzea da, lurrazpiko iturburutik hartuta, ur-azaleratzeen menpe egon beharrik gabe, hori gertatzen baita iturrien kasuan.

Normalean, metro 1 edo 2ko diametroa duten zuloak dira *patinak*, neurri horiek behar direlako putzua eraikitzen duten langileak sartu eta beharrian ibiltzeko, baita noizbehinka garbitu ahal izateko ere, urak daramatzan partikulen ondorioz, ixteko joera izaten dutelako putzu horiek.

Hala ere, hobiaren altuera bai, kontuan hartzeko modukoa da, askotan oso sakonera handietara iritsi behar izaten delako ura eskuratu ahal izateko.

Punpak ere erabili izan diren arren, kate edo soka bati lotutako balde batez atera ohi zen ura, txirrika baten eta norbere ahaleginen laguntzaz. Arku batek eusten zion polea horri, zeinak irudi bereizgarri eta ikusgarria ematen baitie horrelako putzuei.

*Patín* berba oso erabilia da Laudion eta inguruetan 'ur-zulo' edo 'ur-putzu'. Bereaz, mendebaldeko euskarazko terminoa da —hau da, bizkaierazkoa— eta oso sustraitua dago gurean.



Un *patin* —acentuado *patín*— es un 'pozo vertical excavado en la tierra con el fin de acceder a las capas de agua de la línea freática' y así poder tener garantizado el suministro de este preciado elemento en caseríos, etc. Al fin y al cabo, se trata de crear una fuente de manera artificial, allí donde nos interesa, interceptando el manantial inferior sin necesidad de que éste aflore a la superficie, como sucede en las fuentes.

Los *patines* son perforaciones de un diámetro que normalmente oscilan entre 1 y 2 metros, el necesario para el acceso y la labor de los trabajadores





que lo construyen y también para poder limpiarlo ocasionalmente ya que éstos tienden a cegarse por las partículas que porta el agua.

Sin embargo, la altura del foso sí que es considerable ya que en ocasiones hay que excavar hasta gran profundidad para alcanzar el agua.

A pesar de que también se han usado bombas, lo habitual ha sido extraer el agua con un balde atado a una cadena o sogas y ayudados en el esfuerzo por una polea situada en la parte superior del conjunto, en un arco que la sujetaba y que da una imagen pintoresca e inconfundible de esos pozos.

La palabra *patin*, con ese significado de 'aljibe' o 'pozo de agua' es muy usada en Laudio y en toda su comarca. Es en realidad un término del euskera occidental —lo que llamamos dialecto vizcaíno— muy arraigado en nuestro ámbito rural.

## **PATXARAN.** *Ikus / Ver* **TXARRIKORON**

## **PERNETA**

"Estar o andar en *pernetas*" esamoldea —beti pluralean— oso ohikoa da gure udalerrian eta hankak biluzik edukitzea esan nahi du, 'galtza, media, edo galtzerdi barik' Esteban de Terrerosek bere *Diccionario castellano* (1787) hartan idatzi zuen legez.

Esamoldea gaztelania petoa da eta ez du zerikusirik euskararekin. Kontua da esamolde arkaikoa denez, Gaztelara mugatzen dela, eta nahiko ezezaguna dela bertan ere. Horrexegatik uste izan du batek baino gehiagok euskararekiko elkarreragina dagoela. Haatik, bestelakoa da errealitatea: beste barik, gaztelaniazko arkaismo horren hondarra gara zentzu horretan. Agerikoa denez, *pierna* berbaren txikigarria da *perneta*.



La expresión de "estar o andar en pernetas" —siempre usado en plural— es muy habitual en nuestro municipio y hace referencia al tener las piernas desnudas, al aire 'sin calzas, sin medias, ni calcetas' como lo describiera Esteban de Terreros en su *Diccionario castellano* (1787).

Procede por tanto del castellano y nada tiene que ver con el euskera. Lo que sucede es que, siendo una expresión arcaica, su uso es muy limitado en Castilla y desconocido en su mayor parte. De ahí que haya quien, en el ámbito popular, lo haya percibido como una interacción del euskera.



Pero nada tiene que ver con la realidad: sin más somos un reducto de ese arcaísmo del castellano. Evidentemente, *perneta* es un diminutivo de *pierna*.

## PERNILE

Gure inguruko euskaran txerri-urdaiazpikoari *pernil* esaten zaio, *pernile* artikulua erantsi ostean. Gure herrian bada noizbehinka erabiltzen duenik. Berez, gaztelaniazko *pernil* berba bera da, *pierna*-tik datorrena. 'Animalia baten zangoa eta izterra' esan nahi du, eta, beraz, txerriaren hanka eta urdaiazpikoa izendatzeko erabiltzen da gure inguruan.



En el euskera de nuestro entorno se usa el vocablo *pernil* —*pernile* al añadirle el artículo— para designar al jamón del cerdo. De ahí que haya quien de forma ocasional lo use en nuestro municipio. En realidad, se trata de la adopción del término castellano *pernil*, procedente de *pierna*, con el significado de 'anca y muslo del animal' y, por antonomasia, la del cerdo, el jamón.

## PERRETXIKO

*Perretxiko* izena ematen zaio udaberriari bazka-larreetan hazten den ziza mota bati (*Calocybe gambosa*). Beste zenbait lekutan "udaberri ziza" edo "San Jorge ziza" (apirilak 23) deitzen zaio. Gure ingurura itzulita, sanprudentzioekin (apirilak 28) eta Urduñako *otxomaioekin* lotua dago.

Aldaera ugari du (*perretxiku*, *perro chico*, *perratxiku*, *pirritziku*, *barratxiko* nahiz *paratxiko*), baina *perretxiko* da erabilera tradizionala gurean.

Nicolao Landuchio bidaiari italiarrari esker jaso zen lehenengo aldiz berba (*Dictionarium linguae cantabricare*, 1562), gaur egun galdua dagoen Arabako euskalkiaren —edo azpieuskalkiaren— terminoak jaso baitzituen. Hiztegi horretan, *pirritxicuac* da berbaren forma eta 'larreetako onddo' xume batez azaldu zuen.

Jatorriari gagozkiola, proposatu izan da iturburua *chico* ('txiki') eta gaskoierazko *berret* 'txapela' terminoen elkarketan kokatu beharra dagoela. Bestela esanda, *perretxiko* berbak 'kapela edo txano txiki' esan nahiko luke.

Robert Gordon Wasson etnografo estatubatuarra (1898-1986) ostera, hau proposatu zuen: «*En ucraniano a las setas se les llama pecheritza así mismo la*



*encontramos en la lengua de los gitanos de España, de lo que se deduce que los vascos la tomaron de los gitanos, que a su vez éstos la habrían recogido de otros pueblos de Europa. Lo que sí se sabe es que la palabra pecheritza es eslava y que en el lenguaje caló, se dice perechites».*

Hala eta guztiz ere, zuhurtziarik handienaz hartu behar ditugu bi azalpenak, suposizioen eremuan kokatu behar direlako.



El nombre *perretxiko* designa un hongo (*Calocybe gambosa*) que brota en las zonas de pasto en primavera. De ahí que en otros lugares sea también conocida como "seta de primavera" o "seta de San Jorge" (23 de abril). En nuestro entorno más local, su consumo está ligado a las fiestas de San Prudencio (28 de abril) y *ochomayos* de Orduña.

Aunque existan diversas variantes como *perretxiku*, *perro chico*, *perratxiku*, *pirritziku*, *barratxiko* o *paratxiko*, en nuestro municipio su uso tradicional es el de *perretxiko*.

La primera noticia de esta palabra la tenemos en el *Dictionarium linguae cantabricae* (1562) gracias al visitante italiano Nicolao Landuchio que recogió palabras del dialecto —o subdialecto— del euskera alavés, hoy desaparecido. Allí se refiere a ella como *pirritxicuac* y la identifica con un escueto 'hongo de prado'.

Sobre su origen hay quien ha propuesto que proceda de un nombre compuesto de *chico* 'pequeño', y una adaptación del gascón *berret* 'boina', es decir, que *perretxiko* querría decir 'sombbrero o bonete pequeño'.

También el etnógrafo estadounidense Robert Gordon Wasson (1898-1986) propuso que «*En ucraniano a las setas se les llama pecheritza así mismo la encontramos en la lengua de los gitanos de España, de lo que se deduce que los vascos la tomaron de los gitanos, que a su vez éstos la habrían recogido de otros pueblos de Europa. Lo que sí se sabe es que la palabra pecheritza es eslava y que en el lenguaje caló, se dice perechites*».

Ambas explicaciones, sin embargo, hay que adaptarlas con todas las precauciones posibles, ya que no superan el campo de la mera conjetura.

**PIGAZA.** *Ikus / Ver* **PIKARLIN**



## PIKARLIN

*Pikarlin* esaten diegu bertan —*pikarlín* azentuatua— gaztelaniaz 'pito' legez ere ezagutzen diren txori batzuei, zehazki, enborrak zulatzen ibiltzen diren 'okilei'.

Euskarazko bertoko hitza dela uste dugu, gaztelaniaz ez baita berezko berba legez hartzen, beste barik. Dena den, zalantza eragiten du kontuak, euskarazko hiztegietan ere ez delako *pikarlin* agertzen. Hortaz, zuhurtzia handiz tratatzeko berba dugu hau. Behar bada, hedapen txikiko terminoa izango da, zelanbait ere, gure eskualdera mugatutakoa.

Antzeko zer edo zer gertatzen da hiztegitik kanpo uztea erabaki dugun beste berba batekin: *pigaza*. Izen horrekin ere ezaguna da 'eskinoso' edo 'eskilaso' hegazia, gaztelaniaz, "arrendajo". Zinez zaratatsua izaki, gure presentziaren berri ematen die mendiko gainerako biztanleei. Hain dira zalapartatsuak, ezen euren latinezko izen zaharretik —*garrulus*— eratorri baita pertsona zakarrei esaten zaien *garrulo* berba.

Ez dugu izena hiztegi honetara bildu gurutzaketa semantiko bat delako berez; izan ere, *urraca* (mika) hegaztiaren beste izan bat da gaztelaniazko *picaza* berba. Zalantza barik, jatorri berbera dute, eta zerikusia eduki, badaukate.

Nolanahi ere, *pikarlin* —euskaraz 'okila"', gaztelaniaz 'pájaro carpintero'— eta *pigaza* —euskaraz 'eskilaso' eta gaztelaniaz 'arrendajo'— berbak asko erabiltzen dira Laudion.



Con el nombre *pikarlin* —acentuado *pikarlín*— se denomina a unas aves, los 'pitos', más conocidas como 'pájaros carpinteros'.

La consideramos como palabra local en euskera por el simple hecho de que no se reconoce como propia en castellano. Pero su inclusión es dudosa ya que tampoco recogen la palabra *pikarlin* los diccionarios en euskera. Así es que hay que tomar esta palabra con reservas. Quizá se trate de un vocablo con una extensión reducida, limitada en cierto modo a nuestra comarca.

Algo similar nos sucede con otro término que sí hemos desestimado: se trata de *pigaza* nombre usado para denominar a los 'arrendajos', unas aves muy ruidosas y que avisan al resto del monte de nuestra presencia. Son tan escandalosas que de su antiguo nombre en latín —*garrulus*— nombre procede la palabra *garrulo*, 'persona zafia'.

No hemos incluido su nombre en este diccionario porque en realidad se trata de un cruce semántico, puesto que en castellano, con *picaza* se denominan la 'urraca'. Sin duda, el origen es el mismo y tienen que ver entre sí.



Sea como fuere, las palabras *pikarlin* —'pito', pájaro carpintero— y *pigaza* —arrendajo'— son muy usadas en Laudio.

## PIL-PIL

Euskal plater enblematiko legez hartu duen ospea hartuta, honezkero ez da inorentzat arrotza izango *pil-pil* adierazpidea, are gutxiago bakailoarekin lotua badoa.

Baina bada hain ezaguna ez den alderdi bat: berez, onomatopeia bat da *pil-pil*, eta, euskaraz, elikagaien 'irakinaldi leuna' esan nahi du. Bestela esanda, izendatzen denaren soinua erreproduzitzen du berba horrek, su txikian egindako irakinaldiarena.

Gure udalerritik urrun dauden beste leku batzuetan, *pil-pil* berbak bihoztaren taupadak izendatzeko erabiltzen da.

*Pil-pil* esamoldeaz gain, ia berdina den *pir-pir* aldaera erabiltzen da. Berdin igualmente zuzena da eta, dirudienez, Laudion gehien erabiltzen dena da sukaldeko soinu horri erreferentzia egiteko.



Por la gran fama que ha adquirido como plato emblemático vasco a nadie le resulta extraña la expresión *pil-pil* si lo asociamos al bacalao.

Lo que ya no es tan conocido es que *pil-pil* se trata en una onomatopeya que designa en euskera el 'hervor suave', de baja intensidad, de los alimentos; es decir, una palabra cuyo sonido está en realidad imitando el ruido de aquello que está designando.

En otros lugares más alejados de nuestro municipio *pil-pil* designa incluso el sonido de los latidos del corazón.

Además de la expresión *pil-pil* se usa también la variante casi idéntica *pir-pir*, igualmente válida y que parece ser la más usada en Laudio cuando hacemos referencia a la ebullición suave.

## PIR-PIR. *Ikus / Ver* PIL-PIL



## PIRRILERA

Eguneroko hizkeran sarri askotan erabiltzen dugu *pirrilera* berba, baina soilik lagunarteko giroan, zatartzat eta gustu txarrekotzat jotzen bada. 'Sólido izan ohi diren baina forma likidoa duten gorozkiak' izendatzeko balio du. Sinónimo legez, 'beherako, zirineri, sabeleko' eman ditzakegu, besteak beste.

Ez da euskarazko hitz garbia, termino mistoa baizik: euskarazko *pirri* oinarriari gaztelaniazko —*lera* amaiera gehituta sortu zen, ziur aski gaztelaniazko *cagar* aditzetik *cagalera* eratortzeko baliatutako bide beretik joanda.

Berton ematen diogun erabilera alde batera utzita, berez, 'izaera urduria duen pertsona, haserrekorra, ipurterrea' da *pirri*. Eta handik eratorri zen *kakapirri* terminoa ere, hau da, 'kaka urduria, jeginu txarreko kaka' literalki itzuliko bagenu. Hori dela eta, *pirri* berba beherakoarekin erlazionatu ohi da, eta handik eratorri zen geroago *pirrilera*; berba xeble bezain erabilia.



La palabra *pirrilera* es muy recurrida en nuestro lenguaje diario y su uso está reducido a ambientes informales, ya que se considera vulgar y de cierto mal gusto. Hace referencia a las 'deposiciones fecales en forma líquida'. Otros sinónimos serían 'descomposición o diarrea, cagalera'.

No es puramente una palabra de euskera sino un término mixto, con una base en euskera *pirri* a la que se le añade una terminación —*lera* propia del castellano, seguramente por similitud a la evolución que se produce desde el término *cagar* al de *cagalera*.

Al margen de nuestro uso local, *pirri* en sí es una 'persona de carácter inquieto, de mal genio, cascarrabias'. Y de ahí, surge también el término *kakapirri*, literalmente 'caca inquieta, de genio' para denominar a la 'diarrea'. Por ello *pirri* se relaciona con la descomposición, de donde posteriormente surge el *pirrilera*, tan extraño pero tan común en nuestro uso.

## PISTA

Laudion, *pista* berbaz izendatzen dugu 'betazaletako mukosak eta glandulek jariatzen duten sekrezioa, zeina betazalen ertzetan edo begietako angeluetan metatzen baita'. Bestela esanda: gaztelaniaz *legañas* deitzen dugunaz ari gara. Euskarak hainbat forma ditu horiek izendatzeko, besteak beste, *bekar*, *makar*, *beteri* nahiz esku artean dugun *pista* berba. Euskal mendebaldean erabili ohi den terminoa da azken hori, beraz, gure herrian ohikoena.



Batzuetan, *pizta* forma idatzia ere aurkituko dugu, nahiz eta lehentasuna ematen zaion *s* hizkiak idatzitakoari.

*Pista* berba ezaguna eta erabilia da oso, batez ere, adinekoen artean, hemen bildutako gainerako berbekin gertatzen den legez; erabilpena nabarmen murrizten da belaunaldi berrietan, gaztelaniaren kanon estandarizatzailleagoen zale izaten baitira gazteak.

Hala ere, oso berba erabilia izan da *pista* iraganean. Horren adibide da karlistek erabiltzen omen zuten esamoldea: «*Yo soy carlista hasta la pista*». Gaur egun, "*muineraino*" esango genuke.

Halaber, *pistojo/a* berbaz izendatzen ziren 'begietan *pista* asko dituen jendea'. Berez, zantzu guztien arabera, ez da hori errealitatea, eta, dirudenez, terminoak nahastu dira, duten antzekotasunarengatik: *pistojo* beste gauza bat da, estrabismoaren antzeko zerbait. Hemendik kanpoko gaztelanian ere erabiltzen da eta, oker ez banago, *ojo* izango da horren amaiera.

*Legaña* terminoaz esango dugu daukan itxura gorabehera, gaztelaniaren berezko hitza dela, eman diren etimologia batzuetan euskaratik datorrela esaten duenik egon badagoen arren. Askotariko teoriak bota dira horren jatorriaz: *lacrima* 'malkoa' (Covarrubias, 1611), *lema* (Monlau, 1856), *gramia* 'goroldioa' (Barcia, 1881) nahiz euskarazko *lakaina* —gaskoierazko *lagagno* berbaren antzekoa— proposatu dira *legaña* horien iturburu legez (Corominas, 1973). Aitzitik, zantzu guztien arabera, *liga* berbaren iturburu berbera duela dirudi ('txoriak harrapatzeko erabiltzen den materia likitsa, mihuratik edo gorostitik ateratzen dena': latinezko *alligamena* (Concepción Fernández, 2009) hitzetik.



Con *pista* denominamos en Laudio a una 'secreción procedente de la mucosa y glándulas de los párpados, que se concentra en el borde de éstos o en los ángulos de los ojos'. Dicho de otro modo, nos referimos a lo que en castellano denominamos *legañas*.

En euskera se conocen de varias formas para nombrarlas, como pueden ser *bekar*, *makar*, *beteri* o nuestra *pista*. Este último es el término habitual usado en el oeste vasco, en donde se encuadra nuestro municipio. También a veces la podremos encontrar escrita como *pizta* si bien se da prioridad a la versión escrita con *s*.

La palabra *pista* es sobradamente conocida y usada en la gente de cierta edad de nuestro municipio aunque, como sucede con el resto de nuestras acepciones, su uso disminuye drásticamente con las nuevas generaciones, entregadas éstas a los cánones más estandarizadores del castellano.



Sin embargo, *pista* ha sido una palabra con un uso muy extendido en otro tiempo. Prueba de ello es la expresión que al parecer usaban los carlistas: «Yo soy carlista hasta la *pista*». Es decir, lo que hoy diríamos "*hasta la médula*".

También se ha tenido la palabra *pistojo/a* como referente a 'gente con muchas pistas en los ojos'. En realidad todo parece indicar que no es así y que en realidad se ha hecho un cruce de términos por su similitud: *pistojo* es en realidad otra cosa, una especie de estrabismo o similar, usado también en el castellano fuera de aquí y cuyo final intuyo que será *ojo*.

Respecto al término *legaña*, a pesar de su aspecto, es una palabra propia del castellano, si bien es cierto que en las etimologías dadas, hay quien lo hace proceder del euskera. Son diversas las teorías sobre su procedencia: de *lacrima* 'lágrima' (Covarrubias, 1611), *lema* (Monlau, 1856), *gramia* 'musgo' (Barcia, 1881) o del euskera *lakaina* —similar al gascón *lagagno*— para denominar las legañas (Corominas, 1973). Sin embargo, todo parece indicar que tiene un origen común con la palabra *liga* 'materia pegajosa usada para cazar pájaros, que se obtiene generalmente del muérdago o del acebo', desde el latín *alligamena* (Concepción Fernández, 2009).

## **PISTOJO.** *Ikus / Ver* **PISTA**

## **PITARRA**

Ziur aski, noiz edo noiz entzungo genuen "estar dándole a la *pitarra* todo el día" esamoldea edo antzekoren bat. "Alkoholun edariak hartzea" adierazteko balio du, eta esanahi horrekin erabiltzen dugu bertan.

Baina berez, zizar moduko bat da *pitarra*, uraz eta sagar zanpatuen zukuaz edo lehenengo hartziduraren hondakinez nahastutako sagardoa. Halaber, prentsaldiaren hondakinez egindako ardo txarrari ere esaten zaio. Hemen, Laudion, ez dugu esanahi horrekin erabiltzen, *pitiki* erabiltzen baitugu horretarako, aurrerago ikus daitekeenez.

Edozelan ere, euskarazko gure *pitarra* horrek mugak zeharkatu zituen eta gaztelaniak mailegu legez hartu zigun. Esan bezala, euskaratik hartu ere.

Horrexegatik ematen zaio *pitarra* izena etxean, familian ekoiztutako ardoari, zeina Extremadurako zati handietan eta Gaztela-Mantxan, Gaztela eta Leonen nahiz Andaluziako eskualde mugakideetan oso arrunta baita.

Hedapenez, ardo hori prestatzeko erabiltzen diren buztinezko tina handiei ere esaten zaie *pitarra*.





Esan genezake txerrikiez gain, pitarra ere Extremadurako ikurra dela, jai herrikoi edota ospakizunetan nahitaezko osagaia izaten baita.

Hango lur eguzkitsuari esker, zelanbaiteko kalitatea du pitar-ardo estrema-durarrak, eta, batez ere, alkohol gradu altua. Beraz, hasiera batean euskaraz 'ardo arola, alkohol gutxikoa' zena, 'izaera sendoko ardoa, alkohol askokoa' bihurtu zen.



A veces escucharemos la expresión "estar dándole a la *pitarra* todo el día" o similares. Hace alusión a la ingesta de bebidas alcohólicas y con ese significado lo usamos en nuestro pueblo.

Pero en realidad *pitarra* es una referencia a una especie de aguapié, una sidra con agua y el jugo de manzanas aplastadas o con los restos de la primera fermentación. También a un vino, de baja calidad, hecho con los residuos de la prensada. Aquí, en Laudio, no la usamos en ese sentido ya que para ello nos valemos de la palabra *pitiki*, recogida también en este trabajo. En cualquier caso, nuestro término del euskera *pitarra* cruzó fronteras y fue adaptado por el castellano para sí. Insistimos, a partir del euskera.

De ahí que con el nombre de *pitarra* se conozca el vino casero, familiar, producido en grandes zonas de Extremadura y puntos colindantes de Castilla-La Mancha, Castilla-León y Andalucía.

También, por extensión, se denomina *pitarra* a las grandes tinajas de barro en donde se elabora ese vino.

Podríamos afirmar que en Extremadura, al margen de los productos del cerdo, el vino de pitarra es un símbolo de la tierra, algo que no puede faltar en ninguna fiesta popular o celebración.

La abundancia de sol de aquellas tierras hace que el vino de pitarra extremeño goce de cierta calidad y, sobre todo, de una elevada graduación alcohólica. Es decir, que aquello que en el euskera inicial se usaba para denominar a un 'vino flojo' se convirtió en el castellano en un 'vino de carácter y fuerte'.

## PITIKI

Laudion *pitiki* berba erabiltzen dugunean —*pitiki* ahoskatuta—, erreferentzia egiten diogu alkohol gutxiko edari bati, kalitate txarreneko sagarrekin egiten zena, hau da, lurretik hartutakoekin, harra zutenekin... Zurezko mailu batez zanpatzen ziren eta ura gehitzen zitzaion nahasketari. Leku fresko eta ilu-



nean gorde ostean, hartzidura hasten zen eta sentsazio pindartsua, txinpartaduna hartzen zuen. Orduan edan behar zen, unean bertan, ez zelako gordetzekoa.

Zelanbait esatearren, sagardo arola zen, kalitate urrikoa. Beraz, umeek edateko egokia zen, eta poz-pozik jartzen ziren etxean *pitikia* prestatzen ari zirela jakitean.

Hala ere, oso bitxia da gure udalerrian berba hori sagarrari edo sagardoari lotua erabiltzea, hiztegien arabera, 'zanpatutako eta dolaretik berreskuratutako mahats-lapari ura gehituta prestatzen zen kalitate txikiko ardoa' baita beste leku batzuetan *pitikina*, gaztelaniaz *aguapié* esaten dena.

Gertuko beste herri batzuetan *pitipin* legez ezagutzen dute '*pitikia*, klase baxueneko txakolina', eta halaxe jaso zuen R. M. Azkuek bere hiztegi handian (1905).

Guk ez dugu ia zalantzarik: Bordeletik, Arroxelatik eta beste zenbait lekuetatik itsasoan zehar euskal portuetara inportatzen ziren ardo mikatz samarrei emandako izendapena izango da. Frantsesez *petit vin* 'ardo txiki', 'ardo eskas' deitzen diren ardoez ari gara. Maila eta kalitate txikikoak dira, eta, ondo begiratzen badiogu, euskarazko *pitipin* berbak frantsesezko izendapenaren esanahi berbera du, eta antz handia, eboluzio fonetiko logikoa kontuan hartuta.

Aintzat hartuta *pitarra* berbak antzeko esanahia eta erro berbera duela, termino beraren bi aldaera direla esatera ere ausartu gintezke, jatorri bera edo oso gertukoa izanda.

Laudioko kasuan, gure iragan sagardogilearen oroitzapena izango da gure berba, aspaldiko garaietan sagardo asko ekoiztu izan baitugu bertan, eta on askoa. Ziur aski, sagar zanpatuaren hondakinekin kalitate txikiagoko edariren bat egingo zen, Asturiasen *magalla* legez ezagutzen denarekin. Garai hartan, dagoeneko zanpatua zeuden sagarren arrastoekin egingo zen gure *pitiki* —*pitikin* berbaren aldaera— hura. Agerikoa denez, sagardoa egiteari uztean, ezingo zen prestatzen jarraitu, beraz, uste izatekoa da zurezko mazo batez jotako sagarrekin egindakoak ordeztuko zuela, eta horrexegatik ezagutzen dugu gaur egun *pitiki* ezagutzen dugun legez.



Cuando usamos en Laudio la palabra *pitiki* —acentuado *pitikí*— hacemos referencia a una bebida de escaso grado alcohólico y que se preparaba a partir de las manzanas de peor calidad, las caídas al suelo, con gusano... Se aplastaban con una maza de madera y a la mezcla se le añadía agua. Tras guardarlo en un lugar fresco y oscuro, comenzaba la fermentación que le



daba cierta sensación burbujeante, de aguja. Era entonces cuando había de ser consumida, al momento, ya que no se guardaba.

Se trataba, por así decirlo, de una especie de sidra muy aguada, de baja calidad, apta por tanto para los niños, que celebraban con júbilo cada vez que se elaboraba.

Sin embargo, el uso de esa palabra en nuestro municipio con referencia a la manzana o sidra es muy peculiar puesto que en otros lugares, la definición que nos dan los diccionarios, será la de que *pitikin* es un 'vino de baja calidad que se elaboraba echando agua en el orujo pisado y apurado en el lagar', lo que en castellano se conoce como *aguapié*.

En otras localidades se conoce como *pitipin* y denomina al 'aguapié, chacolí de clase inferior' como recogiese R. M. Azkue en su gran diccionario (1905).

Por nuestra parte, prácticamente no tenemos dudas: ha de tratarse de la denominación que se les daba a los vinos, bastante ácidos, que se importaban por mar a los puertos vascos, procedente de Burdeos, La Rochelle, etc. Eran aquellos denominados en francés *petit vin* 'vino pequeño', de poca monta, escaso de calidad y que muestra una gran similitud con el *pitipin* vasco, en una lógica evolución fonética y con idéntico significado de vino malo para cuando no hay más.

Visto el significado similar y la idéntica raíz de la palabra *pitarra*, no sería de extrañar que fuesen variantes de un mismo término, con un origen común o muy cercano entre sí.

En el caso de Laudio, nuestra palabra será el recuerdo de nuestro pasado sidrero, pues en siglos pasados hemos producido mucha y abundante sidra. Probablemente se haría una bebida de inferior calidad con los restos de la prensada de manzana, con los sobrantes de lo que en Asturias se conoce como *magalla*. Nuestro *pitiki* —variante de *pitikin*— se haría por aquel entonces reutilizando los residuos de la manzana ya prensada. Evidentemente, al dejar de hacer sidra no podía elaborarse por lo que suponemos que sería sustituida por unas manzanas aporreadas con un mazo de madera, que es como conocemos el *pitiki* en la actualidad.

**PITILIN.** *Ikus / Ver* **TXILINA**



## PLISTI-PLASTA

Onomatopeia dugu berba hau eta umeekin erabiltzen da batez ere. Zaplaztekoen, ur-jolasen eta antzekoen soinuari egiten dio erreferentzia, zelanbait esatearren, eztanda-soinuei. Horiek horrela, arruntak dira gure artean "ahí anda, *plisti-plasta* en medio del río" esamoldeak eta antzekoak.



Se trata de una expresión con origen onomatopéyico y que se usa especialmente en el ámbito infantil. Hace referencia al ruido de bofetadas, chapoteo o cualquier sonido de ese estilo, en cierto modo explosivo. Así, expresiones del tipo "ahí anda, *plisti-plasta* en medio del río" son comunes entre nosotros.

## PORRUSALDA

Izenak berak dioskunez, 'porruz prestatutako salda' da *porrusalda*. *Porru* eta *salda* berbak elkartuta sortzen da, azken horrek 'zopa' edo lapikokoa esanahia ere har dezakeen arren. Oso hedatua eta errotua dago *porrusalda* berba gaur egungo Laudion.

Oso plater soila da, merkea, eta, beraz, eguneroko sukaldaritzan oso erabilgarria, bereziki, neguan. Garai batean, gaixotasun asko sendatzen laguntzeko balio zuela uste zen. Ziur aski, kroniko bihurtutako gose hura arintzen zuelako izango zen.

Hasiera batean, ur gazitan egositako porru aromatikoak izango ziren, eta zorte apur batekin, koiperen bat ere edukiko zuen. Posible zenean, kuiaz edo eskura zeuden beste edozein osagai gehituta finduko zutela ere pentsatzen dugu. Horrelakoa izango zen jatorrizko *porrusalda*.

Denborak aurrera egin ahala, eta duela ez asko, patata gehituko zitzaion errezetari, tuberkulu hori aspaldi ekarri zelako Amerikatik, baina duela gutxi hasi baitzen gizakion elikaduran erabiltzen. Gaur egun, pentsaezina da platera patata barik irudikatzea, baina horiek gehitzea ere ez da nahikoa izan errezetaren izena aldatzeko. Horiek horrela, Laudion *porrusalda* izaten jarraitzen du, eta ez *porrupatatak* edo *patataporruak*, beste leku batzuetan bezala. Ahoskatzeari dagokionez, maiz entzungo dugu *porrusalda* aldaera, formarik jatorrena *porrusalda* den arren.

Bestalde, *porrusalda* edota *puerro* legez ezagutzen dugu dantza askatu bat ere; oso mugitua da, eta *arin-arin* izena ere ematen zaio. Dantza mota



horren hedapen historikoari erreparatuta, ikusiko dugu Bilbotik hasi eta herrialde osora zabaldu zela. Dirudenez, Ingalaterratik portuan zehar etorritako gustuak ditu oinarrian. Laster lortu zuten arrakasta, izan ere, kontaktu bariko dantza izan arren, bikoteka dantzatzeko aukera ematen zuen hain erreprimetua bizi zen gizarte baserritar hartan.

Elizaren nahiz politikarien sektorerik kontserbadoreenak haserrez ikusi zuten dantzaren arrakasta eta hedapena, gizakien nahaste hura erabat lizuna iruditzen zitzaielako. Hala ere, *porrusalda* hura gailendu egin zen azkenean, eta, gaur egun, herrialdeko dantza tipikoenetako bat da.



Como su nombre lo indica, *porrusalda* es un 'caldo de puerros'. Surge de la suma de *porru* 'puerro' y "*salda*, 'caldo', aunque esta última también puede significar 'sopa' o 'potaje' incluso. El uso del término *porrusalda* está muy arraigado y extendido en el Laudio actual.

Es un plato muy simple, económico y por tanto muy recurrido en la cocina diaria, especialmente en la de invierno. Antiguamente era considerado como un alimento con el que mejoraban y sanaban muchas enfermedades. Probablemente porque calmaba aquel hambre que no dejaba de ser crónica.

En origen debió de ser una cocción de agua con sal, algo de grasa si había suerte, y a la que se añadían los aromáticos puerros. Suponemos que también lo afinarían con calabaza cuando era posible o con cualquier otro ingrediente que se tuviese a mano. Así sería la *porrusalda* original.

Con el paso del tiempo, y no muy lejano cronológicamente, se añadiría patata, tubérculo proveniente de América y comenzado a consumir en nuestro entorno no hace tanto. Hoy en día nos resultaría impensable concebir el plato sin esas patatas pero, sin embargo, su incorporación no ha sido lo suficientemente influyente como para cambiar la denominación, manteniéndola en Laudio como *porrusalda* y no con *porrupatatak* o *patataporruek* como cabría esperar y que se usan en otros lugares.

A la hora de ser pronunciada, escucharemos muy a menudo la variante *purrusalda* si bien la forma más genuina es *porrusalda*.

También con *porrusalda* o incluso *puerro* conocemos un baile suelto, muy movido, también denominado *arin-arin*. Es un tipo de danza que, en su expansión histórica, se irradia desde Bilbao a todo el país. Se basa al parecer en aires traídos desde Inglaterra a través del puerto. Pronto causaron furor ya que, aunque fuese sin contacto, permitía el baile en pareja en aquella sociedad rural tan reprimida.



Su éxito y propagación enfurecía a los sectores políticos y eclesiásticos más conservadores por lo deshonesto que les parecía aquella mezcla humana. Sin embargo, aquella *porrusalda* acabó imponiéndose y hoy la consideramos como una de las danzas típicas de país.

## POTOLO

Ziur asko, sarri entzungo dugu egunerokotasunean *potolo* berba. 'Lodixko' esan nahi du eta, hedapenez, 'osasuntsu, eder, sasoiko'. Horrek agerian uzten du gose gorriko garaietan osasun onaren, oparotasunaren eta are edertasunaren zeinuzat ere jotzen zela gorputzean koipe asko izatea.

Berbaren aldaera gertukoagoa, abegitsuagoa eta familiartekoa dugu *potxolo*, hau da, 'loditxo eta, hedapenez, 'osasuntsu, eder, sasoiko'.

Potolo zein potxolo berbak maskulino zein femenino izan daitezke euskaraz. Baina berbok gaztelaniaz erabiltzerakoan, eraldatu behar izaten ditugu hizkuntza horren beharretara egokitzeko. Hori dela eta, "chico *potolo*", "chica *potola*", "chico *pocholo*" eta "chica *pochola*" esan ohi dugu.

Hain orokorra da azken berba horren erabilera, ezen gaztelaniak euskaratik mailegatu baitu erabilera arrunterako. Hortaz, *pocholo* eta *pochola* Cervantesen hizkuntzaren parte dira jada, eta gaztelaniaren akademiak ematen dion esanahia 'polita, erakargarria edota atsegina' da.



En nuestro día a día escucharemos a menudo la palabra *potolo*. Significa 'regortete/a' y, por extensión, 'hermoso/a'. Es el recuerdo de aquellas épocas de hambre en las que la abundancia de grasas en el cuerpo se tenía por signo de salud, opulencia y hasta de hermosura.

Una variante más familiar, cercana y cariñosa, lo es la de *potxolo*, algo así como 'regordito/a' y, por ende, 'hermosito/a'.

Ambas palabras, *potolo* y *potxolo* sirven en euskera tanto para el masculino como para el femenino. Pero al hacer uso de ellas dentro del castellano las transformamos para adecuarlas a las necesidades de esta lengua. Por eso decimos "chico *potolo*", "chica *potola*", "chico *pocholo*" y "chica *pochola*".

Es tan generalizado el uso de esta última palabra que el castellano la ha adoptado del euskera para su uso habitual. Así, *pocholo* y *pochola* son ya parte integrante de la lengua cervantina y el significado que le atribuye su academia es el de 'bonito, atractivo o agradable'.



## POTXOLO. *Ikus / Ver* POTOLO

### PUTXA

Deigarria da gure *putxa* berbaren kasua, izan ere, erabat normalizatua dago bere erabilera baserri munduarekin harremanen bat izan duen gizartearen zatian, baina, udalerriko hiri-ingurunean, ostera, ia guztiz ezezaguna da.

Berba horrekin 'gatzatu' edo 'mamia' jakiei egiten zaio erreferentzia, bereziki, ardi esnez egindakoari, nahiz eta behi esnez edo ahuntz esnez egindakoa izendatzeko ere balio dezakeen.

Arratia-Nerbioi eskualdean baino ez da erabiltzen, eta indar berezia du Gorbeia inguruan. Euskal Herriaren mendebaldean erabili izan den sinonimo bat *gatzatua* da. Euskara baturako utzi den *mamia* berba urrunagoko aldaera da.

*Putxa* berbak izendatzen duen kontzeptua 'bigun' kontzeptuaren antzekoa da, baina *gatzatu* aditzak edozein produktu 'loditzea, mamitzea' esan nahi du. Esaterako, gertuko herrietan, besteak beste, Orozkon 'koagulu edo odolbatuak' izendatzeko erabili izan da berbagai dugun *gatzatu*. Berez, *gatzatu* berbaren osaera *gatzagi* 'legarra' + *—tu* da; atzizki horrek aditz bihurtzen du aurretik duen berba. Jakin badakigunez, legarra edo gatzagia edoskitze garaian dauden ugaztunek urdailean duten legamia edo hartzigarria da, eta esnearen kaseina koagulatzen du. Gaur egun, *putxa* prestatzeko gatzagiak kimikoak izaten dira eta farmazia edo supermerkatuetan erosten dira.

Modu xaloan azalduta, gazta egiteko lehenengo pausoa da *putxa* prestatzearena. Behin irabiatuta, gazura kentzen zaio *matoi(n)a* deritzonari, hau da, geroago gaztak egiteko prentsatu egingo den gaztanbera modukoari. Dena den, eta nahieran kontsumitu badaiteke ere, ohikoena eta seguruena da *putxa* esne gordinaz egitea gazta egiteko bada, eta esne egosiaz egitea postre legez jatekoa bada.

Egiari zor, berba hau ez da uste bezain bertokoa, latinezko *puls*, *pultis* hartatik baitator 'ahia, eltzekoa' esanahiarekin. Handik dator, esaterako, *puchero* berba. Amaitzeko, adieraziko du *pucha* edo *puches* deitzen zaiela gure eskualdetik urrun *gachas* izeneko ahiari, zeina irinaz, uraz eta gatzaz egiten baita, beste osagai batzuk ere gehitu ahal zaizkion arren.



Llama la atención el caso de nuestra palabra *putxa* pues su uso está perfectamente normalizado en aquella franja social que ha tenido cierto contacto



con el mundo rural y, sin embargo, es prácticamente desconocida en el entorno urbano del municipio.

Cuando la empleamos, estamos haciendo referencia a la 'cuajada', especialmente la elaborada con leche de oveja, si bien puede serlo también de vaca o cabra.

El uso de este término está circunscrito a la comarca de Arratia-Nervión y tiene especial fuerza en todo el ámbito de Gorbeia. Otro sinónimo usado en el occidente vasco ha sido el de *gatzatua* y, en otros territorios más alejados, *mamia*.

El término *putxa* es un concepto similar a 'blanducho' mientras que *gatzatu* significa 'cuajar(se)' cualquier cosa. Por ejemplo, en pueblos cercanos como Orozko *gatzatu* se ha usado para denominar los 'coágulos de sangre'. En realidad la voz *gatzatu* proviene de *gatzagi* 'cuajo' + *-tu*, partícula que convierte en verbo la parte precedente. El cuajo, como sabemos, es un fermento de la mucosa del estómago de los mamíferos que se encuentran en el período de lactancia, que coagula la caseína de la leche. En la actualidad, los cuajos usados para elaborar la *putxa* suelen ser químicos y se adquieren en farmacias o supermercados.

Contado a groso modo, la *putxa* es el primer paso en la elaboración del queso. Tras batirla, se separan el suero de la *matoi(n)a*, especie de requesón que se prensa a continuación para elaborar los quesos. Pero, a pesar de que se pueda consumir de cualquier manera, lo habitual y por razones de seguridad, es que la *putxa* para el queso se haga con la leche cruda mientras que la de consumirse como postre se cueza previamente.

En realidad nuestra palabra local no lo es tanto porque viene del latín *puls*, *pultis* 'papilla, cocido'. De ahí surge, por ejemplo, la palabra *puchero*. También con *pucha* o *puches* se denominan fuera de nuestro ámbito las *gachas*, una papilla de harina, agua y sal con otros aditivos.

## PUTXI

Berba hau "el último... ¡putxi!" esamoldean erabiltzen da beti, jolas moduko bat planteatzeko: helburua betetzen azken pertsona galtzaile bihurtzen da, eta *putxi* izatearen laidoa jasan behar du.

Euskal geografía osoko gatzelanian hain arrunt izanagatik, ezer gutxi dakigu berba horretaz. Hala ere, ez da zaila *putxitu* aditzarekin erlazionatzea. Euskal Herriko mendebaldean eta Laudio inguruko herrietan erabiltzen da, adibidez, Orozkon, eta R. M. Azkuek 'Bankua saltaraztea, nork bere diru guztia galtzea jokoan' definizioarekin jaso zuen 1905eko *Hiztegia* lanean. Bestela





esanda: 'galtzaile izatea' da *putxitzea*, eta esanahi horrek ederto egiten du bat gure berbarekin.



Usamos este término siempre dentro de la expresión "el último... ¡putxi!", en una especie de juego, en el que quien llegue o haga el último se convierte en perdedor o carga con el deshonor de ser *putxi*.

No sabemos gran cosa de esta palabra que es tan común en el castellano de todo el ámbito geográfico vasco. Pero no es difícil relacionarla con el verbo *putxitu* que, en el oeste vasco o incluso en municipios colindantes al nuestro como es Orozko, recogió R. M. Azkue en su *Diccionario* de 1905 con el significado de 'Desbancarse, perder en el juego cuanto dinero llevaba'. Es decir, 'ser el perdedor', lo que encaja a la perfección con nuestro vocablo.

## PUTXIGA

Laudion darabilgun *putxiga* berba hedatuagoak dauden *puxika* edota *bixika* berben mendebaldeko aldaera da. Maskuriari egiten dio erreferentzia, hau da, izaki askok gernua kanporatu aurretik hori metatzeko erabiltzen duten organoari, zeina mintz moduko ehunaz egina baitago. Euskarazko zein gaztelaniazko berbak latinezko *vesīca* terminotik datoz.

Txerriaren zati estimatua zen oso *putxiga*, txarribodetan preziatua. Alde batetik, adiskideak astintzeko balio zuten *puxika* moduko batzuk egiteko balio zuen. Gogoan izango ditugu denok herriko buruhandiak, umeen atzetik korrika, eskuan maskuria bat zutela.

Horrez gain, txorizoak eta lukainkak garraiatzeko ere erabiltzen ziren Laudioko gure baserrietan, plastikozko ontzia agertu ziren arte, behintzat. Maskuria ondo garbitu ostean, alderantzikatu egiten zen, gernuarekin kontaktuan egondako aldea kanpoan geratzeko, txorizoak barruan biltzen ziren, gantza botatzen zitzairen eta listariak edo bestelako kordel batez lotuta ixten zen dena. Kilo 1 edo 2 sartzen ziren, gutxi gorabehera, txorizo dozena bi. Txorizoak maskurian sartuta ematea zen ohikoena oparia egiteko, eta oso gauza preziatu zen hori.



El término *putxiga* usado en Laudio es una variante occidental de otras palabras más extendidas como *puxika* o *bixika*. Hace referencia a la vejiga, ese



órgano membranoso con forma de bolsa en donde muchos seres vivos retienen la orina antes de expulsarla. Tanto la palabra del euskera como la del castellano, provienen del latín *vesīca*.

La *putxiga*, especialmente la de cerdo, era algo bien valorado en la matanza del cerdo. Por una parte, servía para hacer una especia de globos con los que se pegaba a los compañeros. Todos hemos conocido a los cabezudos de nuestras fiestas persiguiendo a los pequeños con una vejiga en la mano. Además, se usaban en nuestros caseríos para el transporte de los chorizos y longanizas, antes de aparecer los recipientes de plástico. Se limpiaba bien la vejiga, se la daba la vuelta —así la pared que había estado en contacto con la orina quedaba en el exterior— se plegaban dentro los chorizos, se echaba la manteca derretida y se cerraba atada con una hilo-bala. Entraban 1-2 kilos, unas dos docenas de chorizos. Los chorizos en vejiga era la forma habitual de presentación cuando se hacía un regalo, algo muy apreciado.

## QUIMA

Kontuan hartuta gaztelaniazko *quima* eta euskarazko *kimua* berben antza eta biek 'landareen pujak edo begiak' izendatzeko balio dutela, pentsatzekoa da euskal jatorria izango duela gaztelaniazkoak. Hala ere, latinezko *cyma*, *-ātis* 'landareen begiak' terminotik datoz biak, eta *quima* berba gaztelaniazkoa da, ez euskarazkoa.



La coincidencia de *quima* con el *kimua* del euskera para designar los 'brotes de las plantas', ha hecho pensar e más de una ocasión que se trata de un vocablo vasco. Sin embargo ambas proceden del latín *cyma*, *-ātis* 'brote de planta' y *quima* es una palabra que forma parte del castellano, no del euskera.

## QUIÑAR

Laudioko gaztelaniaz erabiltzen dugun *quiñar* aditza euskarazko *kinatu* berbaren moldaketa da. Azken hori, halaber, *keinatu* aditzaren aldaera dialektala da. Bien jatorria *keinu* 'zeinu, seña' terminoan dago eta horrek, bere aldetik, latin berantiarreko *cinnus* berban du jatorria, hau da, 'begiekin egiten den seña', gaztelaniazko *ceño* berbarekin gertatzen den legez.



Dena den, euskarara itzulita, hala *keinatu* berbak nola *kinatu* aldaerak 'keinu, seinale, imintzio, zeinu... egiteaz' gain, beste esanahi batzuk dituzte, esanahi zabalagokoak, eta, beraz, horiek interesatzen zaizkigu bertoko kasua aztertzeko. Esaterako, 'zeinu bidez mehatxatzea' ere esan nahi du, edo 'erronka jotzea', edo 'esku pilotan keinada egitea gero uzteko'. Gaztelaniazko *ceño* antzekoa da. Errege Akademiaren hiztegian: 'bekainartea zimurtuz egiten den haserre edota sumin keinua' da.

Ondo, bada. Nahaspila horretatik sortzen da euskarazko hitza, Laudion gaztelaniaratu duguna. Bestela esanda, sustraiak hizkuntza batean eta gara-pena beste batean daukan aditz bat sortu dugu: *kiñar* edo *quiñar* aditzaz ari gara. Berba ederra gero, eta oso erabilia duela gutxi arte, urterik urte presentzia galduz doan arren.

Gure herrian, pertsona bat beste bati edo animalia bati edo edo dena delakoari *quiñando* ari zaiola esaten dugu suabeki eta 'indarkeria barik baina setati gogaitzen eta zirikatzen' ari dela adierazteko.

Gogoan dut gure familiako uda jolasetako bat zela kilkerrak *kinatzea*. Gure asmoa ez zen kilkerrak harrapatzea, kaiolatxoak bete-bete eginda genituelako; guk gogaitzea besterik ez genuen nahi, eta, horretarako, zotz txiki bat sartzen genuen euren zuloan, sumindutako ateratzen ziren arte.



El verbo *quiñar* que usamos en Laudio es una adecuación del verbo *kinatu* al castellano. A su vez, es una variante dialectal de *keinatu*. Ambas derivan de *keinu*, 'signo, señal' y surge ésta del latín tardío *cinnus* 'señal que se hace con los ojos', al igual que nos sucede con la palabra castellana *ceño*.

Pero, de vuelta al euskera, tanto *keinatu* como su variante *kinatu* tienen además del significado de 'hacer una seña, mueca, gesto, ademán, guiño...' otras acepciones más amplias y que son las que interesan para nuestro caso local. Entre ellas, la de 'amenazar con seña o hacer seña de amenaza', 'desafiar', 'amagar en el juego de la pelota para luego dejarla'. Similar asimismo al castellano *ceño* que antes hemos referido y cuya primera acepción es la de 'demostración o señal de enfado y enojo que se hace con el rostro, arrugando el entrecejo' según recoge el *Diccionario* de su Academia.

Pues bien. De toda esta mezcolanza surge una palabra del euskera que en Laudio hemos castellanizado. Es decir, que hemos generado un verbo que tiene raíz en una lengua y desarrollo en otra: se trata de *quiñar*, una preciosa palabra hasta hace poco muy usada pero que va perdiendo presencia año tras año.



En nuestro pueblo se dice que una persona anda *quiñando* a otra o a un animal o a lo que fuese, cuando le anda 'molestando y fastidiando de un modo suave, sin ser violento, pero muy molesto por su insistencia'.

Recuerdo que uno de los juegos veraniegos de nuestra infancia era ir a *quiñar* a los grillos. No para atraparlos, pues ya teníamos las grilleras llenas, sino por el simple hecho de molestarlos, provocándolos, introduciendo una pajita en su cueva y agitándola hasta que saliesen enfurecidos de su agujero.

## SAGUTXU

Laudion eta eskualde osoan erabiltzen da *sagutxu* berba 'saguak' izendatzeko. Oso hedatua eta gizarteratua dago. Izan ere, askok ez luke jakingo beste barbarik erabiltzen.

Berez, 'sagu ñimiño', 'sagu txiki' esan nahi du *sagutxu* berbak, azken —*txu* horrek izaera txikigarria duelako aurreko elementuarekiko, hau da, kasu honetan, *sagu*, berbarekiko.

Hala ere, Laudion ez denez erabiltzen *sagu* berba, *sagutxu* horrek ez du konotazio txikigarri espezifikorik eta, beraz, forma orokor eta bakarra da guretzat. Txikigarria eransten zaionean, gaztelaniaren bitartez egin ohi da, *saguchillo* legez: "allí andaba un *saguchillo* comiendo las boronas". Dena den, soilik *sagutxu* berba erabiltzea da arruntena.

Euskal Herriaren mendebaldeko ezaugarri bereizgarria da —*txu* txikigarria, beste lurraldeetan —*txo* erabiltzen baita: *sagutxo*.

Animalia horrekiko bizikidetzari dagokionez, gogoan izan behar dugu gogaikarriagoa izan dela gorrotagarria baino. Zerikusirik ez, beraz, haien ahaide *arratoiekin*, zeintzuek nazka eta arbuio askoz ere handiagoak eragin baitituzte.



El nombre *sagutxu* es usado en Laudio y toda la comarca para referirnos a los 'ratones'. Está muy extendido y socializado. De hecho, mucha gente no concebiría denominarlo con otro término.

En realidad *sagutxu* significa 'ratoncillo/a', 'ratón pequeño', ya que el —*txu* final es un sufijo usado para dotar de carácter diminutivo a la palabra anterior, en este caso *sagu*, 'ratón'.

Sin embargo, en el uso que en Laudio hacemos de esos términos, no se utiliza la palabra *sagu* por lo que *sagutxu* no tiene connotaciones diminutivas



específicas y se usa como forma general, única. Y de hacerse un diminutivo se realiza, por medio ya del castellano, como *saguchillo*: "allí andaba un *saguchillo* comiendo las boronas". Pero lo normal es valerse solamente de la palabra *sagutxu*.

La terminación en *—txu* es característica del occidente vasco, ya que en otros territorios se utiliza *—txo*: *sagutxo*.

Respecto a la convivencia con este animal, conviene recordar que ha sido más molesto que odiado. Nada que ver con sus parientes las *ratas* que han generado un rechazo y repugnancia infinitamente mayor.

## SAGUZAR

Gutxika-gutxika zaharrenen belaunaldia galtzearen ondorioz, gero eta arra-roagoa da *saguzar* berba entzutea *—sagusár* ahoskatuta— gaztelaniaz, baina duela zenbait hamarkada arrunt askoa zen. 'Gauenara edo zapokinuria' animalia-aren euskal izen arruntena da.

Singularrean, *sagusár* forma hartzen zuen *—edo hartzen du—* berbak, eta gaztelaniazko pluralean *sagusáres*, nahiz eta espero izatekoa litzatekeen *sagusarres* izatea forma plurala, azken *r* hori indartsua delako, bikoitza, eta euskaraz *zahara* barik, *zaharra* esaten dugulako. Hala ere, berriro diot modu bitxi horretan erabili izan dela gurean: "andaban revoloteando unos *sagusares* en la ventana".

Gainera, berba horrekin izendatzen zen Gardea (Laudio) auzuneko jendea, horren zergatia ez dakigun arren. Izan ere, aspaldi itxitako taberna batean, zehazki, "Garaiotarren tabernan", txintxetaz lotutako saguzar bi zeuden ikusgai. Gauza xeblebre eta estimatua ziren saguzar horiek auzoan. Halaber, duela hamarkada batzuk, zenbait jai elkarte eratu ziren Gardean, baita futbol taldeak ere, eta, jakina, hobetoen identifikatzen zituen izena aukeratu zuten: *saguzarrak*, nahiz eta haiek *Zaguzarák* idazten zuten.

Espekulazioetan sartu garelarik, baliteke ezizen horren bidez adierazi nahi izatea auzo horretakoak 'gauzaleak', 'gautxoriak' direla, hau da, apur bat 'alprojak', izan ere, esanahi osagarri hori dute *saguzar* berbak zein lehenago jorratuko *mozollo* horrek. Ezin dugu ahaztu 1936ko Gerra Zibilaren aurretik, eskualde osoko "pelegrinazio-lekua" zela Gardea, eta, beraz, han geldialdia egin behar zuela derrigor parranda, bola-jokoa, abestiak eta jan-edan onak maite zituen edozeinek.

Eta espekulazioen eremutik errealitatera etorrita, bada Europa eta Amerika osoan zehar hedatutako sinesmen orokor bat, zeinaren arabera urte mor-doa duten saguak baitira gauenarak. Halaber, sinesmenak dio adinaren adi-



naz atera zitzaizkiela hegoak. Ageri agerian geratzen da hori gure berbaren formari erreparatuta: *sagu* + *zahar*. Zirkunstantzien arabera, zori ona edo txarra ekar zezaketen berbagai ditugun animaliatxoek.

Kasu bat aipatzearren ekarriko dugu hona dagoeneko ia ezezaguna den euskal sinesmen herrikoi bat, zeinaren arabera saguzarrei bota behar zaizkien umeei erortzen zaizkien hortzak, «*saguzarra, eutsi agin zaharra*» esatearekin batera. Zalantza barik, Pérez sagutxoaren ohitura moderno eta inportatuarekin lotu daiteke hori: ziur aski, antzinako folklореko sinesmen berberei egingo diete erreferentzia bi usadioek.

Amaitzeko, eta bitxikeria gisa, gaztelaniazko berbak ere animalia horien ezaugarri bati egiten dio erreferentzia, oraingoan ere, *sagu* arraro bat delako ustea zabalduz. *Murciélago* berbaren jatorrian, *mur* 'sagu' eta *ciegalo* daude, biak latinezkoak —*mus-muris* eta *ceculum*—, beraz, berbaren esanahi literala 'sagutxo itsua' litzateke.



Como consecuencia de la progresiva pérdida de la generación de más edad, cada vez resulta más extraño escuchar el uso de la palabra *saguzahar* —pronunciada *sagusár*— en castellano, algo que era relativamente común hasta hace unas décadas. Hace referencia a los 'murciélagos'.

En singular se usa en Laudio como *sagusár* y en plural *sagusáres*, en vez del *saguzarres* que cabría esperar ya que esa *r* final es fuerte, doble, pues en euskera decimos *zaharra* y no *zahara*. Pero, insisto, en nuestro pueblo se ha usado de esa forma tan peculiar: "andaban revoloteando unos *sagusares* en la ventana".

Sin que sepamos por qué, además, esta palabra era usada para denominar a modo de apodo a la gente del barrio de Gardea. De hecho hasta había unos murciélagos expuestos sujetos con unas chinchetas en un desaparecido bar, "el de los Garaio". Aquellos murciélagos eran algo pintoresco y celebrado en el barrio. También hace unas décadas surgieron en Gardea algunas asociaciones festivas e incluso futbolísticas con el nombre que mejor les identificaba: *saguzaharrak*, 'los murciélagos', aunque lo escribían *Zaguzáarak*.

Puestos a especular, podría ser que bajo ese sobrenombre se encuentre el concepto de 'noctámbulos', 'trasnochadores', es decir, un poco 'golfos' ya que tanto la palabra *saguzahar* como la de *mozollo* —que ya tratamos anteriormente— tienen ese significado complementario. No olvidemos que hasta antes de la guerra de 1936, Gardea era el centro de peregrinación de toda la comarca, de obligada concurrencia para todo aquel amante del jolgorio, los bolos, el cantar y el buen comer y beber.



Lo que ya no es especulación y sí realidad es la existencia de una creencia general extendida por toda Europa y América según la cual los murciélagos son en realidad unos ratones con muchísimos años, tanto que les han salido alas. Y ahí entronca el significado de nuestro vocablo, ya que *saguzar* (*sagu* + *zahar*) significa literalmente 'ratón viejo'. Eran además unos animalillos portadores de buena o mala suerte, según las circunstancias.

Por citar un caso, existe una creencia popular vasca, ya casi desconocida, que dice que hay que arrojar el diente caído de los niños a los murciélagos que revolotean mientras se decía «*saguzarra, eutsi agin zaharra*» 'murciélago, toma mi vieja muela (diente)'. Sin duda, enlaza con la costumbre moderna e importada del ratoncito Pérez: debemos estar haciendo referencia a las mismas antiquísimas creencias folclóricas.

Para finalizar y como curiosidad, también la palabra del castellano hace referencia a otra característica de esos animales y de nuevo relacionándolo con la creencia popular de que se trata de un ratón. *Murciélago* proviene de *mur* 'ratón' y *ciegalo*, ambas con origen en el latín —*mus-muris* y *ceculum*— y que significa literalmente, 'ratón cieguito'.

## SALTAMATXIN

Berba bitxi hori erabiltzen da Laudion eta Bizkaiaren zati handi batean, 'matxinsalto' esanahiaekin eta azentua azken silaban ipinita. Euskal Herriaren mendebaldeko beste lekuetan izen desberdinak ditu intsektu honek: *saltamatxino*, *saltomatxin*, *saltamatxingo* nahiz lehenago aipatutako *matxinsalto* estandarra. Baina Laudion, *saltamatxin* erabiltzen dugu.

Zomorrotxo atsegin hauen ezaugarririk nabarmenena adierazten du berbak, hau da, saltoka mugitzeko gaitasunari. Gaztelaniaz ere, ezaugarri horrek definitzen du bere izena: 'mendirik mendi saltoko dabilena', *saltamontes*.

Aitzitik, saltoen erreferentzia gorabehera, euskaraz *matxin* terminoa presente dugu beti, txantxangorriez berba egin dugunean gertatu legez. *Martin* izenaren txikigarria da, *Martintxo* moduko bat.

Ez dakigu zer tradizio popularri egiten dion erreferentzia edo zer sinesmen zahar dagoen oinarrian, baina horra hor gure izen sinpatikoenetako bat: *saltamatxin*.



Con esta curiosa palabra es como se ha denominado al 'saltamontes' en Laudio y en gran parte de Bizkaia, acentuándolo en la última sílaba. En otros



lugares del occidente vasco se conoce asimismo con las variantes *saltamatrixino*, *saltomatxin*, *saltamatxingo* o el conocido *matxinsalto*. Pero en Laudio usamos *saltamatxin*.

Su significado hace referencia a lo más característico de estos simpáticos bichillos, su capacidad para desplazarse dando grandes saltos, y que también es la cualidad que define su nombre en castellano: 'el que salta (por) los montes', *saltamontes*.

Por el contrario, al margen de la referencia a los saltos, en euskera siempre tenemos presente el término *matxin* que, al igual que nos sucedía cuando hablábamos de los petirrojos, se trata de un diminutivo del nombre *Martín*. Sería, por tanto, *Martinillo*.

No sabemos a qué tradición popular hace referencia o con qué antiguas creencias se entronca pero ahí tenemos uno de los más simpáticos de nuestros nombres: *saltamatxin*.

## SANSO

Agian, adin gutxiko jendeari arraroa suertatuko zaie berba hau. Zaharrek, oster, normaltasun osoz erabiltzen dute *zantzo* berba, zeinak *sánso* ahoskera eman baituen Laudion, gaztelaniaren ezaugarrietara moldatu eta gero.

Euskara batuaren bidez gurean orokortu egin den *irrintzi* berbaren mendealdeko baliokidea da.

Kontzeptu epikoa izaki, erraz aurkitzen dira erreferentzia dokumentalak: «*Voces y gritos muy grandes [...] para se llamar, avisar los unos a los otros de lo que querían, a las cuales llamaban sansoak*» (Ibarguen Cachopín, 1588). J. A. Moguel apaiz eta idazleak ere *zantzo* erabili zuen Peru Abarka (1802) lan ezagunean, 'euskaldunek erronka jotzeko edota garaipena ospatzeko erabiltzen duten ezarriko aldarri artikulatu gabea' definizioarekin. Azkuek ere jaso egin zuen bere *Hiztegi* ospetsuan (1905), 'gure menditarrek poz handia adierazteko egiten duten oihu bereizgarria; giza ijuia, giza lekaioa'. Gaur egun ere, edozein hiztegi modernotara jotzen badugu, 'pozezko oihua; barre-algara' dela esango digu.

Eta Laudioko kontuez ari garenez, komeni da gogora ekartzea *zantzo* berba sarri askotan agertzen dela bertoko literaturan, esaterako, Ruperto Urquijoren abestietan. Hor dugu, esaterako "Lusiano el Pastor" jatorra, hau esaten zuena: «*...abajo en el barranco ya empiezan a subir pastores que echan sansos porque me han oído a mí*». *Vamos a Santa Lucía* abesti ezagun baino ezagunean ere agertzen zaigu berba: «*Vamos a Santa Lucía, del país el bello rincón*





*subiendo cuestras y atajos, entre sansos de placer...» edo «...allá abajo en el barranco, una dulzaina se siente, se oyen canciones y sansos que los repite la gente».*

Beraz, zaharrei galdetzea besterik ez da egin behar haiek berresteko *zantzoak* —*sansos*— erromerietara joaterakoan eta erromerietatik itzultzera-koan botatzen zirela, agurtzeko modu legez.



Quizá para la gente de menos edad nos resulte extraño este vocablo. Pero entre los mayores es muy normal la palabra del euskera *zantzo* que, en Laudio, adecuada a las características el castellano, pronunciamos *sánso*.

Se trata del equivalente occidental a la palabra *irrintzi* que a través del euskera estandarizado —*batua*— se ha generalizado entre nosotros.

Por lo épico del concepto, encontramos pronto referencias documentales: «*Voces y gritos muy grandes [...] para se llamar, avisar los unos a los otros de lo que querían, a las cuales llamaban sansoak*» (Ibarguen Cachopín, 1588) o la del sacerdote y escritor J. A. Moguel que citaba *zantzo* en su obra *Peru Abarka* (1802) como 'vocería gutural inarticulada de que se valen los vascongados ya para desafiar, ya para cantar la victoria'. También la recoge Azkue en famoso su *Diccionario* (1905) como 'grito característico de nuestro montañeses en sus ratos de gran alegría; relincho humano'. También hoy día, si acudimos a cualquier diccionario actual, nos dirá que es 'grito de alegría; carcajada'.

Y puesto que hablamos de lloedianías, conviene recordar que también contamos con abundante presencia de la palabra *zantzo* en nuestra literatura local, en las canciones de Ruperto Urquijo. Ahí teníamos al simpático "Lusiano el Pastor" diciendo aquello de «*...abajo en el barranco ya empiezan a subir pastores que echan sansos porque me han oído a mí*». Por no hablar de la archiconocida canción *Vamos a Santa Lucía*: «*Vamos a Santa Lucía, del país el bello rincón subiendo cuestras y atajos, entre sansos de placer...»* o «*...allá abajo en el barranco, una dulzaina se siente, se oyen canciones y sansos que los repite la gente*».

En efecto, no hay más que preguntar a nuestros mayores para que nos confirmen que los *zantzoak* —*sansos*— se echaban especialmente a la ida y a la vuelta de las romerías, a modo de saludo o despedida.



## SANTIRITU

Laudioar zaharrenetako askok ezagutzen dute berba hau. Normalean, triki-mailuetan oinarritutako edozein sendatze-erritual izendatzeko erabiltzen da tradizio mirarizale herrikoian; medikuntza ofizialaz fio ez direnen baliabidea da. Askori eta askori tratatu digute gaixotasunen bat ezkutatu beharko genituen bi ihi gurutzatuta. Edo kandelak piztuta, edo berba magikoak ahoskatuta... Lotsabakotasun paganoaren eta santu, amabirjina nahiz enparauen kultuaren arteko nahasketa zen. Izan ere, ohikoa da pentsatzea berbaren hasierako elementua "san" dela, hau da, 'santua'. Bada, ezta urrik ere.

Laudion petrikiloen naturaz gairikiko metodo horiek izendatzeko erabiltzen dugun arren, euskara galdu ez zuten beste herri batzuetan, metodo xeble horien bidez sendatzen ziren bihurritu, zaintiratu, lokadura eta antzekoei deitzeko erabiltzen dute berba. Berez, hau da berbaren osaera: *zain* —mendebaldeko euskaraz, *zan*— 'tendoia, zaina' eta *tiratu* 'tenkatua, tentsioak jotakoa'. Eta horrexegatik esan nahi du *zaintiratu* berbak gaur egungo euskara estandarizatuan 'bihurdura, lokadura, tiratua'.



Una palabra cuyo uso está relativamente extendido entre los laudioarras de más edad. Normalmente se usa para hacer referencia a cualquier ritual de curación basado en la superchería, en la tradición popular milagrera, el recurso de quien no confía en la medicina oficial. Muchos somos los que hemos sido tratados de alguna dolencia cruzando juncos que luego había que esconder. O encendiendo unas velas o recitando palabras mágicas. Era una mezcla entre la irreverencia pagana y el culto a las santidades, vírgenes, etc. No en vano, es corriente pensar que su elemento inicial es "san", de 'santo, santa'. Pero, nada más lejos de la realidad.

Aunque en Laudio usemos la palabra para denominar esos métodos sobrenaturales del curanderismo, en otras poblaciones en las que no se perdió el euskera, se usa para nombrar los esguinces, tirones, torceduras o similares que se sanaban recurriendo a esos métodos. En realidad es *zain* —en el euskera occidental *zan*— 'tendón, vena' y *tiratu* 'tirado, tensado, tensionado'. De ahí que *zaintiratu* sea también en el euskera estandarizado actual 'esguince, torcedura, tirón'.

**SAPABURU.** *Ikus / Ver* **ZAPABURU**



## SARDA

Nekazaritzarako lanabesa da *sarda*. Gaztelaniaz, *horca* deitzen zaio gure eskualdean eta *bieldo* beste zonalde batzuetan. Baina zaila da Laudioko baserritar batek *sarda* ez den berbarik erabiltzea lanabes hori izendatzeko. Bi arantza edo gehiagotan Amaitzen den makila edo gider bat da, makila bakarraz eginak eta burdinaz estaliak. Nekazariak labore edota belar metak egiteko, horiek gurdira igotzeko, lastoa haizatzeko edo eultziak iraultzeko erabiltzen dute. Ukuiluetako gorozkiak ateratzeko nahiz animalien azpigarria kokatzeko ere baliatzen da.

Jatorrian, *sardea* zen terminoaren forma, baina ezaguna da bizkaierak —*ea* > —*a* kontrakzioa egiteko duen joera, *malte* berba jorratzean ikusi genuenez. *Sard(e)a* horren txikigarria da *sardeska*, gaztelaniaz 'tenedor' deitzen dena euskaraz erabiltzen dugun berba, nahiz eta Laudion dagoeneko berba ahaztua dugun.

Bestalde, komenigarria da gogoratzea *sardak* punta okertuak zituenean *sarda-kako* izena hartzen zuela gurean; ez ahaztu lehenago azaldu ditugula *kako* berbaren nondik norakoak. Laudioko beste leku batzuetan *txarpila* legez ere ezagutu izan da, agian, *zarpail* berbarekin 'gerakina, arlotea, zakarra' edota gaztelaniazko *harpa* berbarekin lotuta, eta, ziurrenik, *sarda* eta *harpa* berben formak antzekoak izategatik.



La *sarda* es un apero usado en la agricultura y que en castellano suele conocerse como 'horca' en nuestra comarca y *bieldo* en otras zonas. Pero en Laudio será difícil escuchar a un baserritarra nombrar esa herramienta sin que sea con la forma *sarda*. Se trata de un palo o mango rematado en dos o más púas, hechas del mismo palo o sobrepuestas de hierro, con el cual los labradores apilan las mieses y hierbas, las echan en el carro, levantan la paja o revuelven la parva. Y hasta sacan la basura o preparan la cama de los animales en los establos.

En origen el término es *sardea* pero es conocida la tendencia del dialecto vizcaíno para hacer la contracción —*ea* > —*a*, como ya vimos al tratar la palabra *malte*.

Un diminutivo de ese *sard(e)a* es el *sardeska* término con el que denominamos en euskera al 'tenedor', aunque en Laudio no lo reconocamos ya.

Por otra parte, conviene recordar que cuando la *sarda* era de puntas curvas era conocida en nuestro pueblo como *sarda-kako*, con la utilización de la palabra *kako* que ya hemos tratado. En otros hogares de Laudio se ha cono-



cido como *txarpila*, quizá relacionado con *zarpail* 'resto, andrajoso, basto' o incluso *harpa*, del castellano, seguramente por la similitud de su forma al conocido instrumento musical.

## **SARDA-KAKO.** *Ikus / Ver* **SARDA**

### **SARRA**

Laudion sarri askotan erabiltzen dugu euskarazko *sarra* berba gaztelaniaz, normalean, *en* preposizioarekin batera. Horiek horrela, gaztelaniazko "en *sarra*" esamoldeak zerbait 'arrastaka' doala esan nahi du, 'zerbait lurraren gainetik garraiatzea edo bultzatzea'.

Gure udalerriaz kanpo, idi-proben harri astunaren hasierako mugimendua adierazteko erabiltzen da esamoldea, geldi dagoeneko inertzia apurtu eta harria higitzen hasteari, alegia. Halaber, ipurdi gainean arrastaka ibiltzearen onomatopeia da, baita atek ixtearen soinuarena ere. Bestalde, garai bateko burdinoletako galdaketen hondakinak izendatzeko ere baliatzen zen *sarra* berba, hau da, zepa berbaren sinonimo legez. Ziur aski, jatorri amankomuna izango dute bi adierak, hau da, zeparenak eta arrastaka ibiltzearenak.

Ostera ere Laudiora etorrira, oso erabilera orokorrekoa da berba, eta esan bezala, zerbait arrastaka eramateari baino ez dio erreferentzia egiten: "bajó en *sarra* por toda la ladera abajo".



En Laudio hacemos a menudo uso de la palabra de euskera *sarra*, normalmente acompañada de la preposición castellana *en*. Así, decir "en *sarra*" significa algo que va 'a rastras', 'llevado o empujado a ras del suelo'.

Ya fuera de nuestro municipio es también la denominación del arranque de la pesada piedra en las pruebas de arrastre, cuando se rompe la inercia de quietud y comienza a desplazarse. Asimismo es la onomatopeya del arrastrarse sobre el trasero o del cerrar las puertas. Por otra parte, con la palabra *sarra* también se denominó la 'escoria', los desechos de las fundiciones de hierro en las antiguas ferrería. Probablemente, ambas acepciones, la de la escoria y el arrastrarse, estén en origen unidas entre sí.

Pero de nuevo retornados a Laudio, su uso está muy generalizado y hace referencia, como hemos dicho, tan solo al arrastrar algo: "bajó en *sarra* por toda la ladera abajo".



## SARRANTXA

Berez, euskarazko *txarrantxa* berbaren aldaera da, eta, gure udalerrian, behiei azalean itsasten zaizkien gorozki edota lokatz zipriztinak garbitzeko erabiltzen zen eskuila metaliko bati egiten dio erreferentzia. Gaztelaniaz, *almohaza* deritzo, baina gurean ez da berba hori ezagutzen.

Gure herrian ematen diogun erabileraz bereiz, liho-garramatzeari (liho zuntzak harrotzeari) nahiz otsoengandik babesteko txakurrei paratzen zitzaien lepokoari ere esaten zaio *txarrantxa*. Gaztelaniaz, *carrancla* edo *carlanca* izena du eta, itxura denez, termino horiek badute loturaren bat gure berbarekin.



En realidad se trata del término en euskera *txarrantxa* y lo usamos en nuestro municipio en referencia a un cepillo metálico con el que se les limpian a las vacas todas aquellas cascarrías o cazcarrías de boñiga adheridas a sus pieles. En castellano se denominan *almohaza*, palabra que es desconocida entre nosotros.

Al margen del uso que le damos en nuestro pueblo, el vocablo que nos ocupa hace referencia también al cardado del lino o al collar con puntas que se ponía a los perros para protegerlos de los lobos, conocido en castellano como *carrancla* o *carlanca* y que, aparentemente, guarda cierta similitud con nuestra palabra.

## SARTENKO

Laudion eta inguruan, *sarteneko bazkari bat prestatu* eta antzeko esamoldeak erabiltzen ditugu maiz. Berez, *zartagineko* berbaren eboluzioa da hori, geroago ikusiko dugunez.

*Zartaginekoa* —*sartenekoa*— jatea da arin prestatzen den zerbait zartaginean frijituta jatea, lanegun luzeetan ohikoa zen legez, eta, bereziki, etxeko erosotasunetik urrun egiten ziren lanetan. Eguneroko eltzekoa ordeztan zuen, hura baitzen etxeko bazkarietan ohikoena. Eskura zegoena botatzen zen zartaginea; normalean, urdaia eta arrautzak, baina, zorte ona izatekotan, patatak, odolostea eta abar gehitzen zitzaizkion.

Jateko prestakin horrek alde bi ditu definitzerakoan; izan ere, alde batetik, *sarteneko* —*zartagineko*— bat jan izana adierazteak esan nahi zuen fundamentu gutxiko otordua egin zela, txarto antolatutako jendeek, jende trauski-



lak edota sukaldean baldar ibiltzen direnek egiten duten legez, baina, aldi berean, jatekorik gozo eta berpizgarriena zen —eta oraindik ere, bada—, gainera, koipe gehien zeukana zelako. Kontuan izan behar dugu duela oso gutxi arte, koipeak zein kaloriak janda eta atsedean hartuta hobetzen zela jendearen osasuna: Zaharrenei oso ezagun egingo zaizkie ohean etzanda eta oilo salda hartzen emandako gaitzondoak, gaur egun, osasuna zaintzeko aurkakoa gomendatzen dute arren, hau da, janarietako koipe eta gantzak kentzea eta asko ibiltzea.

*Zartagineko* berba euskarazko *zartagin* berbatik dator eta jorratzen ari garen berba osatzeko, —*ko* atzizkia gehitu besterik ez zaio egiten.

Hala *zartagin* euskal berba, nola gaztelaniazko *sartén* erro beretik datoz, hots: latinezko *sartago*, *sartaginis* hartatik. Ohikoa denez, euskarak jaso ostean modu egonkorragoan eutsi dio berbaren formari, baina gaztelaniak gehiago deformatu du, gaur egun duen formara iritsi arte.

Euskaraz, zenbait aldaera ditu berbak kasuan kasuko euskalkietan edota dialekto lokalagoetan, esaterako, *zartain* edo *zartan*; gure *sarteneko* horretatik gertuago daude horiek, ikusten denez.



En Laudio y alrededores solemos usar la expresión de, por ejemplo, preparar una comida de *sarteneko*. En realidad es la evolución de la palabra *zartagineko* como luego veremos.

Comer *zartagineko* —*sarteneko*— es hacer una ingesta de comida rápida en su elaboración, frita en la sartén, y que era la habitual en duras jornadas de trabajo, en especial cuando se estaba alejado de las comodidades del hogar. Sustituía al cocido diario que era lo habitual en la vida doméstica. A la sartén se echaba lo que se tuviese a mano, normalmente tocino y huevos y, con más suerte, patatas, morcilla, etc.

Aquella comida tenía una doble vertiente a la hora de enjuiciarla ya que por una parte decir que se había comido de *sarteneko* —*zartagineko*— era apuntar a una comida de poco fuste, propia de gente desorganizada, dejada o de poca maña en la cocina. Pero, por otro lado, era y sigue siendo la más deliciosa y reconfortante porque, además, era la que más grasa aportaba. Porque hasta hace bien poco, la salud de las personas se solucionaba ingiriendo grasas, calorías, y descansando: a todos los mayores les sonarán las convalecencias de caldo de gallina y cama, lo contrario a la actualidad, que mandan eliminar las grasas de la comida y andar mucho para cuidar nuestra salud.

La palabra *zartagineko* procede del vasco *zartagin* 'sartén' y —*ko* 'de', es decir, comida 'de sartén'.



Tanto la palabra vasca *zartagin* como la castellana *sartén* proceden de un tronco común y es la palabra del latín *sartago*, *sartaginis*. El euskera, como suele ser habitual, la recoge y mantiene de una forma más estable mientras que el castellano la deforma más, hasta llegar a su forma actual. Dentro del euskera, el término *zartagin* también evoluciona a variantes dialectales o más locales a formas como lo son *zartain* o *zartan*, más cercanas a nuestro *sarteneko*.

## SASKEL

Laudion ez da arraroa *saskel* berba entzutea norbait 'zikina, antolatu gabea, zarpaila' dela adierazteko. Izan ere, hori da bere esanahia euskaraz. Baina *saskel* nahikotxo erabiltzen den arren, askoz gehiago erabiltzen da Laudion berba horretatik eratorritako *saskeleria* terminoa, zeinak 'zikinkeria, nahaste-borrastea...' esan nahi duen: "Mira la *saskeleria* que has dejado". Aipatutako —*eria* atzizkiak ezaugarri negatiboek nolakotasuna ematen du euskaraz, eta, ziurrenik, gaztelaniazko antzeko formen jatorri bera izango du, *porco* berbatik *porquería* eratortzen den legez. Erdialdeko euskaraz, eta, beraz, euskara batuaz, —*keria* izaten da atzizkiaren forma: adibidez, *bihurri* berbatik *bihurrikeria* erator dezakegu. Hala ere, mendebaldeko euskaraz, alegia, Laudion izan genuen euskararen aldaeran, —*eria* izan da forma tradizionala, *saskel* berbatik *saskeleria* erator-tzen dugunean ikusi ahal izan dugunez.



No es extraño en Laudio escuchar la palabra *saskel* para decir a alguien que es un 'sucio, desordenado, desastrado'. Y es que es precisamente su significado en euskera.

Pero si *saskel* se usa algo, mucho más se utiliza en Laudio su palabra derivada *saskeleria*, 'inmundicia, desperdicios...': "Mira la *saskeleria* que has dejado".

El sufijo —*eria* aporta el valor de cualidad negativa en euskera y probablemente tenga un origen común con las formas similares del castellano, como de *porco* surge *porquería*.

En el euskera central y por ello en el unificado o *batua*, esa terminación suele ser —*keria*: por ejemplo, de *bihurri* 'travieso', *bihurrikeria*, 'travesura', etc.

Pero en el euskera occidental, en el que Laudio ha estado inmerso, la forma tradicional normal ha sido —*eria* como nos sucede en este caso de *saskele-ria*, a partir de *saskel*.



## SASKELERIA. *Ikus / Ver* SASKEL

### SEGULINDA

Terminoaren forma zuzena *sugelinda* izan beharko luke, eta horrelaxe erabiltzen dute udalerrri mugakideetan, jatorri bereko beste aldaera batzuekin batera; *sugelindara, sugelandara...* Dena den, Laudion, *segulinda* edo *sigulinda* erabili izan da beti.

'Sugandilak' izendatzeko deitura da berez, eta, hedapenez, ume bihurri eta ipurtarinei ere esaten zaie, baita apur bat harroputz, burutente, pinpirin direnei ere... Zalantza barik berbaren amaierako *linda* horrekin lotuak daude esanahi horiek guztiak.

Euskara globalizatzailean *sugandila* forma hobetsi da.

Itxuraz, behintzat, *segulinda* berbaren aldaera da *sigulinda* eta, lehenengoa, bestalde, jatorrizko *sugelinda* berbaren metatesi baten emaitza da; *u* eta *e* letren kokapena elkartrukutzen da eta kontsonanteak ere lekuaz aldatzen dira—. *Suge + linda*, batuta sortzen zen berba, "suge eder" esanahiarekin.

Baieztapeari eusteko inongo oinarririk ez dugun arren, susmatu genezake herri sinesmen zaharrak ostentzen dituela esku artean dugun berbak. Gauza arrunta da pentsatzea sugeak eta sugandilak ahaide direla. Dena den, lehenengoak gaiztakeriaren, ezkutukoaren eta deabruaren eskuaren ikur dira, baina sugandilak ongiletzat ditugu eta, beraz, ez dizkiegu gure haserreak ordainarazten; hortaz, sugeekin gertatzen denaren kontra, ez dago sugandilak hiltzeko ohiturarik.

Bibliako madarikazio hartatik etorriko da sinesmen hori, nonbait: «*Orduan, Jainko Jaunak sugeari esan zion: Hori egin dualako, madarikatua hi abere guztien artean eta basapiztia guztien artean! Sabel gainean arrastaka ibiliko haiz eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan.*» (Biblia, Genesisia, 3:14). Hala ere, Jainkoak indultua eman zien sugandila eta antzekoei, hankak eman baitzizkien, dena delako arazoengatik. Horrela utzi zioten animalia sataniko eta kaltegarriak izateari; horrela bihurtu ziren arrunt. Halaber, gogoan eduki behar dugu ustez Jainkoak munduaren hasieran sortutako animalia guztietatik sugea baino ez dela aipatzen Biblian.

*Suge* berbari *linda* gehituta, sugandilen herri ikuspegi positibo hori indartzen da, antza.

Bestalde, beti aipatu edo, gutxienez, espekulatu izan da *suge* berbaren etimologiaren oinarrian *su + (ba)ge* dagoela, hau da, 'su barikoa', alegia; gaur egun, 'odol hotzeko' esango genukeena. Eta horrexegatik behar dute animaliatxo hauek, hots, suge, sugandila eta enparauek eguzkitan jarri





euren burua berotzeko, ez dutelako euren metabolismoa aktibatzeko beste modurik.

Gorputzeko bero falta hori sugeen ezaugarri bereizgarria da, eta bestaldeko munduarekin duten erlazioaren susmoa indartu besterik ez du egiten. Ez dezagun ahaztu euskaraz *heriotza* esaten diogula hiltzeari eta *hilotz* hildako pertsonen gorpuei; literalki itzultzen baditugu, 'eritasun hotz' eta 'hildako hotz' lirateke, hurrenez hurren.

Amaitzeko, gustatuko litzaidake umeago ginenean kontatzen ziguten herri sinesmen hura, zeinaren arabera, sugandilak musker bihurtzen baitziren zahartzean. Jakina, horrek ez du ez hanka, ez buru, animalia ezberdinak direlako. *Segulinden* defentsa-gaitasunak ere harritu egiten gintuen, arriskutan zeudenean isatsa askatzea lortzen zutelako: harraparien aurrean daudenean mugitu egiten dute, erasoek hil ala biziko gorputz atalik, esaterako, burua edo toraxa jo ez diezaieten. Gainera, behin ebakita ere, mugitzen jarraitzen du isatsak. Egoera horietan isats berria hazteko gaitasun horrek txundituta utziko zituen gure arbasoak, eta agian horrexegatik egotzi zizkionten naturaz gaindiko ezaugarriak eta gaitasun magikoak. Zalantza barik, horretan oinarrituko da Espainiako herri batzuetan oraindik ere bizirik dagoen sinesmena, hots: sugandila bat kanalean irekitzea eta zaurietan igurztea, senda daitezen.



La forma correcta del término debería ser *sugelinda*, tal y como se utiliza en los pueblos limítrofes alternada con otras variantes de origen común como *sugelindara*, *sugelandara*... si bien en Laudio, se ha usado *segulinda* o *sigulinda*. Con ella se hace referencia a las 'lagartijas' y, por extensión a los críos muy movidos y revoltosos o hasta a las personas un poco arrogantes, tiesas, presumidas... sin duda un significado relacionado con el final *linda*.

En el euskera globalizador se ha dado prioridad a la forma *sugandila*.

En apariencia, *sigulinda* es la deformación de nuestra otra variante *segulinda* y esta, a su vez, fruto de una metátesis —un salto con intercambio de posición de las consonantes *u* y *e*— de las vocales a partir del original *sugelinda*, compuesta por *suge* + *linda*, 'serpiente linda'.

Aunque no tenemos constancia alguna para sustentarlo, podríamos sospechar que bajo nuestra palabra se esconden antiguas creencias populares. Es común pensar que serpientes y lagartijas son parientes pero mientras las primeras representan el mal, lo oculto, lo demoníaco, las lagartijas son consideradas como benefactoras y nunca se descargan las iras sobre ellas ni se las mata como sucede con las culebras.



Ello debe partir de aquella maldición bíblica que dice que «*Entonces el Señor Dios le dijo a la serpiente: Por lo que has hecho, eres maldita más que todos los animales, tanto domésticos como salvajes. Andarás sobre tu vientre, arrastrándote por el polvo durante toda tu vida.*» (Biblia, Génesis, 3:14). Sin embargo Dios, por las razones que fuese, indultó a las lagartijas y similares al dotarlas de patas. Por eso dejan de ser animales satánicos, perniciosos, para ser unos más. Recordemos asimismo que, de todos los animales supuestamente creados por Dios en el comienzo del mundo, la *Biblia* tan solo nombra a la serpiente.

El añadir el término *linda* a *suge* quizá nos sirva para reforzar esa visión popular positiva hacia las lagartijas.

Por otra parte, siempre se ha comentado o al menos especulado, con que *suge* sea la conjunción de *su* + (*ba*)*ge*, 'sin fuego' o lo que hoy denominaríamos 'de sangre fría'. De ahí que estos animalillos, serpientes o lagartijas, necesiten exponerse al sol para calentarse, ya que es la única forma de activar su metabolismo.

Esa falta de calor corporal, tan característica de las culebras, las haría aún más sospechosas de estar relacionadas con el mundo del más allá. No olvidemos que en euskera *muerte* se dice *heriotza* y cadáver *hilotza*, literalmente, la 'enfermedad fría' y 'muerto frío' respectivamente.

Para finalizar, me gustaría citar aquella creencia popular que nos contaban cuando éramos más niños y que decía que las lagartijas se convertían en lagartos al hacerse mayores. Por supuesto, no tiene nada de real y se trata de animales diferentes. También nos resultaba llamativa aquella capacidad defensiva las *segulindas* pues lograban desprenderse de la cola en caso de peligro: la mueven ante los depredadores para evitar que los ataques se dirijan a partes vitales, como la cabeza o el tronco, y continúa moviéndose después de cortada. Como en estas situaciones son capaces de generar otra cola nueva, sería algo que generaría admiración entre nuestros antepasados, considerándola por ello como un animalillo con cualidades sobrenaturales y hasta mágicas. Sin duda ahí debe soportarse la creencia practicada en varios pueblos de España de abrir en canal una lagartija y frotarse con ella las heridas para que sanen.

## SEKULEBEDAR

Ez da abeltzainik gure inguruan *sekulebedar* berba erabiltzen ez duenik abereentzat gutizia den segako belar mota jakin baten izen legez. Zehazki, 'hirusta' belarraz ari gara —*Trifolium pratense*—, erraz identifikatzeko



modukoa, udan loratzen denean kolore larrosa biziz zipriztintzen baititu larreak.

Guk *sekulebedár* ahoskatzen dugun arren, *sekula-bedar* litzateke forma akademikoagoa. *Sekula* barik *sekule* erabiltzea Euskal Herriko mendebaldeko berezko fonetismoa da, *mukurra* berba jorratzean ikusi genuenez. Kasu honetan, 'eternitatea' edo 'denbora' esan nahi du *sekula*, baina *bedar* berbari eranstean, 'bizia', 'hilezkorra' esanahia hartzen du. Berbaren jatorria latinezko *saeculum* da; ondo baino hobeto ezagutzen dute gure zaharrek berba hori, izan ere, milaka aldiz errepikatua dute 'menderen mendetan' edo 'betirako' esan nahi duen "*per saecula saeculorum*" formulán.

Berbaren beste osagaia *bedar* da, hau ere, euskara batuko *belar* berbaren aldaera mendebaldarra. Ondorioz, gure *sekulebedar* —*sekula-bedar*— berbak 'belar iraunkor', 'betiereko belar', 'betibizi' esan nahi du.



En nuestro entorno, no existe ganadero que no use la palabra *sekulebedar* para denominar un tipo de hierba de siega, muy apreciada, y que es muy apreciada por el ganado. Se trata en realidad del 'trébol' —*Trifolium pratense*—, siendo muy característica e identificable porque florece en el verano, llenando prados de color rosa vivo.

A pesar de que nosotros la pronunciamos *sekulebedár* su forma más académica sería la de *sekula-bedar*. Usamos *sekule* en vez de *sekula*, un fonetismo característico del occidente vasco como ya se vio al tratar la palabra *mukurra*. *Sekula* significa en este caso 'eternidad', 'tiempo' o, tras unirla a *bedar*, 'viva', 'inmortal'. Tiene su origen en el *saeculum* del latín y que nuestros mayores tan bien conocen por repetirlo en la fórmula "*per saecula saeculorum*", 'por los siglos de los siglos' o, dicho de otro modo, 'por siempre'.

El otro componente de la palabra es *bedar* que de nuevo es una variante occidental del *belar* más conocido y que significa «hierba». Así es que nuestro vocablo *sekulebedar* —*sekula-bedar*— es una 'hierba perenne', 'hierba perpetua', 'siempreviva'.

## SERUGA

Laudion, indabak, ilarrak eta antzekoak biltzen dituzten lekak izendatzeko erabiltzen dugu *seruga*. Zalantza barik, euskarazko *zeruka* formarekin zerikusia du, hala erabiltzen baitute euskara galdu ez duten inguruko herrietan. R. M. Azkueren aipua (1905) argigarria da oso, esaten baitu Arratian, *leka*



berba erabili ordez *zeruka* erabiltzen dela: «*Arratian leka itzaren ordez zeruka erabiltzen da. Baba-zerukak, idar-zerukak eta abar*». Hizkuntzalari berak beste esanahi bat erantsi zion berbari, gure herritik gertuko zonaldean bildua, esaterako, Orozkon: 'aletutako edo trilatutako indaba mulua'.

Zelanahi ere, ezin dugu ahaztu Gaztela zein Errioxako leku batzuetan ere berba horren hainbat aldaera erabiltzen dela, esaterako, *ceruga, jeruga, seruga, seruja, siluga, siruga, zoruga...* Gainera, zenbait egilek, besteak beste José María Pastor Blancok (2010) ez dute zalantzarik baieztatzean 'lekaleen leka' esan nahi duen *šulûqa* mozarabiarretik datorrela, eta hori, halaber, esanahi berbera duen latinezko *siliqua* berbatik datorrela. Zalantza barik, gauza beraz ari gara.



En Laudio nos valemus de *seruga* para denominar las vainas que envuelven las alubias, guisantes o similares. Sin duda está relacionado con *zeruka* forma eusquérica usada en los pueblos que nos rodean y que no perdieron el euskera. Clarificadora es la cita de R. M. Azkue (1905) en el que dice que, en Arratia, para nombrar las vainas no se usa *leka* sino *zeruka*: «*Arratian leka itzaren ordez zeruka erabiltzen da. Baba-zerukak, idar-zerukak eta abar*». El mismo lingüista le da al vocablo el significado añadido de «mata de alubias desgranadas o trillada» en lugares próximos a nuestro municipio como es Orozko.

En cualquier caso, no hemos de perder de vista el hecho de que se usen también en zonas de Castilla o La Rioja, en las diversas variantes de *ceruga, jeruga, seruga, seruja, siluga, siruga, zoruga...* y que autores como José María Pastor Blanco (2010) no dudan en relacionarlo con el mozárabe *šulûqa* 'vaina de legumbre', y este a su vez derivado del latín *siliqua* de idéntico significado. Sin duda, hablamos de lo mismo.

**SESPAL.** *Ikus / Ver* **ZEZPAL**

**SIGULINDA.** *Ikus / Ver* **SEGULINDA**

**SIL.** *Ikus / Ver* **ZIL**

**SINSORGADA.** *Ikus / Ver* **SINSORGO**



## SINSORGO

Berba hau oso guretzat dugun arren, ez da euskarazkoa; euskarazko berba batean oinarritutako gaztelaniazko hitza da. Gaztelaniazko hiztunek erabiltzen dute, ez euskaldunek.

Gure artean hain arrunta den *sinsorgo* berbaz ari gara. Gurean hain arrunta izanagatik, arraroa da hemendik kanpokoentzat, gaztelaniaz ere, oso eremu murritzean erabiltzen baita.

Berba horren bidez adierazten dugu norbait 'funtsgabea, formaltasun edo fundamentu gutxikoa dela', are 'ergela' dela ere, normalean maitasunez erabiltzen den arren, min emateko edo iraintzeko asmo barik. Gaztelaniazko berba izaki, genero-bereizketa onartzen du: *sinsorgo* maskulinoa eta *sinsorga* femeninoa.

Bestalde, *sinsorgada* deitzen zaie —beti genero femeninoan— '*sinsorgoen* berezko ekintzei'. Gure artean arrunta den *sinsorgada* berba, hala ere, ez dago jaso gaztelaniaren berezko berba legez.

*Sinsorgo* horren jatorria euskaran dago, *zent(z)urje* berban, hots *zentzun* 'sen, burubide' eta *ge* 'gabe' elkartetik eratorria. Hortaz, literalki itzultzen badugu, 'zentzugabe' esanahia du.

Izen bati —*ge* partikula eransten zaionean, izena ukatu egiten da. Beraz, *kolorge* 'kolorerik gabea' da, *indarge* 'indarrik gabea' eta abar. *Bage* terminoa-rekin erlazionatua dago, metatesi baten —nahigabeko kontsonante-gurutzaketa— baten ondorioz sortua, gaur egun euskara batuan darabilgun *gabe* iritsi baitzitzaigun. Halaber, mendebaldeko euskaran, hau da, bizkaieran hain ohikoa den *bage* + —*rik* formulatik datorkigu *bagerik* edo *barik* ezaguna. Baina, nola igarotzen da *zentzun* berbako azken —*n* hori *zentzu-r-ge* edo *sinso-r-go* berbetako *r* izatera? Bada, ez da gauza batere ezohikoa hitzak elkartzean hori gertatzea. Izan ere, gauza berbera gertatzen da *jaun* berbarekin, hortik eratortzen baita *jauregi*.



A pesar de ser un vocablo tan nuestro, no pertenece al euskera sino que es una palabra castellana que se edifica en base a otra de euskera: no la usan los euskaldunes sino los castellanohablantes.

Se trata de *sinsorgo*, tan común entre nosotros, pero extraña a oídos de alguien de fuera de nuestras fronteras, ya que también su uso en el castellano es geográficamente muy restringido.

Al utilizarla, hacemos referencia a algo o, sobre todo, a alguien 'insustancial, de poca formalidad o fundamento' o incluso 'imbécil', si bien lo común es



usarlo en un modo cariñoso, no con el fin de herir o afrentar. Al ser propia del castellano, admite distinción de género: *sinsorgo* para masculino y *sinsorga* para el femenino.

Por otra parte una *sinsorgada* —siempre usada en femenino— es un 'acto propio de un sinsorgo/a'. La palabra *sinsorgada*, común entre nosotros, no está sin embargo recogida como propia del castellano.

El origen de *sinsorgo* está en el euskera *zent(z)urge*, surgida de la suma de *zentzun* 'sentido, juicio' y *ge*, 'sin'. Es decir y traducido literalmente, 'sin sentido'.

La partícula —*ge* añadida a un sustantivo implica la negación de éste. Así, *kolorge* es 'sin color', *indarge* 'sin fuerzas', etc. Está relacionado con el primitivo *bage* de donde, por una metátesis o cruce involuntario ente consonantes, se convierte en el *gabe* que hoy usamos en el euskera unificado o *batua*. Y de la variante *bage* + —*rik* proviene el *bagerik* o *barik* característico del euskera occidental o dialecto vizcaíno.

¿Y cómo pasa la —*n* final de *zentzun* a la *r* de *zentzu-r-ge* o *sinso-r-go*? No es nada extraño en euskera al entrar en composición con otra palabra. Es lo mismo que nos sucede con *jaun* 'señor' pero *jauregi* 'palacio', literalmente, 'lugar del señor'.

**SIRAU.** *Ikus / Ver ZIRAU*

**SIRIMIRI.** *Ikus / Ver ZIRIMIRI*

**SIRRI.** *Ikus / Ver ZIRRI*

**SORKI**

Laudion zahar batzuek baino ez dute ezagutzen *sorki* berba. Ondorioz, berbaren erabilera behera egiten ari da, izendatzen duen objektuaren oroitzapena bezalaxe. 'Oihal zaharren batez egindako koro moduko bat da, zeina buruan ipintzeko' bildu egiten baitzen. Horren gainean, arropa suilak, ur edarrrak, esne kantinak edo behar zena paratzen zen gero. Hortaz, emakumeei egokitu ohi zitzaizkien etxe-garraioetarako lanabes garrantzitsua zen *sorkia*. Jatorrian, 'trapu zaharrak', 'iztupazko ipitzak' edota 'arropako adabaki zatarrrak' izendatzeko balio zuen *sorki* berbak. Horregatik erabiltzen zen, gure



ingurunetik kanpo, "ir hecho un *sorki*" esamoldea 'zarpail jantzita' zihoazenei botatzeko. Dena den, Laudion gehien erabiltzen den adiera da zamak eramaten laguntzeko kiribiltzen eta buru gainean ipintzen ziren trapu zahar horiek izendatzekoa. Gaztelaniaz *rodete* esaten zaie beta haien hiztegi akademikoan definizio hau ematen da: 'Mihisezko, oihalezko edo beste materialezko erroska, zeina buru gainean ipintzen baitzen zamak garraiatzeko'.



En Laudio solo conocen la palabra *sorki* las personas de cierta edad. Pero su uso va paulatinamente desapareciendo, como el recuerdo del objeto que designa. Se trata de una especie de 'corona hecha con alguna tela vieja y que se enrollaba para colocarlo sobre la cabeza'. Sobre ella se posaban luego baldes de ropa, herradas de agua, cantinas con leche o lo que fuese menester. El *sorki* era, por tanto, la pieza clave en los transportes domésticos que correspondían a las mujeres.

En origen, *sorki* servía para referirte a los 'trapos viejos', 'estropajos de estopa' y hasta a los 'remiendos toscos de la ropa'. De ahí que se haya usado fuera de nuestro entorno "ir hecho un *sorki*" como para indicar que se iba 'vestido de mala traza'. Pero el significado principal usado en Laudio, es el de indicar esos trapos viejos enrollados y colocados en la cabeza para ayudar a sobrellevar la carga. En castellano se conocen como *rodete*, definido en su diccionario académico como una 'rosca de lienzo, paño u otra materia que se pone en la cabeza para cargar y llevar sobre ella un peso'.

**SOSOLO.** *Ikus / Ver* **TXOTXOLO**

**SUKU.** *Ikus / Ver* **ZUKU**

## SUSKIÑAR

Berba bitxi hau euskara denik ere ezin dugu baieztatu, ez baitiogu inongo baliokiderik aurkitu. Guk dakigunez behintzat, euskara galdu ez zuten inguruko herrietan ere ez dute ezagutzen.

Hala ere, Laudioko zaharrenek nahiko maiz erabiltzen dute. Horrexegatik ausartu gara hemen jasotzera, baina, esan dudan legez, euskarazko berba



dela identifikatzeko elementurik batere eduki barik jaso dugu: Intuizio hutsa, beraz.

*Suskiñár* ahoskatzen dugu eta 'janaria jan barik nahasten ibiltzea, janariarekin olgetan ibiltzea' esan nahi du: "los malos comedores siempre andan *suskiñando* en el plato". Behar bada, 'janaria hornitu' esan nahi duen *zuzkitu* aditzarekin erlazionatua egongo da, eta, hala balitz, z eraman beharko luke: *zuzkinar*.

Halaber, hor dugu *uzkin* 'janari gerakinak, edozer gauzaren hondakinak', baina *utzi* aditzetik dator hori, eta forma hori ez da gure eskualdekoa.



Contamos con una extraña palabra que ni siquiera podemos asegurar que sea euskera, porque no le hemos encontrado ningún equivalente conocido. Tampoco, hasta donde llegamos, parecen reconocerla en los pueblos vecinos que no perdieron el euskera.

Sin embargo, entre la gente más mayor de Laudio se usa con relativa frecuencia. Por ello nos atrevemos a insertarla aunque, insisto, no disponemos de elemento alguno para identificarla como "de euskera": tan solo la intuición.

La pronunciamos *suskiñár* y significa 'andar revolviendo la comida sin comer, entreteniéndose con ella': "*los malos comedores siempre andan suskiñando en el plato*". Podría estar relacionada con el verbo *zuzkitu*, 'abastecer de comida' por lo que, de ser así, debiéramos escribirla con z: *zuzkinar*.

También disponemos de *uzkin* 'restos de comida, desperdicios de cualquier cosa' pero deriva de *utzi* 'dejar', una forma que por otra parte no es propia de nuestra comarca.

## SUSUNBAKO

Berba ederra da hau, oso, baina gero eta gutxiagoan entzuten dugu herrian, tamalez. Hala ere, zaharrei entzun dakieke noiz edo noiz delako pertsona bat *susunbáko* hutsa dela. Zelanbait azaltzearren, 'buruarina', 'zentzugabea', 'ganorabako' esan nahi du.

Baina Laudion *susunbako* legez entzuten dugun hori jatorrizko *zentzunbako* berbaren eraldaketa da soilik. Terminoak bi zati ditu: *zentzun* 'zentzu', 'sen', 'zuhurtzia' eta *bako* 'gabe', alegia, 'zentzu bariko' esan nahi du. Egiturari eta esanahiari begiratuta, lehenago azaldu dugun *ganorabako* berbaren antza dauka, baina askoz hedatuagoa eta erabiliagoa da azken hori.





*Zentzun* berba oso zaharra da eta Euskal Herriko mendebaldean baino ez da erabiltzen, gainerako lekuetan *sentzu* erabili ohi delako.

Bestalde, *bako* ere mendebaldeko aldaera zaharra da, jakin badakigunez, gainerako eremu euskaldunetan, *gabeko* erabiltzen delako batik bat. Berez, biak datoz lehenagoko *bageko* batetik (*bage* +—*ko*), zeina *bako* bihurtu arte soildu baitzen gurean. Gainerako leku euskaldunetan, ostera, jauzi ikusgarria eginda eta kontsonanteak lekuz aldatuta —hau da, hizkuntzalaritzan "metatesi" legez ezagutzen dena eginda—, gaur egungo euskara batuan arrunta den *gabe* edo *gabeko* berbetara iritsi ginen.



Nos enfrentamos a una preciosa palabra aunque, por desgracia, cada vez es más difícil escucharla en nuestro pueblo. Pero todavía es posible oír de boca de la gente mayor que tal o cual personaje es un *susunbáko*. Significa algo así como 'insensato', 'sin sentido', 'insustancial'.

Pero eso que escuchamos en Laudio como *susunbako* es en realidad una deformación del original *zentzunbako*. Se compone este término de dos partes *zentzun*, 'sentido', 'juicio', 'sensatez' y *bako*'sin', es decir, significa 'sin sentido'. Es similar en estructura y significado al *ganorabako* que ya hemos tratado en otra ocasión y que goza de más popularidad.

*Zentzun* es una palabra antiquísima cuyo uso queda reducido al occidente vasco, ya que en el resto suele usarse *sentzu*.

*Bako*, por otra parte, también es otra antigua variante occidental pues, como sabemos, en las demás zonas del euskera se usa más *gabeko*. En realidad ambas proceden de un anterior *bageko*, (de *bage* +—*ko*), que en nuestra zona se simplificó hasta *bako* mientras que en el resto, con un airoso salto y cambio de lugar de las consonantes —lo que en lingüística se conoce como "metátesis"— llegamos al *gabe* o *gabeko* habitual en el euskara *batua* o unificado.

## TALABURRIN

*Talo-burdina* da guk Laudion *talaburrin* legez ezagutu dugun objektua izendatzeko hobetsi den forma, *talaburrín* azentuatuta.

'Taloak egiteko palari' esaten zaio; txapa metaliko biribila zen, burdinazko kirten batekin. Txapa hori sutan ipintzen zen eta bere gainean talo-orea. Bertan lortzen zen kontsumitu ahal izateko behar den egoste puntua.

Berbaren Laudioko aldaerak baditu bertute eta akats bana terminoaren forma akademikoagoa den *talo-burdina* horren aldean. Bertutea da beste



berba batekin elkartzean —*burdina* berbarekin— tarteko lotze-elementu barik, *talo* terminoa *tala*— bihurtzen dela, hori baita euskaraz ohikoena lehenengo osagaia —*o* bi silabako berba denean. Esaterako, *asto* da berba arrunta, baina *astakume* esaten dugu, *arto* baina *artaburu*, *baso* baina *basabide*...

Bestalde, akats legez, onartu behar dugu *burdina* berbaren amaierako —*a* hori ez dela hautazkoa, ez dela nahieran ipini eta kentzeko artikulua; berbaren berezko zatia da, bereizezina. "*Burdina bat*" esaten da, ez "*burdin bat*"; era berean, ez dugu esaten "*nesk bat*" edo "*ikastol bat*". Baina nahasmena ez da atzokoa, mendeak ditu.

Hori guztia alde batera utzita, *burdin(a)* formatik *burrin(a)* formara igarotzea soinu-asimilazio bati zor zaio. Eta kontua ez da Laudion txarto ahoskatu dugunik, inondik inora ere, baizik eta Orozko, Arrankudiaga, Ugao, Arrigorriaga eta inguruotako azpieuskalkiaren berezko forma dela; *burrin(a)* erabiltzen da eskualde honetan, espero izatekoa den *burdin(a)* erabili beharrean.



La de *talo-burdina* es la forma recomendada para referirnos a un elemento que nosotros, en Laudio, hemos conocido como *talaburrin*, acentuado *talaburrín*.

Hace referencia a la 'pala de hacer talos', una chapa circular metálica, con un mango también de hierro. Sobre ella se ponía la masa del talo sobre el fuego. Allí alcanzaba el punto de cocción necesario para el consumo.

La variante de Laudio de la palabra cuenta con una virtud y un defecto sobre la forma más académica del término, *talo-burdina*. La virtud es que, al entrar en composición con otra palabra diferente —*burdina*— sin ningún elemento de unión intermedio, el vocablo *talo* se convierte en *tala*—, lo más propio del euskera cuando el primer componente es un término de dos sílabas finalizado en —*o*. Por ejemplo, tenemos *asto* pero decimos *astakume*, *arto* pero *artaburu*, *baso* pero *basabide*...

Por otra parte, como carencia, hemos de reconocer que la —*a* final de *burdina* no es opcional, un artículo, algo de quita y pon, ya que es parte inherente de la palabra y no puede prescindirse de él. Es "*burdina bat*" y no "*burdin bat*" al igual que no decimos "*nesk bat*" o "*ikastol bat*". Pero la confusión no es de ahora sino de siglos atrás.

Al margen de todo ello, el paso de *burdin(a)* a *burrin(a)* es por una asimilación de sonidos. Y no es que en Laudio lo hayamos pronunciado mal, ni mucho menos, sino que es la forma propia del subdialecto de Orozko,



Arrankudiaga, Ugao, Arrigorriaga... en donde se usa *burrin(a)* en vez del *burdin(a)* que podríamos pretender.

## TALO

Erabat normalizatua dugu *talo*, berez, ez dugulako hori izendatzeko beste izenik ezagutzen. Jakin badakigunez, baserri giroan arto-irinez egindako opil meheak dira eta suaren gainean ipinitako xafla metaliko batean egosten dira.

Gari-irinezko ogiarekin ez bezala, hobe da *taloo* bero jatea, egin berritan, behin hoztuta lehor eta latz geratzen delako. Hori dela eta, jan gabe geratzen ziren talo-hondakinak esnetan egosten ziren garai bateko baserrietan, zopa moduko bat egiteko.

Agian aurkakoa pentsatuko dugun arren, *taloo* ez da antzinako jakia, artoa Amerikatik ekarri zutelako eta horrek garai moderno samarretara garamatzalako. Dena den, gure lur euritsuok ez direnez bereziki aproposak zerealak hazteko, nekazaritza-iraultza handia ekarri zuen artoaren inportazioak, eta biztanleria nabarmen hazi zen horren ondorioz, gure orografian hain arruntak diren ibar ospeletako hondoetan ere hazi egiten delako ale horiko landarea, eta, ordura arte, ezer gutxi landu zitekeelako halako lekuetan. *Taloo* agertu zenetik aurrera, beraz, hein handi batean arindu zen gurean betierekoa zirudien gosea.

Hala ere, berriro diogu: ez da uste dugun bezain antzinakoa berba dugun elikagaia. Izan ere, berbaren lehenengo aipua idatzi eta 80 urtera, 1881. urtean argitaratutako *Peru Abarka* eleberrian dago: «*Talo ondo egina hauspean, morokila, esnea, gaztainak eta sagarrak*». Horrela deskribatu zuen garai hartako oinarritzko elikadura. Errautsak aipatze horrek argi uzten digu zein zen jatorrian *taloo* prestatzeko modua, izan ere, Larramendik "pan subcinericio" —'errauts azpiko ogi'— legez definitu zuen 1745ean: «*elaborado entre las cenizas o rescoldos*», *hau da*, 'errauts artean edota sugeldoan prestatua'. Burdinazko xafla gainean, *hau da*, *talaburrinean* prestatzearen kontua modernoa da, zalantza barik, Juan de Arinek aipatu zuen moduan (1960): «*Prozedura modernoan, talaburnie izeneko pala metalikoa berotzen da, eta horren gainean paratzen da ore zanpatua*», *hots*, 'el procedimiento moderno consiste en calentar una pala de hierro, talaburnie, y colocar sobre ella la masa aplanada'».

Areago, esan genezake zalantza oinarridunak eduki genitzakeela berba hau euskararen berezko lexikoan sartzeko eta jatorria gure hizkuntzan duela baieztatzeko. Ez litzateke arraroa pentsatzea Amerikako indigenen hizkun-



tzetatik inportatutako terminoa dela. Horrela ez balitz, ulertezina litzateke Kantabrian *talo* deitzea 'laratzetik eskegitzeko helduleku bat daukan burdinazko xafla biribilari, opilak egosteko suaren gainean', Espainiako Errege Akademiaren definizioari jarraikiz.

Hori guztia alde batera utzita, badirudi gure *taloa* atzean utzi genuen kultura haren ikur bilakatu dela gaur egun. Gazteenok irrikaz bilatzen dute talo beroa giro baserritarreko edozein jaitan, baina nagusiagoek, ostera, muzin egiten diote gabezia garaiak ekartzen dizkielako gogora.

Ziur aski, mitifikazioaren zati baten jatorria izango da ikazkinen, artzainen eta etxetik kanpo, zibilizaziotik urrun bizitzea inplikatzeko zuten beste ogibideetan ibiltzen zirenen ogia zela. *Taloa* prestatzeko moduak oso moldakor egiten du, izan ere, ez du behar laberik, hartzitzerik edota gainerako ogiek behar dituzten elementu gehienak. Beraz, erromantizismo kutsua dauka.

Baina bada penarik hainbesteko gloria artean, izan ere, arto irinak asebetetzeko duen gaitasuna gorabehera, bitamina-gabezia handiak eragiten ditu gariarekin tartekatu edo bestelako proteinekkin konbinatu ezean, eta gabezia horien ondorioz, pelagra edo "legen asturiar" izeneko eritasuna agertzen zen: larruazaleko arazoak, suizidio gogoak eragiten dituen depresioa... Gainera, ezjakintasuna medio, askotan eritasuna pairatu arren, ez zen diagnostikatzen. Ameriketan ondo dakite hori ez gertatzeko artoa egosi egin behar dela karedun uretan; nixtamalizazio esaten zaio prozesu horri. Eta jakina, taloa ekarri genuen, bai, baina ez sekretu hori... Zenbat giza hondamendi eragingo zituen talo hutsezko dieta hark...



La palabra *talo* está totalmente normalizada entre nosotros ya que no conocemos otro nombre para denominarlo. Como sabemos, hace referencia a unas rústicas tortas delgadas, elaboradas con harina de maíz, y que se cuecen encima de una plancha de hierro colocada sobre el fuego.

Al contrario a lo que sucede con el pan de harina de trigo, es preferible comer el *talo* en caliente, nada más hacerlo ya que, una vez frío, queda seco y áspero. Por ello las sobras del talo usado en la comida se cocían en nuestros caseríos con leche, a modo de sopas.

A pesar de lo que podamos pensar, el *talo* no es un alimento ancestral ya que el maíz se introdujo desde América y eso nos acerca hasta las épocas relativamente modernas. Eso sí, como nuestra tierra no era por su pluviosidad muy apropiada para el cereal, la incorporación del maíz supuso una gran revolución agrícola y conllevó un notable crecimiento demográfico ya que podía cultivarse en el fondo de los húmedos valles, tan abundantes en



nuestra orografía y tan poco productivos hasta entonces. Desde la aparición del *talo*, por tanto, el hambre secular quedó en gran medida mitigada. Pero, insistimos, no es ningún alimento tan arcaico como pudiéramos pensar. De hecho, la primera vez que se cita esta palabra en la literatura es en la novela *Peru Abarka* publicada en 1881, aunque fue escrita 80 años antes: «*Talo ondo egina hauspean, morokila, esnea, gaztainak eta sagarrak*», describiendo la alimentación común de la época: 'talo bien hecho bajo la ceniza, polenta [papilla hecha con harina de maíz], leche, castañas y manzanas'. Esa cita a las cenizas nos habla de la forma original de elaborarlo, pues era un "pan subcinericio" como bien lo definiera Larramendi (1745), «*elaborado entre las cenizas o rescoldos*». Lo de hacerlo sobre una plancha de hierro, el *talaburrin*, es sin duda moderno tal y como lo apuntaba Juan de Arin (1960): «*El procedimiento moderno consiste en calentar una pala de hierro, talaburnie, y colocar sobre ella la masa aplanada*».

Por nuestra parte, podemos incluso dudar que nuestra palabra, aunque sin duda forme parte del léxico vasco, tenga su origen en nuestra lengua. No sería extraño que fuese algún término importado de las lenguas indígenas de América. Solo así podríamos entender que en Cantabria se haya denominado *talo* a la 'plancha circular de hierro, con un asa para colgarla de las caramilleras o llares, y cocer las tortas sobre la lumbre' tal y como la define la Real Academia Española.

Al margen de todo ello, nuestro *talo* se ha convertido en un alimento que hoy en día parece simbolizar aquella cultura que dejamos atrás. Los más jóvenes lo buscan ansiosos en cualquier fiesta de ambientación rural mientras que los más mayores lo desdeñan porque les recuerda a épocas de carencias.

Su mitificación vendrá dada porque el *talo* era el pan de los carboneros, pastores y otros oficios en los que se vivía fuera del hogar, lejos de la civilización. La forma de elaborarlo lo hacía muy versátil, ya que no se precisa de un horno de cocción, fermentación, etc. como sucede con el resto de panes. Tiene un halo de romanticismo por tanto.

Pero también hay pena entre tanta gloria ya que, a pesar de la capacidad de saciar de la harina de maíz, si no se alternaba con la de trigo o se acompañaba con otras proteínas, producía graves carencias vitamínicas que derivaban en la enfermedad de la pelagra o "lepra asturiana" —afecciones de piel, depresión con tendencia al suicidio...—, con el problema de que en muchas ocasiones se padecía pero no se diagnosticaba como tal por desconocimiento. Bien saben en América que para que ello no suceda, hay que cocer previamente el maíz con agua y cal, lo que se conoce como la nixtamalización. Pero aquí trajimos el *talo* y no ese secreto... cuántos desastres humanos habrá provocado la alimentación exclusiva con *talo*...



## TONTORRA

Laudioko gaztelaniaz nahiko erabilia da *tontorra* berba. Berba horrekin izendatzen dira 'mendien puntu garaiena, gailurra, mendi puntak' edo, beste barik, 'zonalde bateko zatirik garaiena'.

Teorian, "hace como una *tontor* en el centro del terreno" izan beharko luke, izan ere, berez, *tontor* da berba, eta behin artikulua erantsita, *tontorra* gertzen da, 'la cumbre'. Hala ere, herriko erabileran, berbak artikulua darama beti, zati fosilizatu eta bereizezin legez: "hace como una *tontorra* en el centro del terreno". Bestalde, beti erabiltzen da femeninoan.

Hortaz, "en lo alto de la *tontorra* de aquellos pinos" entzungo dugu, edo, oso maiz, *tontorríca* forma txikigarriarekin: "a mitad de camino hace como una *tontorríca* el terreno".

Aipatutako esanahiaz gain, hau da, 'zati garaiena' adierazteaz gain, antzekotasun-harreman bat dela medio, berba berak 'koskorra', 'haurdun dagoen emakumearen sabela' nahiz 'kapela altua' esateko ere balio du, baina erabilerera horiek ez dira ezagunak gaur egungo Laudion.



En Laudio es relativamente usada la palabra *tontorra*. Con ella se denominan a las 'cumbres, cimas, punta de una montaña' o, sin más, la 'parte más elevada y prominente de una zona'.

Teóricamente debería ser "hace como una *tontor* en el centro del terreno" ya que, en sí, la palabra es *tontor* 'cumbre' y, una vez añadido el artículo, *tontorra*, 'la cumbre'. Pero en nuestro uso popular local siempre se hace incluida esa terminación del artículo, como si fuese algo fosilizado e indisoluble: "hace como una *tontorra* en el centro del terreno". Su uso es, por otra parte, siempre en femenino.

Así escucharemos "en lo alto de la *tontorra* de aquellos pinos" o, incluso y muy a menudo, en diminutivo a través de la forma *tontorríca*: "a mitad de camino hace como una *tontorríca* el terreno".

Además del significado más conocido de 'parte elevada', por similitud, se ha usado para definir los 'chichones', 'tripa de una mujer embarazada' o, entre otros, hasta 'los sombreros elevados', pero son usos no conocidos en el Laudio actual.



## TRAKU

Laudion, *traku* berba erabili izan da irinetarako errota tradizioaletako pieza bat izendatzeko. Zurezko ardatz bertikala da, eta zati batean biribila izan beharrean —zehazki, pieza horrek hartzen du berbagai dugun izena— angelu biziak ditu. Horrela, *cocinilla* izeneko beste pieza batek erritmikoki kolpatzen du eta, eragindako triki-trakaren ondorioz, aleak kalapatxatik erro-tarrietara jausten dira. Laudion *traku* eta *carraca* izenak ere jaso ditugu pieza hori izendatzeko.

Errota batzuek ez daukate pieza hori, eta, beraz, goiko errotarrian egindako koska batzuen bidez bibrazatzen da *cocinilla* izenekoa.

Berbari berari dagokionez, ez dugu esanbidezko erreferentziarik horri buruz. Agian, *trako* 'herren' berbarekin lotu genezake, mugimenduaren antzekotasunari erreparatuta.



En Laudio se ha usado *traku* para identificar una pieza de los molinos harineros tradicionales. Es un eje de madera vertical, con una zona en la que no tiene redondez —es especialmente esta pieza concreta la que recibe el nombre— sino ángulos vivos. Así golpea rítmicamente a otra pieza llamada *cocinilla* y que, con el traqueteo generado, hace que vayan cayendo granos desde la tolva hasta las muelas. En Laudio recogemos las denominaciones de *traku* y *carraca* para ese elemento.

En algunos molinos, ni siquiera tienen esa pieza y se hace vibrar la *cocinilla* mediante unas muescas dispuestas en la muela volandera, la piedra superior.

Respecto a la palabra en cuestión, no contamos con ninguna referencia expresa al respecto. Cabría relacionarlo con *trako*, 'cojo', por la similitud con el movimiento.

## TRAUSKI

Laudion erabiltzen dugun *trauski* terminoak 'jokamolde baldarra duen pertsona, pertsona traketsa' esan nahi du, R. M. Azkuek 1905ean argitaratutako hiztegi ospetsuaren arabera.

Zalantza barik, harremanen bat dauka *trauskil*, *traskil*, *treskil*, *troskil*, *truskil*, *drauskil* eta antzeko berbekin, 'zakar, leundu gabe, moldebako' esan nahi duten lexikologo ospetsuaren arabera.



Eta halaxe da, izan: gure herrian, norbait *trauski* dela esaten dugu 'saskila, itxura txarrekoa, zarpaila, pildatsua' dela adierazteko.

Berba bitxi horretatik jaiotzen da *trauskileria*, gure herrian 'oiestasun' berbaren sinonimo gisa erabiltzen dena zerbait 'narrasa, formari dagokionez grazia gutxikoa' dela esateko. Esanahi berberarekin erabiltzen da *trauskilkeria* euskararen beste lurralde batzuetan, baina, gure kasuan, —*eria* erabiltzen dugu, *saskeleria* berba jorratzean esan dugun legez.

Amaitzeko, gehituko dugu gure herritik kanpoko zenbait lekutan 'artazi handi' legez jaso dela *trauski*, eta ez litzatekeela harritzekoa gure terminoa-ekin erlazioten bat izatea.



El término *trauski* que usamos en Laudio tiene el significado de 'persona de torpes modales, desmañada' tal y como lo reseñara R. M. Azkue en su celebrado diccionario de 1905.

Sin duda ha de estar relacionada con los vocablos similares como *trauskil*, *traskil*, *treskil*, *troskil*, *truskil*, *drauskil* y que el mismo lexicólogo interpreta como 'tosco, no pulido, desgarrado'.

Efectivamente, en nuestro pueblo decimos que alguien es *trauski* cuando está 'desaliñado, con mala traza, desarrapado, andrajoso'.

De esta palabra tan curiosa surge *trauskileria*, que también usamos en nuestro municipio para referirnos a una 'grosería', algo 'desastrado y de poca gracia en lo formal'. Con idéntico significado se usa *trauskilkeria* en otros territorios del euskera pero en nuestro caso nos valemos de —*eria* como ya se trató en la palabra *saskeleria*.

Añadiremos para finalizar que *trauski* está asimismo recogido en algunos lugares, ya fuera de nuestro pueblo, con el valor de 'tijeras grandes' y no sería extraño que estuviese relacionado con nuestro término.

## **TRAUSKILERIA.** *Ikus / Ver* **TRAUSKI**

## **TRIPANDI**

Agerikoa denez, *tripandi* esamoldea *tripa* izena eta *handi* izenondoa elkar-tuta eratzen da. Bestela esanda: 'sabel handi', 'tripatzar', 'tripontzi'.

Hala ere, ez da zentzu deskribatzaile literalarekin erabiltzen, baizik eta norbaiti 'jatun, tripazain, aseezin deitzeko.





Evidentemente, la expresión *tripandi* surge de la combinación del sustantivo *tripa* y el adjetivo *handi*, 'grande'. Es decir, 'tripa grande', 'tripón', 'tripudo'. Sin embargo no suele usarse para hacer referencia al sentido literal del significado sino para llamar a alguien 'tripero, glotón, insaciable...'

## TRIPISURRI

Zoritxarrez, *tripisurri* berbaren erabilerak —*tripisúrri* azentuatua— dagoneko ez du ia presentziarik gaur egungo Laudion, eta oso pertsona gutxik identifikatzen dute; horien artean, nire senideak. Gose-sentsazioari egiten dio erreferentzia eta, batez ere, jatunari: "¡ay *tripisurri*, cómo te estás poniendo de alubias!".

Berez, *tripa-zorri* datza horren muinean, euskarazko esamolde arrunta, eta, hemendik kanpo, gaurkotasun bete-betekoa. Literalki 'urdaileko zorri' esan nahi du, 'gose-sentsazioa' adierazteko, goseak gaudenean sabelaldean nabari ohi dugun inurridurarengatik, nonbait.

Hori guztia alde batera utzita, R. M<sup>a</sup> Azkue hizkuntzalari eta folkloristak *Euskalerrriaren Yakintza* (1935-1947) lan eskergan jaso zuen Laudiokoa ei den herri-sinesmena: «*Gaztaiña gordinak yanezkero, zorriak egiten dira sabelean / Comiendo castañas crudas se forman piojos en el vientre*».



Desgraciadamente, el uso de la palabra *tripisurri* —acentuado *tripisúrri*— apenas tiene presencia en nuestro municipio y son muy pocas las personas que lo identifican, entre ellas en mi entorno familiar. Hace referencia a la sensación de hambre y, sobre todo, a la de glotón: "¡ay *tripisurri*, cómo te estás poniendo de alubias!".

En realidad se trata de *tripa-zorri*, una expresión común en euskera, en plena actualidad en otras zonas. Literalmente significa 'piojo de la tripa' en alusión a la 'sensación de hambre', suponemos que por el hormigueo que hace en el estómago.

Al margen de todo ello el lingüista y folclorista R. M<sup>a</sup> Azkue recogió en su obra recopilación de sabiduría popular *Euskalerrriaren Yakintza* (1935-1947) la siguiente creencia atribuida a Llodio: «*Gaztaiña gordinak yanezkero, zorriak egiten dira sabelean / Comiendo castañas crudas se forman piojos en el vientre*».



## TXA

Jatorri onomatopeiko argia du berba honek, eta oso erabilia da umeekin. Ohartarazpen moduko bat da, arriskutsua izan daitekeen lekuren batetik eskua kendu dezaten, esaterako, sutondotik: "*Txa!* cariño, que te quemas". Berez, mehatxu txiki bat darama inplizituki, izan ere, *txa*, euskararen lurralde tradizionalaren mendebaldeko zonaldean 'eskuaz emandako kolpea' da; guk ahaztua daukagu praktika hori. Areago: *txa emon* formula eta antzekoak daude 'eskuaz kolpeak ematea, zigortzea' esateko. Bizkaiko beste eremu batzuetan *txat* aldaera dute, esanahi berekoa.



Palabra de evidente origen onomatopéyico y cuyo uso es muy común en el lenguaje infantil. Es una advertencia que suele invitarles a que retiren la mano de algún sitio por ser una situación de peligro como el fuego, etc.: "*Txa!* cariño, que te quemas"

En el fondo, contiene una pequeña amenaza puesto que *txa*, en la zona más occidental del ámbito geográfico del euskera tradicional, es un 'golpe dado con la mano', algo que nosotros ya hemos olvidado. De hecho, fórmulas como *txa emon* son 'dar golpes con la mano, castigar'. También existe en otras zonas de Bizkaia la variante *txat*, de idéntico valor.

## TXAHALA

Bertoko baserri inguruetan oso ezaguna da *txahala* berba. Horrela idazten da, gaztelaniaz *txála* esaten dugun arren, hau da, silaba birekin hiruren partez.

*Txahal* esaten zaie, bai, hau delako abelgorrien kume txikiei euren lehenengo hilabeteetan, eta koskortzen diren arte izendatzeko modua. Zonalde batzuetan, amaren errapetik esnea hartzen jarraitzen duten bitartean deitzen zaie *txahal*. Hala ere, ez da hori Laudioeren kasuan, guk lehenengo hilabeteetan baino ez diegulako deitzen horrela, oraindik kume itxura duten bitartean, alde batera utzita esnea hartzen duten ala ez. Izan ere, dagoeneko *txahala* deitzen ez diegunean ere, zenbait hilabetez edoskitzen jarraitzen dute. Hortaz, ez dirudi bereizketa oso argi dagoenik.

*Txahala* berba kume ar zein emeekin erabiltzen da, baina gaztelanian integratzerakoan, femeninoa orokortu genuen, "una *txahala*" esaten baitugu, eta ez "un *txahala*" edo "un *txahalo*".



Amaitzeko, erantsi egingo dugu amaierako —*a* hori ez dela berbaren zati bereizezina, artikulua baizik. Beraz, "*txahal bat*" esaten da. Horiek horrela, berba gaztelaniaz erabiltzean, "*una txahal*" esan beharko genuke "*una txahala*" esan beharrean, azken horren itzulpen literala 'una la ternera' litzatekeelako. Dena den, zuzenena izan barik ere, horixe erabiltzen dugu guk.



Una palabra muy conocida en nuestro mundo rural es *txahala*, escrita así aunque nosotros la pronunciemos *txála*, en dos sílabas y no tres.

Hace referencia a las 'terneras/os', crías pequeñas del ganado vacuno, en sus primeros meses de vida y antes de convertirse en novillas o novillos. En algunas zonas, se denominan así a las crías mientras mamen leche de la madre. No es el caso de Laudio ya que solo las denominamos *txahala* en los primeros meses, en los que tienen un aspecto de cría, al margen de que tomen leche o no. Y es que, ya habiendo dejado de considerarse *txahalas* siguen mamando algunos meses más. No es una distinción que parezca clara, por tanto.

El término *txahala* se usa para denominar las crías, tanto si son hembras como si son machos aunque al integrarlo en el castellano siempre decimos, como forma general, el femenino "una *txahala*" y no "un *txahala*" o "un *txahalo*".

Para finalizar, cabe añadir que la —*a* final no es parte intrínseca del término sino el artículo. Es decir, sería *txahal bat* 'un ternero/a'. Por tanto, al integrarlo al castellano deberíamos usar *una txahal* en vez de *una txahala*, literalmente esta última que nosotros usamos 'una la ternera'. Pero, aunque no sea lo más correcto, es así como lo usamos.

## TXAKOLI

Berba korapilatsua oraingoan dakarguna. *Txakolin* da euskaldun orok erabiltzen duen forma gure herrian hain ezaguna den tokiko ardoari esateko. Gaztelaniaz ere, *txakolin* zen ardo horren izen arrunta —*chacolín* idatzita—, dokumentu zaharretan ikusten denez.

Dirudienez, *chacolín* hartatik dator egungo gaztelaniazko *chacolí* berba, gaur egun gehien erabiltzen duguna, alegia. *Chacolí*, amaierako —*n* barik, gaztelania da eta, euskal estetikadun grafiaz mozarrotzen saiatuta ere, hau da, *txakoli* idatzita ere, okerra da hizkuntza bietan. Hala eta guztiz ere, azken



horren erabilera ari da gehien hedatzen, eta horregatik erabaki dugu horrelaxe jasotzea, errealitatearekiko fidel jokatzeko.

*Txakolina* —gurean, *txakoli* edo *chacolí*— ez da soilik Euskadiko mendebaldean egiten; Kantabria eta Burgoseko eremu handietan ere izen horrekin ekoiztu izan da historikoki, baita Txilen ere. Azken boladan, ostera, merkataritza-interesen ondoriozko liskar txiki bat piztu da, izen hori erabiltzeko zilegitasuna nork izango. Edozelan ere, zentzugabekeria da Burgosko Frías herriari eta beste zenbaiti izena erabiltzeko debekua ezartzea, mendeak baitaramatzate *chacolín* egiten.

Jatorri linguistikoari gagozkiola, gaskoierazko berba izan daitekeela uste izan da, eta Frantzia mendebaldeko kostaldetik inportatzen zen *petit vin* izenekoarekin ere lotu nahi izan da —kalitate urriko ardoa, 'ardo txikia'—. *Pitiki* barbari buruzko sarreran jorratu genuen hori. Kontuan hartuta gure historian izan duen irismena edo, gutxienez, idatzizko dokumentazioan duen isla, agerikoa da berandukoa dela eta jatorrizko *txakolin* formari eutsi egin zaiola beti.

Oinarrizko erreferentzia legez, Arespalditzan dokumentatu zen lehenengo aldiz gure eskualdean, Kexaako feriari buruzko testu batean: «*el vino de cosecha de chacolín*» (1623). Izendapen berria izan zen hura, ordura arte dokumentazio horretan bertan «*vino de la cosecha de la tierra*» ageri baitzaigu.

Hori guztia alde batera utzita, *txakoli(n)* berbaz izendatzen dugu Laudion tokiko ardoa zein upategi, taberna eta jatetxearen arteko nahasketa den eraikinak, zeintzuetan berbagai dugun ardoa ekoiztu eta kontsumitzen baitzen; Leku horiek moda betean egon ziren XIX. mendearen amaieran hiriko zein baserriko munduen arteko topagune gisa. Aisialdiarekin eta olgetarekin lotutako txokoak ziren, eta *txakoli(n)aren* kontsumoa zuten ardatz: litro erdia zen "dosi estandarra", pitxer —*azumbre*— laurdena alegia. Baina ez diezaiegun deitu *txakolinería* gaur sarritan entzuten den legez, berba horrek ez baitu tradiziorik.

Sona handia zuen Laudioko *txakoli(n)*ak. Horren adierazgarri da Mañé y Flaquer katalanak idatzitako oharra (1879) gurera bisitan etorri ostean: «*El "chacolí" (vino del país) que se produce en Llodio es el más estimado de Vizcaya*».

Arrañoako gaztelu miresgarriaren jatorrian ere *txakolina* dago, mahastiak zaintzeko eraikina izan baitzen hasieran, zeina Urkixoko markesak gustu onez eraikitzeko agindu baitzuen: «*Enfrente, la casa de Olabarrieta con sus miradores, sobre ella en la colina el castillo vinícola de San Roque y los sembrados de chacolí de la casa del señor Urquijo...*» (Becerro de Bengoa, *Descripciones de Álava*, 1880).



Compleja palabra esta que traemos aquí. *Txakolin* es la forma que usan todos los vascohablantes para denominar ese vino local tan característico de nuestro municipio. También *txakolin* —escrito *chacolín*— era la forma habitual para denominarlo en castellano, tal y como vemos en la documentación antigua.

De dicha palabra *chacolín* parece derivar la castellana actual *chacolí* que es la que habitualmente ahora usamos. *Chacolí*, sin la *-n* final, es castellano y, por mucho que la disfracemos con grafía de estética vasca, *txakoli*, es incorrecto para ambas lenguas. Pero su uso se va imponiendo y nosotros la damos con dicha entrada, para ser lo más fieles a la realidad.

El *txakolin* —*txakoli* o *chacolí* en nuestro uso local— es un vino que, además de en la franja septentrional de Euskadi, se ha producido y denominado así históricamente en grandes zonas de Cantabria, Burgos o hasta de Chile. Pero últimamente, los intereses comerciales han generado una pequeña pugna sobre la legitimidad para usar dicho término. En cualquier caso, prohibir a ciudades como Frías (Burgos) el uso de esa denominación cuando lo llevan haciendo desde siglos atrás, es un despropósito.

Respecto al origen lingüístico, se ha especulado sobre que *txakolin* sea una palabra de origen gascón o incluso que tenga que ver con el *petit vin* —vino de poca calidad, 'pequeño vino'— que se importaba desde la costa occidental francesa y del que se hablamos en la entrada *pitiki* de este trabajo. Su penetración en nuestra historia o al menos su reflejo en la documentación escrita, evidencian que es tardía y siempre fial a la forma *txakolin* originaria. Como referencia básica, en nuestra comarca se documenta por primera vez en Arespalditza, al hablar sobre la feria de Quejana: «*el vino de cosecha de chacolín*» (1623), un nuevo término, ya que hasta entonces se citaba en la misma documentación como «*vino de la cosecha de la tierra*».

Al margen de todo ello, con la palabra *txakoli(n)* denominamos en Laudio tanto al vino local como al edificio mezcla entre bodega, bar y restaurante, en donde se producía y vendía ese vino, aquellos recintos que tan de moda se pusieron a finales del XIX como punto de encuentro entre lo urbano y lo rural. Eran lugares relacionados con el ocio y la diversión, teniendo como eje el consumo de *txakoli(n)* que se servía en raciones de medio litro, un cuartillo de azumbre. Pero nada de denominarlas *txakolinerías* como hoy, sin tradición alguna, hoy a veces escuchamos.

El vino *txakoli(n)* de Laudio era especialmente renombrado. No hay más que leer la nota publicada por el catalán Mañé y Flaquer (1879) tras visitarnos: «*El "chacolí" (vino del país) que se produce en Llodio es el más estimado de Vizcaya*».



También ese es el origen del flamante castillo de Arraño, un "guardaviñas" que con buen gusto mandó construir el marqués de Urquijo: «*Enfrente, la casa de Olabarrieta con sus miradores, sobre ella en la colina el castillo vinícola de San Roque y los sembrados de chacolí de la casa del señor Urquijo...*» (Becerro de Bengoa en *Descripciones de Álava*, 1880).

## TXAKURRE

Ondo dakigunez, gaztelaniazko *perro/a* berba euskaraz emateko *txakur* erabiltzen da. Artikulua erantsi ostean, *txakurra* geratzen zaigu.

Baina *mukurre*, terminoa azaltzean aipatu genuen fenomeno fonetiko beraren ondorioz, —*a* izan beharko lukeen artikulua hori —*e* bihurtzen zaigu. Euskal Herriko mendebaldeko euskararen ezaugarria da hori.

Hortaz, *txakurra* barik, *txakurre* ahoskatzen da gurean, espero izatekoa zenez.

Laudion dagoeneko ez da berba erabiltzen izen arrunt legez; aitzitik, eginkizun apelatibo hutsezko interjekzio bihurtu da, txakurrei dei egitekoa.

Hortaz, "*Txakurre!* ¡Dale por arriba!" edo antzekoren bat esango dugu. Beti erabiltzen dugu dei egiteko edo aginduak emateko funtzio horrekin.



Como bien sabemos, para denominar al *perro/a* del castellano se utiliza en euskera la palabra *txakur* que, al añadirle el artículo, se queda como *txakurra*.

Pero, por el mismo fenómeno fonético que comentamos al tratar el término *mukurre*, ese artículo final que escribimos con —*a*, pasamos a hacerlo con —*e*. Es una característica del euskera del occidente vasco.

Así, *txakurra* pasará a pronunciarse *txakurre* entre nosotros, como cabría esperar.

No es ya una palabra que se use en Laudio como un sustantivo normal sino que ha quedado relegada a la interjección, con un uso puramente apelativo, de llamada para los perros/as.

Por ello diremos "*Txakurre!* ¡Dale por arriba!" o frases similares. Siempre con esa función de llamada o imperativa que más arriba citábamos.



## TXALO

Ez da egongo Laudion *txalo* berbaren esanahia ezagutzen ez duenik: 'zaplazteko' esan nahi du, 'eskua zabalduaz aurpegian ematen den kolpe zaratatsua'. Berez, *txalo* berbaren adiera hori jatorrizko esanahiaren hedapen bat da, hasiera batean, 'ikuskizunetan esker ona adierazteko eskuekin egiten den zarata' esan nahi baitzuen berbak.

Zelanahi ere, esku-kolpe legez zein esker oneko keinu legez, ez dirudi *txalo* berba oso zaharra denik, 1802an dokumentatu baitzen lehenengo aldiz, Areatzako P. A. Añibarro apaizaren eskutik: «*Eskutadak, txaloak, barre ta san-soak*».



No habrá persona en Laudio que desconozca lo que es el vocablo *txalo*: un 'sopapo', un 'golpe sonoro que se da con la mano abierta en la cara'.

En realidad, la palabra *txalo* es una extensión del significado original del término y que hace referencia al 'aplauzo'.

Sea como fuere, bien como tortazo bien como aplauso, la palabra *txalo* no parece ser muy antigua ya que se documenta por primera vez en 1802 de mano del sacerdote de Areatza P. A. Añibarro: «*Eskutadak, txaloak, barre ta sansoak*».

## TXAMARRA

Oso ezaguna da *txamarra* berba gure artean: 'atorraren edo antzekoen gainean eramateko kanpo-jantzia' da. Zalantza barik, gaztelaniak ere euskaratik jaso eta berezko forma legez hartu izanak ere terminoaren hedapenean lagundu du. Hizkuntza horretan, *chamarra* idazten da eta 'belakizko edo oihaal lodizko jantzia da, zamarraren antzekoa'. Halaber, *zamarra* terminoa 'jantzi baldarra, ilea edo artilea daukan larruz egindakoa' edo 'ahari azala'.

Izan ere, gaur egun 'jaka edo zamar iledun' esanahia ematen diogun arren, larruz egindakoa jantzi trauskil bati egiten zion erreferentzia. Larramendik bere *Diccionario* lanean (1745) emandako azalpena bikaina da: 'zamarra, jaka, artzainek euritik babesteko erabiltzen duten larruzko jantzia'.

Halaber, R. M. Azkueri esker dakigu gutxienez 1905 baino lehenago Orozkon erabiltzen zutela berba, 'errementarien mantala' esanahiaz —gaur egun *mandil* esango genioke horri gaztelaniaz— eta, herri hori hurbil dugunez, Laudion ere erabiliko zela pentsatzen dugu.



Azkuek ere jaso zuen, baina gure inguruetatik kanpo, 'goru-buru, kirruaren estalkia goruan' esanahiarekin. Hau da, hiru hagaxka oker edo gehiagoz osatutako pinaburu formako armazoaia, zeinak goruaren goiko aldean ipinita, harilkatu behar den mataza ipintzeko balio duen.

Laudion liho ekoizpen handia egon zenez —hain zen handia ekoizpena, ezen beste lekuetatik hona inportatu ere egiten baitzen, berton lantzeko—, uste izatekoa da berba hau esanahi horrekin erabiliko zela hemen ere.

Amaitzeko, lexikologo horrek berak bizkaieraren eremu osorako —beraz, gurerako— esanahi amankomuna egozten dio: 'frontala, uztartutako idien kopetan ipintzen den larru bigunezko zatia, uztar-hedeak marruskadurarik eragin ez dezan'.

Zalantza barik, larruzko elementu haietatik gaur arte bilakaera eta egokitzapen handia eduki ostean iritsi gara gaur egun *txamarra* berbak duen erabilerara.

Bitxikeria legez esango dugu *txamarra* zaharra *txamarrote* berbatik sortu zela: itsasoko beharginek erabiltzen zuten leporik gabeko jaka handia zen, guk geroago *kaiku* deituko genuena, hain zuzen ere. Joan den mendeko 70eko hamarkadan orokortu zen bere erabilera, protesta legez eta euskalduntasuna aldarrikatzeko erregimen frankistaren debekuen gaintetik. Edoze-lan ere, *kaiku* berba ez da gure berba-altxortegi tradizionalako elementua, nahiko berandu hasi baitzen erabiltzen.



La palabra *txamarra* es sobradamente conocida entre nosotros y su significado es el de 'prenda de vestir exterior, sobre la camisa o similar'. Sin duda, a la generalización de término contribuye el que también el castellano la haya adoptado como propia a partir del euskera. En esta lengua se escribirá *chamarra* y su significado es el de 'vestidura de jerga o paño burdo, parecida a la zamarra' y, a su vez, define el segundo término *zamarra* como 'prenda de vestir, rústica, hecha de piel con su lana o pelo' o 'piel de carnero'.

Y es que, a pesar del uso actual que le atribuimos como 'chaqueta o pelliza' en origen hacía referencia a un vestido rústico hecho con pellejos. Nada mejor que la descripción que del término hace Larramendi en su *Diccionario* (1745): 'Pellico, zamarra, piel que a modo de impermeable usan los pastores para defenderse de la lluvia'.

También sabemos gracias a R. M. Azkue que al menos con anterioridad a 1905 se usaba en Orozko con el significado de 'delantal de herreros' —lo que ahora denominaríamos *mandil*— y que suponemos que, por cercana, se usaría también en Laudio.





Asimismo lo da Azkue, aunque atestiguado fuera de nuestro entorno, con el significado de 'rocaero, cubierta del cerro de lino en la rueca'. Es decir, el armazón en forma de piña, formada de tres o más varillas curvas, que en la parte superior de la rueca sirve para poner el copo que se ha de hilar.

Siendo como ha sido Laudio un pueblo de grandes producciones textiles en lino —tanto que al margen de la producción local se importaba de otros lugares para trabajarlo aquí— queremos suponer de nuevo que nuestra palabra también sería usada con dicho valor.

Para finalizar, el mismo lexicólogo le atribuye un significado común para todo el ámbito del dialecto vizcaíno —en el que debemos incluirnos—, el de 'frontal, pieza de cuero blando que se pone en la frente de los bueyes uncidos para evitar la rozadura de la coyunda'.

Sin duda, de esas piezas de cuero es de donde tras una gran evolución y adaptación a sus tiempos, tenemos la palabra *txamarra* actual.

Como curiosidad, de la antigua palabra *txamarra* surgió el *txamarrote*, una especie de chaquetón sin cuellos usado por la gente de mar y que es lo que luego nosotros hemos denominado *kaiku*: su uso se generalizó a partir de los 70 del siglo pasado y tenía un valor de protesta y reivindicativo de lo vasco frente a las prohibiciones del régimen franquista. En cualquier caso, la palabra *kaiku* no forma parte de nuestro acervo lingüístico tradicional ya que su incorporación es tardía.

## TXAPELA

Kapela baino zerbait gehiago da *txapela*: "Euskal Herriko izatearen" ikur unibertsala da, berez, jatorria Euskal Herrian ez duen arren. Hala ere, gurean hartu zuen gaur egun duen eitea eta garapen gorena. Izan ere, hizkuntza ugaritan esaten zaio "euskal kapela".

Euskaltasunarekiko eta foraltasunarekiko identifikazio maila hain du handia, ezen Espartero jenerala bera ere, *txapela* erabiltzea debekatu baitzuen Lehenengo Gerra Karlista irabazi ostean (1833-1839), karlismoari atxikitako ikur errebelde moduko irizten baitzion, euskal lurralde historikoen idiosinkrasia-rekiko eta foraltasunarekiko gertuegia. Baina balore horiekin identifikatzeak eragin zuen jantzi hori jendartean orokortzea, hain zuzen ere.

Gaur egun, oster, *txapelak* ez du ezer errebeldetik. Berez, kontrakoa da, izan ere, gaur egun edozein erronka edo proba irabazten duenari *txapeldun* esaten zaio, alegia, 'txapela duena', *txapela* baita txapelketetan irabazi nahi dena, irabazlea identifikatzeko elementua. Hala ere, *txapeldun* terminoa moderno da gurean, duela gutxi erabiltzen hasia.



*Txapela* berbaren gaztelaniazko baliokidea *boina* da, hori ere oso erabilia audioarren aldetik. Duela gutxi arte uste zen euskaratik zetorrela hori ere, baina, gaur egun, zalantzagarriz jotzen da baieztapen hori. Berez, zantzu guztien arabera, latin arrunteko *abonnis* 'boneta' berbatik dator, hau da, frantsesez *bonnet* eta gaztelaniaz *bonete* eman zuen erro beretik.

Beraz, ez gaitezen harritu *txapela* berbaren jatorri urrunarekin: frantsesezko *chapeau* 'kapela' terminoarekin lotua dago, eta biak ala biak latinezko *capus*, 'buru' berbarekin.

Gainera, gogoratu behar dugu beste hainbat kapela eta txano izendatzeko erabili dela *txapela* berba, gure buru-jantzi bereizgarria agertu zen arte: gaur egungo gure *txapela* bikaina sortu aurretik dokumentatu zen (Pierre d'Urte, 1725) berba lehenengo aldiz.



La *txapela* es algo más que un tipo de sombrero: es el símbolo universalmente más reconocido de "lo vasco" ya que, si bien no es originariamente propia de Euskal Herria, sí es entre nosotros en donde adquirió la hechura actual y su máximo desarrollo. De hecho, no son pocas las lenguas que la denominan como "gorra vasca".

Era tal su grado de identificación con lo vasco y foral que hasta el general Espartero, tras ganar la primera guerra carlista (1833-1839), prohibió su uso pues la consideraba rebelde, apegada a lo carlista o excesivamente identitaria con idiosincrasia y la foralidad propia de los territorios históricos vascos. Y fue precisamente la identificación con esos valores la que generalizó nuestra prenda entre la población.

Hoy, por el contrario, nada tiene de rebeldía la *txapela*. Más bien al contrario pues, en la actualidad, al ganador en cualquier reto o prueba se le denomina *txapeldun*, 'campeón' que no es sino, literalmente, 'el que tiene *txapela*', ya que es la *txapela* lo que más se codicia en las competiciones, lo que identifica al vencedor. Pero *txapeldun* es un término moderno entre nosotros, de nueva incorporación.

El equivalente a *txapela* en castellano es *boina*, también muy usada entre los audioarras, una palabra a la que hasta hace poco se le atribuía un origen en el euskera pero que, hoy en día, se pone en tela de juicio. En realidad, todo parece indicar que deriva del latín vulgar *abonnis* 'gorra', la misma raíz que dio *bonnet* en francés y *bonete* en castellano.

Pero no nos extrañemos ya que también el vocablo *txapela* tiene un origen lejano: está relacionado con términos como el *chapeau* 'sombrero' francés y todo ello proviene del latín *capus*, 'cabeza'.



Recordemos además que *txapela* se ha usado en la historia para denominar otros sombreros y gorros hasta la irrupción de nuestra característica prenda: se documenta por primera vez bastante antes (Pierre d'Urte, 1725) de existir nuestra preciosa prenda.

## **TXAPELDUN.** *Ikus / Ver* **TXAPELA**

### **TXAPILO**

*Txapilo* izenaz ezagutzen dugu bertan zaku batez egindako kapela-kapa bat, zeina euritik edo eguraldiaren beste edozein gorabeheratik une batez babesteko erabiltzen zen. Gure zonaldeko berba bereizgarria da, eta R. M. de Azkuek jaso zuen 1905eko bere *Hiztegia* lanean, 'txano' definizioarekin. Batzuetan, lehenago jorratu dugun *kapirutxu* izenaz adierazten dugun elementu bera da.



Con el nombre de *txapilo* conocemos una especie de sombrero y capa realizado con un saco, para una protección momentánea frente a la lluvia o cualquier otra inclemencia. Es una palabra característica de nuestra zona que R. M. de Azkue en su *Diccionario* de 1905 define como 'capucha'. Se trata del mismo elemento que también solemos denominar *kapirutxu* y que ya se ha tratado anteriormente.

### **TXARBA**

Laudion *txarba* berba erabili, erabiltzen da, baina pertsona zaharrei entzungo diegu gehienetan, batik bat, nekazaritza ezagutu izan dutenei. 'Artoaren lorea' izendatzeko balio du eta R. M<sup>a</sup>. Azkuek Orozkotik jaso zuen *Hiztegia* obran erregistratzeko (1905). Baliteke 'gaztainondoaren lorea' esan nahi duen *garba* berbarekin lotua egoitea, termino hori erabiltzen delako 'artoaren lorea' esateko ere, edo gerbarekin, alegia, sexu bakarreko loreekin, esaterako, gaztainondoaren, artoaren, intxaurren edota hurritzaren loreekin... Edozelan ere, gaur egungo Laudion 'artoaren loreari' baino ez zaio deitzen *txarba*.



En Laudio se usa *txarba*, si bien su empleo está bastante restringido a gentes de cierta edad y que han vivido en contacto con el mundo agrícola.

Con ella se denomina la 'flor del maíz' y la recoge R. M<sup>a</sup>. Azkue en su *Diccionario* (1905) en Orozko.

Podría estar entroncada con *garba* 'flor del castaño' y también del 'maíz', o el amento, flor unisexual, por ejemplo la del castaño, maíz, nogal, avellano... En cualquier caso, en Laudio solo se reconoce hoy en día el uso de *txarba* como la 'flor del maíz'.

## **TXARPILA.** *Ikus / Ver* **SARDA**

## **TXARRI**

Ez dut uste laudioar bakarra ere egongo denik *txarri* terminoa erabili edo, gutxienez, ezagutzen ez duena. Etxeko 'txerriari' ematen zaion izena da; animalia horrek egundoko garrantzia izan du gure garapen kulturalen, are gure biziraupenerako ere.

Guk erabiltzen dugun berba jatorrizko *txerri* haren mendebaldeko aldaera da, gure hizkuntza-eskualdekoa, izan ere, *err* hori *arr* bihurtu behar izan dugu *garriko* berbari buruzko sarreran azaldu dugun ildo beretik.

Gainera, gogoan eduki behar dugu historian bi txerri motaz elikatu izan garela: *urde*, gaur egun galdua egon arren, garai batean mendian egoera erdi basatian bizi zena eta erabat etxekotutako *txerria*, txerrikortakoa, alegia. *Basurde* berba ere badugu; literalki 'txerri basatia, baso/mendiko txerria' esan nahi du, eta ugari samarrak dira inguruotan. *Basaurda* berbari buruzkoak kontatzean jorratu dugu hori guztia.

Amaitzeko, komenigarria da gogora ekartzea euskal herri-sinesmenen araberaren, eta, zehazki, Laudion jasotakoetan ere, sorginak txerri bihurtzeko gaitasuna zutela animalien gorputzak hartuta.



No creo que haya un solo laudioarra que no use o al menos no conozca el término *txarri*, denominación del 'cerdo' doméstico, el animal que tanta importancia ha tenido en nuestro desarrollo cultural e incluso en nuestra misma supervivencia.



La palabra que nosotros usamos es en realidad una variante occidental del término originario *txerri* ya que, en la zona que nos corresponde, hemos tendido a convertir las *err* en *arr* tal y como ya se comentó al tratar la entrada *garriko*.

Hemos de recordar además que en la historia nos hemos alimentado de dos tipos de cerdos: el *urde*, en estado semisalvaje, de monte, hoy extinguido, y el *txerri* totalmente doméstico, de cuadra. También contamos con la palabra *basurde*, literalmente, 'cerdo salvaje, de bosque/monte' y que hace referencia al 'jabalí'. Ya lo tratamos todo ello al hablar de nuestra palabra *basaurda*.

Para finalizar, conviene recordar que en las creencias populares vascas, también en las constatadas en Laudio, las brujas podrían transformarse en cerdos, ocupando sus cuerpos.

## TXARRIBODA

Lehenago aipatu dugunez, *txerri* berbaren mendebaldeko aldaera da *txarri* eta berba nagusi horrekin lotutako harribitxi lexiko aparta dugu Laudion: *txarriboda*. Berez, bi berbaren elkarketa da: *txerri* + *boda*, alegia, 'txerri ezkontza'. 'Txerria hiltzen deneko prozesuari' deitzen zaio horrela, baina sakrifizioaren osteko oturuntzari egiten dio erreferentzia sakrifizio berari bainoago, izatez, *boda* hitza 'oturuntza', 'bankete' esanahiarekin erabili izan da. Logikoa denez, arinen lizuntzen diren zatiak jaten ziren lehenik oturuntza horretan. Egundoko jai eta betekadaz ospatzen zen hilabete luzez gizen-dutako animalia hiltzeko eguna, eta, horrela, garaiko jendeak pairatzen zuen gose iraunkorra arintzen zen.

Auzokide eta senide ugari erakartzen zituzten hala sakrifizioak, nola ondo-rengo oturuntzak, eta bizikidetzaren harremanak berreskuratu edota sendotzeko ere balio zuen. Alkohol eskasirik ez zen egoten eta horregatik du *txarriboda* terminoak gehiegikeriaren konnotazioa askotan.

Termino hedatuta, gehiegikeriaz jositako 'jan-edan handi' esanahiarekin ere erabiltzen da Laudion batzuetan, baina kasu horretan ez du zertan zerikusia izan animalien sakrifizioarekin. Bankete bariko sakrifizioa izendatzeko ere erabiltzen da.



Relacionada con la palabra principal *txarri* 'cerdo' —variante occidental de *txerri*—, disponemos en Laudio de otro término cuanto menos curioso. Se trata de *txarri-boda*. En realidad es una composición de dos palabras: *txerri* + *boda*, es decir 'boda de(l) cerdo' y hace referencia a la 'matanza del cerdo', más bien en alusión al 'banquete' que se hacía tras el sacrificio, para comer las partes más sensibles a su pérdida, ya que boda se ha usado con ese significado de 'banquete'. Se celebraba con una fiesta y hartazgo nada común, la llegada de ese período en el que aquel animal que durante meses habían engordado iba a mitigar su persistente hambre.

Tanto la matanza como el banquete posterior eran actos sociales en los que se reunían diversos vecinos, parientes y servía para restablecer y afianzar lazos de convivencia. No se escatimaba en alcohol y de ahí que el término *txarri-boda* tenga a veces unas connotaciones de exceso.

Por extensión del término, en Laudio escuchamos también en ocasiones ese término como sinónimo de cualquier 'gran banquete', repleto de excesos, sin que necesariamente tenga relación con la matanza. O asimismo para denominar la matanza en sí, aunque no haya banquete.

## TXARRIKORON

Bertoko berba dagoeneko oso eraldatua iritsi zaigu, fonetikoki oso urrundua jatorritik, eta gure baserriarrek oraindik erabiltzen dituzten *txarrikorones*, *txarrikorrones* edo antzeko berbekin mozorrotua. Forma horren atzean euskarazko *txarri-okarana* dugu.

*Arana* berba nahiz *okarana* konposatua gaztelaniaz 'ciruela' deitzen den fruituari esaten zaio. Baina *txerri* berbari lotzean —gure kasuan, mendebaldeko *txarri* aldaerari— *txerri-okarana* sortzen digu, hau da, 'txerrien arana', zeina Laudion eta inguruko herrietan 'basarana', hau da, elorri beltzaren fruitu preziatua izendatzeko balio duen.

Bitxikeria legez, gogora ekarriko dugu beste zonalde batzuetan, bereziki, Euskal Herriaren ekialdean, *basaran* 'baso-aran' esaten zaiola fruitu horri, eta handik eratorri zirela gero *patxaran* eta *pacharán* berbak, zeintzuek pattar anisatuan ondutako *txerri-okaranez* egiten den likore ospetsua izendatzen duten. *Patxaran* berba ere erabili egiten da Laudion gaur egun, baina ez da termino tradizionala. Duela hiru edo lau hamarkada gehitu genion gure berbategiari, ordura arte ezagutzen ez genuen edari hori agertzearekin batera.



La palabra local ya se nos presenta muy deformada, alejada en lo fonético del original, disfrazada en modos como *txarikorones*, *txarrikorrones* o similares que aún usan nuestros baserritarras. Detrás de ello está el término del euskera *txarri-okarana*.

La palabra *arana* o su compuesta *okarana* hacen referencia a las 'ciruelas'. Pero al unirse a *txerri* —en nuestro caso con la variante occidental *txarri*— 'cerdo' nos da *txerri-okarana*, 'ciruelas de cerdos', que en Laudio y toda la comarca se ha usado y se usa para nombrar las 'endrinas', fruto del endrino. Como curiosidad recordaremos que en otras zonas, en el oriente vasco, la endrina se denomina *baso-arana* 'ciruela silvestre' y de ahí *basaran* que genera luego las palabras *patxaran* o *pacharán* que identifica a ese licor que se elabora a partir de la maceración de endrinas en un aguardiente anisado. La palabra *patxaran* también se utiliza en la actualidad en Laudio, aunque no es un término de uso tradicional. La incorporación a nuestro léxico es de hace tres o cuatro décadas, cuando irrumpió esa bebida hasta entonces desconocida para nosotros.

## **TXARRIKORRON.** *Ikus / Ver* **TXARRIKORON**

### **TXARRI-KORTA**

Berba honen erabilera ere nahiko hedatua dago gure herriko baserri-inguruetan, eta berriro ere agerian uzten du txerriak gizakiontzat izan duen garrantzia.

*Txarri-korta* da, eta 'txerrientzako leku, itoi' esan nahi du. Txerrientzat preskeski atondutako ukuiluaren zati bat da eta baserrien beheko solairuan egoten da. Normalean, leku iluna eta aldendua izaten zen, eta errefortzu handiak ipintzen zitzaizkion animaliek ihes ez egiteko.

Hedapenez, eta gaztelaniazko *pocilga* berbarekin gertatzen den bezalaxe, lekua desordenatu eta kirasdunei ere aplikatu dakieke: "Tienes la habitación que parece una *txarri-korta*".

Gure herrian, *cortín* berba ere erabili izan da txerrien lekuari esateko. *Kortina* —gaztainak biltzeko itxitura— terminoarekin erlazionatua dago. Xehetasun gehiago eman ditugu berba hori jorrazteko sarreran.

Baliteke *korta* berbak ere, antzina, 'erdian haustarri izeneko munarria zeukan biribil perfektua eratzen duen lurzati' bat izendatzeko erabili izana,



baina beste upel bateko sagardoa da hori. "Antzina" idatzi dugu *korta* zaharra den arren, dokumentazioari begiratzen badiogu, duela 150 urte edo hasi zelako *txarri-korta* berba orokorki erabiltzen.



De nuevo tenemos una palabra, de uso bastante extendido aún en los ámbitos rurales de nuestro pueblo y que pone de manifiesto una vez más la importancia que ha tenido el cerdo en nuestra existencia.

Se trata de *txarri-korta* y significa 'lugar para los cerdos, pocilga', una parte de la cuadra —en la planta baja del caserío— que se habilitaba para ello. Normalmente solía ser un lugar oscuro, apartado y con grandes refuerzos para que no escapase el animal.

Por extensión, al igual que sucede con el término castellano *pocilga*, también se usa para hacer referencia a un lugar desordenado, hediondo: "*Tienes la habitación que parece una txarri-korta*".

Para denominar el lugar de los cerdos también se ha usado en nuestro pueblo la palabra *cortín* que no es sino un término relacionado con *kortina* —cercado para proteger las castañas— y que ya tratamos con más profusión al versar sobre aquella palabra.

La palabra *korta* también puede tener el sentido más primitivo de 'un terreno que forma un círculo perfecto que tiene un mojón llamado "piedra cenizal" en su centro pero eso ya es harina de otro costal. Decimos "más primitivo" porque mientras *korta* es antiguo, ateniéndonos a la documentación, el uso de la palabra *txarri-korta* no se generalizó hasta hace unos 150 años.

## TXARRIKUMA

*Txarrikuma* berba 'txerrien kumeak' izendatzeko erabiltzen dugu herrian. *Txerri* berba —esan bezala, gurean *txarri*— eta *kume* berba elkartzetik eratortzen da terminoa.

Baina beste behin ere, mendebaldeko euskara edo bizkaieraren berezko fenomeno fonetikoa aurkitzen dugu Laudion. Fenomeno horren ondorioz, —*e* amaiera duten izenek soinu hori mututu eta —*a* bihurtzen da, *sarda* berbaren sarreran ikusi genuenez. Hori dela eta, *kume* beharko lukeen bigarren terminoa *kuma* bihurtzen da gurean.

Berriro ere, hasiera batean txerri gorri edo esne-txerriei deitzeko zen *txarrikuma* berbak muga semantikoak gainditzen ditu eta gizakiei ere aplika-





tzen zaie, txukuntasun falta edo zikinkeria salatzeko: "Mira que eres *txarrikuma*".



La palabra *txarrikuma* se usa en nuestro municipio para denominar a las 'crías de los cerdos'. Surge de la combinación de *txerri* 'cerdo' —que como ya dijimos se articula en nuestro municipio como *txarri*— y el término *kume*, 'cría'.

Pero una vez más nos encontramos en Laudio con otro fenómeno fonético propio del euskera occidental o, como también suele denominarse, del euskera vizcaíno. Consiste en que sustantivos acabados en —e muten su sonido final a —a como ya tratamos al hablar de la palabra *sarda*. Por ello, el segundo término *kume* pasa a convertirse en *kuma* entre nosotros.

Una vez más, el término *txarrikuma* que en principio es para denominar a los cochinitos o lechones, transgrede sus barreras semánticas propias y se aplica a los humanos, para recriminar la falta de orden o suciedad: "Mira que eres *txarrikuma*".

## TXARRI-PATA

Gure txerri maiteekin estuki lotutako beste berba bat da *txarri-patak*, behin prestatuta, normalean saltsa bizkaitarretan bustitako 'txerri oinei' esaten zaie.

Berriz ere aipatu behar dugu *txerri* berbaren mendebaldeko aldaera dela berton erabiltzen dugun *txarri*.

Bitxiena da *pata* erabiltzea txerrien 'oinak' esateko. Mendebaldeko euskeran, *txarri-kaderak* nahiz *txarri-hankak* ere deitzen dira. Gure berba pluralean erabiltzen da beti, plater prestatuari erreferentzia egiteko, eta azken —k pluralizatzailea gaztelaniazko —s horrekin ordezkatzeko da: "Me comería la cazuela de *txarri-patas* yo solo".

Amaitzeko, komenigarria da gogora ekartzea tostadekin batera, *txarri-patak* direla Aratusteetako jaki tipikoena. Eta *aratuste* idatzi dugu Laudion ez dugu-lako *inauteri* berba erabili orain gutxira arte domeka, astelehen eta martitzenean ospatu ohi ziren jai horiek izendatzeko. Honatx gure berba horren osaera ederra: "*haragi* + *uzte*", hau da, 'okela jateari uztea'. Ospakizun horretako pertsonaia sinbolikoa oilarra zen, zeina gaitz guztiak bereganatu ostean, sakrifikatu egiten baitzen.



Otra palabra inexorablemente unida a nuestro gran cerdo, es el de la denominación *txarri-patas* en referencia a las 'manos de cerdo' una vez cocinadas, por lo general en salsa vizcaína.

Insistimos una vez más en que *txarri* es la variante occidental de *txerri*, 'cerdo doméstico'.

Lo curioso es el uso de *pata* para denominar esas 'manitas' que suelen denominarse en euskera occidental también como *txarri-kaderak* o *txarri-hankak*. Nuestro término se usa siempre en plural, en referencia al plato cocinado, y cambiando su *—k* pluralizante final por la *—s* propia del castellano: "*Me comería la cazuela de txarri-patas yo solo*".

Para finalizar, conviene recordar que las *txarri-patas* son, junto a las tostadas, el plato más típico del carnaval, un carnaval que en Laudio conocíamos como *aratuste* —de "*haragi + uzte*", 'dejar la carne'— y que se celebraba en domingo, lunes y martes. Su personaje simbólico era el gallo que, haciendo suyos todos los males, acababa siendo ejecutado.

## TXARRIKI-PATA

Laudion *txarriki-pata* esaten dugunean, *txarri-patez* gain beste zenbait elementu dauzkan lapikoaz ari gara. Etxean jasotako testigantzen arabera, *txerri* bi hiltzen ziren urtean. Haiekin, *txarriki-patak* prestatzen ziren lau egun berezitan. Plater bakoitzak bi *txarripata*, belarri bat eta masail erdia zeukan, dena saltsa bizkaitarrean bustita.

Alde batera utzita *pata* terminoa, *txarriki* berbak 'txerri okela' esan nahi du literalki, izan ere, *—ki* atzizkiak 'produktu jangarri' adierazteko balio du. Hona hemen atzizkiaren beste erabilera batzuk, adibide legez: *baratze*, *esne*, *gozo* eta *izotz* berbetatik, hurrenez hurren, *barazki*, *esneki*, *gozoki* eta *izozki* eratortzen dira.

Horrez gain, *—ki* atzizkiak badu beste funtzio osagarri bat, alegia, izen berria eratzea okela mota bakoitza izendatzeko kasuan kasuko animaliaren izenetik abiatuta. Hortaz, *ahateki*, *ardiki*, *bildoski*, *eperki*, *txerriki*, *behiki* eta *txahalki* berbak, hurrenez hurren, ahatearen, ardiaren, bildotsaren, eperraren, txerriaren, behiaren nahiz txahalaren okelei deitzeko izena dira. Hortik dator, beraz, gure *txarriki* hitza.



Cuando nos referimos a *txarriki-patas* en Laudio, aludimos a una cazuela compuesta por *txarri-patas* y algunos otros elementos más. En las referencias recogidas en mi entorno se mataban dos cerdos al año. Con ellos, se hacían en cuatro celebradas fechas una cazuela de *txarriki-patas*, compuestas cada una de dos *txarri-patas*, una oreja y media careta, todo en salsa vizcaína.

Dejando a un lado el término *pata*, literalmente, *txarriki* significa 'carne de cerdo', gracias a la concurrencia del sufijo —*ki* que aporta la concepción de 'producto comestible', como de *baratze* 'huerta', *esne* 'leche', gozo 'dulce', *izotz* 'hielo'... surgen *barazki* 'hortaliza', *esneki* 'producto lácteo', *izozki* 'helado'... respectivamente.

Y dentro de ello, otra función complementaria del sufijo —*ki* es la de generar un sustantivo nuevo para denominar cada tipo de carne a partir del nombre del animal. Así, *ahateki*, *ardiki*, *bildoski*, *eperki*, *txerriki*, *behiki*, *txahalki*... son 'carne de...'pato' (*ahate*), 'oveja' (*ardi*), 'cordero' (*bildots*), 'perdiz' (*eper*), 'cerdo' (*txerri*), 'vaca' (*behi*), 'ternera/o' (*txahal*) respectivamente. De ahí nuestro *txarriki*.

## TXATARRA

Laudioar guztiok erabiltzen ditugu *chatarra* nahiz hortik eratorritako *chatarrería* eta *chatarrero* berbak, edozein izanda ere bakoitzaren jatorria. Izan ere, gaztelanian erabat normalizatutako eta barneratutako berbak dira. *Chatarra* berbak 'zepa, sarra' esan nahi du gaztelaniaz, baina, batez ere, 'metal zahar edo erabilezinezko zatien multzoa, bereziki, burdinazkoa'. Hedapenez, balio edo kalitate gutxiko edozein gauzari ere esaten zaio: "Vaya *chatarra* de coche".

Dena den, gehiago kostatuko zaigu argitzea berba tradizionalki erabili ote den hemen, eta gaztelaniatik hartu dugun edo zuzenean euskaratik, jatorria gure hizkuntzan baitu termino honek.

Izan ere, *txatar(ra)* esaten zaie euskaraz 'gauza txiki, maskal, ziztrin, hutsal edota balio gutxikoei' eta adiera horrekin hartu zuen gaztelaniak beretzat.

Euskarazko *txatarra* izena *zatarra* izenondotik dator, zeinak gutxi gorabehera 'piltzarra, arropa zahar eta higatua' esan nahi duen, baina azken horrek mendebaldeko euskaran 'nazkagarria, basatia edota erdeinagarria' den oro izendatzeko balio du. *Zatarra* horrek *txatarra* formarainoko bidea egin izana ez da arraroa, izan ere, *txuri*, *txakur* nahiz *txalaparta* berbetan gertatzen den gauza bera da, hurrenez hurren *zuri*, *zakur* eta *zalaparta* berbetatik baitatoz.



Tanto *chatarra* como sus derivadas *chatarrería* y *chatarrero* son palabras que todos los laudioarras utilizan, sea cual sea su procedencia u origen. Porque son palabras perfectamente normalizadas e integradas en el castellano. *Chatarra* significa en castellano 'escoria' pero, sobre todo, 'conjunto de trozos de metal viejo o de desecho, especialmente de hierro'. Y, por extensión, cualquier cosa de poco valor o calidad: "*Vaya chatarra de coche*".

Lo que ya nos cuesta discernir es si esa palabra se ha usado tradicionalmente aquí, tomándola a través del castellano o directamente del euskera ya que, en origen, surge de esta lengua.

Así, *txatar(ra)* es en euskera algo 'pequeño, desmedrado, insignificante, de poco valor, poca cosa, de pacotilla' y es de ahí de donde la coge el castellano para hacerla suya.

La *txatarra* de euskera procede a su vez de *zatarra* que, además de 'harapo, ropa vieja y ajada' o similares designa en el euskera occidental todo aquello 'asqueroso, brutal, despreciable'. La variación de *zatarra* hasta *txatarra* no es extraña y es la misma que gozamos con los términos, entre otros muchos más, *txuri*, *txakurra* o *txalaparta* desde *zur* y *zakurra* y *zalaparta* respectivamente.

## TXILINA

Nahiko maiz erabiltzen dira *txilin* nahiz *txilina* berbak gurean. 'Txintxarri' edo 'joare txikiei' egiten diete erreferentzia.

Baina hedapenez eta zintzilik egonda balantzaka dabilen gauza txikiren batekiko antzogatik, ume txikien 'zakilari' ematen zaion izenetako bat da. Eta adiera horixe dago bizirik Laudion, hain zuzen. Umeein berba egitean baino ez da erabiltzen, ez helduen arteko solasaldietan, salbu eta lotsagatik—edo *zakil*, *buztan*, *txilibitu* edo antzeko berbak erabili nahi ez badira: "Como te mees otra vez te voy a coger la *txilina*".

Umeeikiko hizkeran organo hori izendatzeko erabiltzen den beste termino bat da *pitilin* —azentua azken silaban darama—, oso hedatua gure artean Printzipioz, euskarazko berba da *pitilin*. Zalantza barik. Hala ere, aiko—maikoetan ibili gara hiztegian jaso ala ez erabakitzean, uste baitugu gaztelaniazko *pito* 'zakila' dagoela gure berbaren jatorrian. Dena den, gaztelaniaz ez da erabiltzen *pitilin*, ohikoagoak direlako *pilila* eta antzekoak.



Las palabras *txilin* o *txilina* se usan aún con relativa frecuencia. Hacen referencia en a las 'campanillas', 'cencerros pequeños', etc.

Pero, por extensión y por su similitud a alguna cosa pequeña que cuelga y se bambolea, se denomina así al 'pene' de los niños pequeños. Y es esa la acepción que tenemos vigente en Laudio. La utilización está restringida al ámbito del lenguaje infantil, no usada en conversaciones entre adultos salvo que por pudor quieran evitarse denominaciones correctas del tipo *pene*, *pito*, *verga* o similares: "*Como te mees otra vez te voy a coger la txilina*".

Otra forma que se ha usado para denominar ese órgano en el lenguaje infantil es la de *pitilin* —acentuado *pitilín*—, muy extendido entre nosotros.

En principio *pitilin* es una palabra del euskera. Sin duda. Pero dudamos a la hora de incluirla porque suponemos que surge del castellano *pito*, 'pene'. Pero *pitilín* no se usa en castellano, siendo más habitual *pilila* y similares.

## TXIN

Ez litzateke arraroa izango *txin* berbaren jatorrian txanponen soinua egotea beste barik, horixe bera esan gura duelako euskaraz: 'dirua'.

Laudio nahiko orokortua dago berbaren erabilera, eta, batez ere, zaharrek erabiltzen dute txikiekin. Normalean, pluralean erabiltzen da: "¿Ya tienes *txines* en la hucha?". Hala ere, singularrean ere erabiltzen da, hain ohikoa ez den arren: "Toma un *txin* para la hucha".

Mendebaldeko euskararen berezko terminoa da, gurea beraz, eta hasiera batean arazo barik erabiltzen da singularrean "Irten ziren *txin* eske".

Halaber, horrela erabiltzen den zonaldeetan *n* busti edo palatalizatu egiten denez, ñ ahoskatzen da: "*Txinak* —*txiñak* ahoskatuta— dituen a ondo bizi da".

Hala ere, horrek ez du zerikusirik Laudioko ohiturarekin, *txines* esaten dugu-lako, ez *txiñes*.



Bien podría ser que la palabra *txin* proviniese sin más del sonido que hacen las monedas, ya que significa eso mismo en euskera: 'dinero'.

En Laudio su uso está bastante generalizado y sobre todo lo usa gente de cierta edad con los más pequeños. Y por lo habitual, se usa en plural: "¿Ya tienes *txines* en la hucha?", si bien, aunque más raro, conocemos su uso en singular: "Toma un *txin* para la hucha".



Es un término propio del euskera occidental, al que pertenecemos, y en origen se usa perfectamente en singular "*¿Irten ziren txin eske*", 'salieron a pedir dinero'.

Asimismo, en las zonas que así se hace, se pronuncia con palatalización de la *n* que pasa a articularse ñ: "*Txinak* —pronunciado *txiñak*— *dituena ondo bizi da*".

Pero no tiene que ver con lo que usamos en Laudio: *txines*, no pronunciado como *txiñes*.

## **TXINBERA.** *Ikus / Ver TXINBO*

### **TXINBO**

Euskaraz, *txinbo* izenaz ezagutzen dugu gaztelaniaz 'curruca capiroxada' deitzen den txoritxo. Izenak hedapen handia lortu zuen Bilboko *Chimbo* xaboi markari esker. Berbagai dugun txoritxo zuen logo legez, eta arrakasta handiz hasi zen merkaturatzen 1863tik aurrera. Txoritxo beretik eratortzen da *txinbera* berba, aire konprimituko eskopetak izendatzekoa, baina duela gutxi iritsi zen gurera, eta, beraz, ez du tradizioirik.

Edozelan ere, *txinbo* terminoak dirudiena baino asmo handiagoak dauzka, izan ere, aipatutako 'curruca capiroxada' ('txinbo kaskabeltza', *Sylvia atricapilla*) izendatzeaz gain, beste txoritxo batzuen izen legez ere erabiltzen da, besteak beste, sasi-txoria (*Hippolais* generokoa) eta errekatxindorra (*Cettia cetti*)...

Baina, hori gutxi ez, eta 'burdinola zein errotetan, ura gurpileraino daraman antapara ixten duen tapoia' izendatzeko ere balio du *txinbo* berbak, hala euskaraz nola gaztelaniaz. Dena den, berba galdu egin dugula dirudi, ziur aski, errota tradizionalen munduaren gainbehera dela eta.



En euskera la palabra *txinbo* hace referencia a un pajarillo de paso, conocido en castellano como 'curruca capiroxada'. Su nombre alcanzó gran difusión a través de la marca de jabón bilbaína *Chimbo*, cuyo logo era un pajarillo, y que se comercializó con gran éxito a partir de 1863. De esaavecilla surge asimismo el término *txinbera* para nombrar las escopetas de aire comprimido, si bien esta última es una incorporación más reciente entre nosotros y no de uso tradicional.



En cualquier caso, el término *txinbo* es más abierto de pretensiones y, además de denominar a la 'curruca capirotada', comprobaremos que se usa igualmente con otras avecillas como el zarcerro, ruisseñor bastardo...

Pero además, con la palabra *txinbo* se ha definido al 'tapón con que en las ferrerías y molinos se cierra el saetín por donde el agua corre a la rueda' tanto en euskera como en castellano. Sin embargo esta palabra parece haberse perdido entre nosotros con la decadencia de la molinería tradicional.

## TXIPLI-TXAPLA

Laudion, euskara galdu ez zuten inguruko herrietan bezala, umeei zuzendutako hizkuntzan erabiltzen dugu *txipli-txapla*. Onomatopeia bat da eta 'uretan plisti-plasta' ibiltzea esan nahi du, potxingoetan jolastean edo esku-zartakoak emanez zipriztinak botatzean. Hortaz, "Ahí anda, *txipli-txapla* sin parar de jugar" eta antzeko esamoldeak ohikoak dira gure artean. Dagoeneko jorratu dugun *plisti-plasta* esapidearen antzekoa da.



En Laudio, al igual que en los pueblos que nos rodean y en donde no se perdió el euskera, usamos *txipli-txapla* en un lenguaje dirigido al mundo infantil. Se trata de una onomatopeya y hace referencia al 'chapoteo con el agua', al jugar en los charcos o salpicar dando manotazos. Así, expresiones del tipo "Ahí anda, *txipli-txapla* sin parar de jugar" son comunes entre nosotros. Es similar al *plisti-plasta* ya tratado.

## TXINTXORTA

Zalantzak ditugu *txintxorta* berbak euskarazko jatorria ote duen, gure eremu linguistikotik kanpo ere erabiltzen delako. Hala ere, eta jatorria alde batera utzita, gure zonaldeko euskaran erabili, erabiltzen da, horretaz zalantzarik ez.

Txerriaren koipea urtzean geratzen diren muiloez egindako eta 'azukrez apailatutako opil' moduko bati egiten dio erreferentzia. Txerri-hiltzearen azkeneko hondarrekin egin ohi da, geroago txorizoak kontserbatzeko erabiliko den koipea atera ostean geratzen den hondakinekin. Kalitaterik txikieneko gerakinen amalgama bat da.



Hori dela eta, pertsona batzuk atzera bota ditzake. Dena den, aldi berean, oso preziatuak izan dira baserrietan, eta benetako zale amorratuak ditu *txintxortak*. Esan gabe doa oso elikagai kalorikoa dela.

Hainbat izen ditu gaztelaniaz, baina ezagunena *chicharrón* da.

Gaur egun, okindegiko hainbat opili deitzen zaio *txintxorta*, imitazioz, jatorrizko esanahitik aldentzen diren arren.



Dudamos sobre el origen eusquérico de la palabra *txintxorta*, ya que también se utiliza fuera de nuestro territorio lingüístico. Pero sin duda, al margen del origen, sí que es un término usado en el euskera de nuestra zona.

Hace referencia a una especie de 'torta aderezada con azúcar', y que se hacía con las pellas que quedaban tras derretir la manteca del cerdo. Se trata del residuo último de la matanza, lo que queda del despojo una vez extraída la manteca que luego solía utilizarse, por ejemplo, para conservar chorizos. Es una amalgama de los restos de más bajo nivel.

Por ello puede generar cierto rechazo entre algunas personas. Pero, a la vez, las *txintxortas* han sido muy apreciadas en los caseríos y hay auténticos incondicionales de su consumo. Sobra decir que se trata de un alimento altamente calórico.

En castellano recibe varios nombres, siendo *chicharrón* el más conocido.

Hoy en día, por imitación, también se denominan *txintxorta* diversos tipos de tortas de panadería, aunque no sea ese el significado original.

## TXIRIBUELTA

'Itzulipurdi' adierazteko terminoa da. Ez dugu oso argi gurean tradiziozko erabilera izan ote duen, izan ere, baliteke duela oso gutxi sartu izana gure eguneroko lexikoan. Edozelan ere, *txilin-buelta* berbarekin erlazionatuko genuke, eta hori bai, badago jaso inguruko herrietan, esaterako, Orozkon; nolabait esateko, gaztelaniazko 'vuelta (de) campana' horren parekoa litzateke. *Txiri* berbarekin ere erlazionatu genezake, geroago *txirlora* sarreran ikusiko dugunez.



Se trata de un término para definir una 'voltereta'. Dudamos de que su uso haya sido tradicional entre nosotros pensando más en una incorporación





posterior, muy moderna. En cualquier caso, lo relacionaríamos con *txilin-buelta*, esta sí, atestiguada en entornos tan cercanos como en Orozko y cuyo significado no es otro que la versión eusquérica de 'vuelta (de) campana' o con *txiri*, como luego veremos en *txirlora*.

## TXIRINBOLO

'Izendatzeko zaila den nolabaiteko objektu edo tresna' bati erreferentzia egiteko erabiltzen dugu Laudion eta gure mugetatik harago *chirimbolo* berba. Amerikan ere erabiltzen da. Ez dago argi nondik datorren berba, baina bada euskarazkoa dela irizten dionik. Izan ere, inguruan ditugun herrietan (Arrankudiaga, Orozko, Arakaldo...) 'zurezko xerra' da *txirrinbola*, eta Otxandion 'uztai metalikoa' edo 'katebegi' esateko balio du. Elementu biribilak izendatzeko erabiltzen da beti. Hala eta guztiz ere, ez dugu froga nahikorik espekulazio hutsetik harago joateko.



Usamos en Laudio y fuera de nuestras fronteras el término *chirimbolo* para hacer referencia a 'utensilio u objeto indeterminado o que no se sabe cómo nombrar'. Su uso está muy extendido también en América. No se sabe a ciencia cierta el origen de esa palabra pero hay quien opina que su origen pueda estar en el euskera. De hecho, en nuestros pueblos vecinos (Arankudiaga, Orozko, Arakaldo...) *txirrinbola* es una 'rodaja de madera' al serrar un tronco o, en Otxandio, una 'argolla metálica' o 'eslabón de cadena'. Siempre en referencia a elementos circulares. En cualquier caso, no contamos con pruebas contundentes que nos permitan desligarlo de la mera especulación.

## TXIRLO

*Txirlo* berbak erreferentzia egiten dio bola-lekuetan paratzen diren zutointxo modukoak dira, urrunetik jaurtitako bola batez botatzen saiatu behar direnak, hain zuzen ere. Nahiko ezaguna da adineko jendearen artean baina, praktikan, ez da ia erabiltzen. Bestalde, lehenago baino askoz gutxiago jolastan da bola-jokoan eta ia ezinezkoa da ikustea, txapelketetan ez bada. Bitxia da gaztelanian ez bezala, jokoaren euskarazko izena ez dator *bolo* edo *txirlotik* baizik eta hori botatzen duen *bolatik*: *bola-txapelketa*, *bolari*, *bolatoki*, *bolaleku*... lehenago, *bolatoki* sarreran azaldu genuenez.



*Txirlo* terminoa Euskal Herriaren mendebaldekoa da eta, beste zonalde euskaldun batzuetan, *birla*, *birlo* eta antzeko izenak ematen zaizkio.



El vocablo *txirlo* hace referencia a los bolos que se plantan en las boleras y que hay que intentar derribar con una bola, lanzada desde cierta distancia. Es una palabra bastante conocida entre la gente mayor pero que en la práctica apenas se usa. Por otra parte, la práctica del juego de los bolos ha disminuido muchísimo y es prácticamente imposible verlo si no es en campeonatos.

Curiosamente, y al contrario que el castellano, en euskera el nombre del juego no se toma del *bolo* sino de la *bola* que lo derriba: *bola-txapelketa*, *bolari*, *bolatoki*, *bolaleku*... como ya referimos al hablar de *bolatoki*.

El término *txirlo* es propio del occidente vasco y, en otras zonas del euskera, se conoce también como *birla*, *birlo* y similares.

## TXIRLORA

Ez da zaila euskarazko *txirlora* berba gaztelaniaz txertatua entzutea gaur egungo Laudion.

Zura edo metala lantzeko eskuilaz edo bestelako tresnez lan egitean ateratzen diren 'txirbilei' egiten die erreferentzia, alegia, normalean espiral formaz ateratzen diren zurezko edo metalezko xaflatxo horiei.

*Txirlora* berba mendebaldeko euskalkiaren mendebaldean erabiltzen da —bizkaieraren mendebaldeko zonaldean—, iparraldetik hegoaldera joanda Uribe-Kosta eta Arratia-Nerbioi arteko zerrendan. Beraz, gure udalerría ere eremu horretan dago kokatua.

Ekiialdera egitearekin batera, *txirilora* forma hartzen doa, Gipuzkoan zein Nafarroan *txirbil* forma hartzeraino.

Gure aldetik, eta aieru linguistiko hutsa den arren, esango dugu *txiri* dela esku artean dugun berbaren jatorria eta horri *lora* erantsi zitzaiola, hau da, *lorea* berbaren mendebaldeko aldaera. Hortik dator lehenago aipatu dugun *txirlora* sinonimoa ere. *Txiri* ere 'txirbila' da Bizkaiko leku batzuetan, esaterako, Markinan, nahiz eta erabilera nahiko murrítza duen.

Halaber, 'ileko kizkur', 'kirru' edo 'lokarrí' ere esan nahi du. Ziur aski, abiapuntu bera izango dute lehenago jorratu dugun *txiribuelta* —gure eskualdeko gaztelaniaz, 'volatín' edo 'girivuelta' ere esaten zaio—, *txirikorda* 'ilekorda' nahiz *txiribiri* 'pinpilinpauza' berbek ere: biratzea edo kizkurtzea



dakarren edozer. Eta, zergatik ez, *txirlo* berbari dagokionez ere bide beretik jo genezake.

Hori guztia alde batera utzita, ez legoke txarto gogoratzea aipatutako forma imitatuz gozogintza-lanak ere egin izan direla, esaterako, *San Jose txirlorak* deitutakoak, zeintzuek martxoaren 19ko onomastikaren gozoki tipiko izateko asmoa baitute, izan ere, bere ogibidekoen zaindaria da santu hori.



No es difícil escuchar la palabra del euskera *txirlora*, alojada en el castellano que a diario hablamos en Laudio.

Hace referencia a las 'virutas', esas láminas delgadas que se sacan con el cepillo u otras herramientas al labrar la madera o los metales y que salen, por lo común, en forma de espiral.

El término *txirlora* se usa en el occidente del euskera occidental —occidente del "dialecto vizcaíno"—, en una franja que de norte a sur abarca Uribe-Kosta y el entorno de Arratia-Nervión. Es decir, incluyendo nuestro municipio.

Según avanzamos hacia el Este, la palabra adopta la forma *txirilora* para pasar a ser *txirbil* ya en la zona de Gipuzkoa y Navarra.

Por nuestra parte, como simple conjetura lingüística, diríamos que nuestra palabra tiene el origen en *txiri* al que se le añade *lora*, variante occidental de *lorea* 'flor'. De ahí el *txirilora* sinónimo que hemos citado antes. *Txiri* es también 'viruta' en algunas zonas de Bizkaia como Markina, aunque su uso esté bastante restringido.

También significa 'rizo del pelo', 'tirabuzón' o 'lazo'. Las palabras *txiribuelta* 'voltereta' —'volatín' o 'girivuelta' en nuestra comarca— antes tratada, *txirikorda* 'trenza' o *txiribiri* 'mariposa' tendrán probablemente el mismo punto de partida: todo aquello que suponga un giro o retorcimiento. Y, por qué no, quizá también el *txirlo* 'bolo'.

Al margen de todo ello, conviene recordar que, imitando la forma, también se han hecho algunos dulces que se conocen como *txirloras de San José* y que pretenden ser típicos de su onomástica, el 19 de marzo, por considerarse este santo carpintero el patrón de los de su oficio.

## TXIRPIA

*Txirpia* terminoa —azentua lehenengo silaban darama— 'zuhaitz jaioberrien edo urtebete baino gazteagoen landareak' izendatzeko erabiltzen da. Lan-



dare horiei geroago emango zaien erabilerari bagagozkio, oraindik aldatu edo birlandatu gabekoak dira.

Gaur egun, baso-lanekin erlaziotzen bat dutenen ahotan baino entzungo ez dugun berba da: "No hay más que *txirpias* en aquella ladera". Azken esaldi horretan, gainera, modu naturalean basoan jaiotzen diren landareak aipatzen dira.

Orozko, Arrankudiagan eta beste zenbait lekutan, hedapenez, mintegietan egindako zuhaitz landaketen sinonimo legez ere erabili izan da garai batean; mendian harrizko edo adarrezko hesien bidez babestutako lekuak ziren, gero birlandatuko diren zuhaitzak haztekoak. Izan ere, horixe da mende luzez berbak izan duen esanahia: mintegian hazitako zuhaixka.

Euskarazko berba den arren, zuhurtziaz jokatu beharra dugu, Errioxako zonalde askotan ere erabiltzen dutelako. Gainera, gaztelaniazko berezko berba legez jaso du Espainiako Errege Akademiak bere *Diccionario* kano-nikoan. Dena den, Bizkai eta Arabara mugatzen du Espainiako Errege Akademiak berbaren erabilera: «*Plantío de árboles, antes de ser trasplantados*». Hala-ber, jatorri zaharra egozten dio berbari: latinezko *scirpĕa*, 'ihiena, junguena'.



El término *txirpia* —acentuado *txírpi*— se utiliza para denominar a la 'planta joven de los árboles, recién nacida o en el primer año'. Si nos referimos a un uso posterior de esas plantas, son aquellas que aún no han sido trasplantadas.

Hoy en día es una palabra que no se escucha más que en boca de aquellos que están en cierta relación con los trabajos del bosque: "No hay más que *txirpias* en aquella ladera" y ya en referencia a las nuevas plantas que nacen de manera natural en un bosque.

Por extensión, en lugares como Orozko, Arrankudiaga, etc. se ha usado en otra época como sinónimo de los plantíos de árboles en los viveros, lugares en el monte protegidos con cercas de piedra o ramaje en donde crecían los árboles que después serían trasplantados. Y es que ese ha sido su significado durante siglos: el de planta de árbol cultivada en un vivero.

Aunque se trata de una palabra del euskera, hemos de adoptar ciertas precauciones, ya que su uso también es habitual en diversas zonas de La Rioja. También la tiene adoptada como propia el castellano, en su *Diccionario* de la Real Academia Española. Eso sí, le concede un uso restringido a nuestro territorio, en Bizkaia y Álava: «*Provincialismo usado en Álava: Plantío de árboles, antes de ser trasplantados*». Da también un origen primitivo para este vocablo, a partir del latín *scirpĕa*, 'de juncos'.



## TXIRRI

Laudion *txirri* terminoa erabiltzen dugu abere txikien gorozkiei erreferentzia egiteko, batez ere, ardi eta ahuntzen gorozkiei, zeinak bola txikien forma duten.

Gaztelaniaz ere, berba jator askoa dago hori izendatzeko: *cagolita*. Hala ere, esan beharra dago gure eskualdetik kanpo eta orokorki *cagarruta* erabiltzen dela. Azken berba horrek argi eta garbi egiten dio erreferentzia abere taldeek atzean uzten dituzten sabelusteei.

Laudion eta inguruko herrietan ezagutzen eta erabiltzen dugun *txirri* berba bertoko forma bat da. Jatorrian *zirri* berba dago, zeina arrunta den gaur egun Zuberoan. Berbak izandako bilakaera beste batzuen bezalakoxea da: *zakur* > *txakur*, *zuri* > *txuri* eta abar.

Edozelan ere, Zuberoako *zirri* forma eta gure *txirri* hizkuntzako zaharrenak dira, gainerako lekuetan, *altxirri* erabiltzen baita eta hori *ardi* eta *txirri* elkartzetik eratorria baita. Hala ere, *txirri* berbaren zati den arren, ez dute hala ikusten eta ez dute esanahia ulertzen hasierako *al*— horretatik bereizi ondoren.

Hortaz, gainerako eremu euskaldunetan aspaldi galdutako hizkuntza-arkaismo baten zaindariak gara, ia miraria baita gure ibarrean forma hori gorde izana.



Usamos en Laudio el término *txirri* para denominar cualquier excremento del ganado menor, especialmente el de ganado ovino y caprino, depuesto en forma de pequeñas bolitas.

En castellano, también la hemos conocido con una palabra muy propia, *cagolita*, aunque más en general, fuera de nuestra comarca, se usa *cagarruta*. Esta última, en evidente alusión al rastro de estas eyecciones que los rebaños van dejando a su paso.

El término *txirri* que conocemos y usamos en Laudio y en los pueblos que lo circundan es una forma local. Procede del original *zirri*, que hoy se usa en Zuberoa —Soule—, y con una evolución del inicio de palabra como nos sucedía en *zakur* > *txakur*, *zuri* > *txuri*, etc.

En cualquier caso, las formas *zirri* de Zuberoa y la nuestra *txirri* son lo más antiguo de la lengua ya que, en el resto de lugares, se utiliza *altxirri* que no es sino una mezcla surgida de *ardi* 'oveja' y *txirri* 'cagarruta'. Sin embargo, a pesar de que *txirri* forme parte de su vocablo, no lo reconocen como tal ni identifican su significado al separarlo del *al*— inicial.



Somos los depositarios, por tanto, de un arcaísmo lingüístico que hace mucho que desapareció de las demás zonas del euskera y que, milagrosamente, aún conservamos en nuestro valle.

## TXIRRINPLIN

Laudion nahiko ohikoa da *txirrinplin* entzutea, azentua azken silaban daramalla. berba horren bidez alkohola edatearen ekintza adierazten da, baina isekazko tonu batean, zelanbaiteko mozkortasun maila dagoenean: "Le pega al *txirrinplin* a todas horas". Dena den, edariari erreferentzia egiteko erabiltzen dugu.

Beste zenbait lekutan, esaterako, Bilbon, 'pintxo-potean ibiltzeari' esaten diote (edari alkoholdunekin), batez ere, eguerdian egiten denean. Gainera, horrelaxe jaso zuen Emiliano Arriagak 1896ko bere *Lexicón* lanean: «*Un tente-en-pie con acompañamiento de alguna libación, tomado entre horas*». Bestela esanda, *piscolabis* legez ere ezagutzen duguna: Beharrizanik gabe, hau da, goserik edota egarririk gabe edatea eta jatea, gozamen eta plazer hutsarengatik.

Berez, jatorrizko berba ez da gure *txirrinplin*, *txirrinpin* baizik: euskaraz *txirrinpin eginda* esaten da 'apur bat mozkor egotea' adierazteko. Pentsa genezake gauza biribilei erreferentzia egiteko *zirri* edo *txirri* terminoekin zerikusia duela, *txirrinpin eginda* daudenen ibilkera desordenatua ekarri baitezake burura kontzeptu horrek. Erro beretik etorriko litzateke *zirriborro*, *txirrinka* nahiz lehenago jorratu dugun *txirlora* bera ere.

Halaber, iradoki genezake *txirrinpin* eta gure *txirrinplin* berbaren arteko nahasmendua *chirrimplín* onomatopeiaren erabilerak eragin duela, izan ere, azken hori bizirik dago Hego Amerikan, baina 'haurtxoa, gauza edo pertsona txikia, zeinak samurtasun sentimendua pizten duen' esanahiarekin. Agian bien soinuen arteko nahasmendua izango zen gaur egun bezala ahoskatzera eraman gintuena.

Berrero gure barbari helduta, hasierako mozkor egoerari egiten dio erreferentzia, une barregarri horri, hurrengo faseko zorabio tamalgarrira iritsi aurrekoari.



En Laudio es relativamente habitual escuchar *txirrinplin* —acentuado *txirrinplín*— es referencia a beber alcohol, en un tono casi burlesco, para indicar un cierto estado de embriaguez: "Le pega al *txirrinplin* a todas horas". De todos modos, lo usamos en referencia a la bebida.



En otros lugares como Bilbao, se denomina así al 'alternar de pinchos y potes (alcohólicos)', sobre todo al mediodía. Como tal lo recogió además Emiliano Arriaga en su *Lexicón* de 1896: «*Un tente-en-pie con acompañamiento de alguna libación, tomado entre horas*». Es decir, lo que también se ha conocido como un pisolabis: beber y comer no por necesidad, hambre o sed, sino por puro disfrute y fuente de placer.

En realidad, la palabra original no es nuestro *txirrinplin* sino *txirrinpin*: en euskera se dice *txirrinpin eginda*, '(estar) algo ebrio', literalmente 'hecho *txirrinpin*'. Podríamos suponer que tenga que ver con el *zirri* o *txirri* que hace referencia a lo circular, al movimiento desordenado que se asemejará al caminar de los que le han pegado bien al *txirrinpin*. Con la misma raíz tendríamos *zirriborro* 'grabato', *txirrinka* 'rueda' o hasta la misma *txirlora* 'viruta' que ya vimos.

También podríamos sugerir que en la confusión entre *txirrinpin* y nuestro *txirrinplin* tenga que ver el uso de la palabra onomatopéyica *chirrimplín*, viva en Sudamérica, aunque con significado de 'bebé, persona o cosa de pequeño tamaño o que despertaba ternura'. Quizá por un equívoco de sonidos entre ambas lo pronunciemos como lo hacemos ahora.

Volviendo a nuestra palabra, hace referencia al estado de embriaguez inicial, el punto gracioso, sin llegar a los tristes aturdimientos de la siguiente fase.

## TXIRTA

Bada *txirta* izenaz ezagutzen dugun txoritxo bat, neguan bisitan datorkiguna, Europa iparraldeko hotz gorritik ihesi. Gaztelaniaz *bisbita* legez ere ezagutzen dugu, eta izen berak azpiespezie ugari barne hartzen dituen arren, *Anthus pratensis* da gurean arruntena, (izen zientifikoari erreparatuta, "zelaiak bisitatzten dituenena") gaztelaniaz, "bisbita común" deitzen dena.

Haien kantua berezi-berezia da, batez ere hegaz doazenean, *txir-txir-txir* moduko bat eta, ziur aski, hortik etorriko zaie euskarazko izena. Ez litzateke arraroa izango gaztelaniaz ere, onomatopeikoa izatea haien izena, *bisbita*, *bisbisbis* soinua oinarri legez hartuta.



Existe un pajarillo que se conoce con el nombre de *txirta* y que nos visita en los inviernos, cuando arriba huyendo de los gélidos fríos de Noruega. Se trata de la *bisbita* y engloba diversas subespecies, si bien la más común



entre nosotros es la *Anthus pratensis*, la bisbita común, la que 'frecuenta los prados' como su nombre indica.

De su característico canto, especialmente en vuelo, con un repetitivo sonido *txir-txir-txir* provendrá probablemente su denominación en euskera. Y no sería extraño que sucediese lo mismo con su nombre en castellano, *bisbita*, en base a un *bis-bis-bis*.

## TXISTU

Oso ezaguna da *txistu* berba gurean, jaietan eta izaera solemneko ekitaldietan jotzen den musika-tresna oso ezagunari egiten baitio erreferentzia. Hiru zulodun txirula antzeko bat da.

*Txistu* izenak baditu beste adiera batzuk, esaterako, 'ahoz txistu egitearen ekintza eta soinua' edo 'tu egitean botatzen den listua'.

Mendebaldeko aldaera dugu hau ere, beste zonalde batzuetan *ziztu* edo *xixtu* esaten baita. Azken horietako lehenak, gainera, 'arina, ia berehalakoa' esanahia du.

Laudioko gaztelania tradizionalen ere oso erabilia eta ezaguna da *txistulari* berba, zeinak tresna jotzen duenari egiten baitio erreferentzia, agian, gaztelaniak ez duelako musikari horiei deitzeko beste berbarik.

Berez, hiru zuloko txirula ezten aldaeretako bat da gure *txistua*. Esku bakarraz jotzeko egin ziren horrela, aldi berean, beste eskuaz perkusio instrumenturen bat jo ahal izateko, esaterako, danbolina edo, beste zonalde batzuetan, ttun-ttuna, kanpaia eta abar. Gure txistuarekiko antzekotasun kontzeptuala duten beste txirula batzuk dira, besteak beste, *silboa*, *xipla*, *pitoa* nahiz *txirula* Euskal Herrian, *chifla* eta *pitu* deritzonak Leonen, *silbu* izenekoak Kantabrian nahiz *chiflo* esaten dena Aragoi. Beste zonalde batzuetan izendapen generikoak erabiltzen dira, adibidez, *gaita* berba, zeinak Huelvako *gaita charra*, edo Extremadurako *gaita hurdana* izendatzeko balio baitu.

Hala ere, gaur egungo Laudion, ohikoena da ezker eskuaz *txistua* jotzea, hobeto heltzeko eraztun-hatza uztaitxo batean sartuta, eta eskuinaz danbolina jotzea. Soilik *silbote* deritzonarekin erabiltzen dira bi eskuak, handiagoa delako eta horrela bigarren ahotsen soinua baxuak egiteko.

Hala ere, eta itxurak itxura, XIX. mendearen amaieran hasi zen *txistu* berba erabiltzen musika-tresna izendatzeko, musika tradizionalaren eta kanpotik datorrenaren arteko berrikuspen-prozesu baten kariaz. Berba berria zen eta hasiera batean ez zitzaion mundu guztiari gustatu, txistulariei tradizionalki *tamborilero* edo *tambolintero* esaten zitzaielako gaztelaniaz, eta, euskaraz,





*danbolin*. Eta udalerriko dokumentazio historikoan horrelaxe agertzea da horren erakusgarri.



La palabra *txistu* es muy conocida entre nosotros ya que hace referencia a un instrumento musical muy habitual en las fiestas o actos de carácter solemne. Es un tipo de flauta con tres agujeros.

Su nombre está relacionado con otras acepciones de la palabra *txistu* con el valor de 'silbido' o de 'saliva que se escupe'.

Una vez más es una variante occidental ya que en otras zonas se usa *ziztu* o *xixtu*. La primera de éstas adquiere además de 'algo rápido, casi instantáneo'.

También es muy conocida y usada en el castellano tradicional de Laudio la palabra *txistulari* que es quien toca ese instrumento. De hecho, no existe otra palabra para denominarlo en castellano.

En realidad nuestro *txistu* es una variante más de las flautas de pico y de tres agujeros. Eran así para poder tocarlas con una mano y, con la otra, tocar algún tipo de percusión como el tamboril o, en otras zonas, un salterio —que conocemos como *ttun-ttun*—, campana, etc. Otras flautas conceptualmente similares a nuestro *txistu* son el *silbo*, *xipla*, *pito* o *txirula* en el País Vasco o *chifla*, *pitu* en León, *silbu* en Cantabria, *chiflo* en Aragón. En otras zonas se emplean denominaciones genéricas como *gaita*, en referencia a las gaitas charras, de Huelva o la *gaita hurdana*, de Extremadura.

Pero en Laudio lo habitual es el *txistu* con la mano izquierda y con el dedo anular introducido en una anilla para así sujetarlo mejor y el tamboril tocado con la derecha. Tan solo se usarán las dos manos con el *silbote*, un *txistu* de mayor tamaño para dar sonidos graves de segundas voces.

Sin embargo y a pesar de las apariencias, la palabra *txistu* para denominar al instrumento nace a fines del XIX, dentro de un proceso de revisión musical entre la música tradicional y la que procede de fuera. Es una nueva palabra que al principio no gusta a todo el mundo ya que tradicionalmente se le denominaba *tamborilero* o *tambolintero* y en euskara, *danbolin* al *txistulari*. Es así como nos aparecerá siempre en la documentación histórica del municipio.

**TXISTULARI.** *Ikus / Ver* **TXISTU**



## TXITA

Euskarazko *txita* berba nahiko sarri entzun daiteke oraindik gure herrian, eta 'oilaskoen kume jaioberriei edo denbora gutxikoei' esaten zaie.

Euskal Herriko beste eremu batzuetan, hainbat aldaera daude, esaterako, *txito*, *txitxa*, *txitxo*, *xita*, *xito*, *xitxa*, *xixa* nahiz *zito*.

Pentsatu izan da aragoierazko *chito* berbarekin harremanen bat izango zutela horiek guztiek, 'kimu' esanahia duelako.

Berriro ere gure *txitei* helduta, arrak "oilasko" bihurtu arte hazi ohi dira, ahal bezain laster sakrifikatzeke arin gizenduta, baina baten bat hazitarako bizirik uzten da, gainerakoei ekarpenak egiteko aukera kenduta. Eta ekarpenik egin ezean, zulora... Oilandak, ostera, euren bizitza osoan ustiatuko dira, arrautzak eman ditzaten, arrautzak eta arrautzak, zenbat eta gehiago, hobe. Euren gorputzak akitzean, nekearen nekeaz agortzean, sakrifikatu egiten dira, euren okela gogorra jateko edo salda bero ederra egiteko. Ordurako, baina, eginak izango ditu oilarrak goizaldeko kantuez bestelako lanak, eta, oilandaren bat gainkatu ostean, arrautzak ernalduta, beste *txita* saldo bat sortuko da.



La palabra del euskera *txita* aún se escucha a menudo en nuestro municipio y hace referencia a los «pollos recién nacidos o de poco tiempo».

En otras zonas vascas se conocen otras variantes de la misma palabra como son *txito*, *txitxa*, *txitxo*, *xita*, *xito*, *xitxa*, *xixa* o *zito*.

Se ha pensado además que todas ellas estén emparentadas con la palabra del aragonés *chito*, 'retoño'.

De vuelta a nuestras *txitas*, los machos crecerán hasta convertirse en "pollos", que serán engordados para sacrificarlos lo antes posible ya que, a excepción de alguno que se reserve para semental, el resto nada tiene que aportar. Por eso se eliminan. Las "pollas", por el contrario, se reservarán para explotarlas durante toda su vida, poniendo huevos y más huevos, cuantos más mejor. Hasta que sus cuerpos queden extenuados y, no dando más de sí, sean sacrificadas para comer sus duras carnes o para hacer un buen caldo. Pero para entonces ya habrá hecho el gallo algo más que cantar en los amaneceres y, tras cubrir a alguna polla, producirá ésta huevos ahora fecundados y de los que surgirá otra nueva bandada de *txitas*.



## TXITO

*Txito!* interjekzioa txerriekin erabili izan da, gehienetan, errepikatuta: *txito-txito-txito...* Ez litzateke harritzekoa aurreko sarreran, *txita* berba azal-tzean jorratu dugun gauza bera izatea, eta, jatorrian, kumeei erreferentzia egin izana. Dena den, espekulazio hutsa da hori, gaur egun, adin guztietako txerriekin erabiltzen delako.

Beste leku batzuetan, esaterako, Lagranen, 'ahuntzetarako agindu-berba' legez erabiltzen da eta handik gertu dagoen Kontrastan 'ume edo gazteei deitzeko, baita konfiantzako zaharrei deitzeko ere' (Gerardo López de Guereñu, *Voces alavesas*, 1958).

Hala eta guztiz ere, zalantzak dauzkagu berbaren jatorria euskaran ote dagoen, Murtziako eta Andaluziako ekialdeko zonalde batzuetan, txerriei *chino*, *chiro* edo *chito* deitzen zaielako.



Se ha usado la interjección *txito!* para llamar a los cerdos, en la mayoría de las ocasiones de un modo repetitivo: *txito-txito-txito...* No sería extraño que se tratase de lo mismo que hemos tratado en la entrada anterior, al hablar de *txita*, y que hiciese en origen referencia a las crías. Pero esto es especular, sin más porque en el uso actual se utiliza con cerdos de todas las edades.

En otros lugares como Lagrán se usa como 'voz de mando para las cabras' o, en la cercana Contrasta, 'para llamar a niños o a jóvenes, e incluso a personas mayores con las que se tiene confianza' (Gerardo López de Guereñu en *Voces alavesas*, 1958).

Nos hace dudar del origen de esra palabra en euskera el hecho de que en el habla popular de algunas zonas de Murcia y Este de Andalucía se llame a los cerdos *chino*, *chiro* o *chito*.

**TXITXI.** *Ikus / Ver* **TXITXIKI**

## TXITXIBURRUNTZI

Berba bitxi honek pintxo moduko batean edozein jaki erretzeko ekintzari egiten dio erreferentzia, baina, bereziki, urdaila edo txorizoa burdinazko ziri batean erretzeari, normalean, etxetik kanpo, mendian.



Gaztelaniazko 'pincho moruno' horien antzekoa litzateke, azken batean makila baten laguntzaz janaria sutan prestatzeari egiten diolako erreferentzia.

Esku artean dugun berbaren osaera bi berba elkartzearen emaitza da: *txitxi* 'okela' eta *burruntzi* 'burdinazko ziria', azken osagai hori arraroa iruditzen zaigun arren. *Burr*—, *burdina* berbaren zati legez, tipikoa da inguruotan, eta halaxe ikusi genuen Laudio taloak prestatzeko palari esateko erabiltzen dugun *talo* + *burdin* > *talaburrin* berba jorratzean.



Esta palabra tan curiosa hace referencia a asar cualquier tipo de alimento en una especie de pincho pero, en especial, a asar tocino o chorizo en una varilla de hierro y normalmente en comidas alejadas del hogar, en el campo. Sería similar a los 'pinchos morunos' del castellano o a cualquier asado con un palo sobre el fuego.

En realidad nuestra palabra se conforma con las palabras *txitxi*, 'carne' y *burruntzi* 'pincho de hierro', aunque su componente final nos resulta extraño. *Burr*— como parte de *burdina* es típico de nuestro entorno como ya vimos en *talo* + *burdin* > *talaburrin* para denominar a la pala de asar talos en Laudio.

## TXITXIKI

*A priori* eta jatorriz, animalia baten edozein 'haragi zati' zen *txitxiki*. Hala ere, gaur egun Euskal Herriko mendebaldean, eta, beraz, Laudion bereziki orokortua dagoen adiera 'txorizoak egiteko haragi xehatua' da.

Txerri-hiltzearen ostean, animalia zatikatu, eta txorizoak egiteko zer zati erabiliko den erabakitzen da. Okela zati luzangetan mozten da, zuntzen norabidean, eta txikitzeo makinan sartzen da.

Okela zati txikitxoetan xehatu ondoren, beharrezko bizigarri eta ongailuak gehitzen zaizkio —piper txorizeroa, gatza eta abar—, eta oso ondo oratzen da eskuz, nahasketa homogenea lortu arte. Une horretatik aurrera dei dakioko nahasketari *txitxiki*.

Txorizoa egiteko, hesteetan sartu beharra dago, baina. Azkenik, egun batzuk emango dituzte zintzilik, ontzeko, eta, horren ostean, `prest egongo dira txorizo gozoak.

Hala ere, *txitxikiak* hain zapoetsuak izanik, ez da harrizkoa kontsumitzeko hainbeste modu desberdin egotea, besteak beste, zartaginean beste barik apur bat frijituta.



Alderdi linguistikoei dagokienez, hau da terminoaren osaera: batez ere umeekiko hizkeran erabiltzen den *txitxi* 'okela' + *—ki* atzizkia, zeinak 'produktu jangarri' denotazioa ematen baition, *txarriki-pata* berba jorratzean apur bat sakonago azaldu genuenez.



A priori y en origen *txitxiki* era cualquier 'parte carnosa' de un animal. Pero su uso actual, el más generalizado especialmente en el oeste vasco y por tanto en Laudio es el de la 'carne picada con la que se hacen los chorizos'. Tras la matanza del cerdo, se acomete el despiece del animal y se decide qué partes se destinarán a hacer los chorizos. La carne, cortada en trozos alargados siguiendo la dirección de la fibra, pasa a continuación la picadora. A la carne ya en trocitos pequeños, se le añaden los condimentos necesarios —pimiento chorizero, sal...— y se amasa muy bien con las manos hasta conseguir una mezcla homogénea. Es en ese punto cuando ya podemos decir que tenemos el *txitxiki*.

Posteriormente la mezcla se embute en los intestinos. Tras curarlos durante unos días, colgados, obtendremos los sabrosos chorizos.

Pero, siendo tan suculento el *txitxiki*, no es de extrañar que se consuma de otras diversas maneras, sin más, dándole una vuelta en la sartén.

Centrándonos en el aspecto lingüístico, nuestro término se compone de *txitxi* 'carne', usado normalmente en lenguaje infantil, al que se le añade el sufijo *—ki* que le aporta la concepción de 'producto comestible', como ya vimos de un modo más desarrollado al hablar del término *txarriki-pata*.

## TXONDORRA

Laudion oraindik erabiltzen dugun berba hau ere forma orokorragoen men-debaldeko aldaera da: *txondorra* hitzaz ari gara.

Mendietan 'ikatz lortzeko erretzen zen egur metari' egiten dio erreferentzia, zeina lurrez estaltzen baitzen. Gaztelaniaz 'carbonera' legez ezagutzen da.

Aurreratu dugunez, jatorrizko forma zaharrago batetik dator gure berba, alegia, *zendor* terminotik. Oraindik ere Gipuzkoan erabiltzen da, eta, gure eskualde linguistikoan, hasierako *z > tx* soinu-aldaketa ikus daiteke, *zakur > txakur*, *zistu > txistu* eta beste hainbatetan gertatzen den legez.

Bestalde, *e* letratik *o* letrarako aldaketa hori *txondor* eta *tontor* berben arteko antzekotasunari zor diogu, ziur aski. Izan ere, Bizkaiko leku batzuetan, *txondor* deitzen diote 'arku edo gangen goiko aldeari'.



Egosteko moduan paratutako egur metak, hau da, *txondorak* lurra berdintzeko hondeatuta eratzten ziren plazatxo batzuetan egiten ziren: gaztelaniaz "suelo de hoya" deitzen zaie, eta euskaraz, "txondor-plaza". Halaber, Laudioko dokumentazio historikoan, *lantegi* izena ematen ei zitzairen ikatz-lanetarako leku haiei: "cuatro cargas de carbón en el *lantegi* de Sautu".

Amaitzeko, erantsi egingo dugu amaierako —*a* hori ez dela berbaren zati bereizezina, artikulua baizik. Hortaz, *txondor bat* esaten da, ez *txondorra bat*. Ondorioz, gure berba gaztelanian txertatzean, teorikoki, "*una txondorra*" barik "*una txondor*" esan beharko genuke, Laudion egiten dugunaren aurka, izan ere, gure erabilera literalki gaztelaniaratuta, 'una la carbonera' litzateke.



Una vez más, la palabra que aún se usa en Laudio es la variante occidental de otras formas generales: nos referimos a *txondorra*.

Con ella se define al 'montón de leña que, cubierta de tierra, se cocía en los montes para obtener carbón vegetal'. Es lo que en castellano se conoce como 'carbonera'.

Tal y como hemos adelantado, nuestro término provendría de otra forma anterior, originaria, que es, *zendor*, usada aún en Gipuzkoa, y cuya parte inicial pasa en nuestra zona de *z > tx* al igual que nos sucedía con *zakur > txakur*, *zistu > txistu*...

El paso de la *e* a la *o*- probablemente sea por similitud de *txondor* con *tontor* 'cumbre'. De hecho, también se llama en algunas partes de Bizkaia *txondor* a la 'parte superior de los arcos o bóvedas'.

Las pilas de leña dispuestas para ser cocidas, las *txondorras*, se hacían en una especie de plazoletas que se excavaban allanando en el terreno y que se conocían como "suelos de hoya". Asimismo, en la documentación histórica de Laudio también parecen recibir el nombre de *lantegi* esos lugares de carboneo: "cuatro cargas de carbón en el *lantegi* de Sautu".

Para finalizar, cabe añadir que la —*a* final de nuestra palabra no es una parte intrínseca del término sino el artículo. Es decir, que es "*txondor bat*" 'una carbonera'. Y al integrarlo al castellano deberíamos teóricamente usar "*una txondor*" en vez del "*una txondorra*" tal y como hacemos en Laudio, literalmente 'una la carbonera'.



## TXONTA

Bada inguruotan *txonta* izeneko txoritxo bat. Baina kasu honetan ere, esanahi ugari du berbak, izan ere, eskualde batzuetan *txonta* izena 'txoka edo burugorriari' ematen zaio, baina beste batzuetan, Laudion kasu, 'negutxori edo negutari'. Azken horretaz arituko gara hemen.

Txorrotxio ezti eta familiar askoa du *txontak*, baina agian ez dugu erlazionatuko txori zehatz horrekin, sasien artetik ostenduta kantatzeko ohitura baitu. Gehiago ikusten dira udazkenetik aurrera. Horren zergatia da, dagoeneko hemen bizi direnei ipar latitude urrunetatik jaisten zaizkigunak gehitzen zaizkiela, hango neguen laztasunetik ihes.

Iparraldetik hanka eginda hona etortzen zaizkigunen artean, *txonta arrunta* da ohikoena (*Fringilla coelebs*) baina *negu-txonta* ere ikus daiteke noiz edo noiz (*Fringilla montifringilla*). Normalean, biak nahasten ditugu. Bien arteko aldea da negu-txontak "ez duela zerrenda zuririk, eta ipurtxuntxur zuria duela". Hala diote gidaliburuek, behintzat. Ar eta emeen arteko aldeak ere handiak dira.

Gure eskualdetik kanpo eta euskararen joritasunaren adierazgarri, hainbat izen desberdin ematen zaizkie berbagai ditugun txoriei, besteak beste, *txonton*, *txintxin*, *pinpin*, *pintxanga*, *pintxon*, *pintxote*, *pintxin*, *printxel*, *artatxori* —azken honek gure eskualdean 'txolarre' esan nahi duen arren—, *paranda*, *neguta*, *negutxori* eta *elurtxori*. Ikusten denez, azken hiru izen horietan islatua dago zeinen kopuru handietan etortzen diren neguan.

Esanahi orokorraz gain, "está como una una *txonta* el chaval ese" eta antzeko esamoldeak entzun ditzakegu herrian. Hortaz, norbait burutik sano ez dagoela esateko ere balio du txoritxoaren izenak. Horrez gain, *txonta* berba 'tentel' izenondoaren sinonimoa ere bada, Gipuzkoako herri askotan behintzat.

Amaitzeko, Laudion 'buru' esateko ere baliatzen dugu *txonta* berba: "vaya golpe me di en la *txonta* por no llevar casco".



Existe un pajarillo que lo reconocemos como *txonta*. Pero, una vez más, existe diversidad en el significado de esa palabra ya que en algunas comarcas con *txonta* se hace referencia al 'pardillo' mientras que en otras, como la de Laudio, designa al 'pinzón', que es el pájaro al que nos vamos a referir. La *txonta* muestra un trino muy melodioso y familiar aunque quizá no lo relacionemos con el ave en cuestión pues normalmente canta semioculto entre maleza.



A partir del otoño suelen verse más ejemplares entre nosotros. Ello se debe a que, al margen de los que ya viven aquí, se suman otros muchos que descienden de las latitudes nórdicas, huyendo de los rigores de aquellos inviernos.

El más habitual suele ser el *pinzón vulgar* aunque también pueden verse *pinzones reales*. Lo normal es que los confundamos. Se diferencian en que el real carece de bandas blancas y luce un visible obispillo blanco. Eso dicen las guías. También son muy diferentes los machos de las hembras.

Fuera de nuestra comarca y prueba de la riqueza del idioma, también se conoce el pinzón con denominaciones en euskera como *txonton*, *txintxin*, *pinpin*, *pintxanga*, *pintxon*, *pintxote*, *pintxin*, *printxel*, *artatxori* —nombre que por el contrario en nuestra zona designa al 'gorrión'—, *paranda* u otras como *neguta*, *negutxori* y *elurtxori* que hacen referencia a su masiva presencia en invierno.

Al margen de ese significado más general, también usamos "está como una *txonta* el chaval ese", para decir que alguien no está bien de la cabeza. De hecho, al menos en muchos pueblos de Gipuzkoa se usa *txonta* con el significado de 'tonto/a'.

Para finalizar, en Laudio nos valemos asimismo de *txonta* para indicar un significado de 'cabeza': "vaya golpe me di en la *txonta* por no llevar casco".

## TXONTARREAL

Zalantza barik, lehenago jorratu dugun *txonta* berbaren kontzepzio berdintsua dauka Laudion erabiltzen dugun *txontarreal* honek, zeinak 'gailupa' izendatzeko balio duen (Pyrrhula pyrrhula). *Txonta* arren antza dauka.

Euskal mendebalde osoan erabiltzen da *txontarreal*. Eta horrexegatik dugu gure herriko altxor lexikoaren zati. Beste leku batzuetan askotariko izendapenak ditu txoritxo honek, adibidez, *txoton*, *papargorri*, *txoka*, *arbiazixori*, *burubaltz*, *turuma*, *nabotxori*, *papargorri*, eta *moreta*, baina aldaera horiek guztiak oso sakabanatuak daude eta erabilera eremu txikia dute. *Txontarreal* da hedatuena eta erabiliena, zalantza barik.

Dena den, talka egiten du horrek euskara batuan gailentzeko forma estandarizataile legez hautatu den izendapenaren aurka, hau da, hiztegi-tan agertuko zaigunaren aurka: *gailupa* da forma hori, Orio inguruko berba. Beste behin ere, lurralde-desoreka laidogarriak aurkitu ditugu hizkuntzaren bideetan barrena...

Txoriari gagozkiola, esango dugu *txontaren* kasuan gertatzen den legez, *txontarrealen* kopuruak ere nabarmen egiten duela gora negua etortzeare-





kin batera, dagoeneko berton bizi diren txoriei Europako iparraldetik klima onberagoaren bila datozenak gehitzen zaizkielako.

Beste bitxikeria bat: 12-14 egunez luzatzen den txitaldian, arrak emea elikatzen du. Halaber, arrek elikatzen dituzte txitak jaio osteko lehen astean, baina handik aurrera, emeek eta arrek elkarrekin egiten diote aurre lan horri beste pare bat astez.

*Txontekiko* alderik nabarmenena da txontarrealek ez dutela txorrotxio ezitia; soinu etenak egiten ditu. Bestalde, arrek zein emeek gorriago dute bularraldea gainera, emeen kasuan kolorea hain bizia ez den arren, eta hori ez da horrela *txonten* kasuan.



Sin duda análoga en su concepción a la palabra anterior —*txonta*—, tenemos la de *txontarreal*, de uso en Laudio, y que hace referencia al 'cama-chuelo', un ave en cierto modo similar a la *txonta* 'pinzón' macho.

La denominación *txontarreal* es la habitual en todo el occidente vasco. De ahí que sea la palabra que usamos en nuestro municipio. En otras zonas se usa una gran diversidad de denominaciones como pueden ser *txoton*, *papargorri*, *txoka*, *arbiazixori*, *burubaltz*, "*turuma*", *nabotxori*, *papargorri*, *moreta*, etc. todas ellas variantes muy dispersas y locales. Pero es, sin duda, *txontarreal* la de mayor extensión y uso.

Ello choca frontalmente con la denominación que para el euskera *batua* se ha hecho prevalecer, como forma más estandarizante, la que encontraremos en los diccionarios: *gailupa*, una forma del entorno de Orio. Una vez más los designios de la lengua sufren deshonrosos desequilibrios territoriales.

Respecto al ave en cuestión diremos que, al igual que pasaba con la *txonta*, en invierno aumenta notoriamente la presencia entre nosotros ya que, a la población residente, se le suman todos aquellos ejemplares que migran desde el norte de Europa buscando un clima más benigno.

Otra curiosidad es que, durante la incubación que dura 12-14 días, el macho alimenta a la hembra. También él nutre a los pollos en su primera semana de vida, para después compartir dicha tarea con la hembra durante un par de semanas más.

Las diferencias más notables respecto a la *txonta* es que no tiene un canto melodioso sino unos sonidos entrecortados, el pecho tiene más extensión de color rojo y este color, aunque algo atenuado en su viveza, es también propio de las hembras, algo que no sucede con las *txontas*.



## TXORI

Askotan erabiltzen da *txori* terminoa Laudion, baina uste izatekoa litzatekeenaren kontra, ez hegoak dituzten animaliei esateko, baizik eta 'ilean egiten den begizta' adierazteko, bereziki neskatxei ipintzen zaiena: "Te voy a poner un *txori* para que estés guapa".

Intuizio hutsa bada ere, apaingarriak txoriekiko duen antzarengatik erabiliko da berba hori aipatu berri dugun esanahiarekin.



El término *txori* se usa muy a menudo en Laudio, aunque no hacemos referencia al conocido significado que todo el mundo identifica de 'pájaro' sino con el de 'lazo que se hace en el pelo', especialmente en referencia al de las niñas: "Te voy a poner un *txori* para que estés guapa".

Queremos suponer, por simple intuición, que recibe dicho nombre por la semejanza del adorno con un pájaro.

## TXORIBURU

*Txoriburu* esaten zaie maitasunezko eta lagunarteko tonuan apur bat 'zoroak, fundamentu gutxikoak' diren pertsoneri. *Txori* eta *buru* berbek osatzen dute, txorien buruek izaten duten tamainarengatik, agian. Gaztelaniazko "*cabeza de chorlito*" formulatik oso urrun ez da geratzen gurea, eta esanahi berbera dauka gainera.



Con el nombre *txoriburu* se denomina con un tono cariñoso y coloquial a aquellas personas un poco 'alocadas, de poco fuste'. En realidad se compone de *txori* 'pájaro' y *buru* 'cabeza', es decir que, literalmente sería 'cabeza de pájaro'. En su concepción no se encuentra muy alejada de la fórmula del castellano "*cabeza de chorlito*", con idéntico significado.

## TXORITOKI

*Txoritoki* berba ez dago oso hedatua gaur egungo laudioarren artean, eta Ibarreko pertsona batzuek baino ez dute erabiltzen jada.



Teorian, 'txorientzako abaro, txorientzako etxe' esan nahi du, berbaren osaerak argi erakusten duenez (*txori + toki*).

Hala ere, gurean, 'txapitula' esan nahi du, baina ez 'etxe baten goiko ganbara' adieraz, baizik eta 'etxe baten teilatuaren gainetik altxatzen den leihoa, zienak gailurrean teila edo arbelezko estalkia duen, eta trasteleku edo ganbarei argia emateko eta teilatura irteteko balio duen' adieraz.

Basetxe guztietan zeuden *txoritokiak*, asmoetan, eta asmoz xumeak eta arruntak izan arren, edertasun handia ematen zieten teilatuei, horien lerroak graziaz apurtuta. Funtsean, bi zeregin betetzen zituzten: teilatuen azpiko ganbarak aireztatzen zituzten eta teilatueta mantentze-lanak egiteko sarbidea ziren. Eta gizakien asmoetarako bi funtzioez gain, txoritxoentzako hirugarren bat ere bazuten, izan ere, babesleku eta abaro ziren gure laguntxo hegalarientzat. Gure ustez, hortik sortuko zen, hain zuzen ere, gure *txoritoki*.



No es la palabra *txoritoki* un término muy extendido entre los laudioarras actuales y su uso se limita ya a unas pocas personas del Valle.

En teoría, su significado es 'pajarera' o 'lugar de pájaros', a partir de *txori*, 'pájaro' y *toki*, 'sitio, lugar'.

Sin embargo, su significado entre nosotros es el de 'buhardilla', no en su acepción de 'cámara superior de una casa o desván' sino el de 'ventana que se levanta por encima del tejado de una casa, con su caballete cubierto de tejas o pizarras, y sirve para dar luz a los desvanes o para salir por ella a los tejados'.

Los *txoritokis* eran elementos arquitectónicos presentes en todo caserío, modestos en sus pretensiones, casi hasta vulgares y por ello aportaban gran belleza a los tejados, cuya línea rompían con gracia. Cumplían básicamente dos funciones: ventilación de las cámaras de los tejados y acceso para el mantenimiento de los mismos. Dos funciones para las pretensiones humanas a la que añadiremos una tercera, más pajaril, ya que servía de lugar de protección y refugio de nuestras avecillas. De ahí, suponemos, surgiría nuestro término *txoritoki*.

## TXORROBORRO

Gurean, zerbait "a *txorroborrow*" egitea da 'ordena eta fundamentu handirik gabe egitea'. Hau da, zerbait edozelan egitea.



Beste zenbait lekutan, esaterako Bilbon, 'berba egitea, zerbait azaltzea' esan nahi du, baina, zelanbait esatearren, ahoberoen modura; ziur aski, erlaziorren bat du txorien kantuaeren onomatopeia legez erabiltzen den *txorro* berbarekin.



Hacer algo *a txorroborro* es, en nuestro municipio, 'hacerlo sin mucho orden ni fundamento'. Es decir, de cualquier manera.

En otros lugares como Bilbao se recoge con la acepción de 'hablar, exponer algo', quizá de una manera a modo de charlatán, relacionado probablemente con la palabra *txorro*, onomatopeya del canto de los pájaros.

## TXOSNA

Zalantza barik, audioar guztiok erabiltzen dugu *txosna* berba. Jaietan tipikoak diren 'establezimendu edo txabola' horiek dira, zeintzuetan jan-edana zerbitzatzen baitiguten.

Baina bada ziur asko hainbatek ezagutuko ez duten beste gauza bat, hots: herriko zaharrenek esanahi primitiboenarekin erabiltzen dute gaur egun ere hau da, 'behin-behineko eraikuntza, eraikuntza iragankorra'. Urte gehien duten audioarrek oso ondo bereizten zer den *etxola* bat eraikitzea, irauteko eraikitzen baitira —esaterako, artzainen txabolen kasua— eta *txosna* bat egitea, denbora gutxian erabiltzeko egiten baitira, adibidez, mendian ikatz txondor bat jagoteko, edo, lehenago aipatu ditugunak, hau da, erromeria egun batean jai-zerbitzua emateko pentsatutakoak. Bestela esanda: egun bakarrerako edo batzuetarako *etxola* moduko bat da *txosna*, beti gutxi irautekoa.

Bestalde, jaietako *txosnak* adarrez eta iraz edo garoz egin ohi zen, baina erromeriarik eleganteenetan, kanpin-denda moduko bat zen, Emiliano Arriagak 1896ko *Lexicón* obran azaldu legez: «*tienda de campaña que arman en las romerías con cuatro horcones metidos en tierra y otro más largo en sentido horizontal, sirviendo de cumbre a la cubierta que es de lienzo o lona, lo mismo que los costados. En su interior se guisa y sirve de comer y de beber a los romeros*». Eta, hain zuzen ere, horietan dira José Arruek erromeriak irudikatzen egiten zituen margolan ospetsuetan agertzen zaizkigun *txosnak*.



Sin lugar a dudas, todos los laudioarras usamos la palabra *txosna*. Lo hacemos en referencia a esos 'establecimientos o casetas' típicas de las fiestas y en las que nos sirven bebida y comida.

Lo que ya probablemente desconozcamos es que dicha palabra es usada aún por la gente más mayor del municipio con su significado más primitivo y que no es otro que el de una 'construcción efímera, temporal'. Los laudioarras de más años distinguen muy bien entre hacer una *chabola*, edificada con el fin de perdurar en el tiempo —por ejemplo, *chabola* de un pastor— y una *txosna*, para un uso muy limitado, como puede ser una pequeña cabaña para cuidar una carbonera en el monte y, como antes hemos citado, para dar servicio a unas fiestas en un día de romería. Es decir, la *txosna* es una especie de cabaña para uno o varios días, pero siempre pocos.

Por otra parte, las *txosnas* festivas solían estar construidas por ramajes y helechos o, en las romerías con más elegancia, montando una «*tienda de campaña que arman en las romerías con cuatro horcones metidos en tierra y otro más largo en sentido horizontal, sirviendo de cumbre a la cubierta que es de lienzo o lona, lo mismo que los costados. En su interior se guisa y sirve de comer y de beber a los romeros*» como la describiese Emiliano Arriaga en su *Lexicón* de 1896. Esas son las *txosnas* que José Arrue recoge en sus afamados cuadros con romerías.

## **TXOTXOLADA.** *Ikus / Ver TXOTXOLO*

## **TXOTXOLO**

Laudion *txotxolo* berba erabiltzen dugunean, erreferentzia egiten diegu 'egonarri gutxiko pertsoneri, pertsona epel, kikilei, balio eta kemen gutxikoei, baita mizkinei ere'.

Euskararen esparruan, beste zonalde batzuetan, konnotazio larriagoak dauzka: 'pertsona txepela, ergela, kaskarina'. Laudion, baina, ez dizkiogu ñabardura horiek ematen, gurean *txotxolo* berba maitasunezko tonuz esaten baitugu.

Noiz edo noiz, berbaren *sosolo* aldaera ere entzun ahalko dugu —ziur aski, gaztelaniazko *soso* berbarekiko interferentzia baten ondorioz—, edota *txotxolada*, hau da, *txotxolo* bati dagokion ezaugarria edo ekintza.



Euskaraz, berdin jokatzeko dugu bi generoekin: "Mutil *txotxolo* bat" eta "Neska *txotxolo* bat". Baina gaztelanian txertatzerakoan, hizkuntza horren berezko ezaugarriak eranstean dizkiogunez, *txotxola* femeninoa sortzen da: "Vaya chica más *txotxola* era". Dena den, forma trabestitua baino ez da hori, ez da ezein hizkuntzetakoa.

Zelanahi ere, bizi-bizirik dago esku artean dugun berba hau, egunero eta sarritan erabiltzen baita. Gainera, badirudi bera barik nekez betetzen den espazio semantikoa hartu duela.



Al usar en Laudio la palabra *txotxolo* hacemos referencia a una 'persona de poca correa, apocada, pusilánime, de poco valor y ánimo' incluso hasta 'aprensiva'.

Dentro del ámbito del euskera, en otras zonas, tiene unas connotaciones más graves como 'persona tonta, necia, atolondrada' que aquí no le damos ya que en Laudio y su comarca usamos *txotxolo* con cierto tono cariñoso.

También de vez en cuando podremos escuchar su variante *sosolo* —probablemente por una interferencia con la palabra *soso* del castellano— así como *txotxolada* que es la acción o característica que se corresponde a un *txotxolo*. En euskera, los dos géneros se atienden de la misma manera: "Mutil *txotxolo* bat" y "Neska *txotxolo* bat". Pero, al integrarlo en el castellano, le damos las características propias de esta lengua generando para el femenino *txotxola*: "Vaya chica más *txotxola* era", una forma travestida que en realidad no es ni de una lengua ni de la otra.

Sea como fuere, nuestra palabra está en plena vitalidad y es muy usada a diario. Es más, parece que llena un espacio semántico que sin usarla es difícil de cubrir.

## URKELEAR

Txerriek, basurdeek edo beste animaliak lursail bat muturraz induska nahastent dutenean, Laudioko gaztelanian *urkeleando* —*urqueleando*— ibili direla esaten da, *urkelear* aditzetik: "No han dejado un trozo sin *urkelear*".

Arraroa da berba, eta ez dugu bere iluna argitzeko erreferentziarik Azkenean, identifikatzen ez dugun euskarazko berba baten gainean eraikitako gaztelaniazko berba dirudi.

Gure aburuz, eta zantzu guztien arabera, *urka* 'urka, animalia batzuei lepoan ipintzen zaien traba' edo 'urkulua, txerriei eta beste animalia batzuei landu-



tako sailetan sartzea eragozteko hesia, barrutia', nahiz eta esanahia, berez, aurkakoa den.

Gure sarreran *urkelear* legez jaso badugu ere, berez, *urquelear* legez jaso behar genuen, izan ere, euskarazko jatorria kontuan hartu arren, gaztelaniazko berba baten egitura du.



Cuando los cerdos, jabalíes u otros animales han revuelto con el hocico un terreno se dice que lo han estado *urkeleando* —urqueleando—, del verbo *urkelear*: "*No han dejado un trozo sin urkelear*".

Es una palabra extraña, para la que no tenemos referencias. El final aparenta ser del castellano sobre un término en euskera que tampoco identificamos.

Por nuestra parte, todo parece encaminarnos hacia el término *urka* 'horca, traba que se pone en el cuello de ciertos animales' u 'horca, traba que impide a los cerdos y otros animales entrar en los sembrados y otros lugares vedados', aunque el significado sea el opuesto.

Aunque la hayamos escrito en nuestra entrada como *urkelear*, en realidad deberíamos representarla como *urquelear* ya que, aun teniendo un origen en euskera, la estructura es la de una palabra en castellano.

## URRETXA

*Urretxa* berbaz ezagutzen dugu Laudion *russula* generoko ziza jangarri eta preziatu bat.

Zonaldeen arabera, baina, aldaera asko dauzka berbak: *urritz*, *urritx*, *urritz*, *urreitx* eta gure *urretx(a)*, gure eskualdeko berba jatorra, alegia. Perretxikozaleen munduan hori da izendapenik erabiliena, hainbat gidaliburu, artikulua eta abarren bidez hedatu izan baita.

Azken —*a* hori artikulua denez, ez da berbaren berezko zatia. Hortaz, "*Urretx bat aurkitu dut*" izan beharko luke nahiz eta guk dagoeneko amaiera lexikalizatu dugun. Horrexegatik esaten dugu gaztelaniaz "He encontrado una *urretxa*".



Con la palabra *urretxa* conocemos en Laudio una seta, muy apreciada por ser comestible, y que pertenece al género de las *russulas*.



Son varias las variantes que, en función de las zonas, se usan para denominarla: *urritz*, *urritx*, *urriz*, *urreitx* y nuestra *urretx(a)*, propia de nuestra comarca. Es ésta la denominación más usada en el mundo setero actual, ya que diversas guías, artículos, etc. la han divulgado.

La *—a* final es el artículo por lo que no es parte intrínseca de la palabra. Debería por tanto ser "*Urretx bat aurkitu dut*", 'he encontrado una *urretx*' aunque aquí hemos lexicalizado ya ese final. Por ello usamos "He encontrado una *urretxa*".

## USIAR

Laudion horrelaxe erabiltzen den berba bitxia dakarkizuegu. Bide onetik eramango gaitu berbak; jatorrian duen *uxatu* aditzaren bidetik, zeinak 'urrundu, ihes eginarazi, ikaratu, egotzi' esan nahi baitu.

*Uxatu* aditzak badu mendebaldean *uxiatu* aldaera, eta, hain zuzen ere, handik hartu genuen laudioarrok aditza, gaztelaniaren ezaugarriei egokituta: *usiar* ('animaliak xaxatzen ibiltzea'): "Ahí andaba *usiando* los cerdos todo el tiempo".

Jakina, baserri-ingurunean hazitako pertsona zahar guztiei ezaguna egingo zaie berba, baina erabat ezezaguna izango da, ostera, belaunaldi gazteenentzat. Etorkizun iluna, beraz, gure berba honena ere.



Presentamos una extraña palabra que se usa tal cual en Laudio. Pero que nos llevará a buen puerto, el del término original *uxatu*, un verbo que significa 'ahuyentar, espantar, azuzar, expulsar'.

Ese verbo *uxatu* tiene una variante occidental que es *uxiatu* y de ahí adoptamos los laudioarras el verbo, amoldado a las características del castellano, *usiar*, que es 'andar azuzando a los animales': "Ahí andaba *usiando* los cerdos todo el tiempo".

Por supuesto, es uno de esos términos que resultará conocido a todas las personas de cierta edad que se hayan criado en un entorno rural y que sin embargo resulta absolutamente desconocido a las generaciones más jóvenes. Futuro incierto por tanto también para esta palabra tan nuestra.





## ZABORRA

Oraindik ere nahiko ohikoa da Laudion gaztelaniaz ahoskatutako *zaborra* berba entzutea, hau da, *zapato* berbaren hasierako z soinuaz, eta ez euskaraz legokioken ahoskerarekin.

Hasiera batean, 'hondar, hondakin, balio ez duen zerbait' esan nahi zuen. Gaur egungo euskaran, erabilera modernoa emanda, zuzenean 'zarama' esanahia ematen zaio: "emadazu *zabor* poltsa bat". Hala ere, tokiko euskara tradizionalan, eremu semantiko zabalagoa hartzen zuen, esaterako, erabilezintzat jo barik ere, balio gutxikoak ziren askotariko gauzak izendatzeko.

Eta hari horretatik tiraka, gurean dagoeneko ezagutzen ez dugun arren, *zaborra* berba 'harri txikiak', 'harrikirriak' izendatzeko ere baliatzen zen, zehazki, bigarren mailako harriak, betegarri legez erabiltzekoak hormagintza-lanetan. Erabilera zahar horren berri daukagu, esaterako, gure Herriko Plaza eraikitzeko lanei esker, garai hartan (1884), 10 erreal ordaindu zirelako «*por cinco carros de zaborra gruesa*».

Berez, esku artean dugun berba latinezko *saburra* hartatik dator, zeina itsasontzietako lasto legez erabiltzen den 'harrikirria edo area' izendatzeko balio baitzuen. Gaztelaniaz 'legar-hobietatik edo metaketa naturaletatik hartutako arido birrindu gabeak' izendatzeko balio duen *zahorra* berbaren baliokidea da, beraz. Gaztelaniazko *sarro* berbak ere jatorri berbera du —lore-ontziez edo hortzetako esmalteaz ari bagara—, baita *saburra* berbak ere, zeinak mingain gaineko geruza zurikara izendatzeko balio duen.



Aún es bastante habitual utilizar en Laudio la palabra *zaborra*, pronunciada a la castellana, es decir con sonido inicial z como en *zapato* y no como correspondería en euskera, algo similar a *\*saborra*.

En principio significa 'desperdicio, desecho, cualquier cosa que no vale'. En el euskera actual, en su uso moderno actual, lo traducimos directamente como 'basura': "emadazu *zabor* poltsa bat" «dame una bolsa de basura». Sin embargo, en nuestro euskera tradicional local abarca un campo semántico más amplio, refiriéndose por ejemplo a cosas de poco valor aunque sin que necesariamente se considere basura o inservible.

Al hilo de ello, aunque ya no lo conocemos en nuestro territorio, se usa también la palabra *zaborra* para definir las 'piedras pequeñas', 'cascajo', sin ir más lejos las piedras secundarias, de relleno en un trabajo de mampostería. Pero sabemos de su antiguo uso, gracias, por ejemplo, a la construcción



de la Herriko Plaza en la que, por aquel entonces (1884), se pagaron 10 reales «*por cinco carros de saborra gruesa*».

En realidad proviene del latín *saburra* que era el 'cascajo o arena' que se introducía en los barcos a modo de lastre. Es lo mismo que el castellano *zahorra*, 'áridos no triturados procedentes de graveras o depósitos naturales'. Idéntico origen tiene la palabra del castellano *sarro* —en una vasija o en el esmalte de los dientes— o la *saburra* de la lengua, capa blanquecina de la misma.

## ZANBERGAS

Termino bitxi da jarraian berbagai hartuko duguna; hiztegitxoan jasotzeko zalantza ere eduki dugu. Gure herrian, 'burubide urriko' pertsonari esaten zio, Azkuek bere *Hiztegia* lanean (1905) jaso legez, baita 'zabarra, handikotea, inolako graziaz ez duena' adierazteko ere: "vaya *zanbergas* estás hecho".

Hala ere, Azkuek *txanberga* eta *txanbergo* formak jaso zituen, maskulinoa eta femeninoa bereizita, eta berarentzat ere arraroa zen hori: «*Txanberga: mujer de poco juicio, a diferencia de txanbergo, que se dice de un hombre. La terminación genérica es extraña a esta lengua*». Gure berbak erromantzezko terminoren batekin erlazioa duelako susmoa pizten digu horrek. Nolanahi ere, guk *zanbergas* baino ez dugu erabiltzen, beti femeninoan eta, gainera, pluralean.

*Chambergo* berbaren jatorriak eta *zanbergas* berbarenak erlazioa duten ere ez dakigu: etxe luze eta zabal modukoa da *chambergo* bat, baita kapela mota bat ere, eta, bi adieren kasuan, Charles de Schömberg (1601-1656) Frantziako mariskalaren abizena da jatorria, hark sartu zuen moda uniforme militarretan, Kataluniako Gerran, 1650a aldera. Abizen hartatik sortu zen jantziaren izena. Zaila zen jatorri militarreko jaka luze hori graziaz eramatea, beharrezko planta lerdana ez zeukana barregarri geratzen zelako, hau da, *zanbergas* itxura hartzen zuelako. Horrexegatik jo dugu egokitzen aukera hori ez baztertzea, bitxia izanagatik ere.

Kontua da, horrez gain, gure mendebaldeko euskaran 'kirtenik gabeko lapikoa, burdinazkoa edo zurezkoa, labea freskatzeko ura botatzeko' da *txanberga*, 'oso erabilia gure burdinoletan' (Azkue, 1905). Eta ezaguna denez ontzien izenetatik irainak ateratzeko dugun joera, ez litzateke arraroa izango aztergai dugun berbaren jatorria horixe izatea.

Hedapenez, *txanbergas* esaten zitzairen lapikoak, kobrezko pertzak, eta abarrek egiteko burdinolei ere. Dokumentazioari esker dakigu termino hori



Orozkon erabili zela, eta horrexegatik pentsatzen dugu Laudion ere ohikoa izango zela.

Termino xeblebre honi buruzkoekin amaitzeko, esandakoari gehitu nahiko nioke gaztelaniazko *fanegas* berba ere Laudion ere erabili izan dela, plurallean eta esanahi berberarekin, gainera, hau da, burubide urriko, zabar, ganorabakoei esateko: "ese era un *fanegas* de aúpa". Eta kasu horretan ere, ontzi baten izenari helduta, izan ere, jakina denez, labore eta abarretarako neurria da *fanega*, 'anega', zurezko kutxatila baten antzera eraikia eta 55,5 litroren baliokidea, nahiz eta neurrien ekibalentziak ezberdinak izaten diren leku batetik bestera.



Nos encontramos frente a un extraño término y con cuya inclusión hemos dudado. En nuestro pueblo lo utilizamos para describir a una persona 'de poco juicio' como recogiese Azkue en su *Diccionario* de 1905 e incluso como alguien 'dejado, grandullón, sin arte alguno': "vaya *zanbergas* estás hecho". Pero las formas recogidas por Azkue son en realidad *txanberga* y *txanbergo*, distinguiendo el masculino y femenino, algo que a él mismo le resultaba extraño: «*Txanberga: mujer de poco juicio, a diferencia de txanbergo, que se dice de un hombre. La terminación genérica es extraña a esta lengua*». Ello nos hace sospechar que nuestro vocablo pueda tener relación con algún término romance. En cualquier caso, nosotros solo lo usamos con la forma *zanbergas*, siempre en femenino y en plural además.

No sabemos si su origen pudiera estar relacionado con la palabra *chambergo*, una especie de casaca ancha y larga —también se denomina así a un sombrero— y cuya procedencia en ambos casos es el apellido de Charles de Schömberg (1601-1656), un mariscal de Francia que introdujo la moda en el uniforme durante la guerra de Cataluña hacia 1650. De su apellido surge la palabra de la prenda. Y aquel chaquetón en origen militar era difícil llevarlo con gracia pues ridiculizaba al que no tenía el porte necesario, es decir, daba apariencia de *zanbergas* con ella. De ahí que nos parezca oportuno no descuidar esta posibilidad por peregrina que sea.

Pero, por otra parte, *txanberga* es en nuestro euskera occidental un 'cazo sin mango, de hierro o madera, con el cual se echa agua al horno para refrescarlo; era de mucho uso en las herrerías' (Azkue, 1905). Sabido de nuestro gusto por crear insultos en base a nombres de recipientes, no sería extraño que también ahí estuviese el origen de nuestro término.

Por extensión, *txanbergas* eran las herrerías en las que se elaboraban cazos, calderas de cobre, etc. Gracias a la documentación sabemos que dicho tér-



mino se usó en Orozko por lo que suponemos que también sería normal en Laudio.

Para finalizar con este extraño vocablo, nos gustaría añadir que con idéntico significado de persona de poco juicio, dejada, sin gracia... se ha usado en Laudio la palabra del castellano *fanegas*, también aquí siempre en plural: "ese era un *fanegas* de aúpa". De nuevo recurriendo a un recipiente, ya que como sabemos la fanega es una medida de capacidad para grano, etc. fabricada en una especie de cajón en madera y que equivale a 55,5 l, aunque es variables de unas zonas a otras.

## ZAPABURU

Zalantza barik, *zapaburu* berba da —*sapabúru* ahoskatuta— gure hiztegi bitxi honetako sarrerarik ezagun eta erabilienetako bat, *zapaburuak* hain baldarrak direnez mugitzen, erraza delako animaliatxo hauek harrapatzea. Horrexegatik izan da garai guztietako umeen denbora-pasa horien ehizan ibiltzea.

Gaztelaniaz *renacuajo* esaten zaie, hau da, lehenagoko *ranacuajo* formaren bilakaera, eta horixe bera esan nahi du: 'igel txikiak', edo, bestela esanda, igelen kumeak, zeintzuek isatsa baitaukate, hankarik ez, eta sakatsen bidez hartzen baitute arnasa, animalia helduek ez bezala`'.

Dirudienez, isatsarekin alderatuta handiegia den gorputzak deitzen zuen arreta, eta buru gisa interpretatu zen. Hortik datorkio osaera izenari, *zapo* eta *buru* berben elkarketatik.

Guztiok dakigunez, *zapaburuek* metamorfosi txundigarria bizi dute eta, heldutasun maila egokira iristean, gutxika-gutxika, hankak haztearekin batera, isatsa atzera xurgatzen dutela apoptosi bidez, hau da, zelula-heriotza kontrolatuaren bidez.



Sin lugar a dudas la palabra *zapaburu* —que pronunciamos *sapabúru*— es una de las más conocidas y usadas de nuestro curioso diccionario ya que los *zapaburus* son unos animalillos que, por su torpeza en el desplazamiento, son fáciles de atrapar. De ahí que su apresamiento haya sido un pasatiempo común de todos los peques de todas las épocas.

Su denominación en castellano es *renacuajo* que es la forma evolucionada de una anterior *ranacuajo* y que significa eso mismo: 'ranas pequeñas', ya que se trata de la 'cría de la rana, que se diferencia del animal adulto principalmente por tener cola, carecer de patas y respirar por branquias'.



En el euskera parece que llamaba la atención su gran cuerpo, desproporcionado frente a la cola, y que se interpretaba como una cabeza. De ahí que *zapaburu* provenga de *zapo* y *buru*, es decir 'cabeza de sapo'.

De todos es sabido que los renacuajos o *zapaburus* experimentan una sorprendente metamorfosis y, con la madurez necesaria, gradualmente le crecen sus patas y su cola se absorbe por apoptosis, es decir, una muerte celular controlada.

## ZEZPAL

*Zezipal* berba —Laudioko gaztelanian, *sespál* ahoskatuta— hedatuagoak dau den eta euskara baturako onartu diren *ezipal* eta *zozipal* berben mendebaldeko aldaera da. Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, *ezipal* orokortua baino arkaikoagoak dira zalantza barik *zozipal* forma zein gurea, *zezipal*.

'Egurra moztean, normalean aizkoraz, ateratzen diren egur zati txikiak' izendatzeko erabiltzen da.

Euskaraz, *zezipal* da singularra eta *zezipalak* plurala, baina Laudioko kasuan integratu egin direnez eta gaztelaniaz ere erabiltzen denez, gaztelaniaren ezaugarriak erantsi zaizkio berbari. Horiek horrela, gure zaharrei "un *sespal*" eta "unos *sespales*" esaten entzungo diegu, harrigarriro, maskulinoan.

Sua pizteko oso erabilgarriak ziren egur zatitxo hauek, eta horrexegatik bilzen ziren beti egurra moztu ostean.



El vocablo *zezipal* —que en Laudio pronunciamos *sespál*— es en realidad una variante occidental de otras formas más comunes como son *ezipal* o *zozipal*, aceptadas ambas para el euskera *batua* o unificado. Desde un punto de vista lingüístico, sin duda son más arcaicas formas como *zozipal* o la nuestra, *zezipal* que la más generalizada *ezipal*.

Su significado es el de 'astilla', esos 'trozos de madera desprendidos al cortar, normalmente con hacha'.

En euskera es *zezipal* y su plural *zezipalak* pero, como en el caso de Laudio se han integrado y se usa en castellano, ha adquirido cualidades de éste. Así escucharemos entre nuestros mayores decir "un *sespal*" y "unos *sespales*", curiosamente en masculino.

Eran trozos de madera apreciados para el momento de encender el fuego, por lo que se recogían siempre tras el corte de la madera.



## ZIL

Laudioko gaztelaniaz *sil* ahoskatzen dugun arren, *zil* da idazkera zuzena. 'Zilborra' berbaren sinonimoa da, zeinak zilbor-hestea lehortu eta hautsi ostean sabelaren erdian geratzen den orbaina izendatzeko balio duen. Bestela esanda, garenaren abiapuntua eta amaiera da, izan ere, puntu magiko horretatik hasita hezur-mamitzen gara izaki legez.

Garai batean, hainbesteko garrantzia ematen zitzaion giza anatomiaren zati horri, ezen batek baino gehiagok baieztatzen baitu *zil izan* edo *zilegi* berbak —euskarazi 'lizitua, legitimoa' esateko beste bi berbak— *zil + izan* eta *zil + egi* osaera dutela jatorrian, hau da, hurrenez hurren eta hitzez hitz, 'zilbor izatea' eta 'zilbor egia'.

*Zil* da formarik zaharrena eta euskalki gehienetan hedatuena. Hala eta guztiz ere, euskara baturako promozionatu den berba *zilbor da*, berriz ere, gure hizkuntzak pairatzen duen "zentralismoa" agerian utzita.



Aunque en Laudio lo pronunciamos como *sil* la forma correcta a la hora de escribirlo es *zil*. Se trata del 'ombligo', esa cicatriz redonda que queda en medio del vientre después de romperse y secarse el cordón umbilical. Es, dicho de otra forma, por donde comienza y finaliza lo que somos pues a partir de ese mágico punto nos formamos como seres vivos.

Tal es la importancia que a dicha parte de la anatomía se le dio en otro tiempo que hay quien asegura que *zil izan* o *zilegi* —que en euskera significan 'lícito, legítimo'— provienen de *zil + izan* y *zil + egi*, literalmente y respectivamente, 'ser ombligo' y "verdad de ombligo'.

*Zil* es la forma más antigua y dialectalmente más extendida. Sin embargo se ha promocionado en el euskera *batua* o unificado la variante *zilborra* quedando patente de nuevo el excesivo "centralismo" que sufre nuestra lengua.

## ZIRAU

Berbaren forma zuzena *ziraun* da, baina gure inguruan *siráu* ahoskatu izan da beti. *Zirau*, bestalde, zaharrena da dokumentazioaren arabera, *ziraun* baino lehenago agertzen baita. Hala ere, euskara batura onetsi den berba *ziraun* da, —azken —*n* hori erantsita amaieran—, erdialdeko euskalkietan esaten dena, alegia. Inguruko herrietako gaztelaniaz entzungo ditugun zenbait aldaera sortu dira hortik, esaterako, *sirón* edo *sirun*.



Gure terminoak gaztelaniaz 'lución' edo 'culebra de cristal' deitzen denari egiten dio erreferentzia: 'narrasti saurio apodoa da, azal distiratsua du eta isatsa gorputza bezain luze. Isatsa galtzean erraz birsortzen zaio'. Bestela esanda, arrisku bariko sugexka da, gurean oso ohikoa.

Hala ere, horixe da gure hanka-sartzerik handiena, sarri askotan nahasten baititugu gure *zirau* otzana sugeren batekin. Baina guztiz kontrakoa da: berez, hankarik gabeko muskerra da. Bitxikeria gisa, ikaratzen denean, gorputza hain zurrun jartzen da, ezen erraz apurtzen baitzaio. Hortik dator-kio izen zientifikoa (*Anguis fragilis*) nahiz gaztelaniazko ezizena 'kristalezko sugea'. Halaber, isatsetik heltzen zaionean, askatu egiten du, eta atzen utzi ostean mugitu egiten da, harraparia nahasteko eta, horrela, ihes egin ahal izateko.

Gure ibarrean, animalia txiki horri deitzeko beste era arrunt bat da *enánago* edo *nánago*, zeina Kantabriako zatirik handienez baliatzen baitute. Hortaz, zerikusirik ez euskararekin.

Halaber, Arabako berezko berba legez jasoa dago *cillorto* —*cilorto*, *sirorto* eta beste zenbait aldaerarekin batera— Bizkaiko eraginpean egon ez diren Aiaral-deko herrietan ohikoa, izan ere, eragin bizkaitarreko inguruetan (Laudio, Luiaondo eta Okondo), *zirau* da ezagutzen den forma bakarra.



La forma correcta de la palabra es *ziraun* si bien en nuestro entorno se ha pronunciado como *siráu*. *Zirau*, por otra parte, es la más antiguamente documentada, antes que *ziraun*.

Sin embargo la palabra aceptada para el euskera *batua* o unificado es *ziraun* —con una—*n* al final— tal y como se hace en los dialectos centrales. De ahí surgen variantes derivadas como *sirón*, *sirun*... que escucharemos en otros municipios cercanos al nuestro.

Nuestro término hace referencia al 'lución', también llamado 'culebra de cristal' y es un 'reptil saurio ápodo, de piel brillante y cola tan larga como el cuerpo, la cual pierde y regenera con facilidad', dicho con otras palabras, una especie de "culebrilla" inofensiva muy común en nuestra tierra.

Pero ese es nuestro gran error ya que frecuentemente que se confunde al *zirau* con una serpiente. Todo lo contrario: en realidad, es un lagarto que carece de patas. Como curiosidad, cuando se ve sorprendido, pone tan rígido el cuerpo, que éste, fácilmente se quiebra. De ahí su nombre científico (*Anguis fragilis*) o su sobrenombre de 'culebra de cristal'. También, cuando se le agarra la cola, la secciona él mismo y la deja en movimiento para distraer al atacante, mientras él huye.



Otra forma muy corriente de denominar a ese animalillo en nuestro valle ha sido la de *enánago* o *nánago*, nombre usado en la mayor parte de Cantabria. Es decir, que no tiene nada que ver con el euskera.

También se considera como palabra propia alavesa el término *cillorto* —con variantes como *cilorto*, *sirorto*...— y es habitual en las tierras de la Cuadrilla de Ayala que no han estado bajo la influencia de Bizkaia ya que en éstas (Laudio, Luiaondo y Okondo) es la de *zirau* la forma tradicional única conocida.

## ZIRIMIRI

*Sirimiri* esateko ohitura badugu ere, terminoa idazteko forma akademikoa *zirimiri* da. Hala ere, ohikoa da bi moduetan idatzia aurkitzea, baita *txirimiri* formaz ere.

Laudion, *sirimíri* ahoskatuta erabiltzen dugu. Euri arin baina lodiarri egiten dio erreferentzia, eta 'etengabeko euri-langarra' legez definitzen da hiztegiatan. Gaztelaniaz, *calabobos* ere deitu zaio —euri itxura izan barik ere, euriak beste bustitzen duelako—, baita *mollina* ere; azken hori oso erabilia da gurean, eta *muelle* berban du jatorria, bere leuntasunari erreferentzia eginez. Baina gaztelaniak ere berezkotzat du *sirimiri* berba, euskaratik, maileguan hartua.

*Zirimiri* berbak jatorri adierazkorra du, esanahi zehatz batean oinarritu barik, soinuen elkarketan oinarritua. Soinuzko izaera hori hain da indartsua, ezen osagaiak bereizita ere erabiltzen baitira euskaraz esamolde batzuetan: «*Euri ziri, euri miri, atertu barik...*».

Berez, gauza 'txikia, garrantzi barikoa' da *zirimiri*, oharkabean igarotzen zai-gun zerbait. Gipuzkoako zonalde batzuetan ere erabiltzen da, munta txikiko lantxoei esateko, baina.

Izan ere, hori da *zirimiria*: itxuraz arina denez, oharkabean igaro eta... blai eginda uzten gaituen euria.



Aunque estamos acostumbrados a usarlo como *sirimiri*, la forma académica de escribir el término es *zirimiri*. Pero es habitual encontrarlo escrito en cualquiera de esas dos opciones así como la de *txirimiri*.

La forma usada en Laudio es la que pronunciamos *sirimíri*. Hace referencia a una lluvia ligera y cerrada, una 'llovizna pertinaz' como se la define en los diccionarios. En castellano la hemos conocido como *calabobos* —porque sin





aparentar ser lluvia de la que protegerse sí que te acaba mojando— y también como *mollina*, muy usada en nuestra zona, y con un origen en la palabra *muelle*, por su suavidad.

Pero también el castellano tiene como propia la palabra *sirimiri* y que la toma prestada del euskera.

La palabra *zirimiri* tiene un origen expresivo, más basado en la conjunción de sonidos que en un significado concreto. Es tal esa realidad que hasta se han usado por separado sus componentes en alguna expresiones en euskera: «*Euri ziri, euri miri, atertu barik...*».

En realidad *zirimiri* significa una cosa 'pequeña, sin importancia', en la que no reparamos. Incluso se usa en zonas de Gipuzkoa para nombrar a los trabajillos de poca monta.

Y es que eso es el *zirimiri*: una lluvia en la que no reparamos por su aparente inocencia pero que... al final nos moja.

## ZIRRI

Berba eder askoa da hau, oraindik oso ezaguna Laudioko gazte zaharren artean, eta behin baino gehiagotan guztion ametsen ardatz izandakoa. "*Zirriak egin*" diogu euskaraz, "*hacer sirris*" gaztelaniaz. Gorriak ikusiko zituzten hiztegi garbietarako definizio lotsatiok egin zituztenek: 'palpar las curvas femeninas subrepticamente, aunque con tácito consentimiento de la dueña' —bidenabar esanda, oso ikuskera matxista da hori—, 'retozo por tocamiento no muy decente' edota 'empujones que se dan los jóvenes de uno y otro sexo'.

Gaztelania apur bat lizunago, baina argiagoan "meter mano" edo "sobarse" esaten denaz ari gara, hau da, euskaraz, 'norbaitekin igurtzitan ibiltzeaz'. Sexua da, bai, baina hasierako fasean, berotzerakoan, eldarnio betean.



Preciosa palabra, muy conocida aún entre la gente de cierta edad de Laudio, y con la hemos soñado en más de una ocasión. *Zirriak egin* es en euskera lo que en nuestro pueblo decimos *hacer sirris*. Para definirla se las han visto y deseado los pudorosos diccionarios, dándonos traslaciones como las de 'palpar las curvas femeninas subrepticamente, aunque con tácito consentimiento de la dueña' —visión muy machista, por cierto—, 'retozo por tocamiento no muy decente' o hasta 'empujones que se dan los jóvenes de uno y otro sexo'.



Es lo que en castellano menos puro pero más claro hemos llamado 'meter mano' o 'sobarse', es decir, 'manosear a alguien'. Sexo sí, pero en una fase inicial, de calentamiento, de frenesí.

## ZORTZIKO

Euskal dantza herrikoi bati eta hori dantzatzeko musikari esaten zaie *zortziko*; oso berezkoak ditugu biak, oso bereizgarriak.

*Zortzi* berbari *-ko* gehitzean eratzen da, beraz, *zortzi* (zati)ko esan nahi du, *zortzi* konpas zituztelako dantzaren zatiek.

*Zortzikoak* jotzeko instrumentu tradizional bereizgarriak txistua eta danbolina ziren. Teoria batzuen arabera, *zortziko*a 5/8 konpasean jotzen zen normalean, baina 3/4 konpaseraino eraldatu ei zuten musikariek, dantzarien pausoei jarraitzeko asmoz. Edozelan ere, liluratuta geratzen ziren gure arbasoak erritmo horrekin.

Eta euskal doinu musikal hura, hasiera batean soilik dantzarako egina, laster zabaldu zen abestietarako melodia legez. Horrexegatik agertu ziren zizak legez horren antzeko abestiak XIX. eta XX. mendeen arteko hamarkadetan, euskal mundua saturatzeraino agertu ere. Gogoangarriak dira Ruperto Urquijoren *Lusiano y Clara* zortzikoak (1914), zeintzuk geroago Luis Aranburuk hobetu eta berrizendatuko baitzituen *En el monte Gorbea* (1940) legez. Laudion urte luzez bizi izan zen Felix Garci-Arcellus bilbotarraren *El roble y el ombú* (1909) bikaina ere ez da ahaztekoa.



El *zortziko* es un baile popular vasco así como una música que le acompaña, propia del país, muy característica.

Su nombre es la suma de *zortzi* 'ocho' y *ko* 'de', es decir, 'de ocho' en alusión a que sus partes se componían de ocho compases.

El instrumento tradicional característico para la ejecución de los *zortzikos* era el *txistu* con el tamboril. Algunas teorías describen el *zortziko* —normalmente en compás 5/8— como una evolución de uno de 3/4, deformado por los músicos con intención de seguir los pasos de los dantzaris. Sea como fuere, aquel ritmo encandilaba a nuestros antepasados.

Pero aquel aire musical vasco, originariamente solo para el baile, pronto se hizo popular como melodía para las canciones. Y de ahí que en las décadas a caballo entre el XIX y XX apareciesen como si fuesen setas estas canciones que saturaron el mundo vasco. Memorables son los *zortzikos* *Lusiano* y



*Clara* (1914) de Ruperto Urquijo, que luego mejoraría y rebautizaría como *En el monte Gorbea* (1940) Luis Aranburu o el magistral *El roble y el ombú* (1909) de Felix Garci-Arcellus, bilbaíno que tantos años vivió en Laudio.

## ZUKU

Bertoko zahar gehientsuenei ezagun egingo zaie *zuku*, Laudion, normala denez, *súku* ahoskatuta. *Morokil* berba deskribatu genuenean, gauza beraz ari ginen ia.

Arto-irinez egindako ahi moduko bat da; txikiek eta nagusiek hartzen zuten gosaldu edo afaltzeko, gosea asetzeko gaitasun handia du eta. Baserrietan, goseari aurre egiteko baliabide garrantzitsua izan zen.

Arto-irina esnearekin nahastuta prestatzen zen, baina esnea urri zenean, urarekin ere egin zitekeen. Behin lodituta, azpil edo plateretan zerbitzatzen zen eta, horren gainean, azukrea botatzen zen. Jaterakoan beste esne-zorrotada bat botatzen zitzaion, normalean bero, jateko errazago izan zedin.

Berez, euskaraz *zuku* edo *morokil* deitzen duguna 'polenta' baino ez da, ahi moduko bat. Gaztelaniaz, *gacha* nahiz *farineta* izenez ere ezagutzen da.

Hala ere, *zuku* berbak zabalera semantiko handiagoa du euskaraz Laudion ematen dioguna baino, izan ere, beste zonalde batzuetan, edozein 'zopa', 'eltzeko', 'salda' edo 'ahi' izendatzeko erabiltzen da. Beste zenbait lekutan, 'txerrien bazkarako prestatzen den janari nahasketa' ere izan daiteke.

Gure inguruan eta gertuko herrietan, ostera, 'arto-irinezko ahi moduko' hura, beste garai batzuetan hainbeste sabel kontsolatu zituen hura izendatzeko baino ez da erabiltzen.



A prácticamente la totalidad de la gente mayor, les resultará conocida la palabra *zuku* que, como es normal, pronunciamos *súku* en nuestro pueblo. Prácticamente se trata lo mismo que cuando describimos la palabra *morokil*.

Se trata de una especie de 'papilla hecha con harina de maíz' y que consumían pequeños y mayores para desayunar o cenar, por su gran poder para saciar. Fue un recurso clave para sobrellevar el hambre en los caseríos.

Se preparaba mezclando harina de borona —maíz— con leche aunque, cuando era escasa ésta, también podía prepararse con agua. Una vez bien empastado, se echaba a unas fuentes o platos y, sobre todo ello, se espolvoreaba azúcar. A la hora de comerlo se le añadía de nuevo un chorro de



leche por encima, normalmente caliente, para así hacer más fácil la deglución.

En realidad lo que llamamos en euskera *zuku* o *morokil* es la 'polenta', una especie de papilla. En castellano también se conoce con los nombres de *gacha* o *farineta*.

Pero la palabra *zuku* tiene en euskera una amplitud semántica más amplia que la que le damos en Laudio ya que, en otras zonas, sirve para denominar cualquier 'sopa', 'potaje', 'caldo' o 'papilla'. Incluso se usa en determinadas para denominar la 'mezcla de comida que se prepara para los cerdos'. Sin embargo, en nuestro entorno, así como en los pueblos cercanos, su uso está limitado a denominar esa especie de 'papilla de harina de maíz' que tantos estómagos consoló en otras épocas.

## ZUMELAR

Laudion, gaztelaniaz, *zumelar* aditza erabiltzen dugu landare bat zimeldu dela esateko, adibidez, izotzak jo duenean edo segatu ostean erdi lehor eta larri dagoenean: "se ha *zumelado* la flor".

Euskaldunontzat agerikoa denez, *zimeldu* aditza dago atzean, bere esanahi unibokoaz, hau da 'ihartu', 'zimurtu', 'lehortzen hasi', 'makila berde bat sutan sikatu', 'belarra moztu ostean zimeltzea'... eta, *zimet* edo *zumel* izenon-doa ere 'ihar, zimurtu' eta horrelakoak adierazteko erabiltzen da.

Deigarriena da leku gehienetan *i* soinuaz esaten den arren (*zimet*) *u* soinuaz (*zumel*) esan beharrean, berez, bigarrena dela arkaikoen, eta horixe da, hain zuzen, Laudio fosilizatua iraun duena. Jatorrizko berba hori zela dirudi, adituen esanetan, *zur* + *bel* ('ilun' edo agian 'bigun') osaera baita etimologikoki zuzena, hau da, "zur bigun".



En Laudio recurrimos al verbo *zumelar* cuando pretendemos indicar que una planta se ha quedado marchita, cuando se ha visto afectada por una helada o cuando la hierba está pocha, a medio secar tras segarla: "se ha *zumelado* la flor".

En realidad tras ella se esconde el verbo en euskera *zimeldu* cuyo inequívoco significado es el de 'marchitarse', 'arrugarse', 'principiar a secarse', 'secar una vara al fuego', 'marchitarse la hierba según se corta'... y, aún mejor, el adjetivo *zimet* o *zumel*, con significados similares de 'marchito, arrugado, etc.'.



Lo llamativo es que mientras en la mayoría de lugares se realiza con *i* (*zimel*) y no *u* (*zumel*), es realmente esta forma arcaica que fosilizada hemos mantenido en Laudio la que parece ser la original ya que, dicen los expertos, todo ello procede de un *zur* 'madera' + *bel* 'oscuro' o quizá 'blanda'.

## ZURITO

Ez da gure herriko berba tradizionala inondik inora ere, modernoa baizik, joan den mendeko 70eko eta 80ko hamarkaden arteko urteetan hasi baitzen erabiltzen gurean. Erabilera olioaren legez sakabanatu zen euskara-zko berba zelakoan, Gipuzkoatik zetorrelako, eta agerikoa zelako *zurito* eta *zuri* berben arteko erlazioa, garagardoaren bitsaren koloreari erreferentzia eginda.

Hala ere, gaur egun hain hedatua dagoen terminoa hamarkada batzuk ari nago asmatu zuen —60ko hamarkadan— Donostian orduan gazte zen Carlos Pérez Garridok, ohiko ardo basoerdiekin aspertuta, basoerdiak bai, baina garagardo beteak eskatzen hasi zelako. "Garagardo mini" esaten zioten, eta, orduan, garagardo-txorrotarik ez genuenez, botilatxo erdi botatzen zen edalontzira eta beste erdia hurrengo errondarako uzten zen. Horrela, urte haietako tabernaz tabernako erritmo frenetikoari eutsi ahal zitzaion.

Formulak arrakasta izan zuen eta ohiko bihurtzen hasi zen Donostiako Alde Zaharreko establezimenduetan. Uneren batean, izena ipintzeko aukera aztertu zen, eta *zuritos* izatea adostu zuten, izen horixe baitzeukan koadrila aitzindariak.

Eta euren izenaren jatorrian, Gabriel Haba toreroari zioten zaletasun sutsua zegoen; izan ere, "Zurito de Córdoba" deitzen zioten matadoreari, eta bogan zegoen garai hartan. Gainera, haren aititak eta berraititak zeramaten ezizen berbera zeraman orduko Zuritok. Berraititari, hau da, Manuel de la Haba Bejarano toreroari ipini zioten lehenengo aldiz *zurito* ezizena, betileetan zeuzkan irtengune edo eremu zuri batzuegatik, esaten dutenez, txolomen (uso mota baten) antza ematen ziotelako.

Amaitzeko, *zurita* (usapal) berba gaztelaniazko *zura* (uso) berbaren txikigarria da, eta onomatopeikoa da, hegazti horiek egiten duten soinutik hartua.



En absoluto se trata de una palabra tradicional de nuestro municipio, sino una incorporación moderna, en los años a caballo entre los 70 y los 80 del siglo pasado. Su uso se extendió como un reguero de pólvora al pensar que



era una palabra propia del euskera, ya que procedía de Gipuzkoa y era evidente la similitud entre *zurito* y *zuri* 'blanca', color de la espuma cervecera. Sin embargo ese vocablo tan extendido hoy en día, se inventó alguna década atrás —en los 60— en Donostia por el entonces joven Carlos Pérez Garrido que, aburrido del habitual pote de vino, empezó a solicitar lo mismo pero de cerveza. Lo denominaban un "mini de cerveza" y consistía en servir medio botellín —no contábamos aún con los grifos de cerveza— y dejar la otra mitad para la siguiente ronda. Así podía amoldarse al frenético ritmo del poteo de aquellos años.

La fórmula cuajó y empezó a hacerse común en los establecimientos de la parte vieja donostiarra. Y en un momento dado se pensó en ponerle nombre y acordaron que fuesen *zuritos* porque era así como se denominaba la cuadrilla pionera.

Se autodenominaban así por ser seguidores acérrimos del torero Gabriel Haba, "Zurito de Córdoba" de moda por aquel entonces. Portabael matador el mismo apodo que su padre y abuelo. Fue a este, Manuel de la Haba Bejarano "Zurito" al primero que se le conoció como *zurito*, por unos bultos o zonas blancas en los párpados que, dicen, le hacían parecerse a las palomas zuritas.

Para finalizar, la palabra *zurita* (tórtola) es un diminutivo del vocablo castellano *zura* 'paloma' y que surge, a modo de onomatopeya, del sonido que hacen dichas aves.

## ZURRU

Baliagari ditugun hiztegieta joz gero ikusiko dugu *zurru* berbaren esanahia 'zurrunga' dela, edo hiltorian daudenen 'estertore edo korokak'... edo arnasbideek nekez lan egiten dutenean sortzen den edozein soinu. Izan ere, hortik sortu ziren *zurruka* eta *zurrunga*, *zurrumurru* 'murmurioa, txutxu-mutxua, esamesa', nahiz *zurru* eta *purru* eta horiek *jan* edo *edan* bezalako aditzei gehituta, erreferentzia egiten diogu jatean edo edatean ateratzen den irenste- edo zurrupatze-zaratari. Eta hemendik hegaz aterako gara Euskal Herri kontinentalera —Iparraldera—, terminoa estrapolatuta, ikusteko han *zurruburru* berbak 'desordena, zalaparta' esan nahi duela.

Dena den, ez gaitezen hain urrun joan eta itzuli gaitezen etxe dugun ibarrrera. Ziur aski, arnasa txarto hartzean egiten den zaratarekin erlazioa izango du *zurru* berbak —*súrru* ahoskatuta—, zeinek Laudion 'katarroak jota, mukia dariola, doministikatu egiteko gogoz edo sudur estuak jota' egotea



esan nahi baitu. Eta gauza bera den arren, etxe batetik bestera aldatu egiten dira ñabardurak.

Edozelan ere, norbaiti "vaya *zurru* que tienes" esatean adierazten diogu sudur estua duela, sudur zuloak itxi samar dituela.

Bertoko berba hau ere, zaharrentzat ezaguna izango da, baina erabat ezezaguna gazteentzat.



Si recurrimos a los diversos diccionarios existentes, veremos que *zurru* es el 'ronquido', los 'estertores' de los agonizantes... cualquier sonido producido en las vías respiratorias cuando trabajan con cierta dificultad. De ahí surgen *zurruka* o *zurrunga*, 'roncando', *zurrumurru* 'murmullo, chisme, cotilleo', *zurru eta purru* que, sumado a verbos como *jan* o *edan* nos dicen que se come o bebe con ruido al masticar o al sorber o tragar. Y de ahí volamos hasta la Euskal Herria continental —Iparralde— para, en una extrapolación del término, comprobar que allí *zurruburru* significa incluso 'desorden, barullo'.

Pero no vayamos tan lejos y retornemos al ámbito doméstico de nuestro valle. Probablemente relacionado con el ruido que se produce al respirar mal, *zurru* —pronunciado *súrru*— significa en Laudio 'estar acatarrado, con mocos, ganas de estornudar o congestión'. Y aunque se trate de lo mismo, los matices del mismo varían de una casa a otra.

En cualquier caso, decirle a alguien "vaya *zurru* que tienes" es decirle que está congestionado, con cerrazón de fosas nasales.

De nuevo una palabra local que es común para la gente mayor, pero totalmente desconocida para los más jóvenes.

## ZURRUT

Laudion esaten dugunean likido bat "*a zurrut*" edaten dela —"*a surrút*" ahoskatuta— 'tragoxka' edaten dela adierazi nahi dugu, hau da, aspirazioz eta gutxika-gutxika edatea. Gaztelaniaz, "beber sorbido" esamoldea erabiltzen da: "bébetete una taza de leche sorbida para entrar en calor".

Izan ere, gure inguruan "*a zurrut* edatea" esamoldea erabiltzen da oso bero dagoen edozein edari edatean, zurrupadaka egitean, aireaz nahasten delako eta, horrela, zailagoa izango delako likidoak ezpainak erretzea. Dena den, beste zonalde euskaldun batzuetan, *zurrut* berba baliatzen dute bestelako likidoak edateari dagokionez ere, bereziki, likoreak eta bestelako edari alkoholdunak badira.



Hasierako *zurrut* horretatik eratorri da *zurrutada* izena, aspiratutako trago txiki horiei erreferentzia egiteko: "bébete una *zurrutada* por lo menos".




Al decir en Laudio que un líquido se bebe "*a zurrut*" —pronunciado "*a surrút*"— nos referimos a 'beber a sorbos', es decir, beberlo por medio de una aspiración y en pequeñas cantidades cada vez. También en castellano utilizamos la expresión "beber sorbido": "bébete una taza de leche sorbida para entrar en calor".

Y es que, en nuestro entorno beber *a zurrut* se usa en aplicación a ingerir cualquier bebida muy caliente ya que, al sorberla, se mezcla con aire y ayuda así a que no nos quememos con ella. Sin embargo, en otras zonas vascófonas, *zurrut* hace referencia también al beber otros líquidos, especialmente bebidas alcohólicas como licores.

Derivada del *zurrut* inicial, también usamos el sustantivo *zurrutada* para hacer referencia a un sorbo: "bébete una *zurrutada* por lo menos".

**ZURRUTADA.** *Ikus / Ver ZURRUT*







# BIBLIOGRAFIA

---

- AÑIBARRO, Pedro Antonio. *Voces Bascongadas*, c. 1800. Erabilitako bertsioa: Villasante, Luis, Bilbao, 1963.
- ARRIAGA, Emiliano. *Lexicón etimológico naturalista y popular del bilbaíno neto*. Bilbo, 1896.
- AZKUE, Resurrección M<sup>a</sup>. *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbo, 1905-1906.
- AZKUE, Resurrección M<sup>a</sup>. *Euskalerrriaren Yakintza*. Madril 1935, 1942, 1945 eta 1947.
- BARRENGOIA ARBERAS, Federico. *Onomastica de la Tierra de Ayala-I*, Gasteiz 1985.
- BECERRO DE BENGUA, Ricardo. *Descripciones de Álava*, 1880. Erabilitako bertsioa: Real Ateneo de Vitoriak egin. Gasteiz, 1918.
- COVARRUBIAS, Sebastián. *Tesoro de la lengua castellana* (Madrid, 1611).
- ELEXPURU, Juan Martin. *Bergara aldeko lexikoa*. (Bergara, 1985). Argitaratu gabea. Euskaltzaindiaren webguneko *Orotariko Euskal Hiztegia* lanaren bitartez kontsultatua.
- GORDON WASSON, Robert. *Soma: Divine Mushroom of Immortality*. Italt, 1972.
- IBARGÜEN-CACHOPIN. Bizkaiko Foru Aldundiaren Artxiboan eta Madrilgo Liburutegi Nazionalean gordetzen den XVI. mendearen amaierako Bizkaiko eskuz idatzitako kronika. Euskaltzaindiaren webguneko *Orotariko Euskal Hiztegia* lanaren bitartez kontsultatua.



- LANDUCHIUS, Nicholaus. *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562). San Sebastián, 1958. M. Agud eta K. Mitxelenaren bertsioa.
- LARRAMENDI, Manuel de. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia, 1745.
- LOPEZ de GUEREÑU, Gerardo. «Voces alavesas», in *Euskera*. Bilbo, 1958.
- MAÑÉ I FLAQUER, Juan. *El oasis. Viaje al país de los fueros. II*. Bartzelona, 1879.
- MOGUEL, Juan Antonio. *El doctor Peru Abarca, c. 1802*. Durango, 1881.
- OIHENART, Arnauld. *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae tum Aquitanicae*. Paris, 1656. Erabilitako bertsioa: P. Javier Gorosterratzu, *RIEV* 1926, 1927, 1928 eta 1929.
- TERREROS Y PANDO, Esteban. *Diccionario castellano con las voces de ciencias y artes y sus correspondientes en las tres lenguas francesa latina e italiana* (Madrid, 1787).
- URTE, Pierre d'. Eskuz idatzitako Hiztegia. (Londres, 1725). Erabili da P. Urkizuk (Donostia, 1989) egindako bertsioa eta berau ere, Euskaltzaindiaren webguneko *Orotariko Euskal Hiztegia* lanaren bitartez kontsultatua.
- Bestalde, Real Academia Españolaren *Hiztegiaren* bertsio digitala kontsultatu da.







**BILDUMAKO IZENBURUAK**  
TÍTULOS DE LA COLECCIÓN

**1**

**Laudioko berbak** / Palabras de Llodio  
[2020]



**Laudioko herri-ondarea** izeneko bildumaren helburua **Laudioko udalerraren ondare-nortasuna** osatzen duten herri-kulturako adierazpen guztiak bildu eta ezagutaraztea da.

Lehenengo liburu hau, herri-lexikoaren altxorrari buruzkoa da, argitalpenaren unean oraindik erabili diren baina epe laburrean desagertzeko zorian dauden berbekin.



*El propósito de la colección **Laudioko herri-ondarea** es el de recopilar y dar a conocer todas aquellas manifestaciones de cultura popular que conforman la identidad patrimonial del municipio de Laudio.*

*Este primer volumen está dedicado al tesoro léxico popular, con una recopilación de palabras todavía usadas en el momento de la publicación pero en inminente riesgo de desaparición en un corto plazo.*



**Laudio** **Llodio**  
LAUDIOKO IBAR NOBLEAREN UDALA  
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LLODIO

ISBN 978-84-09-25933-5



9 788409 259335 >